



ATZERRI

MIKEL ANTZA

MIKEL ANTZA

Atzerri

 **Susa** narratiba

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2012 Mikel Antza

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2012ko urria

Edizio hau: 2012ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

atzoko

gaurko

kanpoko

barneko

erbesteratuei

Mont-Blanc Palace

2, ASTEARTEA

– **VOUS** allez voir comment il marche –esan die Kasperrek.

Gu zigor-ziegetara ekartzeko ardura hartu duen zaindariburua, *gradéa*, da Kasper; uste dut marrazki bizidunetako mamutxoaren itxura hartu ziolako asmatu ziola gaitzizena kide batek. Berak aitortuta dakigu jendarme izandakoa dela.

Eskuburdinak atzean lotu nahi dizkidala ohartuta, behin kide batek «gorputza indarrrik gabe utzi eta ikusiko duk zein larri ibiliko diren» esan zidala gogoratu eta lurrean eseri naizenean iragarri die gogoz kontra bada ere ibiliko naizela.

– Tu vas marcher –zemai egin dit segidan, beldar erremingarrizko ahotsez belarri ondo-ondoan.

Ni mutu. Elkarrizketa garaia amaitua baita.

Goizeko promenadarako jaistean zoruan eseriz blokeatu dugu modulua. Ordubete eman dute gurekin zer egin erabaki bitartean. Gure artekoen errealistek irabazi dute apustua, alegia ez zutela onartuko kartzelako zuzendariarekin biltzeko eskaria eta zigor-ziegetara eramango gintuztela: *les Basques au trou!*

Hedexuri ohia aditu doinuz mintzatu zaie uniforme-urdirin kideei, egiten ari naizena protesta baketsuetan erabiltzen den teknika dela azalduz. Atzera etorrita eskuburdinak jarri dizkidanerako ikararen izerdi usaintsua nabaritu dut galtzarbeetan. Ez diot aurre egin. Gehiegi estutzen zizkidala ohartarazi diodanean, gehiago estutu dizkit.

Orduan, ikus eta ikas, burdinak esposatzen dituen katetik helduz gorantz altxatu ditu nire eskuak besoak enborrera lotzen dituzten giltzadurek utzi dioten bezainbat, nola konpontzen den hau, erakutsi die matoiei.

Ikusi gabe irudika dezaket inguratzen nauten lauzpabost zaindariei begia kliskatzen, pixka bat gehiago tiratu du burdinetatik, azken bulkadatxoa gorantz, mendeku gosez jaikiko zen gaur Kasper, euskaldun terroristokin nola jokatu azaldu nahiko die bere *collègue* sasikumeei.

Min oihuarekin batera zutitu naiz.

Irabazi duela usteko duk garun-ustel horrek.

Nire kabuz tente mantentzeari uko egin eta gorputza hilda utzi dudanean, hankak tolestuta, burua nahitaez makur, bi besoak gora, nire gorputzaren zama guztia eskumuturrak xehatzen hasi zaizkidan esku-

burdinetatik zintzilik alarau egin dut. Gorputza zintzilik dudan besaburuetako giltzadurek zaratarik egin ote dute? Oihu egin dut. Entzun al du inork? Pixka bat gehiago altxatu dizkit esku lotuak, garrasi egin dut, pixka bat gehiago makurtu dut burua eta oin-punten gainean bizpahiru urrats egin ditut.

- Vous voyez comme il marche le Basque? Je vous l'avais dit -garaipen kukurrukua.

Haurretan gauzez lo hartu ezinean ilunpeko muntroak ez ikusteko bezala itxi ditut begiak.

Ez dira desagertu.

Hil dut gorputza berriro. Ez zekiten nire eskumuturrek nire giltzadurek hain astuna nintzenik. Alarau egin dut berriz oihu egin dut berriro garrasi egin dut ostera. Zertan ari haiz esan dit nire garunak, berak ere hain astuna nintzenik ez zekien nonbait.

Lurrera erortzen utzi naute.

Haserretu da Kasper.

- Il va marcher!

Berriro zintzilikatu nau eskuburdinetatik oihu ez nabil naramate ez dakit nola heiagora hankak dilindan txilio zabuan bezala garrasi besaburuak besoak eskuak eskuburdinak kate alarau.

Zer da hau? Izutu zait nire barrukoa. Ez gaituk horrela eramango zigor-ziegetaraino, ezta? esan dit. Ezin naute zigor-ziegetaraino horrela eramán, ezta?! Ihardetsi diot, zigor-moduluko aterainoko distantzia ber giltzaduretako min infinitua buruz kalkulatzén hasita ikaraz. Ezinezkoa da.

Moduluko atea zabaldu bitartean oin-punten gainean naukate doi-doi. Izerditan. Ibili beharko haiz, aski egin duk, aholkatu dit xaramelatsu Kasperrenaren antza hartu diodan nire baitako ahots zentzudunak.

- Tortionnaires! -oihu egin diet-. Segi horrela zuen Errepublika ohoratzen!

- Tu verras comme il marche -Kasperrek berrero, hatsa belarritik hurbil.

Kartzela osoa blokeatu duten arren lo ez dauden presoek abutzuko beroari aurre egiteko zabal-zabalik dauden leihoetatik entzungo dituzte nire aldarriak, aieneak, biraoak, begiratuko dute eta jakingo dute zer egiten ari zaizkigun. Ez da alferrik izango sufrikarioa, mozorroa kenduko diegu.

Elkartasun-adore oihu uste izan dudana loa nire oihuekin eragotzi diodan baten kexua da. Barrez ari zaizkit zaindariak. Oinetakoen puntekin errail paraleloak marrazten ditut, malkoen gainean.

- Marche! Marche! -haserretu zait beste bat.

Zuek ez duzue gure amaren odol nafarra ezagutzen, zuek ez dakizue aitona anarkista nuela, zuek ez dakizue mende erdi baino gehiago daramagula borrokan, zuek ez duzue ezagutzen gure herriaren historia, ezta guk ere ongiegi, baina berdin du, geneetan omen daramagu nonbait.

- C'est parce que tu ne marches pas que t'as mal -kupitu zait zaindariatako bat.

Matalas hankak arrastaka Sara eta Azkaine galantak gara ba gu euskaldunok Indotxina Didier Aljeria ikusiko duk nola Burkina Faso ez naizen ibiliko Kamerun bi besoak erauzten badizkidak Senegal Popo Mali Maddi ere Ruanda sasikume halakoa Pello Oihane Jon.

Ezin dute gehiago. Ezin dut gehiago.

Arnasestuka haiek. Hatsanka ni, ama, negarrez.

Makadama miazkatzen utzi naute, ama, tortura saioa eteteko erregutzen, ama, espainiarrak ote dau den beraien artean galdetu diet, ama, hala behar duela ziur, inozoa ni, zertarako baina espainiarrak, ez al ziren bada frantsesak izan vive la France vive la République, tortura modernoaren asmatzaileak, aita.

- Ça suffit, ça suffit! -erregu egin diet, nire burua egoera honetan ikusita ezin sinetsirik.

- Tu vas marcher?

- Marche! Marche!

- Si tu ne marches pas on va te faire du mal.

Lasaitu da nire negar-zotina. Lurretik altxatu naute. Bagoaz berriro. Ikara. Taktika aldatzea erabaki dute, zorionez. Hanketatik zabarki helduz airean naramate. Ez nabil! Atzean daramadanak ez du etsi ordea, eskuburdinetatik gorantz tiratuz besaburuak zigortzen dizkit. Burua bihurrituta ere ezin ikusi denen artean nor den hain kartsuki maite nauen Sadekoaren mireslea. Kasper galtzaile txarra izango da.

Ez nabil!

Zabalgunea. Hanketatik eusten didatenei fils de pute, salauds, eskuburdinetatik tiraka dabilenari lâche moi espèce de lâche, inguruan nabari dudan tropelari vous n'avez pas honte?

Kartzelako zuzendaria dator ikuskizuna lehen lerotik gozatzera tortionnaire! aurpegiratzen diot après vous voudrez parler avec nous? nire baikortasun xalok hartaratuta.

Sartu gara zigor-moduluan. Hemen ez dago leku korik. Askatu dizkidate hankak. Izu laborria eskailerak ikustean. Belaun-kolpeka zenbarazi nahi didate mailadia. Ai!

- Vous n'avez rien à envier aux espagnols!

Errepublikano baten garun-ustelak dar-dar egingo zuen, belaun txikizioa gerarazi eta eskaileretan behe-ra jaisteko agindu du, igogailuan igo nazatela, hara igogailua dago poztu zait Beñat nire gurutze-bidearen berri ematerakoan, berak hautsa kendu baitie mailei.

Igogailuan arnasa hartu dut berriro, indarrak bildu, tontorrerako azken kanpalekuan nagoela sumatuz. Bi datoz nirekin, ez dute aski indarrik ni airean mantentzeko, gaiztoek, ez naute lurrian pausatzerantz uzten, gaiztoek. Batek bihotz guri bere belauna jarri du nire hanka tolestuen azpian merci. Dantzari klasiko oin-puntak zoruan, eskuburdinetatik eutsiz mantendu naute haien artean, asteburuan dantzatokian limurtutako neskez eta lanetik irtetean haurren bila eskolara joan beharraz kalakan aritu diren bitartean.

Igogailuko atea ireki denean murru urdin ez izotzeko baina bai bezain hotza, eskaileretatik arnases-tuka igotako bizkartzainak.

- Tu vas marcher maintenant? -tematu dira berriro, besoetako giltzadurak borondatea baino sendoa-goak ote ditudan baiesten.

Ez al duzue ikasi?

Entzun dituzte garrasiak kideek. Entzun dut nik ere beraien zalaparta, oihuak, Gora Euskal Herria askatuta, tortionnaires!

Eztarritik bota ditut azken indarrak.

Aurpegia zigor-ziegako hormaren kontra mantendu naute eskuburdinak kendu bitartean. Gehienek alde egin dute ez nagoela ezpata-dantzan aritzeko konturatu direnean. Hiru ausart gelditu dira nirekin aurrez aurre.

- Fouille!

Biluzteko.

Hau ere zuen soldataren ordainean sartzen dela ulertuko duzue azkar. Zoruan etzan naiz. Ohe gainera igo naute. Biluztu naute. Haur gaizto bat bezala. Arropak banan-banan xehe-xehe miatu eta muino polit bat eginda utzi dizkidate alboan.

Kizkurtuta, belaunak bularrean eta besoak belau-nak besarkatuz egon naiz, nire biluztasunaz ezaxola, malkoak irensten, karrajuko hesia eta ziegako atea itxiz alde egin duten arte ez ditut zabaldu begiak.

Nire gorputz minbera estali behar dut. Kideak deika ditut. Itxaron. Bai, ondo nago. Kontatuko dizuet. Zuek? Mina. Sasikumeak.

Zehatuegi gaude tertulia literariotarako, igoeran norberak erabili bide eta tekniken xehetasunez aritze-ko, egindako denbora-markez eta egin dizkiguten gorputzekoez.

Janzten hasi eta sinesgaitz begiratzen diot galtze-tako gerrikoari. Oinetakoetako sokak ere utzi dizkida-te! Ia deitu diet: aizue!, ez dizkidazuela gerrikoa eta ajuetak kendu!

Zer den gizakia, ohiturazko animalia, asto makila-tua.

Ez dira buruaz beste egin dezadan beldur izango, pentsatu dut aurrena xaloki. Ez ote duten buruaz beste egin dezadan nahiko, hurrena gordinki. Aldiro estonutzen nau giza makurkeriaren eta zabarkeriaren mugagabetasunak. Adinak ez du dena konpontzen.

3, ASTEAZKENA

Bigarren eguna hemen eta aspaldi izan zela irudi-tzen zait.

Gorputza segituan ohitzen zait ingurune berrieta-ra.

Lehoia kaiolan bezala.

Lehoia kaiolan bezala, kontsolagarri engainagarri diot, beharbada. Zanpaketara egin naizela ez aitortzeko seguruenera.

Zein lehoi zein kaiolatan.

Madrilgo zooan ikusitakoak lasai ederrean zeuden aharrausika.

Amorruz orro zegiten Amarako Pio XII.aren plazan ezarritako zirkuan ikusitakoek esploratzaile patetiko-en zigorren mehatxuz ikaraz suzko zirrindolatik igarotzera etsita.

Nik ere egin nuen orro hiraz izuz atzo honakoan.

Orain aspaldi izan zela iruditzen zait.

Atzo artean halako bortxa ezagutu gabea nintzen, adin honetara zafratu gabe iristea ere bada marka.

Ni ekarri ninduten azkena. Arkitektura ezagutzen ez nuenez zigor-ziegen atalera iristen ari ginela irudituz zitzaidan bakoitzean egin nuen marru amorruz, tarte batez borroka eta adore oihuak gailentzen zitzaiykiela min garrasiei.

Ez ziren hutsalak izan alarauak, kideek ez entzun arren nire buruari kuraia eman eta une batez mina ahantzarazten lagundu baitzidaten.

Zaindarien kontzientziak inarrosteko ere balioko zuten, esan nion Beñati.

Barre egin zidan.

Barre egin genuen.

Arrazoi du, adinak ez du dena konpontzen.

Gizakiaren ontasunari eta eraldaketa gaitasunari dagokionean beti bezain inozo izaten jarraitzen dut.

Bihar ekarriko didatela zerekin idatzi. Betaurrekoak ordea ez dituztela aurkitzen. Postarik ez dagoela.

Moduluko gure ziegetan utziko zituztela gutunak esan diot zaindariari.

Baietz, han egongo direla segur aski, baietsi dit, baina ez dela bera bila joango den postaria.

Isildu naiz. Hemen badakigu zer dagoen.

4, OSTEGUNA

Hiztegian begiratu gabe ere ulertzen da zigor-ziega leku aizarotsu, ospel eta ainubea dela esanez gero.

Zorionez morroilorik ez duen ate bakarraz ixten diren Mauleko gazteluko bietako batean sartu eta minutu batzuk bertan egoteko esperientzia egin duenak ere ulertuko ditu hitz goibel horiek.

Ez da kartzela honetako kasua. Alderantziz. Kartzelaren barrunbeak iruntzietara jarri eta ganbaran

kokatu dituzte, azken solairuan, azken solariumean atera zait ia, zigor-lekuak.

Gaur goizeko egunsentiaren parekoaren oroime-nik ez dut.

Isolamendu modulura dakartenaren aurreneko zeregina norbere burua espazio geografikoan kokatzea da. *Mont-Blanc Palace* honetako biztanleetarik gehienek Meka bezala, euskaldunok Euskal Herria.

Uda minean gaude eta ekialde-ekialdera ematen du eraikinak.

Goizean goiz jaiki eta eguzkiari diosala egiten diot, giharrak esnatzeko, maite ditudanak nire barnean goxatzeko.

Eguzkia atera baino instant batzuk lehenago ohar-tarazten dut Beñat dei kodetua ezkerreko horman joz.

- Badator eguzkia!

Hormaz horma doa kodea.

Kide guztiok muturra kristal zikinari itsatsita gaude. Noiztik ez genuen hemen bezala eguzkia ateratzen ikusten. Han urrunean Alpeak ditugu parez pare, goizetan mendirik nabarmentzen ez dugun arren, elurrezko tontorretan islatuta iristen zaizkigu lehen printzak. Non gauden ere ia ahantzarazten digu ikuskizunak. Eskuinerantz bospasei zentimetroz baino

lerratu ezin dugun kristal lodi bikoizdun leihoa, burdinazko barren eta sarearen artetik sartzen zaigu airea, zakur nekatuaren albaina.

Arratsaldean, eguraldi ona badago, Mont-Blancen betiereko elurrez estalitako gailurra ikusiko dugu.

Metalezko mahaia hormari eta zoruari lotuta dago. Betoizko zilindro zabal bat dugu eserleku. Tente eseri behar da, segituan kentzen da jesarlekua mahaira hurbiltzeko ohitura. Ohe estua ere zorura zigilatuta. Karrajuko hesiaren ondo-ondoan komun-zuloa, zaindarien behatxulotik begiratuta ederki ikusteko moduan, eta harekin bat egiten duen egituraren harraska ñimiñoa, biak aluminiozkoak. Aurpegia garbitzerakoan komun-zuloko jesarlekua zipriztintzen da nahitaez. Distiratsu utziko ditut, egun hauetako batean garbitzeko beharrezkoak ekartzen badizkidate.

Sua hartzen ez duen gaiez egindako edredoi bat dugu sua hartzen ez duen gaiez egindako lastairaren gainean.

Argia karrajuko hesiaren atzean ezkutatu dutenez, piztean hesiaren barrek itzalez betetzen dute ziega. Neguan ez du samurra izan behar leku honek. Fresnesen ez bezala, hemen ez dago *extinction des feux* gaueko hamarretan, nahi dugunean itzal dezakegu,

eskua hesiko burdina-barren artetik luzatuz karrajuan dagoen etengailutik. Etengailuaren ondoan, erretzailentzat, autoetako supiztekoen moduko bat. Debekata dago ziega barruan supizteko edo pospolorik edukitzea.

Hala ere su hartzen dute ziegek.

Gerriko eta oinetakoetako sokarik gabe, buru-hiltzeen aurka Alliot-Mariiek oparitutako paperezko pija-ma hutsetan baino uzten ez dutenak ere, tematuz gero buruaz beste egitea lortzen duen bezala.

Goizeko zazpitan ireki didate atea lehen aldiz: gosaria emateko eta promenade eta dutxa nahi dudan galdetzeko. Hurrenkera horretan edo alderantziz. Goiztiar kopuruaren arabera betetzen baitituzte sei promenade kaiolak. Promenadatik zuzenean dutxara eta alderantziz. Ondo olioztatuta dute prozedura: beti hiruzpalau zaindariren begiradapean, preso bakar-bakarrak dago, zaindaria ez den beste inor sekula ikusi gabe. Edukitzekotan, promenadatik edo dutxatik itzultzean aurkituko dut posta ohe gainean.

Bazkaria emateko ireki didate atea hurrena. Afaria emateko ireki didate atea azkenik. Ordu bateko zain-tza-txandakoak, araudiak agindutakoaren kontra atea

irekitzen nekatu gabe, behatxulotik baiesten baitu bertan nagoela, bizirik-edo.

Promenadako ordubetea eta dutxan grafitiak egiten luzatzen garen denbora kenduta ziega barruan ematen dugu eguna. Ia hogeita hiru ordu.

Ez dago beste ezer.

Gela zabala da, modulukoa baino handiagoa, hustasuna nabarmentzeko egingo zuten, bakartasun sentzazioa handitzeko.

Zigorraren tamainak ondo betetzeko ziega osoa.

Zigor-ziegako atea ixten duten bezain pronto sortzen da bakardadearen ziurtasuna.

Itxitako atea irekitzera ez dela inor etorriko bihar mun arte, larrialdi deia eginda ere.

Legedian dago idatzia bakartasun hau ahalbidetzen duen zigorra. Zartailuaren jabe direnen eta kolpea jasotzen dugunon artean ahalguztidun ageri da hura bere idulkian, mendebaldeko jendarte moderno hedonistaren jainko bihozgabe, pairamenari, errukiari eta arrazoimenari soraio, dura lex sed lex, gehiengoaren ezaxola otoitz bihurtuaren bidez gurtua, gure bizitza anputatuen sakrifizioaz elikatua, gutako batzuen gorpuez ase, aldi-baterako, amen. Zuek hor eta gu hemen.

Badator eguzkia.

Badatoz zaindaria.

Istripu

Beti bezala, zaindarien aldaratearen arabera berreskuratu ditugu gauza batzuk; idaztekoak, gutun-azalak, zigiluak eta egunkari eta aldizkari batzuk ekarri dizkigute gaur. Hemen ez digute moduluan bezala hiriko egunkaria banatzen. Ez dugu irratirik; ezta telebistarik ere, noski. Euskal Herriko egunkariak ia astebeteko atzerapenez jasotzen ditugu moduluan; hemen?

Hemen, ezlekuan eta denboratik at gaude, kartzela handiaren barruko kartzela txikian.

Sei urrats eta leioa, sei urrats eta karrajuko hesia. Atzoko egunean pentsatzen hasi eta biharkoaren antza hartzen diot. Biharkoaz pentsatzen hasi eta atzo egindakoaz gogoratzen naiz.

Denbora presenteko nire unibertso murrizaren azken muturrerainoko esplorazio txangoek azkar eginguten dute tupust ezin atzemaneko botereek inguruan ezarri dizkidaten muga fisiko eta metafisikoekin.

Denbora futuroak ez du hona sartzeko beharrezkoa den igaro-baimenik.

Etorkizuna zulo honetatik irtetea hasiko da berriro ere bere utopiazko izara dantzarazten nire begi ameslarien aurrean.

Denbora pasatua baino ez zait geratzen berunezko aledun ordulariaren emari geldoari aurre egiteko, konpainia egiteko, iraganean nire buruaz atzentzeko.

Hemen gauzkate. Egonean.

Jasotzen ditugun agerkari eta liburuak gure artean elkar-trukatzea onartu digute bederen.

Bazkalorduan ekarri didate *Berria* zahar bat. Zaharrak beti berri kartzelan. Kartzelan egunkariak ez dute iraungitze-datarik. Upelan luzaroan ondutako ardoari bezala, denborak ematen duen perspektibarekin, erditu berritan ez duten zukua ateratzen zaie berripaper zaharrei. Maiz, politikari batek ezarian bezala aipatu-takoaren esanahi sakona ulertzeko, haren adierazpenak aste eta are hilabete batzuk geroago irakurtzea bezalakorik ez dago. Denborak, jakina da, basamortuko haizeak hondar metak mugitzen dituen bezala, hitz ederrez mozorrotutako zabor-metak agerian uzten baititu.

Jaso dudan argaldu honek ordea, orrialde ia denak, iritzia, politika, nazioartea, ekonomia eta baita kirolekoak ere faltan ditu. Berez, egunkariaren azalak

kulturako orrialdeak, eta ez denak, besterik ez ditu bil-tzen. Ustezko egunkari bat, egunkari ohi bat ez bada. Edonola ere, deus baino hobe. Egonarria bezala, dago-enarekin konformatzen ere azkar ikasten dugu mundutik aparteko esfera isolatuotan bizirautea dihardu-gunok.

Plastikozko erretilutik jaten hasi naiz, jateko-tres-nak ere plastikozkoak dira mundu honetan, zer gerta ere, azkar, bazka epela gehiago hoztu aitzin. Anoa es-kasa benetan. Goseak egongo gara, urdaila dieta be-rrira etsi bitartean. Gauerako azken ogi muturra utzi-ko dut, gurin amiñi bat eta azukrearekin ogitartekoa egiteko.

Sardexka erretilutik ahorako bidean gelditu zait. Erori da ore identifika ezina platerera. Irakurtzen ari naizen artikuluan, boligrafo gorritz inguratuta esaldi bat:

Zenbateraino izango litzateke ezberdina gaur egungo euskal letren mundua Joseba Sarrionandiak Martutenetik ihes egin izan ez balu eta Mikel Antzak klandestinitatera pasatzeko beharrik izan ez balu?

Artikulugileak beste zutabekide batzuekin murgil-duta dagoen eztabaida pipertzeko osatu du hipotesia. Aurreko artikulurik gabe ezin dut jakin eztabaidaren

abiapuntua zein izan zen, ezta ere galdera horri segidarik eman ote zion hurrengo artikulugileak.

Dударик gabe, egunkaria nire aurretik lumatu duenak niretzat propio nabarmendu du esaldia.

Ez dakit ordea zein asmorekin idatzi duen hori artikulugileak; zein asmorekin nabarmendu aipua egunkaria nire aurretik bere atzamarretan erabili duen kideak.

Begi-kliska egiten ari ote zait bata? Edo nire heriotza literario goiztiarrari hil-ohar sotila jarri nahi izan dio? Bizkarreko lagunkoi bat ematen ari bestea? Edo besterik gabe oharkabean irakurri gabe utz ez nezan nabarmendu du esaldia, atze-asmorik gabe?

Egunkari hondakina aztertu dut beste idazkunik ba ote dagoen, alferrik, ez baitago inolako mezurik.

Ni bezala, bazkaldu bitartean egunkaria irakurtzen irudikatu dut egunkaria igorri didan kidea.

Ezkerreko horman jo dut eta leihotik galdetu diot Beñati berak igorri ote didan egunkaria. Ez da bera izan. Hormaz horma joan da deia eta leihoz leiho egin dute galdera-erantzunek joan-etorria. Ez du inork go-goan halako artikulurik irakurri izana. Gutxiago ezer azpimarratu izana. Ez du inork boligrafo gorririk, gainera.

Egunkari soildua hobeto arakatuz olio orban bartzuk besterik ez ditut nabarmendu. Orbanen hedaduragatik zorua sukalkintzako zipriztinez babesteko erabilitako egunkaria dela dirudi. Halabeharrea nire izena ikusi, egunkaria berreskuratu eta niri helaraztea erabakiko zuen norbaitek.

Nork eta noiz ordea?

Eta nolatan iritsi da egunkari hau nire eskuetara?

Zaila egiten zait *Berria* irakurtzen duen zaindari euskaldun bat irudikatzea.

Hurrena atea irekitzen didan urdinari egunkaria nork igorri didan ba ote dakien galdetzea baino errazagoa, guztiarekin.

Probokazioa? Agian. Norena eta zertarako?

Begi-kliska edota bizkarreko lagunkoia izan ezik, dena delakoak ez ote dit erronka egiten esaldi gorritu hori medio?

Hara, bakartze-egoeran zenbaterako eman dezakeen egunkari batean azpimarratutako esaldi batek! Nolako eragina izan dezakeen!

Inor ni probokatzeko asmoz badabil, alfer-alferrik dabil.

Literatura idaztea oso aspaldiko kontua baita niretzat. Nostalgiaz gogoratzen den aspaldiko maitale dut.

Une zoriontsuak pasarazi ez ezik, etorkizun alai eta joria iragartzen dizuten maitale horien antzekoa. Bat-batean, ia ezarian, baina arrazoi oso argiengatik bertan behera uzten dugunetakoa, gaituenetakoa. Gure artekoa ederra izan zitekeen baina ezinezkoa izan da, badakizu, zoriak, halabeharrak, bizitzak gure bideak banantzera eramane gaitu. Ez negar egin. Ez dut negar egiten. Baina egingo zenuke. Utzi bakean, ez izan krudela. Ez naiz krudela, hobe errealitatea den bezalako ikustea. Gorrotorik gabe. Izan gaitezen lagun onak. Nahi duzunean zatoz neurera eskainiko dizkizut eleberrri eder batzuk astia duzunean komunean irakurtzeko baina jadanik zure esku herdoilduak baldar kamuts hebain ezgai ezdeus ez dira idazlearenak ez ukitu min ematen didazu lakarregiak dira fereka goxoetarako lirikarako hitzekin jolas egiteko esaldi zurrun horiekin nora hoa proselitismoa egin dezakek konbentzitu dituk konbentzituak baina xarma sorginkeria arima hegan eramateko beranduegi duk hire aroarenak egin dik barkatuko didak konfiantza egun onen eta izan zitezkeenengatik permitituko didak doluminak eta eskumuinak hik dakizkianen partez ez haiz bakarrik kontsola hadi eta goza nazak, begiekin.

Inork gutxiak daki ordea hainbeste denbora pasatu arren oraindik ere ametsetan maitale sutsu azaltzen zaidala. Goizaldean pixa egitera esnatzean oroimenaren mugan ikusten ditut loaren magalean idatzi uste izan ditudan istorioak poemak bertsoak tragediak. Lokartu aurretik irakurritako Claudelen Canoren Sebalde Sarrionandiaren Darriussecqen Aranbarriren Kobayashiren liburuetakoa istorioek nire baitan ustez hilda dagoen mundua inarosten dute. Sorkuntzaren lamiak ez direla guztiz zendu, kontzientziak zelatatzen ez dituenean, hildakoa egiteari utzi eta haiengana deitzen nautela amestu ote dudana sentimenduekin sartzeko naiz osteraz izara artera, begiak indarrez itxiz, datozela datozela datozela, marmarka lokartu aurretik, zatozte zatozte zatozte, salba nazazue.

Bi hamarkada inguru literaturarik apenas irakurri gabe egondakoaren bulimiaz irensten ditut orain orrialdeak. Baina urtetan ere aurrera goaz eta urtean berrogeita hamar liburu irakurrita ere, erraza da hil aurretik irakurri ahal izango ditudan liburuen kalkulu gutxi gorabeherakoa egitea.

Hizkiak iragazten ditu herio-ordura hurbiltzen nauen hareazko ordulariak.

Uko egiten diot jada irakurritako liburuek berrira-kurtzeari, lehen orrialdeak heldzen ez nauten liburuekin tematzeari; ez bada hemen, zigor-ziegan, bazkariarekin gurditxo batean ekartzen dizkiguten liburuen artean bakar bat hautatu beste aukerarik ez dagoelako, frantsesez noski.

Hoa Urainen *Ez dago etxean* irakurtzen hasita duala eta ea hire gauzen artean bilatu eta ekarriko diaten eskatzera. Toki ederrean gaudek horretarako.

Euskal literaturari buruzko aipu horrek gogora ekartzen duen garaian ordea ondo helduta ninduen literaturaren harrak.

Gutxi usteko nuen ikarotxo, gau-eltxo, sanjoan gauean Herrera de la Manchako patioa betetzen zuten suzko egunkarien magiak, lehena argitzen duen Artizarraren lilurak erakarri eta kiskalita galduko nituela hegaletako lumak, banan-banan, itsasora jausi eta handik ez askora ur azpian desagertzeko.

Ez nuen espero ere desagertzean Dedalo gutxi bartzuen lantuz gain, Brueghel Zaharraren margoan bezala, laboraria goldearekin, artzaina ardiekin, arrantzalea, hain hurbil eta hain ezaxola, ur-azaleko artelatzaren balantzei adi, bizitzak ezer gertatu ez balitz bezala -zer gertatu zen bada?- aurrera egingo zuenik.

Egunkariak egunero argitaratzen jarraitu zuten, langileak beti bezala lantegira joan ziren, tabernak ez ziren hustu; ezer gertatu al zen bada?

2

Sei urrats, leihoa, sei urrats, karrajua.

Hemen naukate, hemen gauzkate, denbora mugagaberako, ez baikara irtengo gure eskabideei jaramonik egin ezean.

Leihorantz noala ezkerrera, karrajurantz eskuinera, mahai gaineko egunkariari begiratzen diot, artikuluari. Distantzia honetatik ezin ditut hitzak bereizi, soilik esaldi bat zirkulu gorri baten erdian, suzko gezi bantentzako itu.

Leihotik begira jarri naiz. Industriagune baten erdian dago kartzela. Logistika enpresak dira gehienak inguruan; urrunean kea darien tximinia batzuk.

Egunkari soilduko esaldi apur bat fribolo horrek hogeita sei urte lehenagoko gertaeren oihartzun kamutsa dakarkit oroimenera. Ahantzia nuen gertaera

bat etorri zait gogora tximinien ke zirimoletan gora. Nire borondateari jaramon egin gabe nitaz jabetu eta menpean hartu nauen oroitzapen-uholde bihurtuz.

Zementuzko idulkian eseri naiz. Papera, boligrafoa, zirkinik egin gabe, iraganeko gertaerak gogoan, Rodinek zizelkatu gabeko *Idazle* antzua.

Nire urtebetetze eguna ospatzeko joanak izango ginen Oreretara. Hogeita lau urte bete berri nituen. Ahaztua dut zein tabernatan afaldu genuen. Errepidearen alboko enparantza horretan bizpahiru taberna eta jatetxe zeudela gogoratzen dut. Ahaztua dut herriaren erdigunean dagoen enparantza horren izena ere. Zuhaitzak ditut gogoan, errepidea, errekaren beste aldean lantegiak, jatetxe ospetsu bat.

Errepidea eta erreka bertan egongo dira. Isuritako trafiko eta zikinkeria gutxiagoz. Kamioiena aspaldi desbideratuko zuten. Lan-jantzi urdindunak ere orduan baino urriago izango dira, ziur. Denbora izango da afaldu genuen jatetxe hura ere itxiko zutela. Jabea hilda egongo da agian. Auskalo zer izan den zerbitzari izan genuen neskaz. Ezkondu eta haurrak izango zituen seguruenera. Orduko Orereta Errenteria bihurtuta asmatzen saiatzen naiz.

Ez nuke ezagutuko. Bada denbora Polizia armatu espainiarraren oldarraldiei aurre egiteko ezagutu genituen barrikaden garaiak gatazkaren zurrunbiloak gainditu zituela. Lana du sinesteak igande arratsaldeetako jendartean, zaintze-txandan zebilen zipaio bikote herabeari txapela nork kenduko jolasean aritzen zirela gaztetxoak. Beste hamaika fronte ireki eta itxi dira geroztik.

Ez, egia esateko ez nago batere ziur nire urtebetezeari ospatzeko joan ote ginen aldizkariko laneko autoa hartuta Donostiatik Oreretara.

Oroimenaren lausotik berreskuratzen ditudan irudi gutxi batzuekin kontakizuna berrosatzeko, 1985eko Euskal Herria nolakoa zen irudikatzen saiatzen naiz. Zer janzen genuen. Nola mintzatzen ginen. Zerekin amesten genuen, taldean eta gure baitan.

Gazteak ginen, eta dena egiteko bagenuen ere, egin beharreko guztiak eginda bagenu bezala bizi ginen gure belaunaldikoak: ezaxola, kartzelan, atzerrian ihes, inguruko etxeren batean hurrengo ekintza prestatzen. GALeko mertzenarioek Baionako kaleetan errefuxiatuak tirokatzen zituzten. Dolu manifestazioetara joaten ginen, Bretxako merkatura joango bagina bezala, hitzordurik gabe, egunerokotasunaren baitan,

«Literatura eta konpromisoa» izenburu ponposoa zuten hitzaldietatik irtetea. Gauak egunaren buztanari heltzen zion eguzkiaren aginduari jaramonik egin gabe. Egunsentiak oharkabea eta maitearen besotetan edo kruasan egin berriak erosteko obradore baten usainean harrapatzen gintuen, gurasoen etxetik eramandako Olivetti zaharrea ipuin gaiztoaren bat asmatzen, poema sutsu baten hitz akuatikoekin itolarrian, magnetofoi zaharretik gaizki grabatutako elkarrizketa bat deszifratu ezinean ez bazen.

Egunak, asteak, hilabeteak, urteak. Etorkizunak ez zuten zentzurik orduan. Soilik, hurren argitaratu beharreko liburuaren frogak zuzentzea, elkarrizketarako hitzordua lotzea, argazkiak errebelatzea. Atotxako merkaturako lokaleko proba-saiora beranduegi ez iristea, idazmakinarako kalkoa eta tinta-bobina beltz eta gorria erostea, hurrengo aldizkariaren plangintza, Bilintxera inoiz itzuliko ez genituen azken nobedadeak maileguz hartzera joatea, euskarazko irakurle urriak irakurtzera akuilatuko zituen lausenguzko aipamen laburrak idazteko eta *Eginera* erredakzioa itxita zegoenean argazkiak errekeisatzera. Alde Zaharrea barrena Astelena ireki ote zuten ikusteko itzulitxo bat egitea, arrain-pastel pintxoak jan eta amontillado bana edate-

ko. Ez genekien pogoia dantzarazten zizkiguten kantu sortu berriak ia hogeita hamar urte geroago oraindik ere boladan egongo zirenik. Garaiko egunerokotasunari prosa, poesia, kazetaritza, antzerkia eta egokitzen eta behar zena jartzen jarduten genuen. Euskaraz. Lehen argazki-nobela euskaldunak esaterako. Gure mundua txikia zela ziotenak oker zeudela genekien. Ez genuen handiagoa behar. Gure mugak gure herriarenak ziren. Pobre ginen. Eta zoriontsu. Aberats, beraz. Eta ezetzik ematea zer zen ez genekien.

Oreretako afari hori egin genuen garaian hasi nintzen ordularia eramaten. Hitzorduetara *ttanko* iritsi behar zela ohartarazi baitzidaten lehen hitzordu klandestinoan.

Ez, Oreretako taberna horretan ez genuen nire urtebetetzea ospatu. Nire urtebetetze eguna egun batzuk lehenago izan zen, eta egun horretan Iruñean nengoela oroitzen dut, Korrikaren amaiera jaialdian. Bertan, Antoniutti parkeko gaueko ekitaldian, agertokitik urrun Ruper Ordorika kantaria topatu genuela xuxurlatzen dit nire memoria aldrebes honek. Neska-laguna aurkeztuko niola pentsatzen dut eta Martuteneko kartzelara egindako azken ikustaldiaz mintzatuko ginela, Joseba adiskidea gogotsu aurkitu zuela eta ho-

rrelakoak. Neska-laguna eta biok Nafarroan barrena genbiltzan asteburu luzez, bakantzatxoak hartzea proposatu bainion laneko zama arindu behar nuen aitzakiaz. Ordurako banekien ordea uda horretan Portugalen barrena Pessoaren Lisboaraino egin asmo genuen oporretan joaterik ez nuela izango. Eta azken bi daia izango zela nekiena Nafarroan barrena egin nahi nuen, begiak Otsagiz eta Artzibarrez, Arbaiunez eta Irunberriz, Tafallaz eta Hiriberriz eta Iruñeaz bete nahi nituelako. Ez baintuen berriro luzaroan ikusiko. Gauzak ondo, erbestea nuen zain; gauzak oker, kartzela. Bata edo bestea, hilabeteko epean asko jota, ordura arteko bizimoduaren amaiera zetorkidan. Beste mundu batera jauzi egitera nindoan.

Ez nekiena zen nire neska-lagun, lagun-min eta senideentzat progresiboki, desagertu egingo nintzenik, gatazka lauso baten ganduaren atzean, hondo sakoneko itsasora erortzen zaigun urrezko idunekoa bezala. Denbora luzerako; betirako, agian.

Itzultzeko antsia, bularraren erdian sartutako arpoi, malkoen mugetan, harrezkeroztik eztarria barrutik urkatzen didan arantzazko korapilo, urteotan ametsetan baino eta hain maiz ikusi ditudan lurralde, lagun eta uneak memoriaren formolean ditut. Behiala-

ko lagunak lanpetuta eta alai, ileak eta bizarrak baldar, grinatsu eta solasean irudikatzen ditut, oraindik.

Bekaizti begiratzen diot jadanik ni ez nagoen zorion irudikatu horri.

Ez zen beraz nire urtebetetzea; garaitsu hori zela badakit ordea. Izan ere, gidatzeko sukarrak hartuta nenbilelako izan nintzen Donostiatik Oreretarako joan-etorrian bolanteaz jabetzeko boluntario.

Lehen hitzordu hartan gidabaimena ba ote nuen galdetu zidatenean ez nuen gezurrik esan. Gidatzen ote nekien galdetu izan balidate ordea, garai batean jakin nuela erantzun beharko nukeen. 70eko hamarkada amaieran Otxarkoagan gidabaimena atera nuenetik bost urtez autorik hartu gabe igaro ondoren, gidatzen berrikasi behar nuen, eta ongi gainera, egin beharrekoa egingo banuen.

Hartara, edonora joateko nire burua gidari aurkezteko nuen bat-bateko jaidurarekin harritzen zitzaizkidan lankideak. Ordura arte, laneko Simca 1200 kaxkarrari muzin egiten nionez, huts eginak baintuen Donostiatik kanpoko hainbat hitzordu eta antzerki estreinaldi, nola edo nork bertaratu aurkitu ez nuelako. Gero, erredakziora telefonoz deitzen nindutenean desenkusutzen saiatzen nintzen, garraio publikoaren or-

dutegiari egotziz errua. Antzerki munduko jendea ordea mesfidatia da oso, eta nire hutsegitearen atzean aldizkariak edo neronek beren *troupearen* aurkako joera ezkuturen bat ote genuen galdetuz egiten zidaten errieta.

Menua afaldu genuen Oreretako taberna hartan. Entsalada mistoa, lar oliotsua, xerra eta patatak, koi-petsuak eta gaziak, azkenbururako fruituak, flana edo *tartahelada*. Nik flana. Ardo arrunta, pitxarrean. Neurrian edan genuen. Afalosteko kopa Donostian hartzea proposatu zuen norbaitek.

Beraz, zer arraiotarako joan ginen ekaineko egun horretan Oreretara, saiatuta ere ez dut gogoratzen.

Autoan estu gindoazela bai ordea. Estu eta alai. On the Road liliput.

Kopilotuaren aulkian Xabier doa. Adiskidea, kolega. Poema liburu on pareka argitaratua du jadanik. Eta aldizkari literarioan itzulpen on batzuk ere. Bera da punk musika gureganatu duena, atzerriko jarrera apurtzaileen eta azken joera literarioen berri ematen diguna. Gure txokokeriatik aterarazi eta ausart egin gaituena. Oraindik ez da musikari ezaguna, nahiz eta hein handian berari esker ernatu den euskal musikagintzaren berrikuntzan eragin handienetakoa izan

duen taldea. Bere ahots sakon eta bereziarekin entzulea barnebiltzeko gaitasuna guztiz garatu gabe dauka oraindik. Crooner aparta izango da Xabier. Eta narra-tzaile joria. Euskaldun-berriaren tema setatsuz azter-tzen ditu idazkiak, erdarakaden ehiza gupidagabeen. Adierazpenaren zulentasunaren xerka. Bere blue-jean jaka eta galtzak, betaurreko biribilak, kalpar errebol-taria ditut gogoan. Urte batzuk lehenago, Herri Irra-tian punk musikari buruzko saio bat egiten genuen bera alma mater, euskaraz, gaueko hamaiketan. Lon-don eta Estatu Batuetako azken joerak zuzenean, *rara avis* urrientzat. The Damned, Sex Pistols, The Clash, Buzzcocks, The Undertones, New York Dolls, The Stranglers. Gau-txori gandordunak apaizen irratian punk-musika euskaraz entzuten.

Atzeko aulkian beste hiru lagun-min doaz estu-estu.

Xabierren atzean, autoko irrati-kaseteko musika-ren erritmoa oinekin markatuz kanutoa biltzen doa Eneko. Gu boston arteko alaiena bera. Arduratsua eta langilea, baina baita ere une batetik aurrera, jai egite-ko ordua iritsia dela erabakita, bere inguruan babes-jantzi ikusezin bat eraikitzeko gaitasuna duena. Ardu-rak eta kezkak bere buru gainetik bost bat zentimetro-

tara gelditzen zaizkio orduan. Gainera, alaitasun kutsakorreko gaztea da. Lanegun aste astun baten ondoren festa egiteko kide aproposa, inondik ere. Antzerki munduan bidea egina du dagoeneko, eta etorkizun oparoa izango du mundu horretan. Ni eklektikoa naizen hein berean da bera gai bakarrekoa. Ginsberg García Rilkeren poesia eta Tennessee Pirandelloren antzerkia. Ados, bi gai dira, baina antzekoak. Ordurako bostok poema mordoa idatzia dugu. Absentaz bustitako poesia erre-zitalak antolatzen genituen. Itzalezko antzerkian Maria Magdalena Jesukristo gurutziltzatuari zakila jaten ari zitzaion bitartean irakurtzen genituen poemek eragiten zuten eskandalutxoekin disfrutatzen genuela ezin uka. Eta Eneko da ekitaldien zere monia maisua, ikuskizunaren mundua zainetan darabada, badaki nola antolatu, zerekin hasi ikuskizuna eta zerekin amaitu. Elkarrengandik urrunen gindoazen auzoan, baina elkarrengandik oso hurbil geunden bizitzan, nik idazten nuena berak sina zezakeen eta alde-rantziz. Pertsona berarekin maiteminduta geundenean ere, fantasia, gezur eta minen gainetik lagun-min.

Iñaki doa estu-estu, erdian. Iguaitsu janzten dugu berak eta biok: blue-jean galtzak, alkandora zuria, txa-

Ileko beltza. Biok ala biok ditugu antzeko betaurreko biribilak. Ilea luze, albo banatara orraztua, bizarra *ahal-denean-behin* eginda daramagu. Aniaztat hartzen gaituzte, eta guk ez dugu gezurtatzen. Garai hartan inguru batzuetan euskal kulturgintzak sortzen zuen mesfidantzak eraginda, gure *looka* Euskadiko Ezkerreko kide *progreena* zela egozten ziguten maiz ENAMaren ildo zorrotzaren zaindaritzat genituenek. Eta ez genuen lanik hartzen nahasketa argitzen. *Enfant terriblearen epatatze*ko sindromeak jota. Euskal kulturaren aldeko gure ekinbideak astez aste eta baita egunez egun ere sailkatze politiko murriztaile oro gezurtatzen zuelakoan. Jelkideen kultur politikaren zigortzaile, barkaziorik gabe aztertu eta jipoitzen dugu Lakuatik iristen den proposamen eta ekimen oro. Guztiak. Erabat konbentzitura gaude beste zerbait dela egin beharrekoa. Eta aurrena, Iñakik oso argi du hori, Joxemik irakatsia: plangintza. Bera da auto horretan goazenon arteko serioena, zentzuzkoena. Jadanik ordurako jakin baleki bezala zer nolako lan garrantzitsuak bete beharko zituen etorkizunean. Gorbata jantzi beharko zuela. Txantxetarako ere aparte bezala gelditzen da. Gure artean, ikuspegi estrategikoa aurrena barneratu zuena zelakoan nago. Eta ez idazle

izateko balio ez zuelako, baizik eta gure herria literatur lore-joko hutsetarako ez zegoela besteok baino argiago ikusia zuelako. Donostiara bidean goazela, bizkarrean zama handia hartuta dator Iñaki. Atzerako ispilutik begiratuta gure begiradek topo egin dutenean, esango nuke errepideari ikara pixka batez begiratzen diola. Bere modura, hitzik gabe, argi ibiltzeko esaten ari zait, errieta lagunkoian. Tragediari usaina hartua bailion. Bere ezkerretara doan Josurekin, Joxemirekin eta beste askorekin batera egindako ahaleginari esker, handik urte gutxiren buruan euskarazko egunkariarekin gosalduko dute euskaldunek.

Atzean daukat Josu. Bizkarrean sentitzen ditut bere belaunburuak. Nahita ari dela iruditzen zait. Xaxatzen. Bera ere denon antzera alaitsu dago. Poeta sentibera. Langile nekagaitza. Dagoeneko erakutsia du pertsona batek, euskararen militante batek, zenbateraino eman dezakeen. Baina, artean, berak jakin gabe, loratu berri den kimu bat besterik ez da. Lan egiteko makina nekagaitza. Hurbiltzen zaion edonor *engainatzeko* duen gaitasunari esker biderkatzen da gure ahalmen urriarekin euskal kulturaren arloan egin genezakeena. Ereduek emanek lortzen du hori. Lana bukatuta etxeratzen diren horietakoa da Josu. Eta gure

alorrean lana bukatzen ez denez, fitxatzen ez dugunez, soldata finkorik ez dugunez, asegururik zer den ere ez dakigunez, zergak ordaintzen ez ditugunez, Joxemiri ikasita diruak duen balio bakarra zorreatatik proiekturen bat argia ikusi gabe ez gelditzeko ordaintzekoa denez, lantokia du etxe. Egun argiak bulego azpian lozakuan sartuta harrapatzen du Josu askotan.

Lanak bukatu eta etxera abiatzear nengoela xaramelatsu hurbiltzen zitzaidanean, akabo! «*Kaliforniara* gosaltzera gonbidatzen haut». Etxean ez nuen telefonorik, berandu iritsiko nintzela ohartarazteko. Biharamunean, lanean pasatako gaupasaren ondoren, Abenidako Californian bapo gosalduta etxeratzean, doi-doi neska-lagunak lanera alde egin aurretik, «nondik hator» haserretu eta mesfidatiari, *sinesten-ez-badidazu-ere* doinuz esandako «Josurekin lanean gelditu naiz» batekin erantzungo nion. «Ezkon hadi berarekin!» egiten zidan arrapostu haserre. Izan ere, ohe berean egiten genuen lo neska-lagunak eta biok, ez ordea elkarrekin astean hirutan gutxienez, astekaria, literatur aldizkaria, astelehenetako *Eginen* gehigarria eta beste zirela kausa. Bere gorputzak utzitzako epeltasunean sartzen nintzen maindire artera, bera maindire hotzetan bakarrik oheratzen zela jabetzeke. Gure

belaualdiko askok geneukan ezetz esateko ezintasunari egozten nion orduan errua.

Esan daiteke, Simca 1200 laranja metalizatuan goazen bostok gorenean gaudela, erpinean, euskal munduan ezagunak gara. Harrotasun puntu bat ere badugu, jabetzen baikara guk sustatzen dugula garai-ko ekoizpenaren parte handi eta eraginkorrena, gure iritzi apalean harrotasunez esanda, noski, eta besteei, trantsizio politikoaren sirena kantuekin mozkortuta, damutu eta instituzioen abaroan poltsikoak eta gerrialdeak loditzen hasi direnei, egurra banatzen diegu, haiek guri, umemoko zaildu gabetzat gauzkateno, banatzen diguten neurri bertsuan. Bost axola guri!

Bostok gara lagun-minak. Estu eta alai goazen bost etorkizun. Musikaren zarata. Kanuto-usaina barreiatu da. Iñakik leihoak irekitzeko eskatu du. Laurak ireki ditugu. Badatorren uda-giroa sartu zaigu zirimolaka. Buruak atera eta oihu egin al du norbaitek? Hala beharko zukeen.

«Baietz hamar minutu baino lehen Donostian». Edo, «Ezetz hamar minutu baino lehen Donostian». Nik egin ote nuen erronka? Edo beste norbait izan zen? Ni izan nintzelakoan nago. Nirea baitzen autoa

gidatzen zenbat aurreratu nuen erakusteko tema, nolako ziurtasuna nuen ikusarazteko egoskorkeria.

Azken aldian nire baitan isilpean daramadan kezka uxatzeko botako nuen erronka. Ez baitiezaioket inori eman gertatzen zaidanaren berri. Sumatuko zidaten zerbait. Amodio kontuak, pentsatuko dute. Azken bizpahiru hiletan, nora noan esan gabe abiatu izan naiz aldizkariaren lokaletik batzuetan. «Honek ligatu dik eta neska-lagunari adarrak jartzen ari zaiok», pentsatuko zuten. Galderei zeharka erantzuten diet. Ustez egitera joana nintzen elkarrizketa eta erreportajeen emaitzak ez dira erredakzioan agertzen. Antzerki proba-saioretara lehen baino beranduago iristen naiz, ameskeriazko aitzakiak hortz artean. Begi-zulo sakonak ditut. Galtza barrenak nasaiegiak. Oso aldian behin gurasoenera egiten dudan horietako ikustaldi arin batean ama kezkatu egin zait, aski jaten ote dudan, «Horrela hasten bazara ez naiz gehiagotan etorriko!» erantzun diot zakar oharkabean igarle. Enkarguzko literatur lanak epez kanpo ematen ditut, edo ez ditut ematen. Ez da posible! Eta autoa gidatzeko grina hori! Edonora joan behar dela, beti ni gidari. Gero eta trebeago. Nahitaez.

«Baietz hamar minutu baino lehen Donostian».

Autoan etorkizunez betetako bost lagun.

Donostiarako bidean errepidea bitan banatzen den leku bat bada. Maldan behera egin eta ezkerretara horma altxatzen da.

Biharamunean dut hitzordu erabakigarria. Urduritasuna mozorrotu behar dut. Besteek ere izango dute makina bat kontu konpontzeko, agenda gisa erabiltzen ditugun kaiertxoak hitzorduz beltz daude: aste-karia, asteleheneko egunkariaren gehigarria, literatur aldizkaria, musika taldearekin proba-saioa, kultur munduko eragileekin bilerak, antzerki-taldearekin proba-saioa, beste antzerki-taldearekin beste proba-saioa, hirugarrenaren emanaldia, bi hilerokorako artikulua, elkarrizketa. Ordurako zurrunbiloa zena, zer ez ote zen izango etorkizunean. Eta nire huts egin ezinezko hitzordu hura...

Gehiago sakatu diot azeleragailuari, auto bat aurreratzeko.

Xabier izan da ohartarazi nauena. Bere-berea duen araztasunez, ahotsean larridurarik gabe, kanutoari xurgada luze bat emanaz, ez gara iritsiko amaitu aurretik, beste bat egin beharko didate.

- Kontuz, Mikel.

- Lasai, Xabier -nik ere dardarik gabe, dena kontrolpean dudala nabarmenarazteko.

Berak bezala, Josuk eta Enekok gogor oratzen diete ate gaineko eskulekuei. Iñakik, aurreko bi eserlekuei heltzen die eskuekin. Segurtasun uhalik ez daramagu jantzita inork.

Dagoeneko data jarrita dago, badakit elkarrekin egongo garen azken aldia dela, azken afaria. Alkoholak eta lagunen alaitasunak guztiz ezabatu ezin duten tristura gandu bat jarri zait begietan. Zoriontsu gara, eta dena amaitzera doa. Ondorioak, niretzat eta hurbilekoentzat, zer nolakoak izango diren irudika ez ditzakedan arren. Ondorioetan ez baitut pentsatzen.

Garunaren zoko batean gordeta izan dut orduan nitaz jabetu zen izu-laborria, eskuen izerdia, ahoaren lehorra.

Kamera geldian bezala oroitzen dut orain bidaia.

Autoa dar-dar batean daramat. Ezkerreko karrilerara jo dut apustua galaraz diezadakeen dortoka aurretatzeko. Ezkerreregi joan zait autoa. Horma jo dugu ia. Eskuinera zuzentzen saiatu naiz; ez dela egin behar dakidan arren, gainditzen ari garen *cuatrolatasari* zeharka begiratu diot.

Begiak itxi ditut lipar batez.

Oso azkar gertatuko zatekeen. Bi eskuekin sendo oratu arren bolanteari; alferrik. Aurreratutako autoaren balazten intziria. Bostok nahas-mahas, beso, hanka, buru, burdina artean. Eskuin aldeko babesean iltzatuta Simca 1200a.

Bost etorkizun eten. Zer ginen eta zer izan gintezkeen. Gu eta gure hurbilekoak. Eta ezagutu eta maitatu behar genituenak. Gure ondorengoak eta gure ondorioak. Gure egintzak eta gure ekintzak eta azken hiletako nire obsesioa, «Ongi aterako da, lortuko dugu». Guztiaren amaiera. Bizitza, etorkizuna, patua, halabeharra, zorigaitza, asturua. Istripu bat.

Begiak ireki.

Errepidean goaz. Irabaziko dut apustua. Errieta egiten ari zaizkit. Autoaren kontrola galdu dudala. Gehiegi edan dutela esaten diet, eta gidariari ez zaio la hitz egin behar.

Ategorrieta. Arantzazuko Amaren klinika. Grosen gaude.

- Ez nauk gehiago hi gidari hoan auto batean igoko -esan dit Xabierrek, ezjakintasunean azti-, ez haiz fidatzekoa.

Autoa aparkatzeko leku bila gabiltzala, kakati hutsak direla esan diet. Erabaki dezatela nork ordaindu behar dituen lehen whiskiak.

Gau hartan Alde Zaharreko kaleetan nahas-mahas barreiatu ziren boston barre algarak.

Azken aldiz.

Ez nuen kale egin biharamuneko hitzordura.

3

Artean ez nekien erbesteak mututuko ninduela. Niretzako lege eta arau berri eta ezezagunak zituen mundu batean murgiltzera nindoan.

Prentsaren bidez, lagunartean entzundakoengatik eta adiskide batzuei noizbait egindako bisitengatik ezagutzen nuen errefuxiatuen mundua. Bidasoaz harago zegoena askatasunaren sinonimo zen, pilula, ginekologo, film debekatu, porno, modernotasun eta saltoki handietako dotorezia. Liberetan ordaintze hutsa ezinbestean Francoren soslai potzoloarekin lo-

tutako pezeten menpekotasunetik askatzearen sinonimoa zen.

Hendaiatik gora eguzkiak beste argitasun bat du, etxaldeek irribarre egiten dute, hexagonoko turistak eta hirugarren adineko erretretadunak erakartzeko bezala.

Legasseren Gaudiosok esandakoa baiesteko aukera izango nuen. Alegia, Bizkaia eta Gipuzkoan ibilian-ibilian eta eskuinetik ezkerretara eskobatzen bada eta Nafarroan eta Araban beste aldera eta mugitu gabe, probintzia frankoekuskaldunetan errebeldiaren hautsa harrotzeko beldurrez, ez dela batere eskobatzen, hemendik hauts pittin bat kenduko dute, handik beste pittin bat, eta ondoren Paueko argizaria emango lurrari. Horrela ezer ez garbitzeaz gain, den-dena lokaztuz.

Murgiltze azkar bat bezalakoa izango zelakoan nengoen ordea. Txikitan kaitik jauzi egiten genuenean bezala. Asko jota gabarroia alderik alde azpitik trabeskatzea bezala. Ez nion beldurrik murgiltzeari, igerilekua luzean trabeskatzen nuen ur-azpitik.

Gipuzkoan must egin, Lapurdin atera burua, eta kito.

Gurasoenean «beste aldea» eta aitona-amonarenean «l'autre côté» gisa izendatzen zen horretan, eza-

gutuzen nituenekin elkartuko nintzela, besterik gabe. Ordura arte egiten nuena egiten jarraitu ahal izango nuela, aldizkarian kolaboratu, literatura idatzi, antzerki-emanaldien kritikak, irrati libreetan kolaboratu, hitzaldiak eman, antzerkiaz, euskal rock musikaz, literaturaz, errefuxiatu moduan.

Zein oker nengoen.

Aurrerantzean ezingo nuen begiekin ikusten nuenaren berri eman. Ezagututako jendeaz ezingo nintzen mintzatu. Egondako lekuen izenak ezabatu beharko nituen oroimenetik.

Gudu-zelai baten erdian nengoen bat-batean lubaki itxurarik ez zuten Baiona Tipiko karrika ilunetan urrats isiletan, auto batetik bestera jauzi eginez, nire bizitzan behin baino ikusiko ez nituen jende adeitsuen babesean, mutu, arnasa hartzeko ere ikaraz, gero hainbestetan sentituko nuen urduritasun ordura arte ezezaguna urdailean, galderarik ez, dena lotuta, ondo olioztatutako hurrenkera bateko katebegi inkontzientea.

Bizitako guztia gandu, laino sarri eta ahalik eta trinkoenaren pean gorde beharko nuen, betirako ahanzteko arriskuarekin. Edo okerrago, betirako desitxuratzeko arriskuarekin. Izenak, lekuak, gertaerak,

ederretsi, biribildu, zentzuz jantzi ahal izango nituen nire buruan, baina ezin izango nion inoiz inori inolaz bizitakoaren berri eman ahal izango.

Ez nekien ezta ere, mututzeaz gain, berriro jendar-tera agertuko nintzenean, ez nintzela lehengo bera izango, lehengo lagun edota ezagunek ez nindutela gehiago berdin begiratuko. Batzuek, ordura arte la-guntzat nituenek, agurra ere ukatuko zidatela. Beldu-rragatik. Desadostasunagatik. «Hegoaldekoa» bihurtu nintzelako.

Ustekabean hartu ninduen ondorioen zenbaterai-nokoak. Jadanik ez nengoen babes-hormaren inguru-tik gertaerei so, tarteka zezena txuliatzera lasterka-txoak egitera ateraz. Plazaren erdian nengoen.

Nire apaingarririk ederrenak jantzita gorputza bihurritu eta dantza sinesgaitzak burutuz nire bertute eta trebetasun behinenak erabilita lehen nintzen hura bera izaten jarraitzeko ahalegin handienak egingo ni-tuen arren, ezerk ez zuen ekidingo nire desagerpena.

Oraindik erbesteratu gabe nengoenean ezin igar nezakeen aurrerantzean ez nintzela nire buruaren jabe izango, eta neure neurea nuena ere, hitzen bidez munduaz nuen ikuspegia eskaintzeko grina, pixkana-ka, ezarian, galtzen hasiko nintzela, hitzak urritzen ha-

siko zitzaizkidala, gardentzen, desagertu arte. Bidegurutze bakoitzean hartuko nuen erabakiekin ongi lagunduta, gertaeren segida logikoak eskuak literatura-rako ezinduko zizkidan arte.

Lapurdi

ASTEAZKENA

Idaztekoak eskatu dizkiodanean, idazten dudana-
rekin kontuz ibiltzeko aholkatu dit arduradunak. Se-
gurtasun arrazoiengatik. Gaineratu du beranduago
izango dudala neska-lagunari gutuna igortzeko auke-
ra, orain goizegi dela.

Kontu pertsonalak idazteko beste asmorik ez du-
dala esan diot. Hala ere, ezinegona egin zait idaztera
jarri naizenean, besteetan baino denbora gehiago
eman dut orrialde zuriaren aurrean hausnartzen.

Esan gabe ere badakit muga-pasoaren inguruko
ezer ezin dudala idatzi. Ezta beste guztiaz ere, noski.
Nire buruaz mintzatuko naiz, inguruan ikusten duda-
naz, bizipenez, sentimenduez. Pertsonak aipatu be-
harko ditut, nahitaez, izenik eta ezaugarri fisikorik
eman gabe ordea, ezta adinik ere. Nire kokalekuaren
aztarnarik ere ez dut emango. Espero dut ez dudala
jakin behar ez denik salatuko orriotan. Zer gerta ere.

Badakit horrela interesgarriena orriotatik kanpo
utziko dudala. Zirrarek eta tentsioek, pozek eta beldu-

rrek ez dute kaier honetan lekurik. Beraz, atzo artekoak nire garunean eta bihotzean gorde beharko ditut, suz irarriak, betirako. Gaurtik aurrerako batzuk ere baiagian. Seguruen. Ezezaguna da aurrean dudana. Ezezaguna eta aurreikusi ezina. Egoera desatsegina zait. Egoera aldatzeko zain egon behar hau. Besteren menpe. Ez dakit noren eta zeren menpe. Batetik bestera, eskuz esku, ahotik belarrira doazen mezu-kate segida geldoen zoriari lotuta.

*

Ekintza ondo ateraz geroztik, nahirik gabe, desiorik gabe bezala nago. Data, ordua, hitzorduak, besterik ez nuen ibili azken denboretan. Eginda dago. Ondo atera behar zen. Hori zen dena. Eta ondo atera zen. Ondorengorako plan zehatzik ez nuen. Ez da egia. Ez nuen egoera hau aurreikusten. Ez nuen horrela irudikatzen. Orain oso aspaldi izan zen egun hartaz geroztik ezer irudikatzen ote nuen ere ez dakit. Egoera honetan zer egin nahi nukeen ez nuen aurreikusi. Muga pasatzea marra bat igarotzea bezalakoa izango zela koan nengoen. Berdin ez, baina antzeko jarraituko lukeela denak uste nuen. A.rekin egon nahi dut. Hori

bai. Azalpen batzuk emateko. Bera da bakardade sakon honetatik atera nazakeen bakarra.

*

Nire etorkizuna ez dago jada, oraingoz, nire esku; zenbat iraungo duen ez dakidan itxaronaldi hau bukatu bitartean, bederen. Orain beste dimentsio batean nago.

*

Muga-pasoa bukatu eta mugalariak beste hiru errefuxiatu bizi diren etxe honetara ekarri naute aurrena. Iritsi garenean goibeldu egin nau etxearen giro ilunpetsuak; pertsianak erdi itxita zeuden, eta goizaldeko argia ez zen ia sartzen barrura. Etxekoak oraindik lo zeudela esan dit arduradunak, egindako keinuagatik ulertu diot ez direla oso goiztiarrak.

Kafea egitekoak non dauden azaldu eta joan egin behar zuela esan dit.

Ez dut kaferik egin. Zigarro bat erretzen egon naiz, leihotik begira. Bizidunez betetzen hasi da kalea (hau esan dezakedala uste dut). Dendariak, autoak, eta

gero, haurrak amekin, eskolara bidean. Gure etxean leihotik begira erre nuen azken zigarroarekin gogoratu naiz. Bertatik ikusten nuena oroitzeko begiak itxi ditut.

Begiak ireki ditut, baina ezin dut deskribatu orain ikusten dudana.

Airean sumatzen dudana usaina ezezaguna egiten zait. Egunaren argitasuna ere berria eta berezia da. Zaratak, ahotsak. Etxetik hain urruti ere ez egonda, beste herrialde batean nagoela iruditzen zait.

Hainbesterako eragina ote du hizkuntzak? Lehena-go ere ibilia nintzen inguru hauetan, orain sentitzen dudana arrotasunik nitaz jabetu gabe.

Elsa Scheelen etorri zait gogora. Halako bakardade sentsazio bat. Zurtz. Hemen nago, hain hurbil eta hala ere gairitu ezineko trintxera batek bereizten nau atzo arte nire mundu zaratatsua zen horretatik.

Bat-batean eta ustekabean aurrean horma ikusezin bat jarri dioten autoa naiz.

Ez ahal da luzerako izango. Garuna txindurritzen ari zait moteltasun honetan.

Egongelan ez dut libururik aurkitu. *Interviú* zahar batzuk daude zoruan pilatuta. Atzoko *Egina* denborapasen orrialdean dago zabaldua mahai gainean. Ez dut periodikoa irakurtzeko gogorik. Peter Handkeren liburua, *El peso del mundo* hartu behar nuen aldean. Potoloegia zelako -eta nor doa ekintza bat egitera liburua aldean duela?- han gelditu zen, ohe ondoan, zoruan. Hatz-markak hartzeko eramango zuten agian.

Aspertzen ari naiz. Lehen aldiz bizitzan.

OSTEGUNA

Harritu egin ninduen etxeko inork euskara ez jakiteak.

Musean egin genuen arratsean.

Gaur egun osoa Radio Nacional de España entzuten eman dugu. Ez da egon berri gehiago atzoko ekintzaz.

Hauek diote kideak honezkero babesean daudela, lasai ederrean. Kontu horietan adituak direla ematen

du. Ondo atera dela-eta ospatu egingo omen dugu larunbatean.

Ez didate galdera gehiegi egiten. Nahiago horrela. Gaztelaniaz hizketan ere ez nabil eroso.

Frantsesa ikasteko metodo bat eta Larousse hiztegia aurkitu ditut egongelako arasako apalategi hutsen. Frantsesez ba al dakiten galdegin diet. Frantses kutsuarekin hasi zaizkit hizketan, gaztelaniaz, pailazokeriatan. Barrezka eman dugu tartetxo bat. Ez, ez dakite frantsesez, metodoa eta hiztegia nire aurretik egon zenak eskatu zituela, baina liburuak iritsi aurretik eraman zutela beste norabait.

Hozkailua ere ia hutsik dago. Garagardo batzuk badaude bederen.

Lanik egiten ote duten ere galdegin diet, alferrik, bistakoa baita ezetz. Horrekin ere txantxa batzuk egin dituzte.

Garagardoak edan ditugu.

OSTIRALA

Arduraduna etorri da goizean goiz, bihar etxez aldatuko nautela iragarri dit. Ez dakit nora eramango

nauten baina nahiago dut hemendik atera. Muga iga-
rotzean sentitu nuen poza desagertu egin zait etxe
honetan eman ditudan ordu eskasetan. Hau al da
errefuxiatua izatea?

Etxekoak ditut buruan. A. bereziki. Nola egongo
ote den, kezka, errudun sentimendua. Ez diot idatzi.
Nahiago dut gutuna bideratzeko aukera dagoela esa-
ten didatenean idatzi. Gutuna ezezagun batek irakur
dezakeela pentsatzeak ere idazteko gogoia kentzen
dit.

Berri berezirik ez irratian. Igandeko derbia eta
azken ekintzagatik bihar egingo duten ospakizuna
beste konturik ez darabilte etxekoek.

Metodoa eta hiztegia eraman ditzakedala esan di-
date. Kexu dira, beste norbait ekarri arte musean
ezingo dutelako egin.

ASTELEHENA

Arnasa hartu dut etxe honetan. Bikote gazte eta ja-
torra da. Eskerrak neskak gaztelania pixka bat bada-

kien. Mutilarekin oso ondo moldatzen naiz, baina ez dakit nola egiten dugun elkar ulertzeko! Frantsesa ikasi beharko dut, bai. Diodan nazkarekin.

Boris Vianen *Le déserteur* jarri dit mutilak. Dena ondo ulertu ez dudan arren gustatu zait, soldaduskari intsumisioa aldarrikatzen du. Boteredunei horrela hitz egin behar zaie, beldurrik gabe. Ulertarazi diot ni ere intsumisioa naizela. Arrazoa zehaztu beharreko lekuan «politikoak» jarri nuela.

Ez dut ezer. Soineko arropa, liburu bat, ideia eta asmoz beteriko kontrabandozko kaiera, etxeko lo-reontziko xortatik azken egunean hartu nuen krabelin iharra. Besterik ez. Bihotza sentimenduz puztuta lehertzear. Oroitza A.ren azalean egiaztatzeko antsia. Burutik ezin kendu, han utzi ditudanak. Harrezkero ikusi dudan guztiak osatzen duen argazki sinesgaitza, etengabe igarotzen diren kotxeen zarata, pasabide eta paisaia debekatuak eta arrisku mutuarazlea. Besterik ez. Hatz-mamiekin bere betazalak laztantzeko beharra, malkotan dukeen zauria sendatzeko. Ez dut ezer, inguratzen nauen nire herri arrotz honetan. Usain ezezagunen lurrina, pintzelkada lanbrotsuz eta iluntsuz agertzen zaidan etorkizuna besterik ez. Eguzkiaren arauak ezagutzen ez dituen erloju geldoa, ha-

rekin elkartzeko unea hurbiltzeko ezgauza dena. Beste ezer ez dut ekarri handik.

Goiz afaltzen dugu eta telebista pixka bat ikusita segituan goaz ohera, goizean goiz abiatzen baitira lanera.

Irratitxo bat erosteko eskatuko diet. Larunbatz geroztik berririk gabe nago. Ez dute *Egin* erosten, segurtasun arrazoiengatik esan didatenez, zuhurtziaz.

ASTEARTEA

Etxetik alde egin nuenetik lehen aldiz lasai lo egin dudala iruditzen zait. Hamaikak pasatxo jaiki naiz. Doi-doi izan dut astia etxeakoak iritsi aurretik dutxatzeko, egongela txukundu eta gosaltzeko.

Mutilak mahonezko arrantzale-galtzak ekarri dizkit, nireek atzealdea saretua dutelako eta dioenez alboetako poltsikoekin oso itxura militarra dudalako. Ez diot ondo ulertu baina iruditu zait bizarra egiteko aholkatu didala baita ere.

Ez dut beraiekin bazkaldu, ez nintzela gose esan diet. Uste dut neskak asmatu duela jaiki eta gosaldu berria nintzela, egin dizkidan galderengatik.

Segituan joan dira eta berriro bakarrik etxean. Maite dut etxe honetako isiltasuna. Ez naiz beraien gelan sartu.

Telefonoa ez erantzuteko oroitarazi didate; ez nuen asmorik.

Irratia erosteko esatea ahaztu zait. Ea arratsean gogoratzen dudan. Arduradunari diru pixka bat eskatuko diot. Hori ere handik ekar nezakeen aldean.

Hemen ezin dut zigarrorik erre leihoan.

Bazkalosteko telesailak ikusten egon naiz, gauza handirik ulertu gabe.

OSTEGUNA

Aza-hostoa halakoa!

Gaur eguerdian ez zirela bazkaltzera etorriko eta ea jatekoak egiteko moldatuko naizen galdetu didate. Baietz esan diet. Amak irakatsi moduan prestatu ditut ilarrak patatekin. Arrautza frijitu bat ere jan nahi izan dut baina ez dut olioan aurkitu, sukaldeko arasa eta zoko guztiak miatu baditut ere (baita hozkailua ere!). Orduan gogoratu dut Frantziar sukalderako gurina erabiltzeko ohitura omen dutela. Goringoa ma-

mitu egin zait eta nire bizitzako arrautza frijitu nazka-garriena jan dudala esan dezaket, baina tira, kultura berrietara zabalik egon behar dela diotenez...

Afalorduan entsalada eder bat prestatu dute, eta hara non nik lixibatzat nuen botila horia hartu duen neskak harraska azpitik eta oparo bota duen letxuga gainera. Olioia!

Gurean olioia botila gardenetan egoten da, eta lixiba aldiz, hau bezalako horietan, esan diet. Estralurtar bati bezala begiratu didate. Ez dut uste ulertu didatenik.

Ez naiz ausartu arrautzak gurinetan egin ditudala esatera, baina bihar goizean gosaltzeko orduan konturatuko dira, gurin plakatxo erdia erabili baitut.

A! Letxuga azkenbururako uzten dute, gaztarekin jateko. Gazta goxoak dituzte. Caprice des Dieux («Jainkoen gutizia» itzuli dut hiztegiaren laguntzaz) dastatu dut gaur lehen aldiz.

ASTELEHENA

Gaur ere ez da azaldu arduraduna. Etxeko mutilak egutegian seinalatuz ulertarazi dit larunbatean zela pasatzekoa.

Hasi naiz frantsesez esaldi batzuk nola hala josten.

ASTEAZKENA

Arduradunaren berririk ez.

Kezka nabari dut etxekoengan. Lehen egunean bezain jator ari dira nirekin, baina bada ondo ez dabilen zerbait.

Ea norbait hil dudan galdetu dit mutilak.

Neskak ez egiteko halako galderarik egin dio errieta. Eta niri, «No le respondas».

IGANDEA

Egoera okertu da. Irribarre gutxi, umore txartuta dabilta biak. Neskak, nire larridura baretzeko, «No es

tu culpa» esan dit. Baina fardel astun bat bezala sentitzen naiz goizetik.

Bi asteko atzerapena du arduradunak. Kezka ez dute ezkututzen. Atzoko atentatuak ez ditu gauzak konpontzen. Neska negarrez egon da, hil zuten errefuxiatua ezagutzen zuela iruditu zait.

OSTIRALA

Argi hitz egin dute nirekin. Datorren astelehenean familia datorkie eta hemendik alde egin beharko dut. Nora? Hori da kontua. Bi astetarako hartu nindutela. Arduradunaren berririk ez dute, ezta bera lokalizatzeko modurik ere. GALen kontuarekin errefuxiatuak oso aztoratuta omen dabilta.

Bukaeran, lasai egoteko esan didate, ez nautela kalean utziko, aurkituko dutela beste babes-etxe bat niretzat, nola edo hala.

Ez dut lortzen frantses-ariketak egiten kontzentratzea. Telebistari begira edo lo ematen dut egun osoa.

Enbata ekarri zidaten lehengoan. Argazkiez gain gauza gutxi ulertzen dut. Manifestari askok bete zituz-

ten Baionako kaleak. Lehen baino gutxiago begiratzen dut leihotik.

Etxekoen berririk ez dut. A.ren berririk ez dut. Arduraduna etorri arte ez dut izango gainera dagoeneko hari idazteko baimena ote dudan galdetzeko aukera. Alferrik da hauei nire beharren berri ematea. Saiatzen naiz egongela txukun mantentzen eta ahalik eta traba gutxien egiten.

Arratsetan nekatuegi itzultzen dira eta ez dirudi ni bezalako artaburu batekin mintzapraktika egiteko gogotsu daudenik. Ia isilik afaltzen dugu, gero «nire logelara» goaz telebista ikustera. Segituan erretiratzen dira, logura ote naizen galdetu ostean. «Non, non» esaten diet. Nola izango naiz logura ez banaiz nekatzen. Aldiz, ezin dut ekidin ni bertan egongo ez banintz, afari goxo bat egin, telebista aurrean jarri eta ondoren egingo luketenaz gogoeta egitea. Etxea txiekiegia da, zarata guztiak entzuten dira. Lehengoan nire zurrungak entzun zituela esan zidan neskak txan-txa-doinuz. Eta nik mihiari kosk egin nion, beraiek amodioa egiten sentitu nituela ez esateko.

Ez dut irratirik, ez dut egunkaririk, ez dut gaztelaniazko edo euskarazko libururik. Usainak ere arrotz

zaizkit. Beste planeta batean galduta nago. Etorriko ahal da arduraduna asteburuan!

3

OSTIRALA

Azkar joan da astea! Nolako arnasa izan den beste etxe honetara etortzea! Uste dut irribarre egitea ere ahaztuta nuela. Hemen beste martxa bat dago. Kalekumea naiz inondik ere! Etxe-orratz baten azkenetako estaiko apartamentu eguzkitsu batean nago orain.

Etxekoak errefuxiatuak direnik ez luke inork esango. Beste etxekoak agurtu eta arduradunak hitzordura ekarri ninduenean banerabilen nire baitan *depanatzeko* aurkitu zidaten etxeari buruzko kezka. Eta badaikit ez dela zuzena, baina «gabatxorik ez» nioen nirekiko. Tira, une batez musularien etxera itzularaziko nindutela ere beldur izan nintzen. Eta handik mugalarien eskuetan utziko ninduela arduradunak eta, bestaldean, nire etxean bukatuko nuela irudikatu nuen. Ateko sarraila aldatuta egongo da honezkero. Hala ez balitz ere, giltzak zakarrontzi batera bota nituen. Aus-

kalo nor bizi den orain. Beste norbaiti alokatuko zioten. Ez dut ikusten A. gure etxean bakarrik bizitzen.

Gosari pantagruelikoak egiten ditut orain, crois-santei gustua hartua diet. Jaikitzean kirola egiteari ere bai. Eguerdian etxeratzen direnean *Egina* ekartzen dute, eta azken gertaerak aipatzen ditugu bazkaldu bitartean. Politikaz ere eztabaidatxoak izan ditugu. Batez ere astelehenetako egunkarian Zohardiak sinatzen dituen artikuluen inguruan. Batzuetan hona agertzen den errefuxiatu batek irribarre enigmatikoa jaritzen du artikuluan agertzen den zerbaiti buruzko aipamenen bat egiten dudanean. Etxeko neskari bere jarrerera aipatu nion batean, «Berak idazten ditu eta!» esan zidan txantxa doinuz. Egia izango ote da? Oraindik ez naiz «errefuxiatuen umorera» egin. Gauza gehienak ezezagunak zaizkit. Zinemaz eta literaturaz hitz egiten dugunean aiseago nabil. Nahiz eta ez dudan maite nitaz duten kultureta irudiarekin adarra jotzen hasten zaizkidanean.

Gertatzen ari den guztiarekin ere oso lasai ikusten ditut etxekoak. Gazteak izan arren militante zailduak direla deritzot. Tenplea dute, arduradun berriak bezala (uste dut bera dela arduraduna, etortzen denean galdera zehatz eta zorrotzak egiten baitizkit, baina

alaia eta irribarretsua da; egia izango da bera dela Zohardia sinatzen duena).

Alai nabil. Idazten hasi naiz berriro. Euskal liburuak irakurtzen. Beharra nuen, gero!

ASTELEHENA

Beren gelan sartu naiz. Atea irekita egoten da. Ez dut ezer ukitu. Baina neska biluzik ageri den horman itsatsitako argazkiak durduzatu egin nau. Etxeratu direnean ahaleginak eta bi egin ditut neskari lehen bezala begiratzeko.

Berri ona ekarri didate, goizeko bekatutxoa ahaztarazi didana:

- Datorren asteburuan zure neska-laguna ekartzeko hitzordua antolatu dugu!

LARUNBATA

Berri txarra berri txarraren atzetik. Etxez aldatu behar dut. Orain nagoen hau ez omen da segurua. Ez

dakit nik zergatik ez den segurua, eta niretzat ez bada segurua beste inorentzat ere ez da bada segurua izango; ez zait iruditzen ordea etxeok lekuz aldatzeko asmorik dutenik.

Monbar-en hil zituzten errefuxiatuen aldeko manifestaziotik itzultzean esan zidaten, astelehenean banoala hemendik, prest izateko puskak (zer puska ordea?, apenas dut-eta gauzarik!), goizean goiz etorriko dela arduradun berria (ezagutzen ez dudan bat omen da, baina jatorra dela eta hari eskatzeko behar dudana eta zalantzarik badut ere harekin hitz egiteko).

4

OSTEGUNA

Abiada aldatu du nire bizitzak, kamera geldoan baino urpekarien burdinazko zoladun oinetakoekin nabil, arnasa hartzekoarekin. Bukatu zaizkit hurrengo asterako plangintzak, zereginen zerrendak, hitzor-

duak. Orain niri jartzen dizkidate hitzorduak, aurrez ohartarazi gabe. Zain-zain egon eta bat-batean, orain! Pentsatzeko, oharpenak egiteko edo iritzi xumea emateko aukerarik gabe. Batetik bestera darabilten poltsa bat bezalako naiz. Ez dut nire aurkako gutxiespenik nabari, ez, kontrakoa, baina nire aburuak ez du ezertarako balio, ez dago nire irizpidearen beharrik. Dena zait ezezaguna gainera, eta ez nuke jakingo zer esan, zer den hobe eta zer okerrago. Irizpidea izateko esperientzia behar da, eta norberak jakin behar du zer nahi duen ekimena bere gain hartzeko. Eta nik esperientziarik ez dut azpi-mundu ezezagun honetan.

*

Sendiko beste bat bezala hartzen naute etxe honetan, ezin naiz kexatu. Niri ordea traba egiten dudala iruditzen zait. Edo nire ohiturak dira haienekiko oso desberdinak direnak.

Hurrekin hasi naiz frantsesa praktikatzen (eta telebistako «Un tour de manège» saioarekin! Nork esango zukeen frantses telebistan horrelako zozokeriak ikusteari gustua hartu behar niola). Gizonarekin eus-

karaz egiten dut eta emakumearekin gaztelaniaz; ez baitaki euskaraz.

Gutxiago erre behar nuke.

Kanta batzuen hitzak idatzi ditut.

LARUNBATA

Sirenak entzuten ditut autobidean. Polizia xerka dabil. Ni ere xerka nabil. Isil behar da ordea gure xendra hauetan.

ASTELEHENA

Egongelatik begiratuta eraikin bat ikusten dut parez pare, eraikinen erdigunean dagoen enparantzaxoaren bestaldean. Goizez ematen du eguzkiak aurreko etxebizitzan. Etxekoak kanpoan direnean, leihok itxita uzten dituzte. Erridauek uzten duten zirrikituen artetik begira egon naiz. Leihoetariko batera ohe-atorraz jantzitako neska adats luze bat agertu da, eskuak leihoko ertzean ezarriz arnasa hartu du, sa-

konki, bizpahiru aldiz. Gero eskuekin itzal eginez honantz begiratu du. Ikusten ote du nire itzala erridauaren atzean? Badaezpada ere ez naiz mugitu. Begira egon da tarte batez, higitzeke. Ondoren, berriro sartu da eta berriro agertzean oheko tapakiak dakartza. Leihotik kanpora astintzeari ekin dio. Zeregina amaitu eta berriro ere honantz begira gelditu da. Ikusten nauela esango nuke. Agian ezagutzen ditu etxeko ohiturak eta badaki ordu honetan etxean ez dela inor egoten. Kontu gehiago egin behar nuke. Aipatuko diet etxekoei. Ergeltzat hartuko naute agian. Edo errieta egingo didate. Neskak ezkerretara begiratu duen batean hautsontzian zanpatu dut zigarreta, badaezpada ere. Berriro begiratu du neskak, keinu xarmagarri batez atondu ditu ileak. Bat-batean leiho-xareta tolesgarriak ia guztiz itxi ditu. Istant gutxiren buruan zirrikitutik bere beso zuriak agertu dira esekigailuan ohe-atorra zintzilikatzeko. Biluzik dago, pentsatu dut, begirada goizaldeko haize freskoaren nahira balantzan dabilen ohe-atorrarekin dantzan. Zein ote da bere izena? Zergatik dago astelehen goiz batez etxean? Bakarrik bizi ote da?

Arratsaldea. Bakarrik nago berriz. Laster etorriko dira etxeakoak eta argiak piztu ahal izango ditut. Bitartean ez irakurri ez ezer. Ez dituzte leiho-xareta jaitsi-ta utzi nahi egunez, susmagarria litzatekeela diote. Pareko etxebizitza ere itzalean dago. Leiho gehienak itxita daude. Oraindik zintzilik dago ohe-atorra.

ASTEAZKENA

Gertaeren aldaera txikiak besterik ez dira ene amesgaiztoak. Gertaeren aldaera txikiak besterik ez dira ene desioak. Amesgaizto eta desio artean bizi naiz.

OSTEGUNA

Izugarrizko burukomina daukat.

OSTIRALA

Medikuak ez daki zer den. Pilula azkar batzuk eman dizkit. Ez zait joaten ordea.

*

Hemen ez dago heroirik, kristalezkoak bihotzak, klandestinoak ametsak, beldurrarekin oheratuz, tronpatzen ditugu maiteak. Damua bart gaueko ilargi be-teaz baino ez.

OSTEGUNA

Etxeko gizonak berarekin eraman nahi izan nau kalerara, egurastera. Hilabete gehiegi daramadala atera gabe dio, eta horregatik dudala burukomina. Nire aurretik egon zena joaten zela noizean behin poteatzera berarekin, ez dela ezer gertatuko.

Arduradunak ez irteteko agindu zidala eta ez naitzela irtengo esan diot. Gainera, ez dut oso ondo ulertzen zer egin behar dudan nik kalean, poteoan, bizitza arriskatuz.

Ez zait burukomina kentzen.

*

Hemen ez dago gaztelurik, ez urruntzen zaldun zuririk, ez leihoan damarik eskuz egiten agurrik.

IGANDEA

Atera naiz! Etxearen atzealdean dagoen parkera joan naiz azkenean. Egia da bidexka diskretu bat dagoela eta etxeko sartu-irtena kontuz eginez gero parkean hiritar arrunt baten antza dudala.

Dutxatu, bizarra egin eta hamaikak inguru irten eta etxearen atzeko bidezidor ezkututik ezpondatxo bat igo eta parkearen goialdean agertu naiz. Ez nuen uste hirian horrelako txokorik egon zitekeenik. Gehiago harritu nau bidexkaren alde banatan haginak (*Taxus baccata*) ikusteak.

Banku batean eserita egon naiz, eguzkitan, zigarreta bat erretzen. Belardia txukun moztuta zegoen,

haur batzuk ikusi ditut jolasean. Neska gazte batzuk ere bai. Oso ederrak iruditu zaizkit.

Ez dit inork begiratu, ez zait inor ezer galdetzera etorri. Hori zen nire beldurrik handiena. Liburua ere horregatik ez dut ekarri, nire burua ez salatzeke. Hurrengoan ea frantsesezko bat eskuratzen dudan, hobeto emango dut.

Azkar itzuli naizela esan dit etxekoandreak. Datoren igandean ere aterako naizela esan diot. Ez zait iruditu arriskutsua eta ez dut uste arau-hauste larri-gia denik. Gainera, lehengoan leihotik begira nengoe-la bizilagun batek agurtu ninduen, eta gertatutako-gatik larrituta etxekoei esatera joan nintzaienean, barre egin zuten, lasaitzeke, lehen solairuan bizi diren errefuxiatuetako bat zela esan zidaten. Iritsi nintzene-tik daudela jakinaren gainean.

ASTELEHENA

Etxekoen ezagun bat atxilotu dute. Uste dut harreman estu samarra dutela harekin. Hemendik nahiko hurbil atxilotu dute gainera. Kezkati daude. Ezagutzen

ez dudan jendea etorri da. Etxekoek ez didate ezkutatzeke eskatu. Errefuxiatuak dira beraiek ere.

ASTEARTEA

Berriro hasi naiz erretzen. On egiten didala esaten diot nire buruari, sinusitisarentzat ona dela, sudurzuiloak lehortzen dizkidala. Egunean bizpahiru besterik ez, kafearekin. Azkena, leihoan, gauez, denak lokartu direnean.

Maite dut kalea begiratzea. Gauerditan dena dago isil. Inork ikusiko nauen beldurrik gabe ateratzen naiz terrazara. Urrutian entzuten diren hotsei adi egoten naiz; autobideko zarata identifikatu dut. Astegunetako eta asteburuetako burrundara ez da berdina. Trena ere aditzen dut, haizea alde dagoenean. Harat-honat doazen bidaztiengan pentsatzen jartzen naiz. Mugarantz doazenak, Parisera doazenak. Nire burua irudikatzen dut norabide batean eta bestean. Batekoa laburra izango litzateke. Hortxe, hurbil-hurbil dago etxea. Iraganaldian hitz egin behar nuke. Jadanik ez dut-eta etxerik. Etxegabea naiz dagoeneko. Oztopo ikusezin baina izugarri batek ekiditen dit etxerako

bidea (noiz arte?, ez dut pentsatu nahi; lehen ere pentsatzen ez nuen bezala). Beste norabideak Etorkizun du izentzat, eta arrastaka eramango ditu deserriratzearen, deserrotzearen minak. Ez zait axola, beti maite izan dut bidaiatzea. Ez da ordea joan-etorriko bidaia arrunta izango. Joaneko txartela eskuratu dut. Itzulerakoaren salneurria garestia izan daitekeela sumatzen dut. Oraingoz bederen ez dut ordaindu behar-ko.

ASTEAZKENA

Urduritasun handia dago errefuxiatuen artean. Etxekoandrea zeharo aztoratuta etorri da etxe inguruan dagoen haur-jolastokitik. Bertan biltzeko ohitura dute errefuxiatuen emazteek, haurrak ikastolatik itzultzen direnean, jolas egin eta askaria hartu bitartean haien artean solas egiteko.

Itxuraz bikote susmagarri bat ikusi dute jolastokiaren inguruan zelatan. Ama batek ezagutu omen du haietako bat, duela aste pare bat etxebizitza bateko korridorean ikusi zutena omen da. Orduan, haur batzuk ohartu ziren pistola bat zeramala gerrian eta

alarma eman zuten. Alde egin zuten lasterka gizonak. Solairu horretan errefuxiatu batzuk bizi omen dira, batzuk nahiko ezagunak itxuraz, eta horietako baten aurkako atentatua galarazi (inoiz ez hobe esanda!) zutelakoan daude. Aurpegiko orbanagatik ezagutu omen dute pistoladuna.

OSTEGUNA

Astehenean atxilotu zuten errefuxiatua deportatu egin dute. Cabo Verderea. Bederen ez dutela ez kartzelan sartu ezta Espainiako Poliziaren eskuetan utzi-eta etxeakoak lasaituta daudela iruditzen zait. Ez dakit zergatik galdetu didaten ea ezagutzen dudan. Nik ez dudala inor ezagutzen erantzun diet. Barre egin dute.

IGANDEA

Oheratu dira denak. Ez naiz logura. Ez dut ohean etzanda irakurtzen egoteko gogorik. Hori besterik ez dut egiten egun osoan. Frantsesa ikasi, irakurri, tele-

bista ikusi, etxeko-lanetan esku-kolpea eman batzuetan. Leihotik begiratu. Azken zigarreta egongelako leihoan beti, arnasa pixka bat. Jolasparkean bikote susmagarria ikusi zutenez geroztik hoberena parkera gehiago ez ateratzea erabaki nuen etxekoekin.

Kanpoan ez da mugimendu handirik sumatzen. Ez dirudi ilargirik dagoenik ortzian. Egutegian edo egun-karian begiratu beharko dut noiz den ilbetea. Auto baten argiak agertu dira ezkerraldetik, auto handia da; atzetik beste txikiago bat dakar. Maldaren erdialdera iristean, abiada mantsotu eta eskuinean gelditu da. Txikiak aurreratu ahala berriro ere abiatu da auto handia bere atzetik. Oso arraroa iruditu zait. Maldaren bukaerara iristean, auto txikiak maniobra egin du berriro ere beherantz abiatzeko. Auto handikoa atzetik duela ohartuko zen eta ihes egin nahi izango dio. Benetan itxura txarra zuela pentsatzen hasia naizenerako auto txikia handia lehentxeago gelditu den lekua- ren parean aparkatzen hasi da. Bitartean, handiak txikiak egin berri duen maniobra bera egin du, maldan behera abiatu eta lehen gelditu den leku berean aparkatu du; beherantz begira oraingoan. Gizon bat irten da bertatik. Ez ditut bere hazpegiak nabarmentzen hemendik. Istant bat geroago emakume bat atera da

auto txikitik. Autoetako atepak ixterakoan egindako zaraten oihartzunak bete du gaua, bi tiro balira bezala, pentsatu dut, baina ez dakit tiroek nolako zarata egingen duten. Behin bakarrik izan dut bat eskuartean eta oihal batean bilduta zegoen.

Duela urtebete-edo errefuxiatu bati bisita egitera asteburu pasa etorri nintzen Iparraldera. Gauaren erdian iratzarri gintuzten, atxiloketak izan zirela eta etxe bat hustera joan behar zela. Joan ote nahi nuen galdetu zidan lagun errefuxiatuak, ez nengoela behartuta, gera nintekeela bertan, luze jo zezakeela. Haiekin joango nintzela esan nion. Galtzak eta nikia jantzi, zapatak, arrapaladan jaitsi genituen eskailerak. Autoan sartu ginen. Ni gidariaren alboko eserlekuan. Ez dakit nora joan ginen, non zegoen etxea. Ezkaratz baten parean gelditu ginen eta emakume bat irten zen, haur bat besoetan zuela iruditzen zait baina dena lausotuta oroitzen dut, gertatutakoa ahazteko eta ez esateko deus inori esan baitzidaten, eskuan pakete txiki bat zekarren, gidariari eman zion leiho irekitik. Gidariak niri eman zidan, «Heldu! gorde eserleku azpian!». Oihalean bilduta zegoen. Zama gogoratzen dut. Pistola bat da, pentsatu nuen, inork deus esan ez

zidan arren. Agian hau guztia ez nukeen idatzi behar-ko.

Gizonak galtzada gurutzatu du emakumeagantantz. Auto txikiaren ondoan musukatu dute elkar, sutsuki. Ondoren, besoak elkarren bizkarren atzean gurutzatuta ezkaratzera daraman mailadia igo dute. Barre batzuk entzun dira, ezkaratzeko atea ixten ari zela.

OSTEGUNA

Bihar da egun handia! Prefekturan aurkeztuko nau arduradunak, errefuxiatu paperak eskatzeko. Ilea luzeegi ez ote dudan kezka sartu zait. Etxekoandreari eskatuko diot mozteko.

Arduradunak esan zidan ostiralean agertuko zela. Etxekoek adarra jotzen didate, zein asteko ostiraletan agertuko zen ez zidalako esan, eta maiz jaten omen duelako hitza.

Nik badakit agertuko dela. Paperak egin, eta etzi A.rekin hitzordua! Aiherran kontzertu bat dago, hara joango gara.

Etxekoek arrazoi balute arduradunaren ganorari dagokionez, beste hamabost egunez luzatuko litzateke nire «espetxealdia», «Adreiluzko Dorre» honetako egonaldi behartua.

5

IGANDEA

A. etorri zen atzo, beste lagun batekin. Ruperren kontzertura joan ginen Aiherrara. Nolako hotza egiten zuen! Kantaldi erditsuan nire aurreko bizitzatik ezagutzen dudan bat etorri zait PAFekoak inguruan zebiltzaila ohartaraztera. Errefuxiatu-ehizan trebatutakoak omen direla, kontuz ibiltzeko, ez ote ziren propio nigitik etorri. Lasaitzeko esan nion, paperak egin berri nituela, hilabeterako egonaldia baimentzen didan récépissé arrosa kolorekoa erakutsiz.

Hala ere, kontzertua amaitu bezain pronto alde egitea erabaki genuen. Erabaki txarra. Gu izan ginen Hazparnerako bidegurutzera iristen lehenak. Eta bertan abertzale eta errefuxiatuentzat propio jarritako kontrola estreinatu genuenak. Stopa ez nuelako egin

aitzakia gelditu gintuzten. Ez genien ezer ulertzen. Warning! warning! tematu zitzaidan bat. Baietz, egin nuela kontu bidera atera aurretik, nik (gaur esan dit etxeakoak autoaren argi-keinukariak pizteko esaten ari zitzaidala). Espagnols? Galdetu zigun beste batek, eskuinaldetik esku-argiarekin auto-barrena argituz. Hori ondo ulertu genien, ez erantzun ordea. Espainiako nortasun agiria eman genien hirurok, isilik. Utzi zigiten joaten. Eskerrak beste errefuxiatuak azken unean ez etortzea hobetsi zuen.

Etxe inguruan utzi naute eta A. eta bere laguna joan egin dira, Hegoaldera. A.k ezin du ezagutu orain bizi naizen etxe hau. Ezta aurrekora bezala begiak itxita ekarriz gero ere.

LARUNBATA

Gurasoak etorri zaizkit bisitan. Donibane Lohizunen egin dugu hitzordua. Amona etortzea lortu dute. «Cómo no iba a venir a ver a mi ahijado preferido». Bilobaz gain semebitxi nau. Duen bakarra. Amonak ez du etxetik atera nahi izaten, asko jota goizeko lehen orduan erosketak egin eta prentsa eroatera; eta Agat-

ha Christieren eleberriak, misterioakoak erostera ere bai. «Amona, vengo a coger un libro», esaten nion, eta bilduma osoa zeukan gela iluntsuan sartzen nintzen, amak piztutako irakurzaletasunerako zuzkidura bila, liburuen hauts artean nerabe ametsetan galtzera. Donibane Lohizunera eta ni ikustera zela esan diotenean zalantzarik gabe onartu du.

Duela ia berrogeita hamar urte bertan bizi izan ziren errefuxiatuta. Geroztik sekula itzuli gabea zen.

Gambetta kalera joan gara. Hor izan zuten lehen etxebizitza. «Luis XIV esquina Gambetta». «Luego rue de la République, subiendo de la playa». Basterretxeatarrak auzoko izan zituztenekora. Rue Sopitera, ondoren. Azkenik, Vauban kalera. Oroimenak pizten dizkion kaleetan barrena goaz. Okindegia oroitzen du. Zapata-denda jada ez dago. Batzuetan «Cómo ha cambiado todo» esaten du, eta bestetan «Pero si está igual».

Bost urteko egonaldia egin zuten bertan. Franco-gandik ihes, naziak etorri bitartean. Ia sei urte zituen aitak muga honantz gurutzatu zutenean. Ia hamarrek in itzuli zen, frantsesa ikasita eta euskara galdua. Hogeita bost egiteko ditut nik, frantsesa ikasteko astia izango dut, batek daki noiz itzuli aurretik.

Donibane Lohizunen dut helbide ofiziala, Anai Artearen egoitzan. Sekula egon ez banaiz ere, hor bizi naizela jartzen du agiriak. Gambetta kale horretan bertan. Hunkituta dago amona. Kontatu digu Xantakon zegoen sardina-poto lantegian hartu zituztela emakume eta neskatilak. Bizkarreko minez itzultzen zela hasieran, ohitu arte. Eskuetatik kendu ezin zutela ordea arrain usaina.

Izeba-osabak, Mari Karmen, Frantzisko Jabier eta Joxe Mari, aitaren lehengusu-lehengusinak ere bertan bizi izan ziren, Ibarrangelutik Donostiara itzuli eta berriro ere ihesi muga pasatu behar izan zutenean.

«¿Cuándo vas a volver a casa?» galdetu dit amonak agurtzeko ordua iritsi denean, autoan sartzeaz zela.

IGANDEA

Banoa Euskal Herritik. Azkar joan zait hilabetea. Prefekturan emandako paperetan Pyrénées Atlantiques-etako departamentu hau debekatuta dudala jartzen du. Hilabeteko epean Frantziako beste departamentu batean aurkeztu behar dut nire burua.

Bihar abiatuko gara, beste errefuxiatu batzuk bizi diren Frantzia erdialdean dagoen hiri batera. Erbeste-
ra.

Hitzordua goizeko zazpitan. Etxekoak lagunduko dit autoz, hilabete honetan kirol-poltsa handi bat betetzeko adina arropa eta liburu bildu dut. Besteak beste, nire orain arteko literatura-lan guztiak idazteko erabili dudan gurasoek oparitutako beren Olivetti zaharra ere berreskuratu dut.

Badut beldur pixka bat, Kattu hil zuten taberna ondoan jarri dute-eta elkartze-gunea. Gainera, etxeko gizonak, maite duen bezala, xaxatu egin nau, gosaltzera Lagunekin tabernara joango garela esan dit. Astelehenetan Zabal itxita dagoenez *Egin* egunkaria saltzen duten leku bakarra dela gehituz. Errefuxiatu guztiak joaten omen dira astelehenero-astelehenero bertara, eta GALEk bertan ekintza gogor bat egin dezakeen susmoa hedatuta omen dago. Nik, egia esan, ez dut ondo ulertzen kontu hau.

Erbeste

ASTEARTEA

Erbestean, arrotzen herrian, mugaren atzean. Atzo arte *han* izendatzen nuen lekua hemen bihurtu da.

A-z hasten da hiriaren izena. Atzerria bezala. Gu-
txienekoa da nola duen izena. Hiri hau niretzat dese-
rrotzearen, tristuraren, desanparoaren, hustasunaren,
neguaren sinonimo izango da betirako.

A: zerbaiten hasiera bezala, zerbaiten bukaera de-
nean.

A.n nago. Hemen nago.

*

Atzo ez nuen indarrrik izan idazteko. Bidaia neko-
soa izan zen, Poliziaren kontrolen beldur egin genuen
bide osoa, gidariak eta arduradunak ez baitituzte pa-
perak eguneratuta; atzealdean gindoazen beste hiru-
rok bai.

Bordelera iritsi aurretik atera ginen errepide nagu-
sitik eta leku oso zaindua omen den St. André de
Coubzac-eko bidegurutzea errepide txikiagotatik gain-
ditu ostean, itzuli ginen berriro.

Sansebastian eguna. Eta gu Euskal Herritik urrun-
tzen. Paisaia laua, hitsa. Nahiko isilik egin genuen bi-
daia. Norbera bere pentsamenduetan murgilduta. Gi-
dariak eta arduradunak azkar etsi zuten autoko giro
goibela alaitzeko saioak egitetik. Tierno Galván Ma-
drilgo alkatea hil zela entzun genuen irratian. Horrela-
ko kontuek bizitza guztirako markatzen dute bat.
«Hura hil zen egunean atzerriratu nintzen», esan ahal
izango dut inoiz.

Jende oso jatorra aurkitu dut hemen. Giro aparta
dago. Ondo jaten dugu, ondo moldatzen gara.

LARUNBATA

Zineman egon naiz! *Brazil* ikusi dut. Ez dut dena
ulertu, noski, baina barre egin dut. Beste inork ez du
etorri nahi izan nirekin. Ondoren, kalez kale ibili naiz,
hiritarrekin «frantsesez» hitz egin dut, kafetegi batean
sartu naiz. Ebaki bat nahi nuen, baina ez dut jakin nola
eskatu. Zerbitzariak ingelesa ote naizen galdetu dit!,
hango kutsua hartu dio nire ahoskerari. Bitxia!

Nolako barreak egin ditugun! Langabetuen Bulegora lagundu naute kideek. Frantsesa menperatzen duen batek egin du itzultzailearena. Lanbidea galdetu eta zer erantzun ez nekiela gelditu naizenean hor hasi zaizkit kideak esateko idazlea naizela. Hori tema! «Esaïok, écrivain, esaïok écrivain!». Esan diot bada emakumeari: écrivain (ez dakit nola ulertu didan!). Ea idazle-lan baten bila nabilen, berak. Nik, baietz! Ea frantsesa dakidan. Ezetz! Eta ea uste dudan Frantzian idazle-lanik aurkituko dudan frantsesa jakin gabe. Hori ez dela nire arazoa esateko akuilatu naute kideek. Esan diot. Itzuli du itzultzaileak. Paperak bete eta datorren hilera arte! Hor gelditu da bulegari harritua. Izango du zer kontatu. Guk ere bai. Kideak barrez lehertzen egon dira.

Handik atera eta garagardo bat edatera joan gara. Nik garagardoa maite ez dudanez, bertako gorri bat eskatu dut, alegia rosé bat. Rouge eskatuz gero beltza ateratzen dute Frantzian. Oso dultzea atzeman dut. Kaskarreko min ederra eman behar du mozkortuz gero.

OSTEGUNA

Nolako tentsioa gaur. Hasieran ekintzaren berria! Horrek aztoratu gaitu. Goiz osoa pasatu dugu belarria irratira itsatsita (esateko modua da). Oso-oso gaizki entzuten da. Ekintza handia izan da eta poz giro nabarmena zegoen etxean. Zainetan egon gara, esateriak ekintza egin duen taldea etxebizitza batzuetan setiatuta zutela esan duenetik.

Agian horregatik ateko txirrina jo dutenean izutu gara denok. Batzuek leihoetatik kalea zelatatu bitartean, gutako beste bat atera joan da behatxulotik begiratzera. Gizon ezezagun bat zegoen atearen bestaldean, euritako luze bat zeraman jantzita, gaur eguraldi ona egin duen arren. Batek esan du kanoirik gabeko eskopeta eraman zezakeela gordeta. Atetik urrundu eta non eta nola babestu antolatzen hasi gara. Kide bat maldizioka hasi da, pipa triste bat ere ez edukitzeagatik eskura. Okerrena gertatuko zela pentsatu dugu. Itxuraz ez da lehen aldia horrelako alarma-egoera bizitzen dutena.

Sumatuko gintuen kanpotik eta txirrinajo eta jo aritu da bost bat minutuz, aspertu eta alde egin duen arte.

Ireki dugunean, lanpasaren gainean gutun bat aurkitu dugu. Gutako bat Prefekturan aurkezteko deialdia da. Bilera egin eta ezer egin aurretik Iparraldera deitu behar dela erabaki dugu.

Haurtxoarentzat izan da gogorra, konturatu baita helduok aztoratuta genbiltzala eta negarrez hasi da, ezin izan dugu kontsolatu, ezta gehien maite dituen jolasekin ere.

ASTEAZKENA

Elurra! Dena zuritu du. Langile auzo triste hau edertzeraino.

Bizitzan horrelako hotza pasatu gabea nintzen. Hiri erdigunetik oinez etorri behar izan dut, errepidea izoztu eta autobus zerbitzua bertan behera utzi dutelako. Ni ere ozta-ozta ibili naiz, bizkarrean ekarri dudan arropa garbiz betetako kirol-poltsa handiarekin irrist egin eta lurrera erori ez naizenerako!

Ez dugu garbigailurik eta txandaka joaten gara la-bandieriara, nik hirira joatea maite dut, *Libération* egunkaria edo liburu bat aurrean dudala ebaki bat hartzeko –«noisette» esaten zaiola ikasi dut–, makina lanean ari den artean.

IGANDEA

Sentimendu kontrajarriz betetako eguna izan da gaurkoa.

Lagunak etorri zaizkit bisitan, Euskal Herritik honaino. Gau osoa gidatzen eman dute, eta arratsean itzuli dira, bigarren gaua emango dute autoan.

Ordu bete-beteak izan dira. Nolako beharra nuen «gure gauzez» hitz egiteko.

Alde egin dutenean, ordea, negar egin dut. Gaur jabetu naiz guztiz, lagunak Euskal Herrirantz abiatu direnean, errefuxiatua naizela, erbesteratua, ezin dudala Euskal Herrira itzuli, muga alde honetara igaro nuenen ate bat hetsi zela nire atzean, berriro ere haranzko norabidean noiz gurutzatuko dudan ez dakidana.

Etxekoek ere opari eder bat egin didate. Lotsatuta nago ordea. Orain arte beste kide batekin egiten nuen

lo gela berean. Eguna lagunekin pasatu dudan bitartean, gelen banaketa aldatu egin dute. Aurrerantzean, gela txikiena niretzat bakarrik izango da. Kide batek egongelan egingo du lo.

Lehengo gelara abiatu naizenean, begiak estali eta etxeko bi neskek eskutik helduta ekarri naute hona. Nire arropa eta liburuak armairuan eta apalategian txukun-txukun aurkitu ditut, eta mahaiaren gainean Olivettia!

«Orain gustura idatzi ahal izango duk», esan didate, «inork trabarrik egin gabe». Eta bakarrik utzi naute-nean negarrari eutsi ezinik ibili naiz.

Lehen ez nintzen hain hunkibera.

ASTEAZKENA

Jean Geneten *Haute Surveillance* aurkitu dut! Ulertu dudanez azken-azken argitalpen moldatua da. Frantses pixka bat ikasten dudanean gaztelaniatik egin nuen itzulpenarekin alderatu eta zuzendu egingo dut.

OSTEGUNA

Euskal Herriko pirata eta kortsarioei buruzko liburu ederrei begira egon naiz. Pirata-eleberri bat idatzi behar dudala bururatu zait, nire irakurzaletasuna er-natu zuten amaren eta Emilio Salgariren omenez. Pellot kortsarioa izango da protagonista nagusia, eta izenburua: *I am The Pellot*.

LARUNBATA

Dena lotuta! Datorren hil hasieran Parisera noa! Frantsesa ikasi eta unibertsitatean izena emateko aukera izango dudala esan didate.

Odolaren usaina

Hilabetez baino ez dugu elkarren berri izan; frantses ikastaroak iraun duen bitartean. Eta azkenean ez naiz ausartu euskalduna naizela esatera. «Ez naiz ausartu» esatearekin aski nuke. Koldarra izan naiz. Koldarkeriak ere saria duenik ez nekien ordea.

Académie Française izena ematean espainiar nortasun agiria aurkeztu eta ez nuen protesta egin nationalité espagnole jarri zidatenean. Erdi ezkutuan bizi naiz-eta hemen. Berez ezingo nuke Parisen bizi Prefekturan helbidea eman gabe. Errefuxiatuen komiteko arduradunak esan dit hobe dela horrelako saltsetan ez hastea, uzteko helbide ofiziala A.n, egiteko tarteka lotura han dauden kideekin eta inoiz Prefekturatik deitzen banaute, joateko, izapideak bete eta kito. Bestela, ikerketak egiten has daitezkeela, ea zertan nabilen Parisen, non bizi naizen, eta, batez ere, ez dela kome-ni Poliziak pentsa dezan euskal errefuxiatuak Parisen biltzeko asmotan gabiltzanik. Nire ustez badago horren atzean beste konturen bat, baina, tira, hemen bizi naitekeen bitartean, bost axola.

Hasiera-hasieratik esan nien Iparraldeko komite-
koei: Euskal Herritik irtetekotan, Parisera. Dagoeneko
Bretainia, Normandia, Korsika, Pirinioetako departa-
mentu guztiak eta Belgika, Alemania, Suitza eta Ita-
liarekin muga egiten dituztenak ere debekatuta ditu-
gu euskaldunok. M.ra igorri nahi ninduten hasieran.
Ezetx esan nien, inolaz ere ez. A.ra, orduan, proposa-
tu zidaten. Han ere ez zitzaidala deus galdu. Parisko
kontaktua egin bitartean joateko hara. Hiriburutik hur-
bil zegoela eta bertako komiteko norbaitekin harrema-
netan jarri eta hona etortzeko hitzordua eta bestela-
koak lotzeko errazagoa izango zelakoan konbentzitu
ninduten.

Hilabeteren buruan hemen nengoen. Argiaren Hi-
rian. Oraindik ere harrিতuta nago azaleko dirdiraren az-
pian zenbateko zikinkeria pilatzen duen ziutateak.
Zenbateko giza miseria. Zenbat pertsona bizi den bai-
nugelarik gabeko etxeetan. Zenbat clochard dagoen
bazter batean botata, hiritar prestu eta presatuen
ezaxolaz, guztien begien bistan apurka-apurka hil-
tzen.

Ni ere beste paristar bat naiz orain. Txukun jantzi-
ta eta aurrez esan balidate sinetsiko ez nukeen gela
ziztrin batean biziz. Hiriaren mozorroa neureganatu

dut. Hiritarron hurkoarenganako itxurazko ezaxolaz zeharka begiraten diet txiroei, ikuskizunaz jakin-min tolesgabez gozatzeko lotsaz, ezintasunaren atzaparra nigandik urruntzen, atzerritarraren erantzukizun ezaz bernizatzen nire begirada, bertakoaren ohikeriaz elikatzen nire egunerokotasuna.

Bizi naizen eraikinaren aurreko bankuko eskekoaren aurrean igarotzean ezikusiarena egiten ikasi dut. Hor egoten da, goizetan irteten naizenean bezala etxeratzen naizenean ere. Bertan biziko da. Eraikineko atezainak eta bizilagun batzuek errieta egin izan diote, bertatik uxatu nahian. Arima errukarriek txanponak botatzen dizkiote beren kontzientziak arintzeko. Nora joan ez dakiela dirudi, frantsesa ere ez duela ulertzen esango nuke. Ez ditu gau samurrak igaroko, udan gauden arren. Tarteka, gelatxora igoarazi beharke nukeela etortzen zait, bederen kafe bero bat har dezan. Segituan baztertzen dut asmoa: ezin duk halakorik egin, ez hago Bilbon, gela baldintza batzuekin utzi ditek komitekoek. Eta *parigoaren* ezaxolaz igarotzen naiz bere aurretik.

Lehen aldiz etorri nintzenean baino ederragoa iruditatu zait hiria. Ordukoan turistaren begiekin ikusten nuen dena. Orain ordea bere altzoan bizi denaren bi-

rikekin arnasten dut. Hiriak ni ere horrela hartzen nauela iruditzen zait. Ez naiz zoramenezko astebetean irauten duen maitasun kartsuaren ostean bertan behera utziko duen maitale txepel horiek bezalakoa. I love Paris, I love NY eta I love Spain pegatinen bilduma egiten duten turista irrigarri horietakoa.

Hiriaren eta bion artekoa puska baterako sinatutako kontratua delakoan nago. Sorginduta nauka. Nire bihotza beste nonbait dagoen arren, leial izango natzaiola iruditzen zait, ez zaidala erraza izango bere erakarmenari ihes egitea, hemen ezagutu ditudan euskaldun batzuei bezala gertatuko zaidala, urtebetetarako etorri eta hogeitaurteren buruan oraindik hemen daudela, urtez urte herriratzeko tenorea atzeratuz, erroak gero eta luzeago, sustraiak gero eta korapilatuago hiriaren katakonbetan, hiriaren etenik gabeko zaldiko-maldikotik jauzi ezinik, lepo-hezurra hautsiko ez badute. Hiri ez da eta inoiz gelditzen, hiriak ez du eta inoiz lorik hartzen, hiriaren besoetan jausi ahala iraungitzen zaio data itzulerarako txartelari.

Hilotako ekintzek psikosi handia eragin dute biztanleen artean. Edozein unetan ekintza handi bat gerta daitekeen kezkarakin bizi dira paristarrak. Bizi gara esan beharko nuke, baina ez naiz erabateko pa-

ristar sentitzen ekintzen aurreko erreakzioari dagokionez. Ekintzena baino Poliziaren kontrolena dut nik kezka. Inork gutxik eramaten du poltsa aldean, poltsadunei ustekabeko kontrola egin diezaioketelako. Horregatik daude barruko edukia denen bistan uzten duten poltsa gardenak boladan. Voyeurren paradisua da Paris!

Metroan sartzea ekiditen dugu errefuxiatuok, bertan kontrolak ugariak eta ustekabekoak baitira: poli-ziak egoten dira metro-zuloaren ahoetan, eta militar-
rak geltokietan. Hilabete gutxiotan hiria hain ondo ezagutzen lagundu dit horrek: oinez eta autobusez na-
bilenez hiria gainazaletik barneratzeko aukera izan
dut, ohikoa izaten ez dena. Turistentzat, eta biztanle
askorentzat ere, hiria monumentu eta metro-ahoen
inguruan antolatutako artxipelagoa da.

Inoiz ezagutu dudan hiririk ederrena da Paris. Ka-
lean oso berandu arte ezin ibili banaiz ere, iparralde-
tik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera zeharkatu
dut, auzo batetik bestera igarotzean, mundu bat utzi
eta guztiz desberdina den beste batean sartuz. Usai-
nak, mintzairak, janzkerak, arkitektura, auzoen histo-
ria. Gaurko paristar gizartearen bizitza ere aurreko be-
launaldien gainean metatuta dagoela nabarmentzen

da eraikin eta kaleetan, barrikadetarako hainbatetan erauzitako galtzadarrietan. Iraultzek eta gerrek eragindako esperantza eta minen gainean irri mikatza egiten ikasi duen hiria da hau, barre algaraka ari denean ere erraietako min sakona nabaritzen zaiona.

Borborka izaten dut burua. Hilabete gutxiotan hamarnaka film ikusi dut, eta eguneroko antzerki-eskaintzak Euskal Herrian urtebetean dagoena gainditzen du. Zorabiatzeko moduko kultur eskaintza ematen dit Parisek. Ez daukat ordea aberastasun guzti honetaz norekin hitz egin. Zertaz idatzi ere jakin gabe oheratzen naiz. Lehen aldiz bizitzan, alter egorik gabe nabil. Konspiratzaile eta konplizerik gabe alboan. Zurtz. Hormak ez dizkit pilotak bueltan igortzen. Barkarka nabil bertsoan. Erantzunik gabe, agortu egiten zait etorria.

Poliziaren batek nortasun agiria eskatu izan didan ere, espainiar nortasun agiria erakusten diot, nahiz eta diru-zorroan gordeta daramadan Frantzia hiruhileko egonaldia baimentzen didan *récépissé* arrosa kolorekoa; Espainiako Poliziaren eskuetan jar ez nazaten igaro-baimena. Pentsatu nahi dut Iparraldean kalean atxilo hartu eta mugan jartzen hasiak diren

errefuxiatuak paperik gabe edo paperak iraungita dituztenak direla.

Zorionez hemen poliziek azalaren ilunari eta janzkerari erreparatzen diote beste ezeri baino lehen. Lehengoan hiru poliziaz osatutako patruila bat zetorren kalean gora, autobusaren zain nengoen geltokirantz. Haien bidean zeuden hiru gazte beltzak ingurura etorri eta nire atzean babestu ziren. Poliziek ordea niri jaramonik egiteke haiei eskatu zizkieten agiriak! Niri, itxura egiteko ere ez.

Beraz, biziraun legez l'espagnol naiz, baita Académie-ko irakasle eta ikaskideentzat ere. Agirian Donostiako helbidea dudan arren Madrildarra nintzela esan nien. Klasean nire abizenen euskalduntasuna identifikatu zezakeen espainiar abizenetan aditurik ez ego-teak lagundu dit.

Kurdua baino puska bat koldarragoa izan naiz, bai. Berak ondo defendatu du bere herria, ez du esan turkiarra denik, ez du esan Istanbulekoa denik. «Je suis kurde, je suis né à Siirt». Norberak bere herriaren ezaugarrien berri eman behar izan genuenean argi azaldu zuen herri kurduak jasaten duen zapalketa, irakasleak ikasle turkiarrarekin batera aterarazi zuenean arbelera.

Turkiako mapa handi bat ekarri zuen turkiarrak eta geografia azalpen orokorrak eman zituen, Marmarako itsasoa, Istanbul Konstantinopla zela, Otomandar Inperioa. Kurduari utzi zion txanda ondoren, eta honek hatzarekin markatu zuen bere herriaren eremua, maparen hegoaldean, eta mapatik kanpora ere luzatuz, «hemen Irak dago, baina hau Kurdistan ere bada, eta hemen Siria legoke eta hor ere kurduak bizi gara eta baita ere hemen Iranen, eta leku guztietan gaude jarriak, hizkuntza bera ere debekatuta duen herri zapatua gara eta gure askatasunaren alde borrokatzen gara, armak eskuetan, Öcalan gure buruzagiaren ildotari zintzoki jarraikiz». PKK-k herria askatzeko egiten duen borroka armatuaren alde egin zuen tolesgabe.

Turkiarrak ez zuen ordura artean sekula kurduei buruzko deus entzun. Hortxe, gure aurrean jakin zuen Turkiak herri oso bat zanpatzen ziharduela. Neska jatorra zen eta bere harridura zinezkoa zela iruditu zitzaidan. Horrek eman zidan kurduak Turkiako estatua- ren menpean jasaten duten ostrazismoaren neurria.

Tira, kurduak errefuxiatu paper ofizialak ditu eta nik soilik OFPRAn egindako eskaera baino ez; onartuko duten inolako esperantzarik gabe, gainera.

Guztiarekin, hori lotsa: «Je suis espagnol, je suis né à Madrid».

Ikasgela kosmopolita da: japoniarrak, brasildarrak, alemaniarrak, espainiarrik ez zorionez, kurdua eta turkiarra, zinez bitxia den perutar txiki bat -txiroa ematen duena eta klasean dagoen gizarte maila ertainetik oso behera dagoena, gehientsuenak, bereziki brasildarrak eta japoniarrak aberaskumeak baitira-, bi israeldar eta bera, Karen, poloniarra.

Israeldarrak Mossadekoak direla esan zigun irakasleak. Denon aurrean aholkatu zion kurduari ez erantzuteko haiek egiten zizkioten galderei, ez emateko informazio gorderik, kontuz egiteko. Izan ere, egun pare batez kale egin eta gero irakasleak klaseetara zergatik huts egin zuen galdetu zionean, bere lehen-gusu batek muga-paso zaila izan zuela esan zigun, ez dakit zein mugaz ari zen, ulertu nuenez -bere frantse-sa, artean nirea bezala, ez zen-eta oso ona- zauritu egin zuten, eta saioan hanka bat galdu arren arrakastatsua izan zen pasoa.

Atsedenaldi batean, ni ere galderez josi ninduten israeldarrek. Madrilen *bero* egiten duela esanez hurbildu zitzaizkidan behin, eta nik Parisen ere *bero* egiten duela erantzun nien. Izan ere, uda beroa da aur-

tengoa, diotenez aspaldiko beroenetakoa. Beste bero batez ari ziren noski, ETA egiten ari zen ekintzez ari zitzazkidan, eta nik Parisen ere antzeko beroa egiten zuela ulertarazi nahi izan nien nire frantses mailak baimentzen ez zuen sotiltasunez. Ez nintzen oso sinisgarri agertuko espainiarraren mozorropean, seguruenera zinezko espainiar batek baietz erantzungo liekeelako terrorista sasikume horien astakeriengatik gaizki-esaka hasiz. Elkarrizketa segidarik gabe utzi eta Kareni apunte batzuk eskatu behar nizkiola aitazkia, ahoa bete galdera utzi nituen.

Benetan Mossadekoak baziren honezkero nire abizenaren inguruan ikerketak eginak dituzte. Zorionez helbide faltsua eman nuen Académie-an.

2

Lehen egunetik nabarmendu gintuen irakasleak Karen eta biok, ikasle aurreratuenak ginelako-edo. Gu, bigarren edo hirugarren egunetik aurrera, elkarren ondoan esertzen hasi ginen.

Klasetik irtetean, elkarrekin egiten genuen tarte bat, beste ikaskideen atzetik, kafetegi batera edo

gehienetan McDonald'era bidean (Pariseran etorri behar gorroto dieran fast-food horietako batean lehen aldiz sartzeko!). Lehen egunetan tropelaren atzetik sartzen ginen gu ere, cheeseburgerrak frantses kutsuz nola eskatu ikastera. Segituan hasi ginen ordea taldetik bereizten, Luxembourg parkeko igarobidean gure urratsa moteltzen, besteak galtzen genituen arte, hango urmael, zuhaizti eta estatuen artean frantses mintzatuan trebatzeko, inoiz ikasgairan bat edo aditzen baten jokoa *Bescherelle*an berresteko.

Behin, Académie-an Nô antzerki emanaldi bat ikusi ostean Quartier Latinerantz abiatu ginen ikuskitzuzunaz hizketan. Japoniar antzezlearen emanaldia ez zen Karenen gustukoa izan, ez zuela ulertu zioen. Ni, berriz, laino baten gainean irten nintzen antzokitik.

Mishima nuen buruan, Kawabata. Eta segituan Mirande etorri zitzaidan. Mishima eta Mirande, biak eskuindarrak, biak beren herriaren kulturaren ikuspegi esentzialistadunak, bortxaren goresleak, biak jakintsuak, idazle paregabeak, buruaz beste eginez hilik biak, urte berean: bata bere heriotzaren ordua errebolta-ekintza eta ikuskizun bihurtuta, ezpata eta luma; bestea guztien ezjakinean, isilean, hemen, zein kaletan oraindik ez dakidan Paris honetan bertan.

Japoniako literaturaz baino ez nintzaion mintzatu Kareni, ordea, zuberotarrarena isilduz. Hango kulturarekiko dudan jakin-min eta miresmenaren berri eman nion, zinema, literatura, antzerkia.

Erdia ez zidan ulertuko. Frantsesari, hala esan badakioke mintzatzen nintzen Molièreren mintzaira saraskituari, gaztelania eta ingelesa nahastu nizkion nire azalpenean. Mihiari kosk egin behar izan nion euskarak hango irla batzuetako dialekto batekin omen duen antz handia ez aipatzeko.

Karen poloniarra delako oroituko nintzen Tadeusz Kantorrekin. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian ikusita nengoen izenburua oroitzen ez nuen haren antzezlan bat. Ea ezagutzen zuen galdegin nion. Ezetz. Mishima ez ezagutzea ulertzen nuen, baina Kantor ez ezagutzea ezinezkoa zela esan nion, antzerki poloniar garaikideko zuzendari hoberenetakoa zela. Nonbait, ez nuen izena ondo ahoskatu. Paperean idatzitakoan aditua zuela esan zidan. Ez nuen beste hari muturrik behar! Azaldu nion nola maite izan nuen haren emanaldia. Zuzendaria agertokian batera eta bestera ibiltzeak berritasun eta era berean antzinatasunaren magia elkartzen zituela. Zuberoako pastoralak aipatu nizkion, türkak eta giristinoak, eta errejenta taula-gai-

nean, Kantor bezala agertokian, mahaitxoan, banderaxoekin aginduak ematen. Ez zela taula-gainean antzezleen artean ibiltzen hura bezala, baina nik pastorala berri behar banu hortik joko nukeela, errejenta aholku-emaile, dantza urratsak ere egiten, ahapaldiren bat kantatuz. Ez zidan asko ulertu. Zuberora non dagoen ere ez zuen ulertu, Frantziako mapa egin nion, Pays Basque, la Soule... le sud de la France. Korapilo ederra. Pastorala. Hori nola esan frantsesez? Pastorale. Artzain kontuak? Ezin itzuli edo ulertarazi. Théâtre!

Hori ulertu zuen. Marrazki zehatzago bat egiten utzi zidan, bere apunteen kaieraren atzealdean. Gero, marrazkikoa azaltzeko, hortxe, rue Monsieur-le-Prince kale erdian, makila asmatu bat hartu nuen ezker eskuan, urratsak egin nituen, doinu bat ahapeka kantatuz, gelditu, kiribildu nuen makila irudikatua buru gainean, ahapaldi bat asmatu nuen zuberotar doinu akutuz abesteko, «Parisen gaude galduta jendea dabil salduta etxe-zulotan sartuta bizi-gogoia galduta», poitari ezin zion antzeman, eta klank! makilaz lurra kolpatzearena egin nuen, imintzioa oinetako-kolpe hostez lagunduz.

Barre egin zuen, barre egin genuen, algara alaiez bete genuen kalea, gure inguruan zeharka begira iga-

rotzen zirenei ezaxola. Bere onera egin zuen azkar, ordulariari begira berandutzen ari zitzaiola esan zidan, metroa hartu behar zuela, zain zituela etxean. Metro-ahoraino lagundu, agurtu eta oinez egin nuen nik, ekialderantz, Sena ibaiari jarraituz, presarik gabe; ez nuen inor zain.

Orain ere ez dut inor izaten zain. Ez naiz inoren zain egoten. Bizilekua utzi didan errefuxiatuak ez beste inork daki non nagoen; eta zerbait gertatuko balitzait ere errefuxiatuon asteroko hitzordura arte ez litzateke inor kezkatuko.

Klasean eta Karenekin egiten nituen hizketaldiez gain isilik pasatzen nituen egunak, orain bezala. Orain, ordea, alde egiterakoan egin zidan opariari esker, ez dut inoren hutsunerik sentitzen.

Klasetik atera eta Luxembourg parkean paseatzen elkarren berri ematen gindoazen batean esan zidan Karenek kristaua zela, xaloki. Sumatua nuen, zilarrezko gurutze bat zeraman-eta lepotik zintzilik, bere azal zurian dilindan, elurretako lore bat bezala.

Margo beharrik ez duten bere ezpain gorrikareei begira egoten nintzen klasean mintzatzen zenean. Frantsesez berak nik baino hobeto egiten zuen, zer-

bait jakinda etorri baitzen hona, baina nik ere asko aurreratu nuen ikastaroak iraun zuen hilabetean.

Poloniaren independentziaren aldeko borrokari buruz galdetzea bururatu zitzaidan hasieran. Gai arris-kutsua, inondik ere, gure borroka aritzera eraman nintzakeena oharkabea, eta nahiz eta gaia zeharka erabili, Espainiako estatuaren baitako nazioak ateraz hizketa-gaira, nire burua salatuko nuen beldur nintzen. Espainiar mozorropeko anonimotasun gezurtia gordetzea hobetsi nuen.

Egonaldia gurasoek ordaindu ziotela ere esan zidan, Cité Universitaireko ikasleen egoitza batean beste neska poloniar batekin partekatzen zuela gela. Nik bizilekuari dagokionean ere ezkutatu egin nion egia: lehengusu baten etxean bizi nintzela esan nion; bakarrik bizi nintzela esan izanez gero etxera (gelara!) gonbidatzeko atea irekita utziko bainukeen, eta ezin dut inor gonbidatu bertara, ez ezagun eta ez ezezagun, eta agindu zidaten ez emateko inori, ezta senideei ere Parisera bisitan etortzen bazaizkit, bizi naizen lekuaren berri.

Kristaua ez naizela bederen aitortu nion. Ez g-nuen harrezkero sineste konturik aipatu, baina ez zitzaidan iruditu bereziki axola izan zitzaionik, ez nuen-

eta niganako jarreran aldaketa nabarmenik sumatu; ez behintzat txarrera.

Klasea amaitzerakoan, lorategian promenatu ostean, kafe bat hartzeko ohitura hartu genuen. Ikasleen udako axolagabetasunez ibili gara Parisen. Hiru urte lehenago Parisera lehen aldiz etorri nintzenean ezagututako lekuetara eraman dut. Ilunabarrera arte ibiltzen ginen kalez kale, etxeratzeko ordua iritsia zela esaten zuen arte. Berandutzen zitzaigunetan, garaiz iristen ez bazen bere gelakidea larrituko zela eta gurasoei dei ziezaiekeela azaltzen zidan, ezin ziela gurasoei hutsik egin, haiek ordainduko zizkiotela Ingeniari-tza ikasketak. Nik Zinema ikasketak egiteko nuen asmoaren berri eman nion; nork ordainduko dizkidan ez dakidan arren.

Karen hizketan aritzen zitzaidanean, bezatu ezin nituen pentsamenduz betetzen hasten zitzaidan burua, ezpainei begira gelditzen nintzaion, nireekin suabeki ferekatzeko grinaz, lepo zuria arin hozkatu, bakardade gauak bere epeltasunaz uxatzeko egarria egiten zitzaidan.

Ez nintzen etxeratzeko ordua luza zezan erregutzera ausartzen, nire erreguek ataka estuan jar ez zezaten, erreguon nirekoikeria agerian ez uztearren, en-

tzungor eginez gero gure harreman orbangabeen arrakala ñimiño baina ezabaezina eta betirakoa sor zitekeen beldur. Bakardadeari zorionezko luzapen-segundo batzuk ebasteko Andrej Wajda ezagutzen ote zuen galdegingo nion, berak ere klaseko beste ikaskideek bezala Almodóvar aipatu eta goretsiko zidan beldurrik gabe, bai noski, ez dut maite ordea, metro-ahoak irensten zuen arte. Walesa eta Solidarnosc ez aipatu behar izateko, Rue des Écoles-eko liburutegiren batean edo Beaubourg-en Poloniako zinemagintzari buruzko esku-libururen bat aurkitu beharko nuela pentsatuz urruntzen nintzen, eskuak poltsikoe-tan, begirada hiriaren ederrak gatibatuta.

Batzuetan, gure eskuek oharkabeen elkar ukitzen zuten, bata bestearen ondoan lasai genbiltzala, gehienetan bularrak babestuz estutzen zuen karpeta eskuinteko eskuan hartu eta ezkerrekoa nire eskuinekoaren alboan dilindan uzten zuenean.

Palais Royal-en, Kultura Ministerio ondoko Burenen zutarriak ikusten egon ginen hartan ordea ez zen gure eskuen zabu-dantza oharkabearen lipar gutxitako deskuiduko ukitzea izan. Geldirik geunden eskultura-gunea inguratzen zuen eskudelean bermatuta, lurretik sortzen edo lurrean sartzen diren zutoin zuri-

beltzei begira. Bere eskuaren epela nabaritu nuen ni-rearen ondoan. Inguratzen gintuen zalaparta isildu egin zen. Gu ere bai. Mintza gintezkeen eskulturei buruz. Ohitura baikenuen Parisko monumentuei buruzko gure usteak elkartrukatzeko, iritzi-kidetasunarekin laketzeko. Lehen urratsa eman nezan aiduru ote zegoen?

Une horretan jabetu nintzen jada ez dudala bizitza datorren bezala hartzen. Nire egintzek izan ditzaketen ondorioei bestelako ikuspegi batetik begiratzen dieda-la orain. Etorkizunari buruz arduragabe izatetik haren menpeko bihurtu naizela. Ezezagunaren aurrean zuhur uzkur koldar.

Karen eta bion arteko harremanak izan zitzakeen ondorioek kezkatzen ninduten! Zergatik ez nindoan lehen bezala bizitzan babes-jantzirik gabe? Aurreiritzi eta kalkulua besterik ez nerabilen: zer etorkizun luke gure harremanak? Zer ondorio? Aipatu behar ote nien beste errefuxiatuei? Onespena behar ote nuen? Nola baldintzatuko zukeen horrelako harreman batek nire bizitza? Elkarrekin hasiz gero ezingo niokeen ezkutatu hiru hilero hutsik egin gabe A.ra paperak berritzera jo-ateko betebeharra. Nire benetako nortasunaren berri ematekotan zer jarrera hartuko ote zukeen? Eta mai-

temintzen baginen, sufrimendua besterik ez zen aterako horrelako harreman batetik: Varsoviara itzultzeari uko eginez gero, bere gurasoekiko hausturak gure harremana kutsatuko luke. Eta nola atera behar genuen bizimodua Parisen? Ni atzerrian bizitzera behartuta bainengoen.

Ez nuen nire burua ezagutzen, mota horretako kezka eta hautsi-mautsietan ito beharrean. Ez nintzen ni.

Uda gau bateko maitasun zoraldia izan zitekeen, eta kito. Zertarako kezkatu etorkizunaz. Kezkatu al nintzen bada ordura artean? Berak hala nahi bazuen, eta nik hala nahi banuen, une eder bat izango zen, souvenir gozo bat, Pariskoa. Pariskoa Pariserakoa, souvenirra, nire kasuan, ez baitzirudien azkar batean Eiffel dorrearen erreprodukzio txiki batekin apaindu ahal izango nuenik gurasoen etxeko apalategia.

Bera ordea itzuliko zen gurasoenera, une batez etendako etorkizunaren hariari korapilo ikusezina eginda, ni bertan utzita, korapilo eginda, ikusezin. Lehen bezain bakarrik, agian bihotza erdibituta, Euskal Herria eta Poloniaren artean, Parisen.

Bihotza hustuta hegoaldearen eta ekialdearen artean. A.ri erantzungo nionean, bai, baietz, ezagutu du-

dala neska bat, baina behin baino ez dugu egin larrutan, eta gainera alde egin du, zer axola du nongoa den, poloniarra da, bai, gustukoa dut, bai, zer nahi duzu esatea, ederra den?, bai, ederra da, baina hori ez da kontua, maite zaitut, ez dakit maite dudan, nola nahi duzu jakitea, ez izan zakarra, pasatu da, bukatu da, nola?, gurekikoa bukatu dela?, ez egin halakorik, maite zaitut, maite zaitut, bera ere maite ote dudan?, ez zu bezala, ez, ezin dut esan biak maite zaituztedanik, bakarrik nago hiri handi honetan, egunak luzeak dira inorekin hitz egin gabe, eta hitz egiten dudanean buruan darabilzkidanak azaltzeko mihi elbarri trakets zehaztugabe honen menpe nago, sabaira begira lo egiten dut, albo batera jarriz gero belaunak maindiretik kanpora ateratzen zaizkidalako, ipurdiarekin horma hotza jotzen dudalako.

Ustezkoak eta balizko ondorio gatazkatsuen amesgaiztoak baztertu eta nire zalantzak ezkutatzeko Karenek ez zuela halakorik nahi esaten nion nire buruari. Eta nik beragana sentitzen nuen erakarmena hiri handiaren bakardadeak eragindako etsiaren kume sasikoa zela; atzerriaren zauria sendatzeko botikatzat hartzen nuela Karenenganako harremana.

Orain, bata bestearen ondoan etzanda bi pertsona sartzen ez diren ohetxoari begiratzen diodanean, etxera, hona, Parisera etorri geroztik bizilekutzat izan ditudan hiruren artean ziztrinena den gela honetara etortzea proposatu eta onartu izan balu, zer gertatuko zatekeen nire bizitzan pentsatzen jartzen naiz. Bere gorputz biluzia irudikatu eta tximeletak dantzan hasten zaizkit, mototsean bilduta zeramatzan zetazko bilo hori askatuetatik burua bere sabelean bermatu horzkada txikiz bulartxoak kitzikatu titiburuak irentsi alu-aldeko ileak ferekatzeraino.

Alferrikako ameskeriak, dagoeneko sekula gauzatu ez diren desirak. Joana baita, desagertua nire bizitzatik. Iraganak irentsia. Nire orde. Nik orde.

Nire jatorria aitortzeko orduan bezain koldarra izan naiz horretan ere. Ez dut bizitza aurreiritzirik gabe besarkatu. Eskularruak, aho-sudurretarako kirurgia-mozorroa, txabusina berdea. Zertaz kutsatzeko beldur ote nintzen? Norenganako edo zerenganako loturek eragotzi didate Karenekiko abentura? Atzerrian nagoenez gero zer espero dut bizitzaz? Jatetxe bateko karta bat dela uste al dut? Lehen ez niokeen muzin egingo dastatzeari, gertatzen zena gertatzen zela. Are, zerbait gertatuko zen desiraz. Eta orain, non eta

hemen, inork ezagutzen ez nauen ingurunean, kezka besterik ez dut ibili. Gutiziazko jakiekiko ingirati.

Nire jatorria mozorrotu behar izanak nahasmena eragin didala esaten diot nire buruari. Kontsolagarri. Ez al zatekeen errazagoa izango bera bezain benazko eta egiatia izan banintz?

Karen, euskalduna naiz, errefuxiatua, nire herria bere askatasunaren alde borrokan ari da eta horregatik alde egin nuen, orain kontu niezazuke zergatik, Cité Universitaireko futbol-zelai aurrean eserita ikasleen Resto U-an bost liberetan ematen duten garagardo eta oilasko zatia jan bitartean, La Santétik bere neska-lagunak gidatzen zuen helikopterora igota ihes egin zuen Michel Vaujorren balentria miresmenez harrera aterata, hortxe bertan lurrartu baitzuten duela bi hilabete, bada nik ere... neska-laguna dut baina zorrotuta naukazu, zurekin oheratu nahi dut, ezin zaitut ordea nire bizilekura eraman, ez, ez naiz lehengusu batekin bizi, gela ziztrin batean bizi naiz, eta ez ginatekeen ohean bata bestearen ondoan sartuko, inor ez eramateko agindu didate gela utzi didatenek, segurtasun arrazoiengatik, begiak itxita eramango zintuzket, hitzordu ezkutu hartako etxera eraman nindutenean bezala, kristalak itsututako eguzkitako betaurrekoen

atzean ostenduta begi eder horiek, makulu zuri bat eskuan, *itsurak* egiteko nire besoa bestean, ni ere itsu, adimenez, bata bestearen ondoan aratinik ez bada, bata bestearen gainean etzango gara, istapeka, niri berdin zait nor noren gainean, liluratuta naukazu, zure azalaren kolorea, zure adatsa, zure ezpainak, irudikatzen ditudan zure titiburuak, sabelaldea, aspaldian larrutan egin gabe nagoelako izan daitekeela ez dizut ezkutatu nahi, biharamunaren kezkarik gabeko musua eman nahi nizuke, ezpain gorrikara horiek nire hortzekin kitzikatu, bizitza datorren bezala hartu dut orain arte Karen, zergatik ez dut berriro egingo, bada- kit telefonoz mintzatzan garenean gogorra izango litzatekeela neska-lagunari beste norbait ezagutu dudala esatea, beti galdetzen dit, gogorra izango litzatekeela ez dudala inor ezagutu esatea, igarriko lidake, nola esan daiteke horrelako gezurrik horrelako egiarik kabina publiko batetik, mila kilometro eta hilabeteko distantziara, etortzeko bakantzak hartuko dituen hurrengo aldia hain dago urrun, biharamunearan elkartzekotan bageunden ere ez litzateke errazagoa, gainera esan zidan ez dela segurua datorren hilean etorri ahal izango duenik, lana dela-eta, badakizu, eta hau da nire aurrerantzeko etorkizuna, ziurtasunik ezak baino

aurreikuspen oro galarazten duen errezel opako baten atzean gordetzen denak paralizatzen nau, hain ausart hintzen koitadua, emakume beltza kabinan joka, bukatzeko, berak ere hots egin behar duela, Senegalera, eta atzean aljeriarra, eta berdin du zein kabina hautatzen dudan, orduotan beti dago norbait deitzeko, izan ere gauetan puska batez merkeagoa da telefonoz deitzea, nola aitor daiteke horrelako baldintzetan frantses klasean ezagutu dudan neska poloniar batekin, Karen du izena, baina horrek ez du inporta, oheratu nahi dut, edo oheratu naiz, horrek inporta al du?

3

Azken egunetako batean esan zidan Karenek ezkontzara birjina iritsi nahi zuela. Beste hainbatetan bezala harritu eta hitzik gabe utzi ninduen. Bere konfidentzia berri horren ordainetan ordura arte ukatu nizkion nireak eskatzen ari ote zitzaidan? Gezurrean edo isiltasunean babesten jarraitu behar al nuen?

Varsovian mutil-laguna zain zuela gehitu zuen segituan, itxitako atean giltzarrapoa. Ez bazen alderan-

tziz, itxitako atearen giltza eta giltzarrapoaren giltza, bi-biak eskaintzen ari zitzaidala?

Zer zentzu ote du orain erantzunik izango ez duten galdera horiekin burua hausten ibiltzeak?

Karenek bere bizitza ezinbesteko segida izango zuten gertaera multzo ondo atondutako bat bezala irudikatzen zuela iruditzen zait. Eta niganako harremana aurreikuspen hori indartzeko zerabilela. Aurreikuspen hori arriskuan jartzearen zirrarak erakartzen zuela nigana. Ezezagunera eraman zezakeen desbideratze baten azken aukera nintzela. Nire ondoan oinen azpiko zorua dardaran nabaritzen zuela, zorabio goxo batek hartuta, iraganetik etorkizunera artez zeraman bidearen bi alboetara nire besoek nire ezpaineek nire gorputzak sortzen zituzten labarretatik amiltzeko aukeratu ninduela. Oin puntak amildegiaren ertzean oreka doi-doi begiak itxita aire brisa batek nigana bulztatuko zuen esperantza aitorrezinez zetorrela nire alboan Parisko kaleetan Odéonetik La Bastillera. Nik urratsa egin eta erabakitasunez, Karen viens! (nola esaten da polonieraz je te désire?) esango nion unearrekin amets egiten zuela, akabo lerro zuzena, paradisu dagoelako dago infernua, eta nork daki non dagoen bata eta non bestea, gelakideari arazki gau-onak

eman eta frantsesezko ariketak egiteko edo Éluarden poemak irakurtzeko erabilitako ohe-argitxoa itzalita-koan, begiak zabal, ilunpean, bihar bai, egunak argi- tzerako gauak ezabatuko zuen musu emango diot era- baki irmoa hartzen zuela.

Artean, galde-ikur lainotsua bihurtua zen nire bizi- tza. Etorkizundun idazle izatetik, lehen hain jori sor- tzen zitzaizkidan istorioak asmatzeko ezindua, herritik sustraietatik gero eta urrunago, urrunegi orbeltzen hasitako nire hostoetara izerdia iristeko, lanbiderik gabe, berriro ere ikasle, etorkizunik gabeko errefuxia- tu izatera igaroa nintzen.

Zertaz hitz egin behar nuen idazlanetan. Nola ihes egin ia itotzeraino besoetan hartuta ninduen gure he- rriko errealitateari. Kaian murgil egitea bezalakoa izango zela esan huen? Txanpona ahoan atera, turista koitaduen txaloak jaso eta harri gainean lehortzera etzan. Ur hau ez da lehortzen ordea. Gerraren erdian nola jarraitu idazten. Eta zertaz. Beste batzuek dena ematen diharduten artean. A.n izapideak egitera la- gundu zidanaren mutil-laguna herenegun arte batzue- tan Krutwigen ondoan kafea hartzen nuen kafetegia- ren aurrean tiroz hil zutenean atzo. Etzi bera atxilotu eta torturatuko dutenean.

Gerra hau ez da berria horregatik; horrek ez zidan orain artean idaztea eragozten ordea. Distantzia kontua besterik ez al zen? Gehiegi hurbildu naizelako erre al dit suak idazluma? Ez dut baina su horretan gorituko den ezpatarik eskuetan.

Nori eman kezka eta zalantzon berri? Kezkak hitz bihurtuta ere ba al dut ulertuko nauen inor inguruan?

Kareni esango nizkiokeen, euskaraz, zer axola bestela ere ez luke-eta ulertuko, sabaira begira biok, agian hotel bateko gela aloka genezakeen, polonieraz erantzuteko, polonieraz je t'aime ere nola esaten den ez dudala jakin nahi, nik ere ez nioke-eta maite zaitut esango, gezur gehiago ez, ez da maitasuna, itsasoan galduaren etsia, nora eza, hain eder zorabioa, naufragook ere zoriontsu izateko eskubidea dugu itsasoa maitatu behar izan gabe, ekaitzak arrolaka darabilen baltsan eraiki hareazko gazteluetan behin-behinean ostatu hartuta.

Bere begi urdinekin begiratzen ninduenean, dena asmatzen zuela, deus ez zuela ulertzen, iruditzen zitzaidan aldizka.

Zer gertatuko zatekeen halako batean kalez jantzitako poliziek inguratu eta atxilotu izan bagintuzte. Ezingo niokeen azaldu zergatik ez nion egia esan, zer-

gatik esan nion gezurra. Bion frantses maila kaskarre-
giak harreman korapilatsu honi buruzkoak argitzea
galarazten zigula.

Barkaberegia naiz nire buruarekin, gezurrak eta
isildutakoak, gramatika eta hiztegiz osatutako estaku-
rueu artean hobiratuz.

Ia hasieratik jakin zuen zer gertatzen zitzaidan.
Ziur nago orain. Zer gertatzen zitzaion nekien bezala.
Bi gazte atzerrian. Hiri handiko desanparoa. Bakan-
tza egun batzuetarako primerakoa den baina egune-
roko bakartian itolarria sortzen duen Itzalen Hirian. Hi-
tzen bidez ezin adieraziz mukuru betetako espaloi,
kale-kantoi, kale-zuloetan barrena.

Musukatu behar nuen. Kito. Musuen bidez azaldu
nire barne ekaitza, mina, bakardadea, zorion beharra,
babesgabetasuna, irribarre egin arren, berak hilabete
eskas zeraman bezala, bazela urtebete arraina ureta-
tik kanpo bizi nintzela ni, dena berri, deserri, ezeza-
gun, etxez etxe, etxez beste, errari neramala urtebe-
te erbesteratuta, aldiro dena hutsetik berreraiki beha-
rez, aldiro atzera begiratu eta dena suntsituta ikus-
tearen minez, edo okerrago ezjakintasunaren larrita-
suna, etxekoengandik, adiskideengandik, neska-lagu-
nagandik urrun, haiekin harremanik apenas nuela, as-

tean behin telefono kabina batetik deitzen niela, zenbakia eman eta beraiek deitzen zidatela, merkeago izan zedin, diruz ere larri nenbilerako.

4

Atzo izan genuen ikastaro amaierako jaitxoak.

Académie Française ondoko tabernara joan gara denok irakaslearekin. Pote bat hartu eta brasildarrek berriro ere St. Michel-eko McDonald's gorrotatura joateko plana egin digute. Karen eta biok nahiago izan dugu beti bezala hara bidean Luxembourg parkean besteengandik bereizi, are gure azken txangoa izango dela jakinda.

Gaur ere, erretiratuek, turista unatuek eta parkeko lasaitasunean irailerako utzitako ikasgaiak berrikusten ari diren unibertsitarioek betetzen dituzte burdinazko eserleku tolesgarri gehienak. Usoak saldoka hurbiltzen dira maitasunaren parodia etsigarrian purra-purra ogi papurrak eskaintzen dizkieten atso desolatuen baranora, hegaldi labur ausartez elikagaia lapurtzen dieten txori ttipiekin batera. Ekialdeko zuhaitz eder bat dago gure aurrean.

Giroa sargoritzen hasia zen goizerdiko eguzkiarekin lehian, lorategiko berdeguneak freskatzen zituzten ureztagailuek, beren aldizkako zorrotada fineko tantez betez airea.

Varsoviara itzuliko da bihar. Nik egonaldia luzatuko dudala esan diot, beste hilabeterako eman dudala izena ikastegian, alfabetatze mailan, ez dudala bizitza osoa frantsesa ikasten pasatu nahi. Eta unibertsitate-rako sarrera-frogarako izena ere eman dudala, Zinema ikasketak egiteko. Agurtu bezain azkar txiki-txiki egiteko eskuan gorde dudan Varsoviako helbidea eman didanean, ez dut Madrilgo helbiderik asmatzeko adorea izan, gurasoen Donostiakoa eman diot. Ez dela Madrilgoa nabarmentzera ausartu zait. Gurasoak Donostian bizi direla esan diot. Madrilgo etxea utzia dudala. Inoiz Espainiara badoa gurasoenera egiteko bisita esan bezain pronto egin diot kosk mihiari, nahiz eta segur aski han ere ez naizela egongo, saiatu naiz konpontzen segituan. Idazteko, bestela, hobe, bai, idazteko, gurasoek helaraziko didatela bere gutuna. Eska ziezadakeen Parisko helbidea, prest nuen aitzakia, laster etxez aldatu behar dudala. Ez diot esan Varsoviarako gonbidapena ez dudala inoiz beteko, ez Varsoviara ez inora ezin naizela joan, Frantziaren mugen

barruan preso nagoela. Ez dit telefono-zenbakirik eskatu, zorionez. Madrilekin harremanik txikiena ere ez dudala asmatuko zidan.

Metalezko aulki bana hartu eta iturri batera hurbildu ginen, hankak ertzean bermatu genituen. Bestetan baino lan handiagoak izan nituen zigarreta pizteko gogoari eusteko. Karenek ez du tabakoaren hatsa jasaten.

Azken uneak ziren. Amaiera. Haurra besoetan zerraman ijito ama gazte bat hurbildu zitzaigun. Kareni etorkizuna igarri nahian tematu zen, trukean haurtxoarentzako esnea erosteko sosak eskatuz. Karenek ez zion eskua eman nahi izan. Txanpon batzuk atera nituen ama gazteari emateko. Eskainitako txanponik hartu gabe irribarre egin zuen ijitoak, eta Kareni begira-begira jarrita «Hilekoa duzu!» esan eta irriz alde egin zuen haurra besoetan estutuz. Gorritu egin zen Karen. Ez berak eta ez nik ez genuen ezer esan.

Isilune deserosoa hausteko-edo, tolestuta zerraman *Libération* egunkariko berri bat erakutsi zidan.

- As-tu vu?

Ez, berri horri kasu egin gabe gainbegiratua nuen egunkaria.

Isilik egon zen amorantea hil eta jan zuen ikasle japoniarrari buruzko berria irakurtzen nuen bitartean. Niri begira-begira sumatzen nuen. Berria bukatu eta aurrean genuen urmaelean igeri geldoan zebiltzan arrain handiei begira gelditu nintzaian.

- Comment est-ce possible de faire ça? -galdetu zidan irribarrerik xaloenarekin.

Ezin nion erantzun, ez nezakeen irudikatu nola egin zitekeen halakorik. Haurrek aiten laguntzarekin nabigarazten zituzten belaontzi txikien joan-etorrietan galdu nintzen.

Bat-batean, elkar ezagutzen genuenetik lehen aldiz, Karenen eskua nabaritu nuen nire sorbaldan.

Begiratu nion. Irribarrez ari zitzaidan, begiekin ahoarekin bere hortz zuri ederrekin, iduneko perla eder horiek niretzat ziren, ezker masaileko sakonunetxoak ere bai, lepoan zain ubel bat taupaka, zurtasun leun horren erdian odol izerditan. Ez nintzen mugitu behar. Ezin nintzen mugitu. Ondo irarri unea garunaren zoko batean. Ez mugitu ez pentsatu usainak ferekatu koloreak arnastu pentsamenduak hozkatu. Ez dakit irribarrez ari ote nintzen ni ere edo harridura baino ez zuten adierazten nire hazpegiek. Japoniar ikaslea bere maitalearen bularra jaten ikusi nuen bat-

batean, titiburutik zerion odola edoskiz. Karenek mugimendu atzemanezina egin zuen niganantz, nire sorbaldan ezarri zituen hatzekin presio goxo bat egin zidan, adore eman bezala, baietz baietz baietz edo labarretik behera erortzear dagoenaren azken ahalegina, baltsaren ertzari azken indar ahulez heltzen dion itsasturi gaixoaren ez ez ez ezpainak dardarka zituen. Zer egitera zihoan. Zer egitera gindoazen. Varsoviarako abioia. Gela ñimiñoa. Errezela. Amildegia. A.ra joan behar nuen Prefekturan paperak berritzera. Ez. Ez. Ez. Ezpainei itzuri egin nien zien genien.

Amestu bezala, mertxikaren gozotasuna zuen haren masaileko azalak, sakonunearen ondo-ondoan pausatu nuen musua, ezkerreko eskua bere bizkarrean jartzera ausartu nintzen; izerdiak bustia zuen al-kandora zuria.

Gure buruak aldendu genituenean irribarrez zerraien Karenek, goxoago, iruditu zitzaidan, hasperen egin zuen. Askatu zidan sorbalda, berreskuratu nuen bere izerditan lurrindutako eskua.

Jaiki zen, egunkaria niretzat zela esan zidan, japoniar ikasleari buruzko artikulua seinalatuz.

- Merci -esan zidan, bazihoan, bi urrats egin eta itzulia hartuta-, merci beaucoup.

Bertan geldituko nintzen. Bertan utzi ninduen. Joaten utzi nuen. Ez nintzen mugituko Saint-Michelera ematen duen atetik desagertu zen arte. Ez genuen gehiago elkar ikusiko.

Joana zen.

Hiriko kaleetan galduta ibiltzeko beharra nuen, hiriari nire bakardadea erakusteko, hiria nire bakardadearekin ohitzen has zedin. Izango genuen denbora. Puska baterako erbestea nuen hiria neureganatzeko. Nire atzerrira egokitzeko. Nire atzerri mikatzaren sakoneraino murgiltzeko. Sustraitu gabe errotzeko.

Ilunabarrean gelara iristean harritu egin nintzen etxe aurreko bankuan eskekoa ez ikusteaz. Arima dontsu batek babes emango ziola bururatu zitzaidan aurrena; segituan, ordea, bankuaren alboan begiztatu nuen orban ilunak susmo beltzagoak ernatu zituen nigan.

Gelan sartu eta beste ezer egin aurretik mahaia betetzen zuten gosariko baxerak harraskara eramanez nituen. Ondoren, Olivettia bere estalkitik atera nuen. Aspaldiko partez orri zuri bat eman nion jatera. Eta azal fereka-minez minbera nituen hatz-mamiekin hainbeste poema artikulua ipuin antzerki idatzi zituen teklatura ferekatu nuen atsegalez, atzerriratuz gerozti-

ko antzutasunari amaiera emanaz idazten hasi nintzen: «Azal zurikoa zen gure mendietako betiereko elurraren zuriaren pareko arroz-hautsen beharrik ez zeukan haren bisaiak arrosarantz lerratzen zen zuritasun hartan ezpain haragitsu gorrikarak sortzen zirenetan begietan esmeralda bi zituela pentsatu nuen segituan inori grisez tindatzea otu zitzaion esmeralda parean urre zaharraren koloreko ile adats luzeak mototsa single batez lotzen zituen eserita bizkarra zut ikusi nuen lehen unetik hura izan zen enetzat edertasunari buruz eman zitekeen etsenplurik estonagarri eta era berean lasaigarriena».

Txapitulako leihotik sartu zen eguneko lehen argitasunak idazten harrapatu ninduen.

Nire atzerri dultzean. Atzerriko nire aberri txikian.

Apartamentua

Dena dago isil apartamentuan.

Sofaren albo batean egunkari zaharrez eta aldizkariz mukuru zegoen mahaitxoan libratu eta gela erdian kokatu dut telebista-pantailaren argi urdinxkaren argitan afaltzeko, berrietako irudi mutuei begira, zurezko zoru ezkoztatuan hankak antxumaturik eserita.

Hozkailu irekiaren argitasuna baliatu dut afaria prestatzeko. Erretiluan ekarri dut tomate erdi batez, tipula xafla fin batzuez, ahuntz gaztaz, hiru oliba beltzez eta albahaka hosto xehatuz osatu eta gatz larri amiñi batez eta oliba olio zorrotada fin batez maneatu dudana entsalada. Ez dut festa handietarako sabela. Edateko, ura.

Berriro hustasun hau. Desanparoarena. Okerrago orain. Hamar milioi biztanleko hirian joarazi diote hondoa nire ontziari. Apartamentu txiki honetan itzuri. Kokaleku-argi gabeko irla klandestino honetan hondartuta.

Herenegun, unibertsitatetik etxerantz metroan nindoala baino ez nuen hartu *Libération*eko berri laburrak irakurtzeko astia. Ia galdu nuen arnasa geltokian.

Iparraldean atxiloketak. Berriro ere. Ez dira bi eskue-
tako hatzak baino gehiago izango izen-abizenez eza-
gutzen ditudan errefuxiatuak eta, hara, haietariko bat
harrapatu behar!

Jaiki nintzen jaisteko. Oin bat nasan, iritziz aldatu
nuen. Atxiloketak ostegunean izan baziren, bila ibiliko
zitzaizkidan harrezkero, A.ko helbidean ez nintzela
bizi ikasia zuketena, Parisen nenbilela ere bai, uniber-
tsitatean nola ez, zein etxetan bizi nintzen aiseago.
Bagoiko bidaiariei erreparatu nien disimuluan. Hurren-
goan jaistea hobe, etxe ingurura oinez zuhur hurbildu.

Izardia eskuetan izoztu, besazpietan beldurraren
kiratsa, ikararen zapora azidoa garondotik eztarriraino
barreiatu, uniformedun bat etxeko ezkaratzean, ar-
gazki bat eskuan, sartu eta irteten zirenen aurpegie-
kin alderatzen.

Etixerako bidea moztuta, beste errefuxiatuekin
kontaktatu nuen, gertatua azaltzeko, nirea baino es-
karmentu handiagoa zutenen iritzi hotzagoen bila.

Ez zekien inork neurriko edo gehiegizko zuhurta-
suna ote zen klandestinitatean murgiltzea. Nirea
behar zuen erabakiak. Ezkutatu nahi banuen errefu-
xiatuen laguntza-komiteko norbaitekin lotuko nindu-
ten, behin-behinerako lortuko zidaten babes-etxea.

Orain nagoen apartamentu hau, alegia.

Baietz erabaki nuen, beraz, ziurtasunez, ezkutuan ibiltzea zer den baneki bezala, baietz, ez nindutela txoritxo bat bezala ehizatuko, burgoi, ordura artean bizi izandako atzerria noiz amaituko, inoiz amaituko den jakiten ez den eltzekada astun baten zizka-mizka izan zela ezjakin, arinkeriaz? azken bi urteetako bizitza lege itxurakoa utziko nuela, utziko nituela ikasketak, utziko nituela lagun berriak, utziko nuela bi urteotan berrosatutako liburutegia, nolako mina, baina ez al zioen Fassbinderrek, berak ez zuela ez disko ez libururik gordetzen, zertarako, berriro ere irakurri edo entzun nahi izanez gero, lagun bati eskatu edo erostea aski bazen, lurrazaletik desagertuko nintzela, klandestinitatean bizitzea zer zen baneki bezala.

Dena suntsitu zaik. Berriro. Bi urtean ozta-ozta eraikitako hire mundutxoa, écrivain dans l'exil, gaueko trenean joan-etorrian egun-pasako ikustaldietara etorritako adiskideentzako Parisko txoko bitxi square gorde monumentu eder historiko eta taberna tipikoetan barrena luxuzko ciceronearena egitea bukatu zaik. La Défense, zein urrun turista literario gisa Handkeri esker ezagutu huen lehenaldi hura, etorkizunaren txantiloitzat hartutako auzuneko eraikinen ezauga-

rrien aditu bihurtua hintzen, ibilgailurik gabeko Venezia lurterra, multinazionalen abaraska, aldiri txiroen mugan langileen eta zizelkarien erdeinurako eraikita-ko etxe-orratzak, l'Arc du Triomphe lerro zuzena, La Bastille, Place des Vosges, Victor Hugoren etxea hor, ez, ez, oraindik ez naiz sartu ikustera, Buttes Chaumonteko parkea, Butte-aux-Cailles, *Le temps des cerises* jatetxea, Les Halles, Rue Saint-Deniseko prostituten ikustera, begira hementxe kalearen muturrean, esanguratsua ote, Nafarroako Enrike III.a Henri IV de France Parimezabatentruke et de Navarre, begira Nafarroako armarrria ere harlauza honetan, Frantziakoaren erdia, Espainiakoaren laurdena, Euskal Herrikoaren seirena. Lapurren herria Frantzia, Obeliskoa, Tuillerieseko garaitza arku horren gainean dauden zaldi horien jatorrizkoak Veneziara itzuli behar izan zituzten, ikusiak ditut nik Piazza San Marcon gauzak nolakoak diren, Louvre Ali Babaren harpea, hor piramide bat eraikitzen ari dira, Mona Lisa. Moulin Rouge, hara Montmartreko kale estuetan turistentzat propio jarritako Toulouse-Lautrec hori, Sacré-Cœur-eko basilika, Urgulleko Jesusen Bihotzaren anaia handia, barrikadetan eta Père-Lachaiseko hormaren kontra akabatu zituzten errebolta-rien, Kaledonia Berrira, kanaken arte-

ra desterratu zituzten Louise Michel eta enparauen laido-
garri, herritar sinestunen diru biltzeari esker erai-
kia, jainkoa lagun iraultza ez zedin inoiz gehiago Paris-
ko galtzadarriez jabetu. 68ko maiatza iritsi zen ordea,
petit parenthèse, dernière parenthèse? lazko ikasleen
manifestazioetan Donostiako Boulevardeko zirrara ber-
ritua, biderkatua, c'est comme chez nous, c'est
comme chez nous, Renaud kantaria han urruti agerto-
kian, nous sommes plus de cent mille eta gero eta gu-
txiago eta Denfert-Rochereauko plazan berrehun
eskas zer egiten duk hemen! Hoa etxera voltigeurrek
duela zazpi urte grisek Iñaki Kijera auzotarra Igentea
kalean bezala tiroka hil dute Malik Oussekin rue Mon-
sieur-le-Prince-n, La Sorbonne ondo-ondoan, alferrik
gabiltza oihartzun bila inguruko tabernetan, goizero
garbitzen dituzte galtzadak ur txorrota bortitzez, gre-
ziar batean afalduko dugu edo couscous bat, hemen
oso ona ematen dute, gaueko trena hartu aurretik
Meskitara eramango zaituztet menda te bat hartzera,
ezagutzen dut pasabide bat Panteoi ingurutik eta
Lutèce-ko zirku erromatarra erakutsiko dizuet bide
batez.

Zinemagile ere ez haiz izango, Rainer Werner. Bu-
katu dituk unibertsitateko klaseak. Ikaskide eta lagu-

nak agurtzeko aukera gabe bukatu zaik hasi berri zen bigarren ikasturtea. Polizia atzetik badabilkik lehen gauza unibertsitatera joatea izango baita, Peckinpah; eta galdetuko dik norekin ibiltzen hintzen en voyage d'affaires, zein ikaskide izan duan lagun joan deneko ikasturtean travelling, jakingo ditek eguerdietan norekin qui pro quo bazkaldu ohi huen kanpoko mailadietan eserita le diable au corps uni-ko tabernako ziapea eta ketchupez ondo blaitutako découpage hot-doga eta Coca-Cola, Resnais; bokata begetarianoa eta ura ordea cadre bakarrik hengoenetan, Truffaut. Bukatu Nouvelle Vaguekoen filmen azterketak, *Cahiers de Cinéma*ko artikulu burutsuei buruzko eztabaidak, bukatu muntaia eta zinema zuzendaritza ikastaroak, au harem d'Archi Ahmed.

Eta honi zeren usaina hartzen diok, écrivain dans l'exil de mes deux?

Afaldu bitartean, aurkezlearen imintzioetan asmatzen ari nintzen berriaren tragikotasunaren maila.

Bat-batean pantaila betean ETA hizkiak albo batean zituen Hexagonoaren mapa agertu den arte, Baiona, Poitiers, Angers, eta beste hiri batzuk nabarmenduta, bakoitza bere kopuruarekin.

la bota dut mahaitxoa bolumena igotzera derrepentean altxatu naizenean.

Sarekada egin du poliziak Iparraldean eta Frantzia zehar ETaren aurka, dans les milieux des réfugiés, zehaztu du, nahasketa, amalgama, ondo oratze-ko. Irudietan polizia, hedexuriak, argi urdinak, igandean goizaldeko seietan hasi dela l'opération, Pasqua Barne ministroaren ondoko Pandraudek egin ditu adierazpenak, euskal terroristek ez dutela giza esku-bideen Herrian babesik izango haboro, ondikoz.

Bart, Elysée Montmartreko agertokian Berurier Noir, Ludwig von 88 eta Kortaturen emanaldiaren une batean, Pasqua eta Pandrauden buruhandiak agertu ziren taula-gainera, ikusleek, tartean Parisko euskal errefuxiatu taldetxoa, otso guztiz gaiztoaz ari den kantaren lelo eraldatua qui a peur de Monsieur Pasqua de Monsieur Pasqua de Monsieur Pasqua eztarri urratzeraino oi, oi, oi, oihukatzen genuen bitartean.

Paris ez da agertzen sarekadaren jo puntuen artean. Orain ni bezalatsu egongo dira Parisko beste errefuxiatuak. Ez, berdin ez, bart nik banekien nire azken pogoak zirela izerdi patsetan *Sarri, Sarri* dantzatzen ari nintzenak. Adarra jo zidaten besteek, kontzertua amaitu aurretik alde egin behar nuelako orain

nagoen gordelekura ekarri behar ninduen kontaktua-
rekiko hitzordurako. Nireak egina zuen. Haiek ordea
legalki bizitzen jarraituko zutela uste zuten oraindik.

Beren trufei zigarreta piztuz ufadaka hazpegiak
gogortu nituen izukaitz aditzera emanaz horrelakoeta-
ra eginda nago zuek ez dakizue baina utzi zuen irudi-
men sukartsua hegan honen antzeko zenbat estualdi
ez ote dudan igaro muga pasatu nuenetik eta are
muga pasatu aurretik, harropuzkeria ikara uxatzeko
mamu.

Orain beraiek ariko dira gogoetan nora jo non
babes hartu entxupinatu zein lagun ezagunen etxeko
atean jo elkartasun erruki mozorrotu eske, honezkero
harrapatu ez banaute agian ziurrena zuhurrena
etxean gelditzea dela nola jakin Prefekturan ez dutela
helbide honen berri ez mugitzea dela lasaitzen saiatuz
beren buruak.

Etzidamu, merezi badute ere, segurtasun hitzor-
dura inor azaltzen bada, ez diet adarra joko. Ez da
txantxetako egoera. Igarle izan naizela dirudi e?,
esango diet sotilki, igandeko krudelkeriaren ordainean
ironia mikatz pixka bat bederen merezi duzuela onar-
tuko didazue adieraziz begi-kliska batekin.

Etxe honetan eman ditudan ordu urriak aski izan zaizkit gainera etorri zaidanaren tamaina susmatzeko.

Eta telebistako berria eta gero, ni ezkutuan nengoen bitartean egun-argitik lagunduko zidaketen kideak ere ni bezala sator-zuloen bila sumatzean, gau iluna baino beltzagoa agertu zait etorkizuna. Asma neza-keen konparazio airosago bat, bai.

Abangoardia izan haiz, motel! Egun batez aurreratu hatzaio sarekadari. Azti. Belagile. Iragarle. Asmalari. Mago. Desagertu. Ikusezin. Auzo-munduko biztanle deserrotu. Arrotz herriko itzal. Ez helbide ez helmuga. Ez hau inork deituko desorduetan. Ez dik inork eragozpenik egingo atsedean orduetan. Ez zaik inor etorriko laguntza eske. Ezingo diok inori laguntza eman. Hire askatasuna zagok jokoan. Hire burua babestea bihurtuko duk hire bizitzaren helburu. Atsedean hartzen ez duen zaldiko-maldiko hire bizitza. Hire askatasuna gordetzeko giltzapetuko duan hire bizitza.

Zeren hatsa hartzen diodan honi?

Bakardadearena.

Zer uste huen bada, usaindu eta gero urruntzerik izango huela? Behin erabakia hartu ostean atzera egiterik izango huela?: barkatu tronpatu naiz, ez zen hau hartu nahi nuen erabakia, gainera ni errugabea naiz,

ez dut zertan ezkutatu, torturari baino ez diot beldur, inor salatzeari, kartzelari ere pixka bat.

Ohitura kontua izango ahal da hau ere.

Azpi-atzerrian murgiltzea. Ez daukat beste ihesbiderik.

Ez bada atzo kide batek iradoki zidana:

- Zergatik ez hoa Mexikora?

- Mexikora?

- Bai, han lasai ibiliko haiz, eta idazten jarraitu ahal izango duk.

- Mexikora?

- Lagun bati pasaporteia eta nortasun agiria eskatzen badizkiok, nik badiat azkar batean hire argazkia paratu eta paper faltsu txukun batzuk eskuratzeko modua. Dirua ere beharko duk, hara joateko eta hango lehen hilabeteak pasatzeko. Paperena doan egiten zigutek.

Pentsatuko nuela esan nion. Etzidamuko hitzordurako erantzuna. Bai ala ez. Lagunen zerrenda egin dut buruan dagoeneko. Dirua gurasoei eskatuko nieke. Mezuak helarazteko bidea ere eskaini didate.

Nola aldatu diren kontuak hogeita lau ordutan. Honezkerok besteak ere Mexikorako asmoarekin zalan-tzan ibiliko dira.

Beste berri batzuei ekin dio aurkezleak, bolumena apaldu dut. Pantailari itsatsita egon naizela konturatu naiz.

Entsalada bukatu gabe gelditu da platerean.

Dena dago berriz isil apartamentuan.

2

Apartamentu hau dagoen eraikina parekoak baino garaiagoa da. Eta azken estaia den arren, etxarteko leihotatik datorren eta hiriak berezko duen argitasun mehearen laguntzaz egin dut sukalderako bidea, afariko hondakinak zakarrontzian hustu eta platerak harraskan uzteko.

Ez egiteko harrikoa agindu dit etxeko neskak gaueko lanera alde egin duenean. Goizaldean iritsiko dela. Croissantak edo pain au chocolat nahi dudana. Berdin zaidala. Pain aux raisins esan banio ez zukeen nire txantxa-doinua harrapatuko, frantsesez oraindik ez dut lortu-eta erregistro egokia nire umore atzema-nezinentzat; ezagunentzat ere azpidatziak behar dituen horrentzat.

Ez erantzuteko telefonoa ez irekitzeko atea ez pizteko argia hozkailuan dudala jatekoa.

Ez zait iruditzen gogotsu hartu nauenik etxean, ez du zakarkeria txikienik ere azaldu ordea. Adeitasun hotza. Ez nuen ezagutzen gaur arte. Ezagutu dut gogo txarrez etxean hartu nauenik, halakorik ulertzero eman ez arren. Ezagutu dut gogotsu hartu nauenik, handik denbora puska batera bere benetako sentimenduak ezkututzen ahalegin handiak eginez elkartasun bulkada hartaz damutu denik. Ezagutu ditut lotsatiak, jakin-mina zutenak, beldurtiak, hunkituak, ohortuak, errefuxiatu bat etxean hartzearen ustezko abenturaren artegatasun burbuilatsuan hitz-totelka hasita-koak.

Honokoa banku batean kontratua sinatzea izan da, ordea. Adeitsua eta hotza. Kontuak garden. Zer gerta ere. Hi hor eta ni hemen. Ez. Zu hor eta ni han. Noski, banku honetan ez dut sosik jarri, nire burua hartu dute maileguan. Krediturik gabe, itxuraz. Baina epe jakinerako.

- Je ne vais pas y aller par quatre chemins -esan dit hona iritsi naizenean, arropa batzuk poltsan besterik ez, artean honako bidea erraztu didan kontaktua aurrean zegoela, etxeakoak horrela eskatuta, lekukoak

behar balitu bezala etorkizuneko gaizki-ulertuak saihesteko edota gaizki-ulertuen iturburua argi uzteko, eta bide batez, zerbait ulertzen ez banuen itzultzaile lanak egin zitzan, nahiz eta nire frantsesak jadanik halakorik ez duen behar, etxeko jabeak orduan ez bazekien ere, edo agian kontaktuak esana zion frantsesa ondo menderatzen dudala, unibertsitatean ikasten ari naizela frogatzat, baina badaezpada ere, zuhurtasunez, ez da inoiz sobera izaten.

Beraz, argi utzi dit auzien muinera artez jotzea laket dutenetakoa dela, azterketa oso garrantzitsuak ditut, lanpostu baterako lehiaketa, orain segituan lanera joan behar dut, goizean itzultzean, jaikita bana-go, oso goiz itzultzen bainaiz, hitz egingo dugu pixka bat ez asko, gosalduta bitartean, segituan gelan sartuko bainaiz lotara eguerdira arte, arin bazkaldu eta arratsaldea ikasten pasatuko dut, iluntzean berriro lanera joan arte, ez dut astirik izango zurekin kalakan egonean egoteko, zuen borrokari buruzko gorabehera batzuk ulertu nahi banituzke ere, zerbait irakurria dut dagoeneko, ni ez bainaiz nazionalisten aldekoa, baina ezkertiarak omen zarete eta nahasketa ez dut ongiegi ulertzen, argituko didazu aukera badugu, baina azterketak egin aurretik ez da posible izango, telebista

ikus dezakezu bolumen apalean, nik musika klasikoa entzuteko ohitura dut ikasten ari naizela, musika ekipoa nire gelan dago ordea eta gelako atea itxita behar dut kontzentratuko banaiz.

Hona ekarri nauen kontaktuak ohartarazi zidan, bai, nolakoa zen gutxi gorabehera, ondo moldatuko ote ginen zalantza egingo balu bezala. Ba ote genuen beste erremediorik gure buruak hartaratzeari baino? Irtenbide onena zela ados etorri gara kontaktua eta biok, hitzordu lekutik hona metroan, autobusean eta oinez izan dugun elkarrizketa txiroan, ez baitu segurtasun maila gutxienekoa izan dezakeen beste babes-etxerik aurkitu hain epe laburrean. Etxe honek koskarik baduela ere badakit berak esanda, aspaldiko kontua omen da ordea, eta hirugarren zirkuluraino hedatu beharko lukete ikerketa Renseignements Généraux-eko zakurrek eta ez dirudi oraingoz orain nirekin interes berezia dutenik, zeren hala izan balitz ez nengoke etxe honetan kafe bat hartzen ilunpean eskerrak irten aurretik kafegailuaren botoiari sakatu besterik ez nuela egin behar esan didan, azukrerik gabe, hozkailuko argiarekin ere ez baitut arasan azukre-potoa topatzea lortu, komiteko kideari eta bioi tea atera digunean begiratu behar nuen non uzten duen.

Kontaktua joan denean, sukaldeko bazter batean pilatuta zeuden plastikozko poltsak bildu eta mahai gainean jarri ditu neskak, etxerako bidean erreparatu dudan dendaren Petit Casino marka zeukaten poltsek, izan ere zuek baino bost minutu lehentxeago iritsi naiz eta ez dut erosketak txukuntzeko astirik izan, desenkusatu zaigu, beste ezer nahi dudan galdetu dit, garagardo bat eskaini dit, berak oso-oso noizean behin edaten duela alkohola, aukeran tarteka ardo on bat maite duela afari goxo batekin baina segituan ohartarazi dit ez duela afaritarako aldarterik izango azterketak, ulertu ez dudan postu baterako lehiaketa, azterketak dituela hori ordean lehen ere ulertua nuen buruz edo belarriz motza izanda ere ez nezakeen inora, bukatzen ez dituen artean. Garagardoak atera ditu poltsatik eta hozkailuan sartu, niretzat propio erosi dituela egingo nuke. Mugimendu zehatz eta zorrotzez bete ditu hormako arasako eta hozkailuko apalategietako hutsuneak.

Azterketak amaituta nahi badu afaritxo bat prestatuko diodala proposatzera ausartu natzaio, patata tortilla bat egingo diodala, eta ausartu natzaio ere eza gutzen ote duen galdetzera. Entzuna duela baina ez duela sekula dastatu. Ez da oso suharra izan bere

erantzuna, baina ez dut ezezko gisa ere sailkatu. Erosketa-zerrendan gehituko dizkiot patata-tortilla egiteko beharrezkoak, patatak, arrautzak eta oliba olioaren lortzeko aukera, nork daki. Hozkailuan entsaladak, koi-pegabetutako gaztak eta esnekiak eta haginka egiteko deus gutxi dagoela ohartu naiz; apalategietan labo-reak, espageti eta arroz integralak, gurpildun arasa metalikoan barazkiak eta fruituak. Barazkijalea dela esan didanerako asmatua nuen, batek daki nola. Baita dago zartaginik?

Sukalde tipikoa atzera eta aurrera ibili den bitartean zeharka begiratzeko aukera izan dut, kirolaria dela antzematen zaio, besoetako giharretan eta hanka-sagarretan, baita lepoalde eta bizkar gihartsuetan ere.

Erosketak txukundu bitartean egin den isilune deserosoa amaitutzat eman eta, aproposa irudituko zitzaien, deblauki jakinarazi dit ez duela amodiozko istoriorik bizi nahi, avec toi esan gabe ere, nitaz ari zela ulertzeko moduan. Gero, joan denean, ilunpetan, leiho zabalduaren azpian zoruan eserita zigarreta bat erretzen egon naizenean bera ere niri zeharka begira ariko zela bururatu zait. Hautsi berria zuela denbora luze iraun duen bikote-harremana, eta inoiz larrutan

egiten badugu, ez du esan larrutan egin, coucher baik, oheratu, bai, begiratuko zidan nire oharkabeen berak ere, bestela zertara etorri da aipamena, ez nau gustuko izango edo gustuko natzaio, ez ametsik egiteko ez pentsatzeko izara artekoak amodio kontuak ekarriko dituenik korapilatuta atzetik.

Zer esan behar nion? Ulertu dudala esan nahi izan diot, baina hitzik gabe utzi nau, halako egoerarik inoiz bizi gabekoa nintzen, amodio kontuak eta erakarmen fisikoarenak askoz ere modu sotilagoan ebaztera ohituta nago, gorputzen hizkera, begiradak, esku baten oharkabeko fereka, poesia eta magia, arrazoiak haragoko eskualde zundatu gabea, beti desberdin, mapetan behe-lainoz estalia, asturuaren apetaren bridatu ezineko grinaren araberako enkontruak, bizitza une batez, denboraldi batez edo nork jakin betirako zedarritu dezaketenak.

Ulertu dudala esan diot. Kito.

Ez nuela halakorik buruan esan nahi izan diot, ez dudala halakoetarako burua, lehiaketa garrantzitsu baterako azterketak ez ditudan arren, unibertsitateko ikasketak utzi behar izan ditudala, baina hori ez dela larriena, baditudala beste buruhauste batzuk, garrantzitsuagoak esateko arriskua ekiditeko eta azalpene-

tan korapilatuko nintzen beldur isildu naiz eta gainera, egia esango ote niokeen, ez al da egia elkartasun komitekoak bakarrik bizi den neska baten etxean babesa aurkitu didala esan didan unetik maitasun istorio baten aukera egon zitekeela pentsatu dudala eta babes-etxekoa mutila izanez gero ez nukeela halakorik pentsatuko edo erabat zintzoa izatera mutila homosexuala izanez gero agian bizikidetzaz zaila izango litzatekeela bururatu zaidala baldin eta nirekin oheratzeko gogoaz azaldu balu?

Neska ez da homosexuala, agidanek, bisexuala litzatekeena, edonola ere, ez du zuhurki etorkizun hurbi-lean gu bion artean txortan egitea baztertzen horrek ekar lezakeenari hesolak jarritz hasieratik. Ordainagirian nahasterik izan ez dadin aurrekontua aurkeztu dit maitasunari buruz dudak iritzia aurrez antzarak ferra-tzera bidaliz, haragi kontu hutsa al da? profilaktikoa? ondo pasatu dugu, ez genuen besterik nahi behar bihar Alde Zaharrea elkar ikusten badugu ikusten du-gunean aio eta aio gure gorputzek sentitutakoa, gorputzen bidez guk sentitutakoa zer da orduan?

Nahastuta nago oraindik eta kitzikatua, ezin uka, larrutan egiteko aukera aipatze hutsak etorkizunean

gertatuko denaren iragarpentzat hartu izan banu bezala.

Nor da ordea bihotzera daramaten bidezidorren buruan ordainlekuak jartzeko gai?

Baietz esan diot, ezetz esan nahi izan diodanean, alegia.

Ulertuko zuen. Zerbait.

Kontratua bederen argi dago. Nire aldetik ere bai. Nik ere ez dudala amodio istoriorik nahi gehitu behar nion, ez, larru kontuak esan behar nion, alegia, coucher edo baisier erabili beharrean faire l'amour esan.

Oharpen hori egin ondoren apopiloaren ikustaldia eginarazi dit bere atzetik, ez du lurrin sarkorrik erabiltzen. Oso polit apaindutako bere logelak, sabaitik zintzilik oihalezko txotxongilo eder batzuk, izarak eta leihoetako markoak moreak, lan-mahaia, liburuz eta apuntez mukurru, ohe zabala, txukun eta zehatz eginda, armairu batean arropa koloretsuak, jantzita zerman bulego-langile tankerako alkandora zuriaren gaineko kolore beltzeko txaketarekin eta kolore bereko gonamotzarekin bat egiten ez dutenak, sukalde ttipi batek, bainugela are ttipiago baina oso txukun batek eta orain nagoen egongela honexek, hemen lo egingo duzu zuk, espero dut sofa aski eroso izango dela, te-

lebistatxo bat, agerkari mendi batez gandortutako mahaitxo bat, liburuz betetako apalategi bat, etxartera ematen duen erridau zuriz apaindutako leihoarekin, osatzen dute apartamentua. Parisko metalezko teilatupe tipikoa. Poeta soila banintz zorion-habia bat egiteko ezin aproposagoa.

Etxearen zokoak non dauden ikasi ditudala iruditu zaionean, ordularia begiratzeko keinua egin du, orduari erreparatu gabe ordea, alde egin behar zuela berandu iritsiko ez bazen ulertarazteko, metroa eta autobusa hartu behar zituela eta oinez ere tartetxo bat bazuela lanera iritsi aurretik eta ez zuela berandu iristea maite eta ez duela pilula antisorgailurik hartzen ere gehitu du, zerbait garrantzitsua esatea ahaztu duenaren tankeran, adibidez ez tira komuneko kateari ni ez nagoen bitartean, baina hori berak esan gabe ondo ikasia dut nik eta segur aski berak ez daki, ez dit kondoirik aipatu espermizidak erabiltzen dituela sar-ketaren aurretik bai.

A, azken gauza bat, bera ez dagoenean ez sartzeko bere gelan. Astean bizpahirutan egiten duela lan gauzez. Pena dela preseski horietako gau batean iritsi izana berera, dena dela elkar hobeto ezagutzeko aukera izango genukeela lehenago iritsi izan banintz,

ezin nuen ordea, kontaktuak arratsaldean lan egiten duela eta hobe delako zer gerta ere iluntzean ibiltzea, horregatik eman dut igande osoa kafetegiz kafetegi eta zinemas zinema, ni ere gusturago nengokeen apartamentu honetako epelean babesean, sentitzen duela ni bakarrik utzi beharra. Ikasgaiak berrikusteko baliatzen duela lan-gaua, zaindaritza-lana egiten duela eta bere presentzia baino ez dela beharrezkoa, seiak aldera iritsiko dela etxera, croissantak mahai gainean utziko dituela, saiatuko dela zaratarik ez egiten dutxa hartzerakoan, ohitura baitu etxeratu ahala dutxa bero bat hartzeko, eta ez dela eguerdira arte jaikiko, hori lehen ere esan didazu, hau ez diot esan, saiatzeko ni ere zaratarik ez egiten jaikitzerakoan, ez prestatzeko deus bazkaltzeko, berak prestatuko duela jaikitakoan, zarata egingo dudala bestela eta esnatuko dudala. Nago ez dela batere fio sukaldean egin dezakedanaz. Kontaktuak esango zion zerbait. Behin erreko paella eta begira ospea noraino iritsi den. Eta joan da. Aio. Argia itzali du irtetean.

Dena gelditu da isil eta ilun apartamentuan.

Atea itxi bezain pronto ozen atera zait faire l'amour. Nire ahotsa entzun da estrainio, bakardadean, oihartzunik gabe. Hitz horiek nire ahotik atera diren

lehen aldia dela esango nuke, frantsesez. Faire l'amour. Lehen aldia izan da, bai. Hitzena. Orain arte entzun eta irakurri baino ez nituen egin. Larrutan txortan egin amodioa egin. Follar hacer el amor joder.

Bigarrenez esan dut, faire l'amour bakarrik masturbatzea da pentsatu dut, kanpaia jo idiarena jo, horretan espezialista bihurtzen ari haiz bigarren nerabezaroaren antza duen erbesteratze honetan, gorputzak ere badu bere atzerria, bere erbesteko kondena, bere habiara itzultzeko grina irrazionala, nork azalduko dio gertatzen dena, zergatik abandonatu dugun bizimodu lasai eta alde guztietatik betea zen hori erbestearen hoztasunaren truke. Nik ez, haserretuko zait, bestela.

Faire l'amour hirugarrenez, ahapeka. Berotasuna sentitu dut zakilean. Maite ez dudan garagardo baten bila jo dut hozkailura. Beroa dago oraindik, gainera. Zerbait freskoa balitz bezala beste hizkuntza batean larrutan egin esatea, larrutan egitea. Zergatik esango zidan? Astebeterako nago hemen, gero beste norabait joan beharko dudala argi utzi dit bai komitekoak eta bai berak. Azterketa-garai bitartean, bai lehiaketa garrantzitsua, ulertu dut. Hilabete bukaeran berriro ere etorri ahal izango dudala hona lasaitu nahi izan nau kontaktuak, urduri ez nagoen arren, lehegailu batek

bi urteotan izan dudan adreiluzko etxetxo txukunena zartarazi ondoren espazio-ontzira hari hauskor batez lotutako kosmonauta bezain kezkatu bai ordea, aurkituko didala bitarte horretarako beste txoko bat.

Azterketena egia izanda ere aitzakia delakoan nago, etxeko neskek ez duela luzerako engaiatu nahi izan ni hobeto ezagutu aurretik, eman dizkioten erreferentziak oso aldeko ditudan arren, hori badakit. Pae-llarena kenduta.

Bahituaren sindromea berriro. Airezko babesleku-tik lastozko zurezko babeslekura adreiluzkoa noiz lortuko zain behin-behinekotasun permanentean. Hemen izango dudan portaeraren araberakoa izango da beraz etxea gordetzearena. Horrek harreman guztiak faltsu bihur ditzake. Ez. Ni izaten jarraitu behar dut, naizen bezalakoa, eta ez bagara ondo moldatzen, zer egingo diogu bada.

Zer? Kalera! Aterako gaituk aurrera, nola edo hala. Espero dut.

Argi dagoena da inoiz larrutan egitekotan berak erredaktatutako kontratuaren baldintzetan izango dela.

Itzali dut telebista.

Apartamentua neska joan denean bezain isil eta ilun gelditu da.

Hain erraza litzateke orain telefonoa hartu eta gurasoenera deitzea: «Ama. Ni naiz. Ez naute atxilotu A.n. Larunbatean Prefekturan aurkezteko deialdia nuen arren Kortaturen kontzerturako gelditzea erabaki nuen, itxaron zezatela Prefekturakoek astelehenera arte. Eta gero, Iparraldeko atxiloketen berri izatean neure burua gordetzea erabaki nuen. Parisen nago babes-etxe batean. Bakarrik. Ez dakit noiz ikusiko dugun elkar berriro. Batek esan dit Mexikora joatea dudala hoberena. Zuei zer iruditzen zaizue? Hor al dago aita?».

Iluntasunera ohitu bitartean egongelako leihora hurbildu naiz. Apartamentu honetatik ez dut kalea zelatatu ahal izango; ez dakit tamalez edo hobe. Datorrena datorrela, atea jotzera edota botatzera badatoz ez dut aurrez jakiteko larritzeko aukerarik izango, ihesbide gutxi dut hemen, kartzelaren ezkaratza dira apartamentu hauek, teilatuz teilatuko ihesaldiak filmetan eta Baiona Ttipian baino ez baitira gertatzen.

Zigarreta piztu aurretik leiho zirrikitu bat ireki dut. Ez dago hautsontzirik etxean, esan gabe ere badakit ez dudala erre behar. Komitekoak ozta-ozta eutsi dio

Gitanesa piztu gabe. Leihoan erreko dut, kea kanpora botaz.

Bizitza arruntaren hotsek bete dute egongela, haur-negarrak, emakume baten oihuak, gizonezko baten purrustada, irriak eta algarak, sukalde-tresnen zaratak.

Etxartearen goitik beherako ikusmira dut.

Ezkerraldera, sukalde batean sendi bat afaltzeko prest dago. Etxekoandreak pizza eder bat atera du labetik hurrek iufi egin dute aurrez izoztutako horietakoa den arren edo horrexegatik aitak isiltzeko esandie.

Pareko apartamentuko egongela ikusten dut. Ospakizun bat dutela dirudi, ondo ikusten dut mahai gainekoa, kandelak piztuta. Neska eserita dago, leiho aldera begira, eskuak begiak itsutuz. Ostra batzuk ekarri ditu erretiluan gizon gazte batek. Begiak itxita gordetzeko eskatuko zion neskari. Ireki dituenean poza agertu du neskak, txalo eginez jaiki da gizonari musu emateko. Musu sutsua. Kontuz, esango zion, erretilua botaraziko didazu, utzi mahai gainean jartzen. Emakume ederra iruditu zait. Soineko arin bat baino ez dararma jantzita.

Erretzeko gogoa egin zait berriz. Ahora eraman dut. Pizten badut zerbait nabaritu eta zelatan ari naitzela ohartuko diren beldur naiz.

Pizza-jaleen sukaldera begiratu dut. Errieta egiten ari zaio aita haurretako bati, ganoraz jateko edo, zer bestela.

Ezin dut pareko apartamentura begiratzea ekidin. Ostra ahora ematen ari zaio gizona emakumeari. Muskatu du, ostra ahoratu ahala. Bien artean ari dira ostrak jaten. Ostra bat musu bat. Sutsu. Ez dute bigarren platerera arte itxarongo pentsatu dut.

Besoetan hartu eta mahaiaren alboan dagoen sofara eraman du gizonak emakumea.

Mahaia baztertu dute, lekua egiteko. Dantza egin dute kandelak.

Ez dute labean ezer edukiko pentsatu dut.

Zigarreta ezpainetan lehortu zait. Zauria egin dit kendu dudanean.

Mexiko

Zenbateko indarra behar du abioi batek lurraren erakarmen-indarrari aurre egin eta hegaldatzeko?

Zenbateko kemena eta adorea behar du erbeste-ratuak bere jaioterritik are urrunduko duen bidaiari ekiteko?

Zergatik Paristik, harrituko zait aduanako polizia, buruz ikasi dudan nire nortasun berria daraman pasaporte faltsutuari, lan ona egin dute, mesfidati begiratu. NANeko datuak ere ondo ikasi ditut, gurasoen izenak ez ezik agiria egin zuten data ere buruz dakit.

Bakantzetan doanaren irribarrea egiten trebatu naiz bainugela txikiko ispiluaren aurrean. Ez da azaroa bakantzetara joateko garai oso arrunta, pentsatuko du immigrazio klandestinoak eta droga-trafikoa detektatzen cum laude jaso dukeen agenteak; hori ere niri egokitu behar, baina ez dut uste Hexagonotik ateratzeko eragozpen asko jarriko didanik, nahiz eta frantsesei oraindik ez zaien buruan sartzen Espainia eta Portugal duela ia bi urtetik beraiek bezain herri komunitarioak direla, zinezko europarren eskubide berberekin, beraiek bezain europar garelako espainiar nortasun

agiridunok, Afrika jada ez dela Pirinioez bestalde hasten ofizialki. Nola jakin ordea ez ote dieten itsasoz bestaldeko beren kolegei bidaiari susmagarrien berri ematen? Ez dago larritzeko arrazoirik; ondo prestatuta ekarri dut kantada, esan nahi dut azalpena, hori ere ispilutxoaren aurrean ahots goraz saiatuta, zerbaite-rako balio behar zidaten Eusko Jaurlaritzak antolatuta-ko antzerki ikastaldiek: Espainiako gerra galduta Me-xikora alde egin zuen nire aitona hil berriaren hiletetara noa, ez nuen Père-Lachais-eko hilerrian Jim Morrisonen hilobiari ikustalditxo bat egiteko aukera baliatu gabe joan nahi ordea. Edozein cum laude zezelduta uzteko adina aski argudio esoterikoa deritzot.

Bueltakoa latzagoa litzateke.

Bidaia honek ez du bueltakorik ordea, txartela joan-etorrikoa izan arren, susmoak uxatzeko, hango sarrera errazteko ere bai, mire pues soy un turista que viene a ver la Calzada de los Muertos y la pirámide de la Luna, en Teotihuacan, eso mismo. Tira, ez duk zergatik haien ahoskera imitatu behar. Hori ere etorriko da berez, esfortzurik gabe, frantsesa ikasi duan beza-la, murgiltze metodoari esker jabetuko zaik mexikarrak gaztelaniaz hitz egiteko duen kutsua, hiztegia eta abiada. Mantsoago hitz egiten ikasi beharko duk, ha-

sieran ez ditek deus ulertuko eta. Ikasiko duk ere gauzak zuzenean eskatu orde zeharka galdetzen.

Bitxia izango da hemengo hotza eta hango beroaren arteko kontrastea. Bero egingo duela iruditzen zait, baina egia esan ez dakit Mexiko DFn zer eguraldi egiten duen. Galdetu behar nien.

Hegaldi desberdinak hartzea hobetsiko dugu, zer gerta ere.

Ikusgarria omen da zerutik, zenbat etxe, zenbat fabrika, zenbateko kutsadura, nolako sumendiak. Benito Juárez aireportua.

Hegazkinetik jaitsi eta migrazioa pasa ondoren -erraz esaten da-, ekipajea hartu eta kanpora. Dirua aldatzera aurrena, bertako pesoak izateko. Dirua aldatu eta gero, hitzordua arratsaldean denez eta abioia goizean iristen denez, ekipajea kontsignan utzi eta aireportutik irten buelta batzuk ematera. Hitzordua hurbildu ahala aireportuko tabernara, hitzordu lekura gerturatu; kontrazeinuak gabe ere ezagutuko haute.

Lasai, dena lotuta egongo da. Behin abioian sartuta, itxi itzak begiak.

Irekitzen dituanean, esateko modua da, beste kontinente batean egongo haiz. Ozeanoaz haraindi. Nork idatzi zuen itsasoa esperantzarik gabeko lautada

amaigabea zela? Erbestera batek seguru. Tradizio baten jarraitzaile besterik ez haiz izango hi ere. Teruatik Tierra del Fuegora. Dena dago euskal abizenez beteta, euskal toponimia postkolonbotarrez.

Hik ere utziko duk hire hazia.

Tradizio bat da, sasi-mugaren babesa aski ez deanean euskaldunak itsasoa jartzen du bera eta etsaia edota miseriaren artean. Eta kontinente berrian zaharreko ekanduen propaganda egiten du, utzi eta gainditu nahi zituen gaitzak hedatzen ditu, lehoiaren buztan izatetik arratoiaren buru izatera pasatzen da, ezinbestean, azalaren koloreagatik eta bihotzaren ahuldeagatik, bere arbasoek bertakoen odol eta izerdiaz pilatutakoaren oinordeko da, nahigabe ere.

Noiz itzuliko naiz?

Ez naiz ni hara doana. Nirea ez den izen baten mo-zorropean egingo dut bidaia. Nire burua kontrabandoz eramango dut. Guztiz joan nahi ez banu bezala, itzulerarako aukerari ate-zirrikitu bat utziz.

Itzuliko al da inoiz?

Euskal Herrian utzi nuen nire mamua, hango kaletan alderrai, ikusten ez duten adiskideei aldarri eginenez, e e e hemen nago, ez nazazue ahaztu.

Orain Parisen utziko dut nire bigarren itzala, hura baino galduago, ingurune arrotzean, nori laguntza eskatu ere izango ez duena, urte eta erdian landutako bakardadearen ore minean bildutako azala karraskatu eta haragi bizitan duen bihotza agerian utziko duena.

Oaxacako eta Querétaroko kaleetan nire hirugarren mintz bat ibiliko da, lainoen gardentasuna izango duena, nirea ez den beste izen batekin bizitzen, alde-rrai, Zócaloa miresten, Diego Rivera eta Frida Kahloren arrastoan, bataren obra erraldoiaren eta bestea- ren saminaren zentzua ikertzen, Villa eta Zapataren partidekin zamalkatzen, Minaren askatasun haizea le- tretan biltzen, atzerriratu ez ziren senideen aztarna ezinezkoekin eta zuhaitz genealogikoan agertzen ez diren arbasoekin etxera hurbildu usteko duten istorio fantastikoak asmatzen.

Lagunartean soilik berreskuratuko ditu izan zen haren hazpegiak, hizkuntza, izaeraren aztarnak, atze- rri urrunak egunetik egunera narriatuago, mikaztua- go, herriminaren errotarrian ehotan, *permanentemente* gozakaitz, zer gertatzen zaik, zer gertatu zaik, lehen ez hintzen horrelakoa.

Erantzun aurretik, buruz dakian arren, begiratu zenbat kilometrok banantzen hauten sorterritik, gaua-

ren oharkabeen kontinenteen plakek batzera egin ez ote duten, hire sumindura eta tristuraren neurria emateko.

Hirutan banatuta ez naiz inor izango. Ez nintzen hura, ez naizen hau, ez izango naizen hori. Euskaldun ukatua, sasi-paristarra, mexikar mozorrotua.

Erbesteratuaren sindromea ber hiru.

Etorkizuna iraganean ikusten du atzerriratuak. Arrotza da eta dena zaio arrotz. Egokitzeko egiten duen ahalegin bakoitzean uzten du ordura arte bere izaera osatu duen parte bat, anputazioa eta transplantea.

Ostiralero Euskal Etxean beste iheslariekin elkartzean, hitz egitean nabarituko duen ondoezaren arrazoia ez du jakingo hasieran. Irribarre egingo du, noiztik ez duen barre algara sano bat bota galdetuz bere buruari. Ia hamar urte daramatzate bertan bere solaskideek, Monzonek mizpira egurrez egindako zilarrezko grabatudun euskal makila batek bidea irekita. Begiratzten die eta bertakoekin ezkondata ikusten ditu, bertakotuta, bere etorkizunaren ispilua ikusten ari da oso preziatua den patxaran botila bat xukatzen ari diren artean.

Mingostuta dabil, bere aldarte ilunaren jatorria ezin asmatuz, oharkabean ari baitzaizkio maskaltzen ingurumen berrian ezdeus zaizkion organoak, eranskin alferrikako, mozkorraldi gauetan, Aberri Eguna ospatzen jarraitu behar baita Euskal Etxean eta Gudari Eguna ere bai lagunarteko intimitatean, soilik erabiltzen baititu, peritonitis akutu batek jotzeko arrisku larrian bizi da, erbestearen mikatza ezagutu duen oro bezala.

Anestesiarik gabeko ebakuntza egunerokoa jasaten ari da, min ezdeus infinitua, birikak hustu eta aire ezezagunez betetzen dion tantaz tantako sufrikario amaigabea.

Eta goiz batean, bizarra egiterakoan, ordura artean ikusi gabeko hanpadura bat nabarmenduko du, bibote mexikarraren ezker hegalean. Ukituko du, ez dirudi pinporta zornatua denik, gainera nerabezaroa aspaldi igaroa du. Ez dio minik egingo. Kontrakoa esango luke, hor dagoela sentitzean, ukitzean, plazer moduko bat nabari duela barne-barnean.

Kalera ateratzerakoan birikak gogotsu beteko ditu ordura arte ezezagun zitzaion gozotasunez arnastuz hiriaren aire kutsatua. Lankide duen herrikide erbestera azalduko dio egokitze fasean urrats garran-

tzitsua egin duela, mexikartzen ari dela, laster Indio, Corona, Coronita, Pacífico garagardoak Astigarragako sagardoa bezain gustura edango dituela, takoak eta txileak taloak eta Tolosako babarrunek antzeko plazerara emango.

Amputación y Transplante jaia antolatuko diote lagunek. Herrimina, borroka-mina, koldarkeriaren sentazioa, ezintasuna, amorrua itotzeko.

Ihes egingo du egun batzuez. Nevado de Colima sumendira igoko da. Motxilatik ikurrina aterako du. Berarekin igotzea lortu duen austriar bati argazia ateratzeko eskatuko dio. Gora Euskal Herria askatuta oihukatuko du biriken indar guztiz. Oihartzunak errealitatera ekarriko du. Gure Euskal Herria ahaztuta. Bai. Boten azpiko mendia bezalakoa bihurtu da bera, burua hotz sugarrak bihotzean.

Jadanik ez dagoen leku batera itzuli nahi luke. Gorputza bihurritu, urratsak desegin. Alfer-alferrik. Espazioan atzera egitea ez bailitzaioke aski denboran ere atzera egin gabe.

Bere ondoren iritsi diren errefuxiatuei galderak egiten hasi zaie. Duela ez hainbeste berari egiten zizkioten galdera berdinak dira. Eta berak ematen zituen erantzunen tankera berekoak jasotzen ditu.

Tarteka bisitan etortzen zaizkion herritar eta seni-deek ekartzen dituzten argazkiei begiratzea gero eta zailago egiten zaio. Ilobak handitzen ikustean jabetzen da aurrera doazela urteak. Hiriaren antzaldatzean bere etorkizunaren hingatzea dakusa. Kontserbadore bihurtu da, isilean, ez dezaten erotzat hartu. Ez ukitu lantegi horiek! Ez eraiki deus orube horretan! Ez itxi denda hori! Ez zaitetzte hil oraindik; erregutzen die otoitz sekretuan, bere gaztaroan adineko ikusten zituenei, jadanik berak orduan haiek zuten adina duela onartu nahi gabe.

Etorkizuna, sepia koloreko argazki batean agertzen den paisaia kutuna da jadanik.

Eta ikaratu egiten da.

Turbulentzia bat pentsamenduan. Pilotuaren baldarkeria bat. Argi bat ilunean, inoiz itzultzekotan atzeritik atzerrira itzuliko dela ohartzen da. Atzerria dela bere oraina eta etorkizuna. Eta iragana bera gero eta arrotzago egingo zaiola, zainak mozten zaizkion zuhaitza ihartzen den bezala joango dela zimeltzen bere aberri bakarra, oroimenekoa. Ez dela aski izango tarteka iristen diren egunkari atzeratuen bidezko tantaz tantako gazura, boteretsuagoa dela espainiarren

eta nazioarteko hedabideen galbahetik pasatako berriek dakarten pozoia bere grina itzaltzeko.

Ba al du pozoi horren aurkako antidotorik? Bere atzerri dultzea? Bere aberri txikia? Zer idatziko du maia eta azteken herrian? Zer literatura idatziko duk Martin Andima Telesforo? El rumor bajo sus pies, las nieves eternas, el olor de la sangre? Eta atzerri dultzea elikatzeko gai izango ez den egunean?

Hiztegietan hasiko al da ahazteken eta mahaien euskal erroen frogen bila? Kordea galduta, konortea galtzear mahai gainera igo eta entzun, entzun! esango die. Nire azken toponimi-poema!

*Txitxen hitza uazteka,
ixmikilpan tapatia.
Tlakepake iuriria,
tamazuntxale ixtapa.
Xoximilko irapuato,
teuntepek uxmal tula.*

Kezka bumeran bat bezala itzuli zaio Cancúngo paradisuzko hondartzatik Île-de-Franceko aldiriko apartamentu tristeraino. Idatzi duk ipuin liburu bat, oso ondo. Baina aurrerantzean izango ote haiz gai

beste ezer idazteko? Zer? Mikel Kunderantzaren La rumeur sous ses pieds, les neiges éternels, l'odeur du sang?

Zer izango dugu, Atzerri Hurbileko Euskal Literatura edo Atzerri Urruneko Euskal Literatura?

Izango ote da Parisen beste ezer idazteko gai?

Izango ote da Mexikon ezer idazteko gai?

Pasatu du urtebete. Egokitzen. Carlos Fuentes. Iturria agortzen. Bi. Berregokitzen. Pedro Páramo. Agortuta. Anputazioa, transplantea. Luze doa kontua. Hik ez al huen idazten? Beste tekila bat, azkar! Gatza! Limoia! Under the Volcano. Hilen Festa. Idatzi behar huke zerbait Otaño, mariatxiak, eskua ez duala galdu erakusteko bada ere, Iparragirre, txarroak. Ea poema horiekin zerbait egin dezaketen idazle lagunek uztailko urteroko festan, bai Orixe Durangon bestela!

Ahaztu zaio ia erabat frantsesa. Eraldatu gaztelania. Herdoildu euskara. Pena ematen dio idazten duen lerro bakoitzak. Ez da inori erakustera ausartzen. ¿Tú eras escritor, verdad? Galderak berak erakusten dio zer bihurtu den. No, no, lotsatuko da. Sí, hombre, kide batek adore eman nahian, azkenaldia pattal samar dabilela ezin ezkuta dezake eta, escribió unos libros muy buenos, tenía mucho futuro. Gaztetan meniskoa

apurtu zuen etorkizun handiko erdilariaren elastikoa jantzi diote. ¡Échele un trago! ¡Alegre esa cara! Beste tekila bat, azkar!, gatza!, limoia!, garagardotan ito gaitzak! Tak.

Bururatzon zaizkion istorioak hilaur jaiotzen dira garunetik eskurako bidean paperik hiztegirik gramatikarik gabeko jauzi hilgarria egin ostean. Nola deskribatu atzean utzi duena?

Iragan amaitu batean edo inoiz gertatuko ez den etorkizunean kokatzen ditu kontakizunak. Ideia ona izan zen bai Popocatépetlen galdutako euskaldun horiena. Ideia ona bai. Izenburua ere dotorea. Ez du gogoratzen jadanik, ordea. Hor nonbait egongo da, paper anabasaren artean galduta. Bera bezala, nor den ere ez dakiela.

Nekatuegi itzultzen da lantegitik. Gerente jarri dute. Nork esan behar zion. Badakik, hemen ikasketak dituenak (nik ez diat ordea!) lortzen ditik posturik onenak, konfiantzakoak. Begia kliskatzen dio bertsolari sena duenak, badakik ardura postuetan jende zuria nahi izaten ditek. Hori barrea. Ia botaka egin du, tripa-ko minez, matrailezur estutuen minez, iraultza minez.

Bidaiarako argibideak eta gomendioak eman zizkiotenean bateko eta besteko aduanako agenteei irribarre bortxatuz plazerezko bidaia zela esateko aholkatu zioten, voyage de plaisir hemen, viaje de placer han.

Infernurakoa, Air Franceko hegaldi hori. Amesgaiztoa lokamutsa eldarnioa sukar-ametsa beldurra izu-laborria hezur-mamietarainoko ikara. Ozeanoz haraindikoa *eztorkizunak* ematen diona.

- Está usted pálido -ohartaraziko lioke doinu ustez abegikorrez, ondo ez doan zerbait antzematen jaioa den migrako agenteak.

- No es nada, el avión, que me da pánico.

- ¿Algo que declarar?

- El único deseo del exiliado es volver. Y cuando por fin lo consigue, se da cuenta de que su exilio nunca acabará. Que su patria se quedó anclada en el pasado, que su único futuro es un ayer inalcanzable.

- Pase y que tenga una feliz e interminable estancia en el país.

- Ni ez noa.

- Nola ez hoala?

- Paper faltsuak eginda zaudek ordea!

- Denok alde egingo genuela esan genioan ordez-kariari.

- Han ere kontaktua eginda zaukaagu. Bazakitek bagoazela.

- Zer egin behar duk bada?

Saint-Sulpiceko Tabac-ean gaude. Aldatu behar genuke tokia, baina zertarako, pentsatu genuen, azken hitzorduak dira. Faltsututako nortasun agiriak eta Mexikon kontaktua egiteko argibideak jasotzeko eta gure hegaldien egunen berri emateko, hangoek gure bila noiz joan jakin dezaten.

- Ez zakiat zer egingo dudan, baina ez noak Mexi-kora.

- Bidaia egiteko baldintzarekin lortu ditiat ordea paper faltsuak!

- Ez zaizkidak gaizki etorriko Parisen.

- Bakarrik geldituko haiz.

- Segurtasun hitzordura agertuko nauk ordezka-riarekin kontaktatzeko.

- Berak ere ez badik alde egin.

- Hori!

- Eta non biziko haiz?

- Ez zakiat.

- Ostia, ez egin txorakeriarik. Hemengoa bukatu duk, frantsesek erabakia hartu ditek, errefuxiatuak banan-banan ehizatu eta Guardia Zibilaren eskuetan jarriko gaitiztek.

Nola esan Guardia Zibilaren baitezpadako itzalak baino beldur gehiago ematen diola ozeanoaz bestaldean bihurtu daitekeen mamua irudikatze hutsak? Koldarkeriaz gelditzen dela Parisen. Bakarrik. Komitekoaren bidez hamar egun eskasetarako utzi dioten bizileku bihurtutako trasteleku batean, segurtasun hitzordu batekin, paper faltsuekin eta libera batzuekin; eta geroak erranen du.

Muturra okertu diote. Arranguratsu sumatzen ditu. Keru txarra hartu diote ukoari. Bertan behera uzten diuela sentiarazten diote, traizio txiki bat egin diela, beren erabaki irmoa zalantzan jartzen duen engranajeko harea alea. Bere iritzi aldaketaren atzean beren erabakiaren kritika ezkututzen duela usteko dute, aitortu nahi ez badie ere, itsasoaz bestaldera alde egi-

teko hartu duten erabakia frontearen bertan behera uztearen pareko delakoan bere begietara.

Hain daude oker.

Nola esan erabakia hartu duenetik, itsasoaz gaindi irudikatutako bere erbestealdi luze eta beldurgarriaren itzal aizarotsua desagertu eta ordeztu hamar egunetako epea besterik ez duen etorkizun laburraren arintasuna sentitzen duela bere baitan?

Beraiek direla ausartak esan beharko lieke, adarra jotzen ari zaiela pentsatuko ez balute. Nahiago duela Parisko neguko ainubea, Mexikoko uda beteko egutera baino. Gaueko trena hartuta zortzi orduren buruan, eta hemendik ez hainbestera TGVA martxan jartzen dutenean, bosten buruan, Donibane Lohizunera iritsi ahal izateko aukera izateak erbestealdia edozein unetan eten dezakeela sentiarazten diola. Handik aldiz ezingo zukeen itzuli. Atlasean Mexikoko mapa begiratu duenean kartzela erraldoi baten irudia agertu zaiola. Tijuana-tik Matamorosera, Tapachulatik Ciudad Juárezera dena burdin barraz, txarrantxaz eta murrerrialdoiez inguratua.

Ez die esan Parisko erbestealdian bere baitan bere idazlumaren puntan aurkitu duen aberri txikia Mexikoko basamortuan ihartuko zaion beldur dela. Berekoia

dela hautua egitean. Bakardadearen usaina dariola Parisko egonaldia, bai, baina usain hori ere idazten jakingo duen esperantza duela, ikasiko duela hirian tinta-zirkulazioa elikatzeko lehengaia aurkitzen. Eta une hauetan hori besterik ez zaiola ardura. Idazle izan nahi duela. Eta Mexikok eskuak zurrundu hebaindu moztuko dizkion aurrentimendua duela.

Ezin die esan ordea Mexikora joan gabe bertan gelditzerakoan agian bestelako konpromiso baterako bidea zabalik uzten duela. Bere buruari ere ez baitio aukera hori dagoenik aitortzen. Bere burua idazle ikusten du, ez gudari. Usaintzen al du errefuxiatuaren lorratzari uko egiterakoan bere engaiamendua sakontzeko atea zabaltzen ari dela?

Demagun ez dela horretaz guztiz kontzientea, orain artean ere ez da-eta gai izan engaiatzeko egin dizkioten galderen zentzua ulertzeko. Zer egin nahi duk galdetu dioten bakoitzean, neskaekin hitzordua lotu ahalik eta azkarren, Parisera joan, idatzi, erantzun du.

Ez da erabat zozoa ordea, jakin behar luke Parisen bakarrik ez duela luzaroan iraungo. Arrazoi dutela ki-deek, frantsesek no man's land-a desagerrarazi dute. Bere tartea oso murrizta izango da, ezingo du bizitza

arrunta egin. Gainera, egin ote daiteke bizitza arrunta herria jasaten ari den errepresio zaparradarekin? Lehen hitzorduan eguzkitarako betaurrekoen atzean mintzo zen gudariaren arrangura oroitzen du oraindik. Errepresio zaparrada. Artean esapide itsusia iruditzen zaio, noski, modu poetikoagoa beharko luke gertatzen ari dena izendatzeko, baina Monzonez geroztiko poetak ez daude nonbait borrokaren gordina ederresteko.

Egoera nola izendatu berdin du, ez da aldatuko horregatik: jadanik ez du errefuxiatu paper ofizialik lortuko, Poliziak atxilo hartzen badu mugara eramango du eta Guardia Zibilaren eskuetan utziko. Tortura dauka zain. Eta horrek poesia egiteko oldarra izozten dio.

Mexikora ez joatea erabaki du beraz, kideei aitorzen ez dien arrazoi literarioengatik, bere buruari esaten dionez.

Baina berak jakin gabe etorkizuna orain dagoen Saint-Sulpice plazako Tabac horretan bertan dauka zain: errefuxiatuekin lotura egiten duen militantea agertu eta zer egiteko asmoa duen galdetzen dion egunean.

Argiago: engaiatu nahi duen galderari emango dion ezinbesteko erantzunean.

Artean ez da jabetzen, ordea.

Aurrerantzean Parisko bakardadea bizi beharko du, piztia ehizatua bezala sentitu bere burua, inorekin hitz egin gabe, bere itzalari ere ihes eginez, tristuraren azken hondoa ezagutu. Gogo-beheraldia koilararekin gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko irentsi beharko du, poesia eta horrelako luxuak burutik kentzeraino. Ez dira lirikarako garaiak kantatzen zuen parrandan idazle lagunekin. Hara, iritsi zaizkio egun horiek, oraindik ez badaki ere, oraindik negua ere infernuaren sasoia dela ikasi behar baitu, oraindik hiriaren barrunbeetan bohemiaoren itxurak eginez ibiliko bada ere, oraindik ere poesia lerroak lubakien modura erabiliz ezinbestekoa izango zaion eraldaketari aurre egin nahi badio ere, petit poète.

3

Atzerrian, urria

Aupa, etxekoak!

Urteotan ez dizuet oso maiz idatzi. Ez dugu ere elkar ikusteko aukera handiegirik izan. Eta orain agur moduko bat egiteko idazten dizuet. Aurrerantzean

ezingo dizuet hots egin, ezta segurtasunagatik amonaren etxera ere orain artean bezala; gure arteko hizordurik ere ezingo dugu egin, ez dakit noiz arte.

Azkenean, iritziz aldatu eta ez noa oharrean aipatzen nizuen herrialde horretara. Badakit horretarako eskatu nizuela dirua. Hemen ere ez zait gaizki etorriko ordea, puska baterako badaukat horrekin. Eta bukatzen zaidanerako aurkituko dut aurrera ateratzeko modua, zuek lasai. Dena dela, itzuliko dizuet ahal bezain pronto. Badakit haserretuko zatzaizkidatela, ez dudala zertan itzuli esango didazuela; nik nahiago dut horrela ordea. Ez da deus zor nahi ez dizuedalako, hori ezinezkoa da, dena zor baitizuet, diru kontuek sortzen duten menpekotasun-harremana da maite ez dudana. Badakizue diruari ez diodala balore handirik ematen. Horrexegatik ere ez dut diru mordoxka hori zuei itzulitzea nire lehentasunen artean jarriko. Baina esan bezala, ahal bezain pronto, eta ahal badut, itzuliko dizuet.

Amaieratik hasi dut gutuna, despedidatik. Eta gainera kontu materialekin. Beti bezain baldar, beraz. Izugarri maite zaituztedala esateko idazten dizuet. Eta gutunean agertzen diren beste gai guztien azpitik eta gainetik hori gorde ezazue gogoan, bihotzean.

Esan didate gutun hau bide ziurretik doala eta itxita eman dezakedala. Nahiago horrela. Ez dut maite-eta nire barneko sentimenduak, kasu honetan zuenganakoak, inoren bazka izatea; ez lagun eta ez etsai. Badakit segurtasun arrazoiengatik irakurtzen dituzte-la gure gutun pribatuak, eta ez zaizkiela ardura gure-gureak diren kontuak, badakit ez duela inork inoiz erabiliko barne postaz bideratutako gutun batean jarritako deus nire kalterako; ez bada etsaiak, noski. Ezin da erabat baztertu gutun hau, beste batzuenak lehenago bezala, haien eskuetan erortzea eta hedabideetan manipulaturik erabili izatea; edo inoiz haien atzaparretan eroriz gero tortura saioetan nire borondatea makurtzeko tresna bihurtzea. Nik ere ez baitakit zer bide egingo duen etxeko posta-kutxaraino, norbaitek hartu beharko du muga pasarazteko arriskua, eta arriskua dagoen tokian erabateko ziurtasunik ez.

Utz ditzadan aieru ilunak.

Ezin dizuet oraintxe bertan esan zer nolako bizi-modua eramango dudan aurrerantzean. Eta hau bai ez dela segurtasun kontu bat. Neronek ere ez baitakit nondik nora ibiliko naizen (baina ez larritu, gero! Ez naiz goseak hilko eta ez dut zubipean lo egin beharko). Dakidan gauza bakarra da hasierako asmoari ja-

rraitzea ezinezkoa egin zaidala. Ez inork oztopatu edo debekatu didalako. Inondik inora. Nire-nirea izan da erabakia. Nire-nirea izan dela diodanean, beste inoren aholkurik jasotzeko aukera ere ez dudala izan esan nahi dut. Nahiago nukeen, bai, zirt edo zart egin aurretik nire kezka eta beldurrak norekin hustu eta goxatu eduki izan banu. Ez da horrela izan. Bakar-bakarrik egin behar izan diot aurre, oraingoan ere, nire bultzaren norabidea markatuko duen erabakia hartzeko atakari.

Ez dira baldintza hoberenak izan, eta horrek erabaki zuzena hartu ote dudan zalantza eragiten dit. Bide-seinalerik ez dut izan zein norabide hartu laguntzeko. Atzera ezin nuela egin izan da argi izan dudan gauza bakarra. Hori dauka ona duela bi urte luze hartu nuen bide honek: ez du atzera bueltarik. Hala ere, oraindik batzuetan atzera egin eta etxeko atean txirrina jo (klin-klon!, oraindik gogoratzen dut doinua, ez pentsa!) eta nire burua txikitako gelako babesean gordetzen irudikatzen dut. Edo zuei deitu, hitzordua jarri eta «Goazen etxera!» esaten. Inork ez ikusteko moduan ezkutatuta sartuko nintzateke gurean. Nork bilatuko ninduke gurasoenean? Sekretua gordetzea izango litzateke kontua. Zenbat eutsiko ote niokeen kale-

ra irten gabe? Tira, dagoeneko ikastaldi batzuk eginda nago eta bizitoki ezagunean eustea goxoagoa izango litzatekeela ez dut zalantzarik egiten. Marka litzateke, gero. Hain gazte alde egin gurasoen etxetik eta arra-noa txitaren habiara itzuli.

Ezinezkoa da, noski, eta ez da hori ere nire bene-tako nahia. Ahuluneetako burutazioak baino ez dira horiek. Hartutako bidea atzera bueltarik gabea da. Si-natu gabeko hautsiezinezko hitzarmenak lotzen nau alde egitera behartuko ninduen urratsa egitea eraba-ki nuenetik.

Ea nola azaltzen dizuedan.

Orain Euskal Herrira bueltatzea bizitzak bere gor-dinean irri egiten zidan egoera batera atzera egitea li-tzateke. Goxotasunari dagokionez bizitzen ari naizen egoerarekin parekatzerik ez duen egoera batera. Or-duan hamaika ate eta aukera nituen. Narrika kalean behin eta berriro gelditzen nintzen ezagunekin hitz egitera, arratsaldez hitzordurik gabe aterata ere beti nuen ezagun batekin tea edo kafea hartzeko aukera. Nagoen lekuan ordea bakarrik nago, hainbeste etxe, hainbeste ate, hainbeste jende, eta esku bateko ha-tzak sobera ditut laguntza eske jo ditzakedanak.

Aurrera begiratzan dudanean ere ez dut ordea Euskal Herririk ikusten. Ez naiz gai inoiz Euskal Herri-
ra itzuliko naizen irudikatzeko. Eta hori da okerrena
agian, ez irudikatze horrek egiten duela ezinezko nire
itzulera.

Ez dakit nora itzuli behar dudan. Eraiste eta erai-
kuntza lan zentzugabeen murgilduta dagoen orube
bat da orain niretzat gure herria. Eta anabasa horre-
tan ordena pixka bat jartzen ez den artean ez dudala
itzultzeko aukerarik izango sumatzen dut. Jada Euskal
Herririk ez balego bezala da niretzat. Euskal Herria ira-
ganeko zerbait bihurtu zait. Eta herrimina, iragan-
mina. Edo etorkizun-mina. Etxerako itzulera ahalbide-
tuko duen egoera ahalik eta azkarren iristea nahi
nuke. Badakit ordea ez dela besterik gabe eta gauetik
egunera gertatuko. Orubeko eraikuntzak beharginak
behar dituela esaten dute mitinetan. Eta nik ezintasu-
na besterik ez dut sentitzen hiri honetan galduta.

Eta Euskal Herriatik gehiago urruntzeko aukerak zo-
rabioa, ikara eragin dit.

Ez da arrazoiaren arau hartutako erabakia izan,
beraz. Alde egingo nuela erabaki nuen unean berean
konturatu nintzen ezinezkoa egingo zitzaidala urrats
hori ematea. Erabaki arduragabea izan da agian. Ez

baitut beste ezeren truke utzi Frantziatik alde egiteko hasierako asmo hura.

Nire buruari aitortzen diot beldurragatik izan dela, ezezagunari aurre egiteari diodan izuagatik. Esango didazue kontatzen ari natzaizuenarekin hemen geldituta aurrean dudana ere ez dela ezagunagoa.

Zerbaitek lotzen ote nau hiri honetara, kontinente honetara? Patua izango da. Nonbait idatzita egongo da ez dudala alde egin behar.

Arrazoiak agindutako erabakia izan ez bada, ez nuke esango ere koldarkeria izan denik iritziz aldatzera bultzatu nauen bulkada bakarra. Dakidan gauza bakarra da, ez alde egiteko erabaki irmoa hartu nuenean zama handia kendu nuela gaintetik.

Ordura arte ikaraz nenbilen, alde egitear nengoe-la ez ote ninduten atxilotuko, kalean, aireportuan, hemen edo han. Orain badakit ingurune honetan egin behar dudala nire bizitza. Datorkidanari aurrez aurre begiratuko diot, ez dut ustekabeen kokoteko traidore-rik jasoko.

Hiriari ere beste modu batez begiratzen hasi naitzaio. Lehen ez bezala masan urtzen saiatzen naiz, hiriko beste biztanle bat gehiago bainintzen. Hiritar arruntaren tristura nireganatu dut, ibileran, begira-

dan, mintzatzeko modu suminduan. Mozorro berri bat besterik ez dela izango espero dut. Ez nauela kutsatuko, ez didala nire zinezko izaera aldaraziko.

Senak aginduta hartu dut erabakia. Aitak ulertuko du hitz-jokoa. Ados, txarra da.

Oraintxe bertan zuek besarkatzeko izugarrizko gogoia dut. Banan-banan eta denok batera.

Bitxia zait, han nengoenean zuengandik urruntzeko joera nuen, nire bizia egiteko beharra, zilbor-hes-tea moztekoa. Muga pasatu bezain pronto, aldiz, zuenganako maitasuna eta beharra inoiz sentitu ez bezalakoa izan zen. Eta urte pare luze honetan sentimendu hori are eta sakonagoa egin da. Hunkidura, samurtasuna. Eta aldi berean sentimendu guzti horiek adierazteko ezjakintasuna.

Etxean ez dugu sentimenduak adierazteko trebetasunik izan. Badakit ez dela gurasoen ahalegin faltagatik. Trikuak izan gara. Baina badakit elkarrenganako maitasuna hor dagoela, goxoan, su pindar baten moduan. Agian noizbait asmatuko dut zergatik izan garen horrelakoak sendian. Gure haurtzaroan aita kartzelan egon izanak izango du zerikusirik agian.

Ez du denbora asko egin gure sendiak batuta, ezta?

Oraingoz bederen ez naiz zuengandik geografiko-ki gehiago urrunduko. Fisikoki ezin izango dugun arren elkarrekin egon, esandako lekura joan izan baintz baino hurbilago egongo gara.

Iraganetik, nire bizileku izan den horretatik, eta orain lehen aldiz Euskal Herri izendatzen dudan puzzle horretatik ere ez naiz urrunduko. Puzzlearen pieza batzuk baino ezagutzen ez ditudan arren (Nafarroa luze-zabalean, Bilbo aldea, Gasteiz gutxi, Agurain, Barria, Gipuzkoako eskualde batzuk, Antigua eta Donostia nola ez!, Azpeitia, Deba, Zarautz, Lapurdiko kostaldea, Urdiñarbe Zuberoan), osotasun bat bezala irudikatzen dut orain.

Laster ezezagun bihurtuko zaizkit nire buruko argazki bernizatuko txokoak.

Nire oroitzapenean baino ez da izango nire aberria. Eta ni egongo naizen leku oro ordea nire atzerria. Itzultzen naizenean, aberri berri bat izango da nahitaez niretzat, dena berri izango baita. Eta orduan ere orban bat bezala eramango dut nire baitan datozen urte guztietan pilatuko zaidan atzerriaren itzala.

Atzerrira alde egitea ez da aste-santuko bakantze-tako bidaia arrunta edo abenturazko trekking bat. Inor sekula itzuliko ez den bidaia bat da erbestea. Abiale-

kua abiatzen garen bezain pronto hasten baita itxuraldatzen. Bertan bizi direnentzat aldaketa hautemanezina dira gehienetan, ondoan dugun haurren antzera, gure oharkabean eraldatzen da bizitza. Haurra hilabetez ikusi gabe pasatu duenak, aldaketaren handiaz ohartzearekin batera, zerbait galdu izanaren sentsazio gazi-goza izaten du.

Berdin gertatzen da erbesteratuentzat etxeekin, lekuekin, pertsonekin.

Ni sekula izan ez naizen leku batean bizi zarete jandantik. Nigan dagoen herria, aberria, nirea baino ez da, nik baino ez dut ezagutzen. Eta nigan sortu den atzerriarekin partekatu behar du lekua. Denbora aurrera doan arau, bata gero eta lainotsuagoa eta une berean zehatz eta ttipiagoa bihurtzen den neurrian, bestea puztu egiten da, itxuragabeki, anonimotasunez betez espazio guztia, sekula arrotz izateari utzi gabe.

Ahaleginak eta bi egin arren, hizkuntza arrotza ikasi arren, herrialde berriaren ekanduak bereganatu arren, atzerritarrak beti gordetzen baitu hiztun berriaren kutsua bere baitan, herriminak ahoskera perfektua bereganatzea ekidingo bailion.

Harrera-herrikoen begietara ere antzera gertatzen da, atzerritarra edozein unetan desager daitekeen

norbait da, itzul daitekeen norbait, epe luzerako planak egiteko hastapenetik fidagarria ez dena. Hamarkadak pasa ditzakeena «erabat fidagarria» izan gabe. Ezta bere buruarenganako ere.

Erbesteak errealitatearen hautemate-gaitasuna aldatu dit. Nire euskara (eta gaztelania) ez da garatu (eta herdoildu) modu arruntean. Fosilduta, izoztuta gelditu zaizkit hizkuntzak (norbere buruarekiko elkarriketak dezente mugatuak izaten baitira eta ez dute lexikoa aberasteko laguntza handirik ematen).

Horko lagunekin nituen harremanek ere ez dute aldaketarik izan, ez onerako eta ez txarrerako, ez dago pozerako edota haserrerako arrazoi objektiborik, betirako lagun, betirako etsai izango ditut mugaz bestalde utzi nituen biztanleak. Etsaigoaren garra higituko ahal da, adiskidetasunaren indarra kontzentratzen den artean.

Harrezkeroztik egin ditudan lagun berriak behin-behinekotasunaren mehatxupean daude. Gaur bukatu gabe utzitako elkarrizketa bat betirako gera daiteke amaitzear. Behin eta berriz errepikatzen den haustura horrek harremanak egiteko jarrera baldintzatu dit. Harreman iraunkorrek ematen duten lasaitasunik ez dut erbeste honetan, ez bada irudimenean, lagun harekin

whiski bat hartzekotan gelditu ginela gogoratzen dut, eta urtebete pasatu da; ez ote dira hogeitau hogeita bost urte pasako whisky hori hartzeko aukera izan aurretik. Bizitzak emango dituen itzulien ostean whiskia edangarria izango ote den jakin gabe.

Lagunek gazte jarraitzen dute nire oroimenean. Zahartzen, ezkontzen, familia osatzen ari diren bitartean. Eta haiek nire oroimenean gazte mantentzen diren bezala, ni ere berdin mantenduko naiz haienean. Erbesteak badu baita ere gaztetasunaren edabearen antz zerbait. Deserrotuta, ez dut eguneroko bizitzaren buruhausteek sortutako zimurrik edo ile urdinik. Bat-batean hogeitau urte beharrean hogeitau sei ditudala konturatzen naizen arte. Adinean aurrera egiteak ez du esanahi sozialik niretzat.

Askatasun penintsularra da nirea. Alde guztietatik batetik izan ezik inguratzen nau askatasunak: hain zuzen ere itzuli nahi nukeen horretatik. Nire buruari inposatzen diodan behin-behineko askatasuna da bizi dudana, aire libreko kartzela. Guardia Zibilaren torturak eragiten didaten izu-laborria baino mugazain horberik ez dago.

Ihes egitera bultzatu zuten arrazoiak ahazten dituenak, bere buruari jarritako zigor bihurtzen du er-

bestea. Zigor zentzugabea. Orduan, gerra nazkagarri hau jadanik zergatik ez dugun irabazi galdetzen dio erbesteratuak bere buruari, eta bere egoera penagarriaren erantzuleak pareko etsaiengan ez baizik norberaren lerroen artean bilatzen hasten da.

Muga pasatu berritan sartu ninduten Lapurdiko lehen etxe hartaz geroztik gero eta urrunago nago zuengandik. Borondatez alde egin nuen, nire herrian bizi ahal izango nuen ustean. Desterratu ninduen Administrazio frantsesak. Atzerrian bizi naiz, atzerriak bizi nau. Ez naizela gehiago urrunduko erabaki dut. Gerta dadila gertatu behar duena.

Ez dizuet ezer aipatu idazteari buruz. Izan ere *Odolaren usaina* argitaratu nuenetik ez dut burua idazketan jarri, eta gauzak hain azkar gertatzen ari dira azken asteotan.

Asko luzatu dut gutuna. Iruditzen zait komeni ez den gauza dezente jarri dudala gainera. Ez dakit igorriko dizuedan. Agian hobe ez igortzea. Hau guztia irakurrita ez ote zareten kezkatuko beste ezer baino, asmatuko zenukete ez nabilela nire onenean. Gaur bizi dudanaren lekuko gordeko dut.

Ohartxo batean jakinaraziko dizuet ez noala Mexikora eta lasai egoteko nigmatik, moldatuko naizela. Beti bezain hotz eta zakar. Izugarri maite zaituztet ordea.

Godot & Brodsky

Asteazken arratsaldea, ilundu du dagoeneko.

Saint-Sulpice enparantzako Tabac-ean jesarri da mutila aurreko asteazkenean eseri zen mahai berean. Ebakia eskatu dio zerbitzariari. Liburua atera du berokiko poltsikotik. Ismail Kadareren *Qui a ramené Do-runtine*. Ordua begiratu du. Zazpiak eta minutu bat. Azukre koskorra erditik apurtu du. Koilaraz lagundu dio beroari desegiten.

Zazpiak eta bi minutu. Goazemak, dio bere buruan ahots batek. Ezin diagu. Zergatik? Godoten esperoan gaudek. Egia. Ziur al hago hemen dela? Zer? Itxaroteko lekua. Saint-Sulpice plazako Tabac-ean esan zian. Saint-Sulpice plazako Tabac-ean gaudek. Aspaldi lotu genian segurtasun hitzordua duk hau: Saint-Sulpice plazako Tabac-ean asteazkeneo arratsaldeko seietan; inor ez azaltzekotan berriro zazpietan. Beste Tabac-ik ikusten al duk inguruan? Seietan ez duk agertu. Bost minutu zain eta aire.

Ordubeteren buruan berriro azaldu, mahai berera eseri eta lehen bezala ebakia eskatu dionean, zeharka begiratu dio zerbitzariak. Berria da. Mutilak espero

du serveur hau bere asteazkenetako bi agerraldietara ohitu aurretik agertuko zaiola norbait.

Argi esan zigun. Bost minutu eta aire. Bakarrik nago orain ordea. Besteek alde egin dute. Nik ere alde egin behar nuen. Dirua badut. Baita paper faltsuak ere. Beranduegi da orain ordea. Ez dut hitzordurik Mexikon. Zer egin behar dut, hegaldia hartu eta Euskal Etxean agertu? Hemen ezagutzen ditudan lagunengana ere ezin dut jo. Denak daude erreta, eta Polizia nire bila ibiliko da orain arte laguntza eman didatenean inguruan. Ziur. Entzuketak, jarraipenak.

Zazpiak eta hiru minutu. Zer iradoki nahi duk? Okerreko lekuan gaudela? Hemen behar likek dagoneko. Joan den astean ere hemen behar zuela. Eta aurrekoan. Eta aurrekoan. Seietan eta zazpietan. Ez zian esan ziur etorriko zenik. Ez. Baina bera ez bazen beste inor agertuko zela, arduradunen bat, bai. Norbait geldituko duk libre. Ea. Nik ezagutzen ditudanetatik bizpahiru gogoratzen ditiat. Baina beste guztiak Polizia espainiarraren eskuetan zaudek, edo alde egin ditek. Eta hi zertarako geratu haiz hemen? Eta ez badator? Bihar itzuliko gaituk. Eta etzi ere bai. Menturaz. Eta hurrengoan ere berdin. Alegia...? Hura etorri arte. Gupidagabea haiz. Joan den astean ere etorri gintuan. Et-

et, horretan oker habil. Zer egin genian bada joan den asteazkenean? Zer egin genuen? Bai. Hots... Zalantza ereiten, hi txapeldun.

Kaiertxoa atera du alkandorako poltsikotik. Aurreko asteko egutegia urratuz beteta dago. Asteazkenean, urratuen azpian 18:00 eta 19:00 irakur dezake.

Nirekiko, hemen izan gintuan.

Ingurua begiratu du mutilak, disimuluz betaurrekoen gainetik, ebakiari hurrupa kentzen dion bitartean. Kikara utzi eta Winston paketea atera du poltsikotik. Zippo batekin piztu du.

Zazpiak eta lau. Agian norbait zelatan dut, txakurrada atzetik ez ote dudan. Agian txakurrada gain-gainean dudalako ez zait inor agertzen hitzorduetara. Eta hala balitz, zenbat denboraz utziko nindukete horrela, inor agertzen ez zaidan hitzordura etortzen. Bizilekua ere harrapatuta edukiko dute beraz. Nahi dutenean atxilotuko naute.

Zer uste huen besteak baino azkarragoa hintzela? Zer uste huen hemen gelditu eta Poliziaren atzaparrei ihes egingo hiela? Linboan hago, txo, ez zeruko ez infernuko. Mexikorako hegaldia hartu behar huen, Madrilerakotik libratu bezain pronto.

Ez dela hau lekua uste al duk? Ez diat halakorik esan. Hortaz? Horrek ez dik eragozten. Halaz guztiz... taberna hau... enparantza hori... eliza hura.

Mutilak inguruak behatu ditu. Ondo-ondoan beste taberna bat dago. Plazarekin ez du zalantzarik. Tabernarekin ere ez. Behin baino gehiagotan egin zuten bertan hitzordua errefuxiatuen arduradunarekin.

Ziur al hago gaur arratsean zela? Zer? Zera, hitzordua. Asteazkenean, esan zian. Ustez. Laneko ordutegiaren ondoren. Idatziz jaso nian nonbait.

Kaiertxoko orriak begiratu ditu mutilak. Hitzordua klabean idatzi zuen orriaren bila. Poltsikoak arakatu ditu.

Metroko tiketak, zinema-tiketak (zer egiten duk tiketak oraindik bota gabe, arduragabea halakoa! E! Zer egin behar huen! Ez bota hemen, gero! Kafetegitik urruntzean disimuluan botako dituk. Kontrolatuta bahaukate alferrik habil tiketak eta botatzen, ondotxo jakingo ditek non hartzen duan autobusa, zein film ikusi duan eta baita zerezkoa zen gaur jan duan sandwicha), azukre koskorrak paperean bilduta, hari bat, arkatz bat, sagar bat ere atera du berokiko poltsikotik. Hemen dago!:

Libération egunkaria. Edari bat. Tu es le copain de Michel. Oui, je veux aller au cinéma.

Asteazkenetan. Ziur. Ziur? Ez ote larunbatetan? Edo astearteetan? Edo ostiraletan?

Egunak eta egunak daramatza inorekin mintzatu gabe. Babeslekutik goizean goiz irteten da. Oinez urruntzen da auzunetik, ez du garraio publikoa etxetik hurbil hartzen, oinarrizko segurtasun arau hori ikasi du bederen, batetik kamerak, eta bestetik atxilotuz gero metroko ticketaren arrastoari jarraituz etxea harrapa lezaketela, eta ondorioak elkartasunez laguntza eman diotenentzat izango lirateke. Ez du inor beragatik atxilo har dezaten nahi.

Goizeko zinema-saio batera sartzen da. Film zaharrak dira, garai batekoak, merke-merke dago sarrera, ordea, eta egoera honek iraun bitartean dirua aurreztu behar du.

Babeslekutzat duen gelan ohea eta ur hotzaren kanila besterik ez duen konketa du. Ez da gela bat, trasteleku bat baizik. Liburuz eta hautsez beteta dago. Nola hala txukundu zuen eta bizitzeko moduan dago. Komuna korridorean, beste geletan bizi direnekin partekatzen duena. Garbitzeko, balde bat jartzen du zoruari eta kanilako ur hotzez edo kafetera elektriko ba-

tekin berotzen duen urez egiten ditu katuarenak. As-
tebete darama hotz jaten. Urdaiazpiko eta gazta ogi-
tartekoak. Entsalada potoak, mexikarra da gehien
maite duena, niçoisea gutxien. Edalontzi bakarra du.
Sardexka. Plater bat. Harrikoa egiten duenean auzoko
atsoak horman jotzen dio. Paperezkoa dirudi. Ce n'est
pas bientôt terminé ce boucan! Platerak harraskan
egiten duen zaratak aztoratzen du nonbait, ur-txorro-
tak bere onetik ateratzen. Ça suffit! Minutu bat ere ez
du irauten harrikoak, hala ere kanila irekitzen sumatu
bezain pronto hasten da horman jotzen, oihuka. Ou
j'appelle la Police. Ez du sekula korridorean gurutzatu
eta ez daki emakumeak zer itxura duen. Edonola ere,
ez du uste halakorik egingo duenik, baina mehatxu
hutsak bere egoera ezegonkorra oroitarazten dio eta
urduritzen: bizitza arrunteko istripu txikienak kartzela-
ra eraman lezake.

Arratsaldean beste bi film ikusten ditu, hurrenez
hurren. Ez du telebistarik gelan. Kalearen bestaldeko
eraikineko azken solairuan berea bezalako gelak
daude. Leihoetatik ikusten ditu aparatuak piztuta.
Urrutiei ezer ikusteko, tamalez. Sendiak bizi dira
bera bakarrik estu bizi den espazio berdinean; nola,
ezin asma. Goizeko zazpitan esnatu eta telebista piz-

tuta dute. Gauerdian argia itzaltzen duenean, telebis-
ta piztuta dute. Inoiz goizaldean harraskan pixa egite-
ra jaiki denean, telebista piztuta dutela ikusi izan du.

Iluntzean itzultzen da etxera.

Zazpiak eta bost. Ezinezkoa da. Ez da ostegunetan
izango segurtasun hitzordua? Zer egin behar duk, aste
oso bat pasa egunero-egunero seietan eta zazpietan
ebakiak hartzen? Nola egin? Joan den astean hona
etortzeko lana alferrik hartu badu, ziur hagoke gaur ez
dela itzuliko. Baina hik diok joan den astean hemen
izan ginela. Oker egon naitekek.

Ez du beste zereginik, ez du beste zeregin garran-
tzitsurik, asteazkenetan arratsaldeko seietan (eta bes-
tela zazpietan) Saint-Sulpiceko Tabacean egotea kafe
bat hartzen. Ebaki bat hartzen, horrek ez du eraginik
hitzordua gakoetan. Garagardo bat ere har lezake.
Edo Coca-Cola bat. Aste bat eta hurrengoa. Eta hu-
rrengoa. Noiz arte. Eta Parisen gora eta behera ibil-
tzea. Inork ezagutuko duen beldurrez, turistak ibiltzen
diren inguruetatik urrun. Urrun XVI. arrondizamendu-
tik, batez ere Passyko metro geltokitik, Eskual Etxean
beti egoten da ikasle deserriratu herrimindunik, bera
iritzi zenean bezalakoak oi Eskual Herri goxua zein
latza den Pariseko bizitzia. Ez hurbildu Maison de la

Radioren inguruan dagoen Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza bertan behera utzitakora ere, belaunaldi berriko euskal errefuxiatuek soilik bizitza pixka bat ematen zioten hartara, ba al dakizue nor den metrailetari balak zerbitzatzen dizkion hori galdetzen zien gudari zaharrak katea etengo ez bazen bere arduradunek laidotzen zituzten etarrekin ahokatu behar zuela bulego-etako politika oro ezeztatzen duen intuizio abertzalez blai, neroni! Harro. Jelkideentzat gazte burubero besterik ez ziren gazte horiengandik jasotako begirunea ezein Jaurlaritzak emandako latorrizko dominak ezin-go lukeela ordezkatu jakitun. Ez hurbildu Montparnasse hilerri ondoko Blanqui etorbidera ere, asteartero-asteartero hogeitau euskal preso, lau lapurtar nostalgiko, hiru baxenabartar eskuindar eta bi xiberotar faxistendako eskaintzen omen zuten Radio Payseko Txalaparta emankizunean urte eta erdiz kolaboratu eta gero Poliziaren ituan zegokeen lehen helburua izango zela koan.

Bere buruarekin baino ez du hitz egiten. Labandeariara joaten da tarteka. Liburuak irakurtzen ditu. Tras-telekuan aurkitu dituen liburuak irakurtzen ditu. *Le Baron perché*.

Zazpiak eta bost. Gaur ere ez dituk etorriko. Isil gaitezen pixka batean, axola ez bazaik. Ongi duk.

Ça fait combien?, galdetu dio zerbitzariari. Zazpiak eta sei. Aire. Ordain-txartela ekarri dio platertxo batean. Diru xehea zehatz utzi dio. Hurrupa batez edan du kondarretaraino kafea. Berokiaren poltsikoan gorde du liburua. Egunkaria tolestuta besazpian kokatu. Erdiraino baino erre ez duen zigarreta hautsontzitik hartu eta azken xurga kendu dio, hautsontzian zampakatu aurretik. Tabernatik atera eta ezker-eskuin begiratu du. Elizako atarian inor zelatan ote duen. Ez. Inor autobus geltokian? Ez. Inor metroko sarrera inguruan? Ezta. Berari bederen ez zaio iruditzen.

Goazemak! Zazpiak eta zazpi. Ez dituk berandu etorriko. Ez dituk etorriko. Kito.

Ezker hartu du, etorbide zabalera ematen duen kalean barrena. Ilundu du. Udazken hotza ari da egiten. Bidaztien giza hodeian urtu du bere irudia Odéoneraino. Han hartuko du metroa gaur. Iparraldera joko du aldaketa pare bat eginda. Gero kalez kale ibiliko da. Autobusa hartuko du ekialdera. Handik oinez berriro ere hiriaren erdigunera joko du. Autobusez berriro ere hegoalderantz abiatzeko. Gordelekutik urrun jai-

tsiko da eta bi sarreradun etxepe batzuk erabiliko ditu inor atzetik ez duela berresteko.

Oraingoan ere hamar egunetarako utzi diote gela. Datorren hilean berriro ere itzuli ahal izango du, baina trastelekuaren jabeei aitona-amonak datozkie probintziatik hiriburura eta litekeena da bertan metatutako pusken artetik zerbait berreskuratzekeo temarekin etortzea. Ez du bere arrastorik utzi behar, gauza guztiak zeuden bezala uzteko erregutzen diote ate azpitik sartu dioten ohartxoan. Ez ditu sekula ikusi trastelekuaren jabeak. Ez daki nola duten izena. Laguntza komitekoaren bidez jaso zituen giltzak eta helbidea.

Zegoen hautsa ezingo dut bada lehen bezala utzi.

Ez luke haserretu behar elkartasun-laguntza ematen diotenekin. Ez du ordea norekin haserretu. Bere buruari errieta egiteari utzi dio. Beheraldian amiltzen ari dela nabari du, ezin du irakurketan kontzentratu, *Berlin Alexanderplatz*, egunak joan eta egunak etorri ezer ez egitearen sentrazioak hertsatzen dio gogoan.

Gela kokatuta dagoen etorbidera iritsi aurreko kale iluneko kantoian elkarri musuka doan bikote batekin egin du tupust ia.

- Pardon! -esan die.

Mutilak irribarre egin dio, eta irribarre harridura oihu bihurtu zaio:

- Zer egiten duzu hemen!

Zurbil-zurbil, hitz-totelka hasi da. Zer esan behar dio. Arraioa, bi ordu eta erdi luze darama hiria goitik behera eta ezker eskuin zeharkatzen eta hara gordelekutik ehun metrotara «hango» ezagun bat, «zer egiten duzu hemen» galdezka. Zer egiten duzu hemen, zuk?! Erantzutekotan egon da.

- ...?!

- Hau marka -jarraitu du ezagunak bere mututatsuna harridurazko erantzuntzat hartuz-, astebete pasatzera etorri gara neska-laguna eta biok lagun batek inguruan duen etxea hutsik dagoela baliatuz. Eta zu, zer? Zer moduz? Zenbat denbora da alde egin zenuela? Urtebete?

Bi aste inorekin ez, ez bada okinarekin, zinema-txartel saltzailearekin eta Saint-Sulpiceko Tabaceko zerbitzariarekin, une noisette, merci, c'est combien, astean bitan, hitz egin gabe, ia hilabete pareta bai euskaraz inorekin hitz egin gabe.

Gonbidatu itzak kafe bat hartzera, motel! Galde egiek zerbait. Agian etxea inguruan duen hori konfian-

tzazkoa duk eta hire azpiegitura arazoak, gutxienez, konponduak izango dituk.

- ...?

- Euskal Herrira itzultzeko gogoz egongo zara, ezta?

- Badira bi urte eta erdi alde egin nuela. Eta beste guztiekin itzuliko naiz.

Hogeita sei urteko errefuxiatu gazte burgoiak hor utzi du hegoaldeko euskaldun bikotea, aio eta aio, ahoa bete lurrun. Norabidez aldatu du, oraindik beste ordu erdi egingo du, kale hotzetan inork ikusten ez duela ziur dagoenean ezkaratzean sartu baino lehen.

Hik ez dakik zakarragoa izaten ez haizelako entrenatzen. Eta bera? Noski, Euskadiko Ezkerrekoa izango da, fijo. Notejode, «Euskal Herrira itzultzeko gogoz egongo zara, ezta?». A, bai, erantzuna primeran atera zaik, nola esan diok: «Beste guztiekin batera itzuliko naiz». Izango dik zer kontatu, bai, Euskal Herrira itzultzen denean, ikusi hauela, oso sendo ikusi hauela, zeharo erradikalizatua, zein gogorra haizen, zein duina, eta depresioak zeharo jota hagoela.

Txotxoloa haiz gero!, hori bera kafe baten inguruan elkarrizketa heldu baten erdian iradoki daiteke, sotilki, ez horrela ordea, zabar. Eta berak zer, non dik

burua, bada? Ez al zakik kanporatu dituzten errefuxiatu guztiak nola torturatu dituzten? Zer ari huen, ni probokatu nahian? Zer diok probokatzen? Adeitsua izan duk hirekin, iruzkin bat izan duk, agian ez behar bezain aproposa, baina kontuan izan ustekabea hartu duela berak ere, berak batez ere!, eta inondik inora ez dik hi xaxatzeko asmoz esan. Hi xaxatzeko gogoz bazegoen aski zian Yoyesena aipatzea. Igual kafearen inguruan geundela aipatuko zidan, bai! Aizak? Zer? Segi ezak horrela, e? Seeegiii!

Gelan sartu bezain pronto hasi zaio atsoa horman kolpeka: Ce n'est pas fini bientôt ce boucan! Je vais appeler la Police!

Oihuka hasi da gaztea, bere onetik aterata: Appelez la Police, appelez-la! Je m'en fous! Kolpe gogor bat jo du horman. Isildu da atsoa, izututa.

Ohe gainean etzan da, ahuspez, negar egitera. *Fin de Partie.*

Saint-Sulpiceko Tabacean, lasai, ez du inor agertuko zaionik espero, seietatik zazpiak arte egoten da

bertan, patxada ederrean, Antonin Artauden krudelkeriaren antzerkiaz irakurtzen, zeharo kontzentratuta, zerbait ulertuko badu; edo *La Revue Littéraire*rekin bestela. Datorrela Godot, gogoa badu. Datozela munduko polizia guztiak zelatan baditu. Hurrupatxoa kafeari, Veneziako Piazza San Marcoko kafetegi dotorean balego bezala. Xurga zigarretari. Kolpetxo ahul batzuk hautsontziaren ertzean, errautsa erorarazteko. Kea botatzean begiekin bildu du plaza, bere bigarren etxea. Lehena, bi hilabete gorabeheratsuotan aldatu ez zaion gauza bakarra asteazkenetako hitzordu hori baita. Azkenerako bere bizitzaren ardatza bihurtu da Tabaceko egonaldia, astea hitzordu horren arabera antolatzen du. Oreka ematen dio.

Gaur, Joseph Brodskyren testu bat irakurtzen dihardu: *Oheak*. Berak ere antzeko bat idatz lezake. Hasi da ohe eta bizilekuen inbentarioa egiten. Horri buruz ezin duela idatzi dakien arren. Beste mota bateko disidentea dela bera. Tira, handiustea izatea ere bada Nobel sariarekin alderatzea, jolas pribatuan izan arren, dio berekiko.

Edonola ere, bart gauean bizi izandakoa ez zen makala izan. Idazkitxo bat mereziko luke. Edo bi per-

tsonaiaren arteko antzerkitxo baterako: oso aspaldiko partez egin du beste norbaitekin lo ohe berean.

Trocadèron dagoen Chailloteko Théâtre Nationa-lean ikastaroa egiten ari den Hatxe izena duen neska baten gelan -gela bakarreko bizilekua baita- dauka aldikako ohandza. Bizilekua gela soil batek osatzen badu, gela ohe handi batek betetzen du, oheaz gain armairu handi bat eta mahaitxo bat baino ez da sartzen bertan. Te bat hartzera gonbidatzen duenetan ere ohean eseri behar izaten dute. Kaleko atletik gelara iristeko korridore txikian badu sukaldetxo bat hozkailu txiki baten gainean. Korridore horretan bertan dagoen ate baten atzean dago komuna. Luxua deritzo bizilagunekin komuna konpartitu behar ez izatea.

Hatxek aurkeztu dio Antoine Vitez, Chailloteko zuzendaria, Parisen iheslari eta une berean Frantziako antzerkigintzaren goi-mailako munduaren atalasean dago, Pessoaen *Marinelarekin* etenda utzi zuen antzerki-ibilbideak segidarik izan dezakeela amesten du batzuetan. Zergatik ez? Zainetan darama antzerkiaren sukarra. Proba-saioetara sartu izan da, nor zen jakin aurretik Ludmillaz maitemindu zen, antzokia trabeskatzen zuen haren ahotsa entzunda bakarrik, eta geroago albotik igaro zitzaionean, bera da Ludmilla

esan zion Hatxek xuxurlaka, utzi zuen lurrin-goza
usainduz berriro maitemindu zen. *Électre* ikusteko sa-
rrera doan lortu eta liluratuta atera zen, nahiz eta ez
zukeen jakingo hitzekin adierazten zergatik.

Hatxeri esker halaber Passy kaleko -XVI. arrondi-
zamendua!, argi ibili beharko luke- apartamentu ba-
tean larunbatean antolatu duten festa batera gonbi-
datu dute. Frantziako ohiturei men eginez, vodka bo-
tila bat eramatea bururatu zaio. Apartamentuaren ja-
beak Sobietar Batasuneko enbaxadan lan egiten
duten enplegatuak direla esan dio Hatxek. Gurasoak
astebururako Moskura joan direla eta haien bizka-
rrean *boum* bat antolatu du alabak.

Hatxek antzerki-ikasketak ordaintzeko aldikako
lana egiten du, erietxe batean gaueko zaindari, erizain
ikasketak ere eginak baititu. Hatxek erietxean dagoen
egunetan uzten dio gela. Hamabi ordurako. Goizeko
zortzietan neska iristen denerako jantzita eta alde egi-
teko prest egoten da. Batzuetan te bat hartzea propo-
satzen dio, baina gehienetan nekatuegi iristen da,
ohera segituan sartzeko gogoz.

Ez baititu aldatzen, oraindik bere berotasuna gor-
deko duten izaren artera, egiten du gogoeta eguna
kalerik kale pasatzera abiatzen denean.

Hatxe neska ederra dela pentsatzea debekatu dio bere buruari.

Hatxek mutil-laguna duela esan zion aurkeztu zituzten egunean. «Nik hemen lo egin behar dudanean soilik etortzen da gelara». Ez du ordea sekula ikusi, ezta alde egitean ezkaratzeko posta-kutxan utzi behar dion gelako giltzen kopiaren bila joan izan zaionean Chaillotera.

Gainera, lehen egun harrezkeroztik ere ez dio sekula berriro mutil-lagunen konturik aipatu.

Behin lore-sorta bat erosi zion Hatxeri, ikastarotik noiz irtengo zain zegoela ondoko kioskoan ikusi eta bulkada batek hartaratuta. Oso ederrak iruditu zitzaizkion, eta esker oneko musua eman zion masailean, ohiturazko bi musuen oso desberdina bere irudiko.

Atzo, gelara iristean izan zuen ustekabea: Hatxe bertan zegoen.

Tamalez azken unean txanda aldatu diotela eta ez diola horrelako egoera gertatuz gero bera lokalizatu eta ohartarazteko modurik eman, azaldu dio neskak haserre doinuz.

Zer egin ez dakitela daude biak. Armairua eta ohearen arteko tarte estuan zutik.

Kanpoan ilundu du. Abenduko gau hotzak bildu ditu Gabonetako apaingarriekin urreztatutako kaleak.

Hatxek segituan jakinarazi dio ezin duela bertan lo egin. Ohe bakarra dago. Zoruan etzateko aski lekurik ere ez dago. Alde egin beharko du.

Isilik dago Brodsky, ohe zabalari begira.

Hatxeren mutil-lagunak, bizi den lekuan bizi dela, ohe bat ere izango duela darabil buruan. Bera ez da nor besteren bizitzan sartzeko ordea. Kanpora begiratzten du. Ez du nora joan. Ez du hotel batean lo egin nahi. Hori akabua litzateke Brodskyrentzat, hondoa jo izanaren seinale.

- Hatxe -dio Brodskyk listua irentsiz eztarria gardenduz-, begira, ohea bik lo egiteko adina zabal dun.

- Nik ez diat ordea hirekin lo egin nahi.

- Begira, zin deginat ez naizela gau osoan mugituko.

- ...

- Ez haut ukituko.

Momia, pentsatu du Brodskyk.

Esan ziezaiokeen baita ere, «Begira, gainera ez haiz nire gustukoa, arrisku gutxi alde horretatik». Ez litzateke gizalegezkoa horrelakorik esatea. Eta ez zukeen egia esango ere.

Neska liraina da Hatxe. Antzezleen gorputz zaildu eta malgua du, espazio txiki horretan elkarrekin egon izan diren aldi bakanetan hurbiletik behatu ahal izan du bere mugitzeko era neurtua, kateme baten dotorezia oroitu izan diona. Ahots sakon eta xaramelatsuz mintzo da Hatxe, Txekhoven ahizpetako baten antzera.

Gure Brodskyri, Saint-Sulpiceko Egonarriari, ez zaio orain artean burutik pasatu larrutan egin zezaketenik. Bere egoera ezegonkorrean pentsamenduaren errepide batzuek norabide bakarrekoak izan behar dutela ikasia du. «Gainera bikotea du». «Gainera ez nazaio gustuko». «Gainera ez nago berarekin maiteminduta».

Mutil-laguna azken orduko txanda aldaketaz ohar-taraztea ahantziko zuen Hatxek, pentsatu du neska-
ren jokabidearen arrazoi bila. Ez bada mutil-lagunak bera ezagutzerik ez duela nahi. Edota, ez ez ez, kendu ideia hori burutik: txanda aldatu diotela baliatuz berarekin bakarka egoteko aukera baliatu nahi du Hatxek.

- Benetan, Hatxe, ez dinat zirkinik egingo.

Onartu zuen.

Hatxe gaueko atorra-luzea janztera komun-gela ñimiñoan sartu zen artean leihotik begira egon zen

Brodsky. Aldizkako gogoetan, Gabonetako izar eta kanpai apaingarrien erritmoan. Ez ote zion Hatxek eragozpen handiegirik gabe onartu proposamena? Jar zezakeen baldintzaren bat; adibidez:

- Ados, ni ohe barruan sartuko nauk, izaren artera, eta hik ohe gainean egingo duk, tapaki batekin.

Ez zion halakorik esan ordea. Ez zitzaion bururatu-ko. Berari bai.

Komunetik atera zenean, menda usainezko «libre dago»ari erantzunez erabakitazunez esan zion:

- Ohe gainean egingo dinat lo, tapaki batekin, izara artera sartu gabe.

Harritu al da Hatxe? Brodskyk ez dio begietara begiratu hitz egin duenean. Atsekabetu al da? Aurpegiko giharrak kontrolatzeko antzerki ikastaroko teknika aplikatu behar izan ote du? Aitzitik, lasaitua hartu ote du Brodskyren gizatasunagatik, eta irribarrez ari da?

Burua altxatu duenerako bizkarrez dago Hatxe ohean sartzen, izaren artera.

Entzun ote dion ere ez daki Brodskyk. Hitz egin ote du edo askotan bezala burutik mihirako bidean indar-gabetu zaizkio hitzak?

- Zer esan duk? -galdetu dio izarak atontzen di-tuela.

Bai, ez zuen aski ondo ahoskatuko. Lotsati marmarti halakoa.

- Ezer ez, ezer ez.

Ohean sartzeko Brodskyren txanda. Hatxek entzun omen ez zuen proposamena gauzatu du, izaren artera gabe, gaineko izara eta tapakiaren artera sartuz.

- Ez al duk ohe barrura sartu behar?

- Ondo dun horrela.

- Kendu galtzak nahi baduk, e?

- Ez, ez, horrela ondo nagon.

- Itzali argia.

- Bai... Hurrengorako agian hobe kalean hitzordua jartzea, ezta? Azken orduan txanda aldatu ez dinatela ziurtatzeko.

- Beno, hain larria ere ez da.

- Ez.

«Bihar goizean hitz egingo dinagu, polita, gau honen larritasunaz», pentsatu zuen Brodskyren momiak argia itzaltzearekin batera.

Hatxe hormari itsatsita. Brodsky ohe ertzetik ez erortzeko pioletik ez ekarri izana madarikatzen. Autoak kale bustietan. Argi keinukariak errezel zurietan dantzan.

Saint-Sulpiceko Egonarriaren momia aratinik be-
soak gorputzari itsatsita Brodskyren momia eskuak
bular gainean bilduta momia eskurik gabe bururik
gabe irenduta ai mugitzen ari da momiaren aldera
momia momia momia Hatxeren arnasa momiaren es-
kuineko masailean ez ireki begiak momia Hatxeren
ilearen usaina ea asmatzen duan zein xanpu marka
erabiltzen duen momia ez pentsatu beste ezertan
momia burua itzuli duenean Hatxeren ile-adatsaren
brisara momia zurrun momia zurkaitz momia marmol
Hatxeren eskuak izarapean zeren bila dabilta baina!
momia itoko haiz momia arnasa hartu lasai momia
gertatu behar dena gertatuko da momia biharamu-
nean amnesiak jota jaikiko zarete Hatxeren oin hotza
momiaren berna-hezurrean galtzerdiekin sartu behar
hintzen momia. Begiak arranpalo dituen munduko
lehen momia, Brodsky.

Momiaren sukar-ametsetan sorbaldak, bularralde
zuriak, hankarteko sumendiak agertu dira. Gaua zuri
pasatu duela uste du. Tarteka lokartu da. Hatxe eten-
gabe mugitzen sumatu du. Haren arnasak zurrunga-
rantz egin duenean laxatu ditu pixka bat giharrak.
Beroa pasatu du galtzekin momiak. Igual hire lehen
fereken zain egon duk. Igual bere ferekak arbuiatuko

hituen beldur egon duk. Igual hik arazo bat daukak momia.

Mahaitxoan gosaldu dute, tea eta kruasanak, momia berpiztuta joan da okindegiraino, goizeko zazpi eta erdietarako irekitzen dutela jakinda ohean gehiago ezin etsiz. Hatxe ohearen ertzean eserita, Brodsky gelako aulki bakarrean, arropa mendia kendu ostean.

Kortesiaz ez diote galdetu elkarri nolako gaua pasatu duten.

«Begi-zulo horiek makillaje pixka batekin mozorrotuko ditun. Nireak ordea...».

«Hemezortzi ohe» kalkulatu du Brodskyk ebakiari beste hurrupatxo bat kenduz. Gaurko hamaikagarren kafea izango da, logurak akabatzen dago. Zineman lokuluxkatxo egin du bazkalostean. «Hogei», zuzendu du, udako kanpineko egonaldia eta errefuxiatuak beilari lan egiten zuen hotel horretako bi ohantzeak zenbatuz gero. Ekaitza zela eta autoan lo egin behar izan zuten gaua ez du kontabilitatean sartuko. Hogei ohe bi urte eta erdi eskasean. Ez dago gaizki.

Gordeleku edo lotarako leku duen kokalekuaren arabera aldatzen du Brodskyk bere jokabidea hirian zehar egiten dituen txangoetan.

Batzuetan turistarena egiten du, turisten ohiko lekuetara hurbiltzen ez den arren. Ibilera patxadatsua, argazki kamera sorbaldan zintzilik, metroko eta hiriko planoak eskuan. Bestetan borrokalaria klandestinoarena egiten du. Inor atzetik ote duen zelatatzen du, denden erakusleihoak ispilu gisa erabiliz. Inork erakutsi ez dizkion teknikak asmatuz, filmetan ikasitakoak praktikan jarritz. Kale meharretan abiada azkartuz ustezko jarraitzaileei iskintxo egiteko irekita aurkitutako ezkaratz batean kukutzeko; etorbide zabaletako jendarrean nahasiz azken unean taxi bat arrapaladan hartzeko; aldiriko auzune desolatueta terminusa duten autobusetan bidaiari bakar gelditu arte.

Edonola ere, lo egin duen lekutik atera aurretik eguneko plangintza egiten du beti, ibilbidea xeheki hautatuz. Turistarena egiten duenean, bere hautuek apetak agindutakoak diren itxura emango duten arren, zein ibilgailu publiko hartu, non egin aldaketa, zein kaletatik eta kale bakoitzaren zein espaloitatik

egingo duen ibilbidea, zein squaretan jango duen ogi-tartekoa, urdaiazpikoa, gazta eta ogia edo sardina-potoa non erosiko dituen, dena aurrez erabakitzen du.

Buruan duen hiriaren mapan ongi seinalatuta ditu gune arriskutsuak, «Kontuz minak», pertsonen aurka-ko minez landatutako sailak bailiran. Ez hain aspaldi bere leku kuttun izan zirenak, jadanik ezin zapal ditza-keen auzo, taberna, ibai-bazterreko pasealekuak. Kontuz, minak, bai. Senti ote daiteke herri-mina norberarena ez den hiri batean, galdetzen dio bere bu-ruari harrituta.

Hiriaren baitako beste hiri bat deskubritzen, erai-kitzen, apurka-apurka. Katakombetara jaitsi beharrik gabe, azpi-hiri bat baino albo-hiri bat; berea. Lehen ez zegoen kalez, pasabidez, auzoz osatua.

Hiriko ikuskizunen asteroko aldizkaritxoan hauta-tuak eta boligrafoz inguratuak ditu egunean ikusiko dituen filmak, bat, bi edo hiru. Ez dago egun bakarra filmik ikusten ez duena. Denak apuntatzen ditu kaie-rean, telebistan ikusten dituenak barne; bere Zinema Kaierean: filmaren izenburua (jatorrizkoa, frantsesez eta euskaratua), zuzendariaren izena, filmaren urtea, antzezle nagusia(k) eta filma ikusi duen data, zinema-gelaren izena eta baita ordua ere!

Lehengoan, Armendarizen *27 horas* ematen zute-la ikusi eta goizeko lehen emanaldira joatea erabaki zuen, espainiar edo euskaldunik topatzeko arrisku gutxi egongo zelakoan, zuhurtasuna ehuneko ehunean gorde gabe behingoagatik, bere buruarekin bar-kabera.

Ez du ahanzteko filmaren lehen plano luzea, Donostiako berunezko zero hain ezagun hori, inoiz ikusi gabeko ikusmiratik, itsaso zabaletik badian barrena doan airezko plano luzea, Imanolen ahots sakonaz lagundua, haurtzaroko hainbat gertaeraren lekuko izandako ordulariraino, nerabezaroko hitzordu lekuraino.

Filmaren bukaeran negar egitea, tira, baina hasieran! Eskerrak emanaldi goiztiar hartako hiruzpalau ikusleak bakoitza salako punta batean kokatu ziren eta ez zuten bere malkoek lekukorik izan.

Eguneko ibilbidea antolatzeke orduan joko berri bat bururatu zaio: egunean hiriko kaleetan egingo dituen joan-etorrien bidez idaztea. Hasieran idazkun errazak dira, espaloietan urratsen bidez osatzen dituen mezu ikusezin horiei hala dei baitakieke: bere izen-abizenaren lehen hizkiak, adibidez. Mapan ongi begiratu behar ditu hizki batzuk egitea ahalbidetuko dioten kale gurutzaketak, diagonalak, paraleloak, per-

pendikularrak, biribilguneak. Gutxika, mezu landuagoak osatzeko gaitasuna bereganatu du.

Otu izan zaio, inoiz Polizia atzetik balu eta azkarren bati bere ibilbideak mapan berregitea bururatuko balitzaio, ezusteko ederra hartuko luketela bere mezuak deskubritzean.

Harrezkeroztik eguneko idatzien artean bada beti bat bere irudipenezko eta balizko zelatarientzat.

Beste zigarreta bat piztu du Saint-Sulpiceko Zaindariak, bigarren ebakia ekarri diotenean. Seiak eta erdi. Ionescoren antzerki guztien bilduma utzi du kafe-tegiko mahai estuan eta irribarrez hasi da gaurko mezua irakurtzean atzean dituzkeen polizien ezustekoa irudikatuz:

- Dupond! Bazekik zorrotz zaintzen dugula!

- Zer diok baina, Dupont!

- Badakiela zaintzen dugula, Dupond!

- Hori bera ulertu dudala esan behar nian, Dupont.

Zorrotz zaintzen dugula badakiela. Are gehiago esatekotan egon nauk ni.

- Ba al dakik zergatik esaten dudan?

- Hain zuzen ere, galdetu behar nian ea ba al darian ba ote dakidan zergatik esaten duan zorrotz zaintzen dugula badakiela.

- Begira ezak! Hau duk sasikume horrek gaur egin duen ibilbidea bere sator-zulotik irten denetik.

- Sator horrek egin duen ibilbide sasikumea al da hori?

- Bai!

- Eta?

- Eta?! Hi itsua al haiz?

- Horixe bera galdetzeko asmoa nian, Dupont!
Itsua al naiz?

- Eta?

- Horixe bera galdetu behar nian: eta?

- Eta irakurtzen ikasi huen, ezta Dupond?

- Ozta-ozta Polizia-eskolan, Dupont, hik bezalatsu esango nikek, are.

- Markatzaile honekin erakutsiko diat maparen gainean kalez kale sator-kume horrek gaur goizetik arrats egin duen ibilbidea, Dupond.

- Iradoki behar niana duk hain zuzen ere markatzaile batekin sasikume horren sator-ibilbidea maparen gainean markatzeko goizetik arrats.

- Begira, ezak, irakur ezak!

Irakurri du Dupondek, aurpegia gorritu egin zaio haserrearekin, eta bere kolegak ezertarako betarik

izan aurretik, danba!, idazmakina hartu eta muturra hautsi dio Duponti.

- Esan diat bada irakurtzen ikasi nuela, Dupont! Hik zer uste duk, ergela naizela, ala?

- Oftia! Dufond, hofixe fera efan fehar nian! Erfgela baino erfgelagoa faizela! Ifain hori fafi-kumfe hofek gfuri efindakfoa fuk! Gfuri dfeitzen afi faigfuk fori!

- A, barkatu, Dupont... Hori bera esatekotan egon nauk, horrelako irain batek ezin duela erantzunik gabe gelditu! Har ezak idazmakina eta konpon dezagun kontua behingoagatik.

- Forixe fera efiteko afmoa nian, Dufond, forixe fera, ef efin kondtu.

Danba! Berdintzen du partida Dupontek.

Barrezka ari da kafetegian. Bera bakarrik. Hirian bere buruari mintzo ikusten diren biztanle errarietakoa bihurtu da. Bakarrik dago munduan. Baita barre egiteko ere.

Ezin dio inori bere kezken berri eman. Egunerokoa antolatzea eta gaua non pasatuko duen aurreikustea dira bere eginkizun nagusiak. Oihan bateko kanpalekuak bailiran izenak ere eman dizkie babeslekuei: Le Patient Perché, Mangez Léger, Ohezabaleta.

Abenduaren hogeitik aurrera dirua baldin badu, eta badu oraindik, hilabeterako apartamentu bat berralokatu ahal izango duela esan diote laguntza komitekoek. Garestitxo aukeran, baina ikustera joan denean konturatu da hor arnasa hartuko duela, eta oxigeno gabe geratzen ari dela badaki. *Benetako* etxe bat da, estudio bat eraikin dotore batean. La Bastilletik gertu egotea du akats bakarra. Bost axola. Kontu egingo du. Hilabeterako etxe bat. Okerrena pasatu dela esaten dio bere buruari, laster etxea berralokatu diotenen bidez zinezko paristarrak ezagutuko ditu, lagunak egingo ditu, eta haien bidez, nork daki, lanen bat lortuko eta lanari esker gelatxo bat alokatu ahal izateko soldata eskuratuko; biak beltzean, noski. Eta bere Olivettia berreskuratuz gero, agian urriko lehen egunez geroztik bizitakoak oinarritzat hartuz liburu bat idatziko du. Izenburuarekin jolasean dabil jada, *Bakardadearen usaina*, adibidez.

Frantsesarekin gero eta txukunago moldatzen da. Jadanik ez diote errepikatzeko esaten, lehenean ulertzen diote okindegian, saltegi handietako ordainlekuetan, garraio-txartelak erosten dituenen, leihatilan zein film ikusi nahi duen esaten dionean txarteldegikoari. Kutsua ere paristarrena duela esan dio Hatxek

-eta badaki zerbait ahoskatze eta ortofonia kontuez-, eta ahoskera landuz gero paristar petotzat hartuko dutela laster.

Gaztelania ordea herdoiltzen ari zaio. Noiztik ez du gaztelaniaz inorekin hitz egin? Eta euskara? Bi hilabete luze euskarazko hitz bakar bat ere esan gabe. Euskarazko lerro bat irakurri gabe. Euskarazko esaldi bat entzun gabe. Bere euskarazko liburu guztiak hondatu eta zakarrontzira bota zizkion babes-etxeakoak: Polizia edozein unetan sartuko zen beldurrez, konprometigarriak izan zitezkeelakoan idazkunak zituzten liburuen lehen orri guztiak -egileek berek propio beretzat egingako eskaintzak- erauzi eta erre egin zituen, liburuak bere etxetik urrun zegoen kontainer batean bota aurretik.

Liburu ehizan Beaubourg-eko liburutegi ederrera hurbiltzeko tentaldia izaten du batzuetan, bai baitaiki euskal liburuen atala dagoela. Mediatekan euskara ikasteko metodoak. Arriskutsuegi deritzo ordea, hor ziu euskal turista ezagunen batekin egingo lukeela topo, eta ez luke beste «Zer egiten duk hemen?» galdera aurrekoan bezain hotz jasango.

Azkenean, komitekoek ohar bidez jakinarazi zioten ez zela poliziarik azaldu bere bila, eta orain pentsa-

tzen ari direla duela mende bat izan zela iruditzen zaion urriaren bikoia agian alarma faltsua izan zela, ez zutela lokalizatuta izango. Eta berak amaitzen du hausnarketa: mamuei ihesi dabilela geroztik, ez dabilkiola inor atzetik, ez duela inork bera atxilo hartzeko ahalegin txikiena egin, Poliziak ahantzia duela, munduak ahantzia duela iruditzen zaion bezala.

4

Iritsi da larunbata. Idulkirik gabeko Saint-Sulpiceko Esfingeak sumatzen du bere bizitzan aro berri bat hastera doala. «Sena» dio berekiko, hamaikagarrenez bere baitan barre txikia eginez ulertuko dion inori esan ez diezaiokeen hitz-jokoarekin, Bir-Hakeimetik aireko metroaren azpitik festa antolatu duten apartamentura doan bitartean. *Last Tango in Paris*. Hortxe. Izkinako apartamentuan Marlon eta Maria, maitasun anonimoa eta gurina.

Festa antolatu duten apartamentua, lehen begiratu du planoan, kalezuloaren beste aldean, bi ezkaratz urrutirago dago. Ez du ibairako ikusmirarik izango, baina ezagutzen ditu, kanpotik, horko etxebizitzak,

gauetan leiho saretak zabal-zabalik utzita ez baitira bidazti begiluzeen jelsiak pizteko lotsa izaten hama-seigarreneko *burgeoisak*. Ekaitz egunetan itxiko dituzte, soilik. Iraultza aroetan balitz herdoilduta beharko zuketzen gontzek. Nolako etxe ederrak, argia ere urrekara bihurtzen da errezel doratuen kontaktuan. Etxe horietako aireak berak ere gainerako hilezkorrek arnasten dutena baino garbiagoa izan behar du.

Denboraz garaiz abiatu da Le Patient Perchétik gaur; beste hamar egunetarako utzi diote. Handik lekualdatuko da berralokatu duen La Bastille ingurukorra. Oraindik ez du edatekoa erosi. Ez du festa horretara doan inor ezagutzen. Gonbidapena bere bidez jaso duen arren, ezin duela joan esan dio Hatxek, mutil-lagunak afaltzera gonbidatu omen duelako. Espainiar bezala aurkezteko bere burua aholkatu eta gehitu dio:

- Ondo moldatzen bahaiz neska ere altxa dezakek.

Nahiko zakarra da Hatxe kontu horietarako. Brodsky lotsatu egin da, zer esan ez dakiela gelditu zaio.

Gaur ordea, zerbait aldatuta nabari du bere baitan, festaren kokalekuagatik izango da agian, bere barkadarearen baratzean hazi bat landatzeko aldartez doa. Izengabeko maitasunerako gogoz. Mangez

Léger-ekoak dioen bezala, korapilorik gabeko izara artekorako ere prest, besterik ez bada. Erabaki irmo bakarra hartu du: etzalekua ez duela berak jarriko.

Hala ere, festarako bidean, larru goseak sabelpean baino korrok handiagoa egiten du Brodskyren garunaren ezin aseak. Arteari, literaturari, zinemari, antzerkiari buruzko elkarrizketa jori batean murgilduta ikusten du bere burua. Eta ez nahitaez neska batekin. Ureztatu behar ditu garuneko ubideak, guztiz idortu baino lehen.

Ezagutzen du Passyn Félix Potin bat. Salgai garestia izaten dute, baina berandu arte egoten dira irekita, eta bidea botila gainean duela egitea ekidin du horrela. Vodka erosiko du, beraz, Smirnoff, horrela erabaki zuelako, oso originala ez dela jakinda ere, egokiagoa litzatekeela «Espainiako» ardo bat eramatea. Seguru sangria ospetsua aipatuko diotela temati batzuek. Errioxako ardo bat bilatzen ibiltzeko gogorik ez du izan ordea.

Saltegian sartu den une beretik sentimendu desatsegin bat nagusitu da beragan. Norbait zelatan duela iruditu zaio. Begira-begira izan duela, fruitu eta barazkien ataletik kontserba-potoenera igaro denean itzal bat atzean eraman duela garbiketa produktuen atale-

tik, azkenean aurkitu ditu, alkoholdun edarienera. Lapurrak zelatatzen ibiltzen den segurtasuneko enplegatu bat izango dela pentsatuz urrundu du gaua ilundu liezaiokeen aurrentimendua. Ez du lapur itxurarik, ez du deus lapurtzeko asmorik, lasai dago beraz.

Bilaketa amaituta, vodka botila hartuta, arraioa ez nuen uste hain garestia zenik!, hilabeteko aurrezte ahalegin guztiak pikutara!, mereziko ahal du!, ordainlekuko lerroan jarri da.

Uxatzen saiatu den aurrentimendua, saltegiko bere ibiliak zelatatu dituen itzala, hurbil-hurbil sentitu du bat-batean. Zurrundu egin da. Beste bat eta bere txanda. Saltegiko irteeran ez du mugimendu arrarorik nabaritu. Marka litzateke gero bi hilabeteren ondoren orduantxe kokatu izan balute. Norbait du atzean. Ez du jarrera normala. Ia berari itsatsita dator. Ez du begiratu nahi. Ezagun bat ote? Ez dio kasurik egingo. Ordaindu eta korrika alde egingo du bertatik, itzuli luze bat eman behar badu ere festara joateko.

Izoztuta gelditu da bere izena entzun duenean.

Poliki-poliki itzuli da eta...:

- Be!

- Non ibili haiz? Kezkatuta geunden Mexikora ez hintzela joan esan zigutenean.

- Be!

- Zergatik ez haiz azaldu segurtasun hitzordueta-
ra hileotan?

- Zer?

Ederra egin duk idulkirik gabeko Saint-Sulpiceko
Esfinge horrek. Nola ez haizela segurtasun hitzordue-
tara agertu? Ziur al hengoen? Zertaz? Hitzorduez. As-
teazkenean, esan zuen. Asteazkenetan esan al zuen?
Hori uste dut, hori uste nuen, laneko ordutegiaren on-
doren, nonbait idatzi nuen. Hori uste al huen?!, usteak
erdiak ustel, nonbait idatzi huen, bai, gaizki ordea.
Orain egiok guztiz barregarri utziko hauen galdera.
Izan hadi ausarta horretan bederen. Onartu hire
hanka-sartzea. Egia iraultzailea duk.

- Ordain ezak. Kanpoan hitz egingo diagu. Nolatan
vodka botila bat erosten? -moztu dio Bek.

Eta Brodskyk galdetu nahiko lioke, eta hi nolatan
hemen, Be?! XVI.ean! Gaueko zortzietan, saltegi ba-
tean, nire bizitzan lehen aldiz sartu naizen saltegi
arraio garesti honetan. Atzetik eduki al zaituztet? Ez
izan paranoikoa. Ez al dago zertan izan, ala? Bai,
baina ez izan. Egongo duk azalpenen bat; ez hasi hi
azalpen eske orain.

- Festa batera gonbidatuta nagok.

- Kontxo! Ez haiz gaizki moldatu, itxuraz.

- Saint-Sulpiceko Tabacean zuan hitzordua, ezta?, seietan eta zazpitan? Asteazkenero-asteazkenero azaldu nauk.

- Ostegunetan zuan.

- Ostegunetan?

- Gaizki apuntatuko huen. Begira, hemen diat nik.

- Igandea jartzen dik.

- Klabean idatzita zagok, hiru kendu behar dizkiok. Igandea bederatzietan eta hamarretan. Suplizio erre-tzailean. Ni agertu nauk ostegunero-ostegunero, azken bi hileotan. Kezkatu gintuan Parisen gelditu arren segurtasun hitzorduetara agertzen ez hintzela-eta. Zerbait larria gertatu ote zitzaian ere pentsatu genian.

- Ez, ez, ondo nagok.

Orain ez galdetu ea zergatik ez dieten laguntza komitekoei galdetu hire berri. Ez galdetu ea etxekoei hitaz galdetu ote dieten. Ez galdetu etxekoentzako ohartxo bideratu zuten ba ote dakien.

- Bururatu zitzaigun, bai, egunez tronpatuko hintzela. Egon ninduan zerbitzariari galdetzekotan ea ba ote zegoen beste astegunen batean ni bezala seietan

eta zazpietan zerbait hartu eta azkar-azkar alde egiten zuen ni bezalako mozoloren bat!

- Ni azken asteetan seietatik zazpietara bertan egon nauk mugitu gabe.

Hori zertarako esan diok, hire segurtasun arauen haustea aitortu eta barkabera izan dadin?

Pasa zitezkeen ba beraiek beste astegunetan, egunez tronpatu ote nintzen ikustera, gehiago dirareta Godoten mezulariak, arraioa, ni bakarrik egon naiz hirian galduta.

Hi ere pasa hinteke ba, alfer halakoa, zer besterik huen egiteko bada, egun guztia zinema emankizun batetik bestera hire buruaz gupidatuz pasatzeaz gain.

- Pozten nauk aurkitu izanaz.

- Ni ere bai, ez dakik nola, Be.

Festaren kontua azaltzen hasi zaio.

- Orain presaka nabilek-moztu dio Bek-. Hitzordu bat, badakik.

Hitzordu bat, beraz ez dago bakarrik.

- Baita ni ere -vodka botila erakutsiz.

- Lasai, lotuko diagu beste hitzordu bat... Oraingotan ondo apuntatu, gero; eta ahal baduk kodifikatu ezak, oso arriskutsua izan litekeek-eta eroriz gero.

- Bai, bai -umilago ezin.

- Eta zer iruditzen zaik arantza kentzeko Suplizio Erretzailean elkartzeko bagara?

- Ongi!

- Ostegunean, seietan.

- Bertan egongo nauk! Ez zaidak ahaztuko! Ez kezkatu!

- Ostegunean, e? Ez asteazkenean -Bek adarra jontzeko doinuz eta bizkarreko lagunkoia eman ez Brodskyri-. Taberna kanpoaldean egongo nauk. Ikusten nauanean hator nire atzetik, gure artean bospasei metrotako distantzia utziz, nik hiri kasu egin arte segi nazak; bistatik galdu gabe gero!

- Horrelaxe egingo diat.

- Tira, ostegunean hitz egingo diagu lasai... Gu bion artean, lehen une batean, baina... agian zerbait aurreratu zezakeagu. Hik Erakundean sartu nahi al duk?

Brodsky, Saint-Sulpiceko Egonarria, bere Smirnoff vodka botilarekin, enbaxada sobietarreko enplegatu batek Passyn duen apartamentuko festa batera joatear, isilik gelditu da.

Sena, bai, ondo hartua hion susmoa egunari, igar-le halakoa! Aldarte onez hindoan, korapilorik gabeko

abentura batean murgiltzeko prest, hire bizitza aldatzera zihoalakoan.

Erantzuteko ahoa ireki aurretik moztu dio Bek:

- Lasai, hausnar ezak. Ez duk arinkeriaz hartu beharreko erabakia. Emango didak erantzuna ostegunean. Ezezkoa bada ere ez duk ezer gertatzen. Moldatzen al haiz bizileku kontuekin?

- Bai...

- Tira! Kristorena poztu naik hi aurkitu izanak. Zer den halabeharra! Hamar milioiko hiri puska honetan, bi hilabete ezin topatu igaro ondoren hemen elkar-tzea, marka duk gero!

- Ni ere oso poztu nau, Be.

Hunkituta dago Brodsky. Hurrengo astean eman-go dion erantzuna badaki. Ozeanoa zergatik ez zuen gurutzatu ulertu balu bezalakoia izan da. Ez du zertan hausnartu. Patua hiri honetan, Passyko kalezuloan zirkulua itxiko balitz bezala, duela bi urte hirira iritsi zenean harrera egin zion errefuxiatuarekin ere hortik hurbil Passyko metroaren nasan izan baitzuen hitzordua.

Bera tematu zen Parisera etortzearekin. Zerbaiten bila edo zerbaitetik ihesi, ezingo luke esan. Berak erabaki zuen Parisen gelditzea Mexikora gabe. Bi hilabe-

te igaro ditu Parisen preso, alderrai, iparrorratzik gabeko esploratzaile, adarrez adar ibili da txori. Hartu behar duen erabakirako basamortuko ezinbesteko igarobidea izan ote da?

Zer da bizitza? Zer etorkizuna? Patua, halabeharra, zoria, asturua? Enkontru bat. Hautu bat.

- Erantzuna baiezkoa duk -esan dio, lasai, ostegunera itxaron gabe. Ostegunera arteko tarteak hartutako erabaki irmoa alda lezakeen zerbait ekarriko duen beldur balitz bezala, arestiko festan gertatuko den ezerk ez dezan baldintza bere deliberoa.

- Ongi pentsa ezak. Emango didak erabateko erantzuna datorren astean.

- Bai, emango diat nahi baduk. Baina ez diat asmoz aldatuko.

Agurtu dute elkar besarkada estu batekin.

Festarako bidean gogoeta egin du, besarkadaren kontaktu fisiko hori, berotasun hori, kidetasunaren ga-bezia hori ere zenbateraino izan duen ments.

Vodka botila erakutsi dio ireki dion neskari, etxeko jabeen alabari, zeinak zer zen ikustean berotasun handirik gabe esan dion uzteko beste botila andana bat, vodkazkoak asko, dagoen arasaren gainean. Berokia uzteko logela ere erakutsi dio.

Egongela eta gela zabalak ditu etxeak, altzari guztiak albo batera baztertu dituzte, jatekoa erretiluetan han-hemenka, edatekoa erruz, musika ozen. Ez du inor ezagutzen. Ez du inork ezagutzen. Neska batzuk hurbildu zaizkio, jadanik alkoholaren eragina imintzioetan, bera limurtzeko asmoz. Brodsky ez da festaraino iritsi ordea. Félix Potinen saltegiaren aurrean desegin da nonbait.

Alkoholodun edari bat eman diote neskek, dantza egitera adoretuz. Bere burua ikusi du ispilu batean islatuta, edaten, neska bikotea bere ondoan dantzan, eta ezezagun egin zaio bere burua, Beri emandako erantzunak itxuraldatu egin balu bezala.

Bere egintzek izan dezaketen arduraren zama sentitu du. Hustu gabe utzi du edontzia. Fruitu lehor batzuk jan ditu. Arduragabe, horma horietatik kanpo gertatzen denaz ezaxola dantzan ari diren bere adineko neska-mutilengandik oso urrun sentitu da.

Jabetzen da bere bizitza, berriro ere, erroitik aldaturako duen erabaki bat hartu berri duela, eta oraingon bai, aurrez daki ez dela portuan murgil egin eta turista sinesberak txunditzeko ahoan txanpona duela ateratzea bezalakoa izango. Susmoa du hasieran, baileak bezala aldian behin gainazalera ateratzen ibiliko

bada ere, luzera ur azpian arnasten ikasi beharko duela, zakatzak beharko dituela itoko ez bada, ezkatak larruazalaren gainean biziraungo badu.

Erabaki

Azkar doaz urteak babes-jantziaren gainean deserri geruzak loditzen.

Aurtengo neguak ere udazkena laburtu du, gus-tuan nago hitzordura abiatu aurretik Les Hallesko ka-fetegi kuttuneko abaroan, kafea, noisettea, Donostia-ko Alde Zaharreko Sport-en bezala edalontzi potolo batean ateratzen dute, Sporten ez bezala txokolate puskadun platertxo batekin lagunduta cadeau mai-son, gogoan Carverren moduko ipuin-liburua, aurreko-en oso desberdina, errealistagoa, pertsonen arteko harremanetan oinarritzen dena idazteko asmoa, es-kuartean biharko *Le Monde*, hileko *Le Monde Diploma-tique* eta Sobietar Batasuneko perestroika eta glas-nostaren arrazoiak azaltzen dituen Gorbatxoven libu-rua, laburpen bat egiteko, ulertzeko nola zergatik zer-tarako, aurrean bikote bat, adineko gizon ilezuria eta hogeitaka urte gutxiko neska, ederra, aita-alabak ote, paragrafo esaldi korapilatsu tarteetan lotsagabe be-raiei begira Parisen egin daitekeen moduan, aita-ala-bak bai, erabaki dut, Eritreari eta Palestinari buruzko txostenak oraindik bukatu gabe eta Thomas Sankara

burkinafasoar presidentearen liburuaen laburpena hasi gabe ditudala gogoratu, neska ederrari geixa baten antza hartu diot, gaineko tirantedun arin batez jantzia, bularretakorik ez, nabaria zaio, El Salvadorren gerrilla indartsu dabilela dio nazioarteko kazetak.

Bat-batean ustez aita denak alabaren burua eskuinteko eskuz hartu eta ahoan musukatu du atsegalez, eskua papar zabaletik sartuz bularra goxo estutzen dion artean, lotsaz baztertu dut begirada liburuan ezin lotuz berriro altxatzean neska begira-begira daukat, gizona ere bai, bien irribarre adeitsuek kordokarazi naute.

Mikhailek ez du haria berrartu gizon helduak zerbitzariari keinu egin, ordaindu eta bikotea kafetegitik atera denerako.

Ez dute alde egin, zain daude kanpoan, nire zain?, neskak keinu dagi Mikhaileen ardo orbanaren aldera, eskuaz hator, niri? buruaz, hator nori bestela? begia kliskatuz, hator, ilezuriak baietz buruarekin hatorkigu.

Ez da mugitu Mikhail, pentsatuz hau Anaïs Ninen *Le Basque et Bijou*-ren tankerako ipuin erotiko baterako sekulako gaia dela, «Euskalduna, geixa eta gizon heldua», biak beltzez jantzita ni bezala, ez mugitzeko agindu diot koldar halakoa, ezin haiteke joan, hitzor-

dua zaukaagu, ezin huts egin dezakegun hitzordua, badakik, aitzakia.

Badoaz, hor doa bizitza, emakume gaztea, japoniar geixa antza, gizon helduarekin, adin tartez aitalabak izan daitezkeenak; eta zergatik ez?, ikuspegi moraletik onartezina al zaio iraultzaileari?, ba al du horri buruzko iritzi trenkaturik Mikhailek? Hori izango al litzateke ipuinaren mamia?

Badoaz, badoazkit, eskuarekin azken keinu ia hautemanezina eginez biek ala biek, hator plazer baduk, plazer nahi baduk, plazer nahi badiguk.

Pikutara ipuina, pikutara hitzordua, pikutara aitalabak ote diren.

Zerbitzaria! Azkar!

Ordaindu.

Berandu! Arrapaladan Mikhail berokiko poltsikoan gorde, *Le Monde* biak tolestu, presaz, alferrik, beranduegi, ez dira ageri, inguruko kaleetan begiratu, arrastorik ez. Agian ber-bertan dute apartamentua, eta hurrengo batean ere egingo dut topo. Egunero-egunero etortzen hasi behar al dut Mikhail Thomas eta palestinar eritrear salvadortar gerrillariekin? Zertarako? Zer nahi dut?

Zuzen nengoen, ozeanoz honaindi eskuak gordeko nituela, ez zen esku kontua ordea, han herdoildu he-baindu moztu ordeaz hemen itxuraldatu. Ez dute bizi ikusten dudana, ezin dut ikusten bizitzen dudana idatzi, errezel honen atzealdean ez dago poesia xaloetarako tarterik lubakirik gabeko guda honetan eztanda urrunegiek gortuta hemendik odolak ez du usainik ez dut hiztegiarik izugarriaz aritzeko.

Orduan iritsi naiz hitzordura.

Ez diot burkide hurbilekoenari ere eman gertatu zaidanaren gertatu ez zaidanaren berri.

Babeslekura iritsitakoan azpiegitureakoak jakinarazi dit, irrati espainiarra gaizki entzuten den arren, ekintza bat izan dela iruditu zaiola, hildakoak eta zaurituak.

Gerran ez dago pertsonarik, helburuak baizik, gutxika-gutxika eraikitzen da sentimenduen inguruan burdinazko jantzia, besteren mina justifikatzeko, norberari egiten diotena erantzunerako erregai bihurtzeko. Gutxitan egiten da benetan negar, malkoz gainezka legoke bestela mundua. France Info jarri dut segituan.

Behin eta berriro ari dira berria ematen. Burukoan ezkutatu dut aurpegia eta negar-zotinka hasi naiz.

Josu hil dute. Sentitu nau negarrez. Eskua jarri dit bizkarrean. C'était quelqu'un que tu connaissais?

Ez dut idatziko ipuinik.

2

Erabaki bat hartzeko lasaitasun bila etorri da gizona Atlantiko kostaldeko bazter eder honetara. Eskualde arduradunak bakantza garaian hutsik dagoen babes-etxe ziur bat lortu dio behinola idazle izan zen militanteari.

Antzinako ofiziotik irudi eta metaforetarako gorde duen jaidurak auzia horrelako terminoetan planteatzera daramakio: luma edo ezpata.

Berria du zirt edo zart egiteko jokabide hori. Orain artean trebea izan da desioa eta betebeharra nahastuz edabe gozoak osatzen. Amari gaizki ikasitako sopas y sorber no puede ser ahalezko bihurtu du orain arte. Ohartua da aurrerantzean ezinezkoa izango dela, bere etorkizuna bide batetik edo bestetik eroango duen erabaki bat hartu behar duela: erabakia.

Zergatik orain? Zer gertatu da bere bizitzan? Zer bere herrian?

- Hogeita hamarretako krisia duk -esan zion bere zalantzak aitortu zizkion burkide eta lagun-min duenak.

- Antzarak ferratzera! -erantzun zion zakar.

Hari jakinarazi zion neska-lagunarekin gauzak ez doazkiola ondo. Tira, ondo ez da hitza. Ez doaz argi, zintzo. Amorantea du. Klandestinitatearen mozorropean zenbat desleialtasun gorde daitezkeen, zenbat gezur esatetik libra daitekeen gatibu amorosa.

Ez du maite egoera. Akabua litzateke atxilo hartu eta polizien ahotik jakingo balu adarrak jartzen dizkiola. Berak esan behar dio. Mingarria bada ere. Ondorioak bikote mailakoak soilik ez badira ere. Etxea haren izenean dagoenez azpiegitura arriskuan jarriko badu ere.

Hori baino lehen ordea, bere bizitza noratuko duen erabaki hori hartu behar du: idatzi edo borrokan jarraitu.

Azkenaldiko koiuntura azterketek eta gertaerek, ekintza burkide hil atxiloketa negoziazio-bide itsutuek, garai gogorak iragartzen dituzte.

Badaki borrokaren bidea jarraituz gero, azken garaietan idatzi dituen

*Ez hadi fida nitaz dunan oroitzaz,
ez naiz-eta jadanik hire bekainetan
gondola irauliak asmatzen zituen hura*

*Ez fida plazerak hertsitako nire begien oroitzaz,
auskalo-eta noren usainez diren min,
noren gorputzez gose,
noren ferekez bare*

*Harea larregiz eraikiak ditun
oroimenaren zimenduzko habeak.
Itzali ditun hi gabeko itolarriaren
oihartzunak*

*Dena estali din
lubaki lokatzik
gabeko etenen arteko guda honek*

*Bihotz zatituak
malko lehorrak
hortzen artean
itotako alarauak*

*Gure zauriek ez dituen balio
frontea uzteko baimenarekin etxera itzultzeko.*

eta

*Izena galdegin hidan
ilargiaren argitan.*

*Lokartzean belarrira xuxurlatu ninan
hura nire guda-izena besterik ez zela.*

gisako poema trakets gutxi batzuk ere sortzeko astirik ez duela izango aurrerantzean.

Beraz, bere bizitza idazteari erabat ematea erabaki, borroka utzi eta neska-lagunarekin beste gordeleku bat bilatzea edo atzerrira joatea du hautuetako bat.

Literatura betirako utzi, borrokari eguneko hogeita lau orduko konpromisoa eskaini, neska-lagunarekin hautsi eta kideen azpiegitura estu, estuegi, arrisku-tsuegira bizitzera joatea da beste bat.

Tartekoak ere baditu: neska-lagunarekin hautsi eta amorantearekin bizi literatura idatziz; edo borrokan jarraitzea hobetsi, neska-lagunarekin bikote-harremanen gorabeherak argituta, amorantearena alegia.

Gizona goizero doa bakarti apartamentutik oso urrun ez dagoen hondartzara.

Ordu horietan udatiar asko ibiltzen ez den arren, ez denez lasai begiak itxi eta ur gainean luze, zerura begira olatuen nahierara arrolaka utziz gorputza uretan dabilen artean bere puskak zaindu gabe uzteaz fio, dagoeneko hizketarakoan kutsurik ez duen gizonak hondarrezko gaztelutxoak eraikitzen diharduen haurraren zaintzaileari eskatzen dio bere puskak ere begiratzeko. Nadar y guardar la ropa ahalezko dela esango lioke aspaldian ikusi ez berririk ez duen amari.

Iristen denean irribarrez agurtzen dute elkar.

Ondoren, betaurrekoak, ordularia eta apartamentuko posta-kutxako giltza, nikiarekin eta bainu-jantziaren gainetik eramaten dituen belaunetarainoko galtza tolestuekin estaliko dituen kirol-oinetakoen barruan sartu, ondo astindu ostean, toalla biribildua muinoaren gainean jarri eta haizeak eraikina desegin ez dezan irakurgai duen Carverren liburuarekin dena zamatuta itsasora abiatzean, hondartzarako aulki tolesgarrian eserita dagoen emakumeak irakurtzen ari den liburukotetik burua altxatu eta baietz egiten dio keinu, bere kontu.

Oraindik ez du lortu emakumea irakurtzen ari den liburuaren izenburua jakitea. Ken Follett dela iruditu zaio, baina lotsagabe begiratzeraz ausartzen ez denez ez dago ziur. Eta itsasorako bidean edo handik bueltan, harengandik hurbilen igarotzen denean ordea, betaurreko gabe ez du ondo ikusten.

Goizeko bainua eta gero itsasertzean ibilalditxo egiten du. Bere kokalekura itzulita, toallan ahuspez etzanda irakurtzen saiatzen da, kontzentratzea lortu gabe, ezinegona sortzen dion eta atzeratzen ari den erabaki behar horregatik, hausnarketa arrazional baten bidez ebazteko gai ez den barne auzi horren erruz, *Les vitamines du bonheur*.

Zoriona edo erabaki zuzena hartzea al da bilatzen duena? Eta zer da bata eta zer bestea? Bila al daiteke bata? Aurrez jakin al daiteke zein den hautu zuzena?

Hondartzatik bueltan bakarrik bazkaltzen du apartamentuan, telebistako berriei begira.

Bazkari arinak izaten dira, entsaladak gehienetan. Zerbait berezia nahi duenean, merkatuan erositako izkirekin eta txirlekin egindako paella.

Berrien osteko telesail estatubatuarra ere begiratzeko du lokartzeaz, pertsonaien arteko gorabehera eta maitasun kontuez deus ulertu gabe.

Arratsaldean ere joaten da hondartza aldera, ez ordea hondarreraino, Poliziak oraindik kokatu gabeko eskualde ziurra izan arren, zuhurtzia ez dago inoiz soberako, jende gehiegi dabilenez ezingo lituzke zelata-riak jendetzaren artean detektatu.

Pasealekuan atzera eta aurrera, batzuetan petri-lean berमतuta, turistak barrandaturuz itsaso zabale-ranzko belaontzi ederrei gurariaz so, bikoteak musuka bularrak agerian dituzten emakumeak naturaltasunez begiratzera ausartu gabe ezkongabe etsitu horietako baten antzik txikiena ere ez izateko arduraz, Kontxa-ko barandatik bikinidunei begira egoten ziren gizon-eko begiluzeei buruz nerabezaroan koadrilakoekin as-matzen zituen iruzkin gupidagabeak ez dakizkion ira-ganetik etor bera helburutzat hartuta.

Gero, hondartza ertzean dagoen taberna ederrera joaten da kafe izoztua hartzera.

Duela hiruzpalau egun lehen aldiz agertu zenetik beti kafetegiko horma bizkarra gordez jesartzen da hondartza aldera begira, eskatutakoa ekarri bitartean liburu bat zabaldurik.

Beti bezala, bazkalostean laino zuri eta lodiek abuztu hasierako eguzki boteretsuari egin diote leku ortzi zalantzatiaren erdian.

Itsasbeheran, belaontzi eta yate ugari eta arrantzontzi urriak beren sabel puztuak algazko ohantzean dautza.

Urrunago, oraindik ur gainean, ainguretan aldaro-ka dabilta txalupa batzuk.

Itsaso bareak plastikozko hondakinak garraiatzen ditu ganoragabe, erlaizeak eragindako uhintxoan artean.

Gaur hartu behar du erabakia.

Oso aspaldian ez du ipuinik idatzi, hizkera eta estilo aldetik aurreko liburuekiko jauzia emanez, pertsona lumaren bi muturretan, Carverren tankerako ipuinak, idazlearen eta irakurlearen arteko lotura ezkutueriarik gabe, bizitza bere gordinean ederrean, bere min zorion krudelkeriekin, jendeen arteko harremanez, eguneroko bizitzan oharkabean jazo diren gertaera ttipi hainbatetan izugarriez, elkarrizketa xaloen atzean antzematen diren katastrofeez, jendarte bizitza arrunterako prest ez dagoen banako soilaren nora ezaz gainbeheraz, bizitzan behin baino izaten ez diren aukera alferrik galduz, erabaki indarrik gabe beren burua egunerokotasunaren ur-lasterrean uzten duten gizon-emakumez, borrokatzeaz nekatuta hiriko etorbide nagusietan barrena tropelean doazen giza itzalei

buruz, boteredunen larderia eta nagusikeriaren aurrean buru-makur bizitzaren ibai geldo kutsatuan behera jitoan doazen panpina desartikulatuei buruz idazteko asmoa baztertu zuenetik.

Geroztik bizitzaz zerbait gehiago ikasi duelakoan dago. Besterik da aski trebetasunik izango ote duen ikasitakoa islatzeko orduan.

Horri ote dio beldur?

Ez ote hain zuzen ere horixe darabilzkien hautsimautsi eta zalantza guztien iturburua: bere buruarenganako -bere trebetasun literariorako- ziurtasun eza?

Idaztea, badaki, bakardadea da; mundutik, lagunenengandik, maite dituenengandik isolatzea; barne munduak sortu istorioen baitan, liburu eta hiztegi eta gramatiken konpainian biziz.

Eta sortzeko gai ez balitz? Agortuko balitzaio etorria? Merezi al du orain borrokarekiko duen konpromisoa, etorkizunean, Poliziak atxilo hartuta eragozten ez badu, sakondu lezakeena, bertan behera uztea fikzioaren truke?

Nori esango dio literatura borroka egiteko tresna bat dela, berak ere hori sinesten ez badu. Borroka-tresna izan behar al du ba literaturak? Hori al da argudioa? Literatura ere borroka egiteko modua da, uler

ezazue, esango lieke: banoa. Estakuru makala. Literatura plazera da, beti izan da. Zer besterik? Hamar urte zituenean amak Salgariren *Sandokan* ekarri zionetik, jakin-minari ezin eutsiz liburuaren amaiera begiratu zuenean ezagututako mundu gozagarriaren erakarmena.

Behin betirako uzteko zorian dagoena, traizio egitera doakiona.

Traizioa. Ba ote hitz astunagorik. Ahoan erabiltzerakoan ere min ematen du.

Nori egin behar dio traizio ordea?

Bere buruari literaturari aberriari?

Aberria. Zer da aberria? Mila kilometrotara dagoen lur puska? Hiru milioiko jendartea? Lur zati batean bizi diren pertsonak? Agirietan hitz larriz idazten diren hizkuntza historia eskubideak zuzentasuna independentzia sozialismoa ez espainol eta ez frantses?

Aberriaren aldeko borrokak zer den ondo irakatsidion zerbait bada, hura atzerria da. Aberri zanpatu, atzerri mikatz.

Euskal Herri neurea ezin al zaitut maite ez badut borrokatzen zure alde? Euskal Herri neurea non biziko naiz zugandik aparte?

Urtu zaizkio aspaldi izotzak.

Itzalak ezkerralderantz, musuen hezea azal kiskali-
lietan krema koipetsua esku fereka nagiz azalean he-
datuz ezkozko museo bizian.

Hondartza mukuru betetzen duten udatiarren ar-
tean begiekin bilatu ditu hiru gazteak. Hortxe daude,
kafetegi aurrean beti hautatzen duten kokalekuan
gutxi gorabehera kolore biziko hondartza-zapi zabal
banatan ahuspez.

Neska azal zuri bele ile beltz soinean gorputz
osoko bainu-jantzi gorria, bi mutilen erdian.

Neskaren ezkerretara dago Bernard, neskaren
mutil-laguna kafetegiko zerbitzaria delako ezagutzen
du. Laster hasiko da bere lan-txanda.

Lehenago bi mutilak, arraunean sendotutako
beso-bular indartsuko gazte segailak bi biak, uretara
joango dira. Haien artean lehian ariko dira, neskak
eguzki-betaurrekoen atzean zelatatzen dituen bitar-
tean.

Gero, itsasotik itzulita elkar ferekatuz eta musuka-
tuz ariko da bikotea, adiskidea itxuraz ezaxola itsasal-
dera begira egongo den artean, Bernardek lanera joa-
teko ordua izango duen arte.

Hondartzatik zuzen etortzen da Bernard kafetegi-
ra.

Nagusia agurtzen du:

- Dutxa azkar bat hartu, arropak aldatu eta segituan nago hemen!

Hamar minuturen buruan dotore jantzita agertuko da bezeroek utzitako edalontzi eta kikara hutsak bilduz trebetasun handiz darabilen erretilu biribilera.

Beti bezala gizonari beste ezer nahi duen galdetuko dio, «Un café frappé» eskatuko diola badakien arren.

Zerbitzariari iruditzen zaio, beste kezka batzuk buruan liburua intelektual itxura emateko daukala, mahai mahai dabilela ostertzera begira harrapatzen baitu askotan, zigarroa xurga lasaiz erretzen.

Gizonak hondartza aldera begiratzen harrapatzen du maiz zerbitzaria. Jeloskor dagoela iruditzen zaio, neska-laguna bere adiskidearekin zertaz hizketan ariko ote diren jakin-minez.

Kafe izoztu berriari lehen hurrupa kenduz, Bernard eskaera baten bila barrura sartu den batean neska-lagunak bainu-jantzi gorriaren gainaldea pixkanaka beherantz bular zuri gozoak arratsaldeko eguzki gordinaren menpe utziz alu aldeko lehen bilo beltzak hazten diren mugaraino biltzen, adiskidea neskaren gainera burua makurtzen, bular-buruaren koroa gaztain-

kararen inguruan ezpainak hertsiz titiburua hortzekin estutuz mihi-puntaz milikatuz irudikatu ditu gizonak.

*

Arratsaldeko zazpitan, kafetegira etorriko dira zerbitzariaren neska-laguna eta adiskidea.

Gizonaren ondoko terrazako mahai batean eseriko dira.

Garagardo fresko bana dakartzala agur egingo die Bernardek, edariak mahaian utzi eta bikoteak elkarri musu eman baino instant bat lehenago desbideratuko du begirada adiskideak, jadanik epeldu den kafearen azken hurrupa edaten ari den gizonaren begiradarekin topo eginez.

Irribarre tristea egin dio gizonak Bernarden adiskidearen jelosiazko saminari.

Bizitza erraza da, arraioa, ezkondu egingo dira eta haurrak izango dituzte, pentsatu du. Eta adarrak jarriko dizkiote elkarri. Eta agian, dibortziatu egingo dira, oso adoretzu edo zorigaiztoko badira.

Bizitza sinplea da. Guk korapilatzen dugu.

Bat-batean, Euskal Herritik hurbil egoteko modu bakarra borrokan jarraitzea dela bururatu zaio, ba-

rruan sentitzen duen hustasun izugarria aberri-minak eragindakoa izan behar duela erabaki du. Bere patua etorkizuna borrokan dagoela.

Kontua eskatu du.

Hartu du erabakia. Ez daki zergatik. Arduradunarentzat azalpen arrazional bat bilatu beharko du. Ez oso poetikoa aukeran. Erantzukizuna aipatuko dio. Poztuko da.

Atzerria mikazten duen aberria besarkatuko du. Adio literaturari. Ez du Carverren liburua bukatuko.

Neska-lagunaren esku utziko du beste erabakia, amorantearena esango dio, hala ere bera maite duela, berarekin bizitzen jarraitu nahi duela, berak ere nahi badu.

Etxera iritsitakoan irratia piztu du afaria prestatu bitartean, espainiarrena nahiko txukun entzuten baita iluntzean. Lehen berria tiroketa bati buruzkoa da: guardia zibil bat zauritu dutela etxe bat miatzera sartzekoan tiroka hartuta. Ondorengo tiroketan hiru etakide «hilik suertatu» direla. Ez dituzte izenak eman.

Ez du afalduko.

Beti aldean daraman aspaldi hitzik sortu ez duen kaiera zabaldu du. Eta idatzi egin du.

Jausten garen bakoitzean, hitz fereka begirada bati esker, barruko amorruari esker, jaiki eta abiatzen gara langa ezagunegien atzean dauden infernuetara. Gure arbasoek ezagututako sufrimenduak ahortzi dituztenek ez dute ulertzen gure kondenaren zioa. Jausten garen bakoitzean azken hitza, laztana, begirada, sugarra aski dira jaiki eta langa horien atzean dauden infernu ezagunegietan irauteko. Arbasoek ezagututako sufrimenduen oroitzapenik gabe ere gure egungo kondena hauen zioa ulertu beharko zenukete.

Tren ordutegian lehen trena noiz den bilatu du.

Biharamun goizean goiz abiatuz gero asteroko segurtasun hitzordura garaiz iritsiko da.

Poltsan sartu ditu gauzak.

Ez du azalpen arrazionalik bilatzen nekatu beharko burua.

Arduradunak ez dio deus galdetuko.

Besteetan baino kontu handiagoz prestatu dugu Edgar-Quinet metroko hitzordua.

Azken atxiloketen ondoren inguruan dabilzkigula sumatzen dugu, orain arte ezer arrarorik ikusi ez arren.

Agian kontrolpean gaituzte gordelekuetan. Horrela balitz bezala irteten gara azpiegituretatik hitzorduetara, gure ustezko zelatariak bidean galtzeko beharrezko urratsak aurrez prestatuta. Ibilbideak, garraio aldaketak, jantzi aldaketak.

Hitzordura garbi iristen gabela ziurtatzen dugu horrela. Hitzordura datorrenak gainean bizkarroiak ez dituela baiestea da hurrengo zeregina.

Gutako bat agertzen da hitzordu-lekura ordu-orduan, hitzartutako zeinu eta kontra-zeinuen jabe. Besteek aurrez erabakitako kokalekuetatik zelatatuko dute jaso behar dugun burkidea, garbi datorrela bermatzeko.

Gaurkoan niri egokitu zait Mexikora bidean jarri behar dugun kidea Edgar-Quinet metro-aho aurrean dagoen La Liberté tabernan jasotzea. Hortxe, etorbidearen beste aldean hil zuten Action Directe-koek beste zenbait karguren artean Renaulteko zuzendari nagusia zen Georges Besse duela bost urte inguru.

Beti bezala, azken hitzordua izan daitekeela barneratuta, lasai noa nire askatasunaren hileta izan daitekeenera.

Kasketa gorria ez balerama ere, ezagun zaio gurekiko kontaktuaren zain dagoena dela. Ganora gabe egin dugu esaldi surrealista trukea, eta segituan abiatu gara, mantso-mantso Montparnasse etorbiderantz. Ingurutik pasatzen naizen aldiro bezala murmurikatu dut: «Parnasoan ez dut lekua, Montparnasseko geltokian dut hitzordua».

Kale kantoira iritsita, norabidez okertu den turista galduarena eginez atzera jo eta metro-ahoraino igo dugu aldapa. Izkinan eskuin hartu bezain pronto abia da azkartzeko agindu diot kideari.

Oso handia ez den arren etsaiak gu lokalizatzeko arrasto ederra izateaz gainera aldean dakarren bidaia-poltsak gure segurtasun ibilbideetan traba egingo digula esan diot.

Atzo iritsi zen Parisera eta, bihar duenez hegaldia, bi gauetarako ostatu hartu zuen segurtasun arrazoiengatik non dagoen galdetu ez diodan hotel xume batean. Artega aurkitu dut gizona. Ez du ezer utzi nahi izan hotelean. Ez dela fio. Garbi datorrela ziurtatzeko arinago ibil gaitezen poltsa geltoki bateko kontsignan

uztea proposatu diot alferrik. Segurtasun zirkuitu ba-koitzaren buruan ez da ohartu burkideek balekoa ematean hartu dudan arinduz. Aldiro «dena ondo» ahots ahalik eta bareenez esan diodan arren, ez da la-saitu bere aldarte urduria. Bidaiak eragindako estual-diari -abioiz bidaiatzeari ere beldur diola aitortu dit-, ozeanoaz haraindi joan behar izateari egotzi diot az-kenean.

Zorionez Parisko kaleetan atzera eta aurrera ibili garen ordu parean egindako segurtasun zirkuitu ani-tzen buruan kideek ez dute deus susmagarririk antze-man. Ebakuatu behar dugun kideak ez du kexarik egin, bidaia-poltsa txandaka eraman dugu, izerdi pa-tsetan gaude biok.

Ondo merezitako pizza bana, nik calzonne berak forestière, jan dugu isilean Chatelet ondoko Pizza-Hu-tean.

Bazkaldu bitartean eman dizkiot abioirako joan-etorriko bidaia-txartela eta hara iritsitakoan jarraitu beharreko instrukzioak: hitzordua, larrialdiko jarraibi-deak, itzulerako txartelarekin egin beharrekoa eta beste. Buruz ikas ditzan tematu natzaio.

Ez dugu asko hitz egin. Ez naiz ausartu deus gal-detzera, ez da ausartuko deus esatera. Zer dakidan

eta zer jakin dezakedan zalantza izango du. Zer dakien eta zer esan diezaiokedan ez dakit. Zer esan dezake badoanak? Zer esan diezaioke gelditzen denak?

Kafeak ekarri dizkigutenean egin diot azterketa. Segurtasunezko telefono zenbakia ere ikasi du. Hobe horrela, zer gerta ere, nahigabeko ondorioak ekidingo ditugu.

Pizzeriatik atera garenean, jatetxearen atalasean gelditu naiz.

- Zerbait gertatzen da? -kezkatu zait.

Kalean gora eta behera begiratu dut. Ez dut ezer susmagarririk antzeman, baina betaurrekoak senez kendu ditudala konturatu naiz, nortasun agiri faltsuetarako argazkia atera behar didaten bakoitzean egin ohi dudana bezala.

- Ez, ezer ez. Betaurrekoak zikindu zaizkit -lasaitu dut zorrotxotik atera dudana oihaltxoarekin garbitu bitartean.

Arratsaldean ere hitz gutxi egin dugu. Parisen barrera ibili gara turista axolagabe. Luxembourg-etik Notre Dame-ra eraman dut, esan gabeko hitzarmenez baztertu dugu alaiaren aldekoa abailtzeko moduko egoera politikoari eta Enpresaren egoerari buruzko aipamen oro, Beaubourg kultur-gunea kanpotik eta Les

Hallesko buruhandi etzanaren eskultura erakutsi dizkiot, isiluneak astunegi egin zaizkigunean nire Mexikoko atzerriratze huts eginaz deus ez aipatzeko kontu eginda, Moulin Rouge-raino igo gara, ez dut egun osoan lortu azken atxiloketak burutik kentzea, Boulevard-des-Italiennes-eko diru-aldaketa bulego batean sarrarazi dut alferrik dituen pezeta milako batzuk aldatzitan, hor inguruan ezagutzen dudan gerraosteko xarma gorde duen jatetxe dotore baina merkean afaldu dugu, merkeago eta goxoago ematen duten Casa Galiciara eramatera ausartu gabe erreta dagoelakoan.

Berriro ere Rive Gauche-ra jo dugu, Latinoa gurutzatzen dugu eta goizean elkartu garen toki berera, Edgar-Quinet metro aurrera eramateko eskatu dit, handik badakiela oinez eta galdu gabe ostatura joaten tematu da.

Ez zait batere ideia ona iruditu. Segurtasun aldetik akatsa izan daitekeela jakinagatik ere, egun osoan deus susmagarririk ikusi ez dugula-eta nire burua zurituz etsi dut.

Goizeko hitzorduko La Liberté tabernaren aurre-aurrean, gure ezagutza ordu gutxi batzuetakoa den arren ez baitugu uste sekula berriro elkar ikusiko du-

gunik, besarkada estu eta sentikor bat eman diogu elkarri.

Bihar goizean ostaturkoei aireportura joateko taxia deitzeko eskatuko die.

Etzi deituko dugu Mexikora gorabeherarik gabe iritsi dela ziurtatzeko.

Eta metro-zuloan sartu aurretik burkideari azken agurrerako begiratzean, kukututa ikusi dut egunkari-kiosko baten atzean.

Egun osoan une oro inguruan genuenari adi inolako zantzu susmagarririk atzeman ez badut ere, atezuan jarri nau burkidearen jokabide estrainioak.

Gordelekura bidean lur-azpian sartu naizenerako deliberatuta nengoen besteetan baino neurri gehiago hartzera.

Hutsik dago nire noranzko nasa. Pasatu berria izango da metroa.

Bestean bospasei bidaiari han-hemenka barreiatuta.

Geltokira iristear dagoen metroaren zaratak bete du barrunbea.

Beste noranzkoan doana da. Hobe nirea izan baltz.

Inguruak azkar husteko presa egin zait. Metro barruan kameren bidez zelatatua arratoi-zulo batean harrapatuta nago.

Urrats presatuak eskaileretan behera nire nasarako pasabidean.

Ez da inor agertu ordea beste noranzko metrora bidaiariak igotzeko minutu eta erdian atezuan begira egon naizen bitartean.

Abiatu da metroa.

Bakarrik nago nasan.

Eraman ditu metroak pareko nasakoak.

Bakarrik nago Edgar-Quinet geltokian.

Zeharka begiratzen diot pasabide ahoari, gero eta urduriago.

Buru bat kukuka. Berrero ere urrats presatuak.

Bizkor abiatu naiz pasabidera, hiru oinetako pare eskaileretan gora arin igotzen aurrena eta gero, nik ere gora egin ahala, oinetakoen jabeak bizkarrez ikusteko: bi gizon eta emakumezko bat.

Azken unean nasaz tronpatu diren turistak, saiatu naiz lasaitzen neure burua, beste noranzkoan agertuko dira berehala, beti izan behar da esperantza.

Beste bidaiari ale batzuk agertu dira, ez ordea hirukotea.

Usain txarra du aferak.

Nire nasara bidaiariak agertu diren bakoitzean hirukotea ikusteko beldurrez egon naiz.

Agertzen ez direnez, azken unean metroz bidaiatu ordez taxia hartzea erabakiko zuten bidaiari presatuak zirela erabaki dut, oraindik ere azalpen buru lasaigarri bila, nire nasarako eta parekorako pasabide ahoak zelatatzeari utzi gabe, horregatik haiek azaltzen ez diren heinean esperantza estali nahian dabilen kiratsari putz eginez.

Lehen bagoia geltokira sartu den unean azaldu dira nire nasako pasabide ahotik; zain egongo ziren.

Emakumeak larruzko poltsa darama sorbaldatik bularren aurrean gurutzatuta zintzilik, gizonetako batek esku-zorroa eta besteak, gerriko poltsa, nik bezala; nik ez bezala pistola eramateko?

Ez didate begiratu.

Banandu egin dira metro bagoiek nasa bete bitartean elkar ezagutuko ez bailuten; bikoteak nasaren ezkerraldera jo du, beste gizonak eskuinaldera; nigandik ez oso urrun ezker-eskuin kokatu zaizkit bizkar-tzain.

Atxilo har nazakete.

Atzean dut pasabidea, aurrean metroa balazta zarrata kirrinkariz mantsotzen gelditu arte.

Auskalo zer dudan pasabidean zain.

Arrastoa galarazteko, baldin lehenago ekiditen ez badidate, ohartu ez denarena eginez metroan sartzea hobetsi dut.

Ni erdiko atetik eta beraiek beste bietatik nire bagoi berera igo dira niri jaramonik egin gabe, nik orain bikotea eta orain gizonezkoa begiz iltzatuta ditudala ez ohartzea ezinezkoa bazaie ere.

Aurreikusi bezala azken-azken unean hurrengo geltokian, egun osoan erabili ez dugun Raspailen jaitsi naiz.

Irteerarantz korrika, begi ertzetik konturatu naiz ez ditudala oharkabean harrapatu; atea itxi aurretik, turista nahastuen «Oi! hemen da-eta!» esanez bezala atea ixtea galaraziz irten dira nire atzetik.

Ondo ezagutzen dut geltokia.

Lasterka irteera hurbilenetik lurrazalera etorbidea gurutzatu geltoki bereko beste ahotik sartu haiek nire atzetik arnasestuka lur-azpitik irten aitzin.

Etorbidean ezker-eskuin begira nondik jo dudan arrasto bila daudekeen bitartean txartel berria sartu

presaka izkinan ispilua duen korridoreraino ordainleku zelatatzeko.

Burumakur haien artean eztabaidan agertu dira.

Galdu naute. Parisko kaleetan korrika halabeharrez atera naizenean igaro den zorioneko beraientzat zoritxarreko taxi batean usteko dute.

Edgar-Quineteranzko nasara abiatzen ikusi ditudanean kontrakorako pasabideko eskailetan behera egin dut; nasan agertu gabe, beraien begiradetatik eta kameretatik gordeta itxaron dut mailadian eserita.

Tamalez nire noranzkoa iritsi da aurrena. Utz nezake joaten, baina hobe dut bertatik azkar ateratzea, zer gerta ere.

Azken-azken unean ateak ixtear sartu naiz jauzi batez muturreko bagoiaren gidariaren kabina ondoko atetik.

Hor zeutzan hirurak aulkietan leher eginda hankak luze oinak egosita. Goizeko hitzorduaz geroztik atzetik izan baditugu ez da harritzekoa, harritzekoa nola ez ditugun detektatu da. Ni ere leher eginda nago.

Egoerak *The French Connection*eko eszena gogoratu dit, Fernando Rey trafikatzailleak metroaren barrutik nasan gelditutako Gene Hackmani eskuarekin adio burlatia egiten dionekoa.

Emakumezkoak ni alde egiten ikusi eta harridura etsiz seinalatuz bere kideak ohartarazi dituenen ez diet keinu lotsagaberik egin badaezpada ere, ongi ikasia dugu zein gutxi irauten duen jazarriaren poz harroak, soilik irribarre bihurria badaezpada ere.

Gauerdi pasea zen gordelekura iritsi naizenerako.

Kezkatuta zeuden burkideak. Gertatutakoaren berri xehea eman diet. Ehuneko ehunean ezin dudala ziurtatu poliziak zirenik. Hala baziren argazki bilduma ederra izango dutela, Mexikora ebakatu behar genuen burkidea harrapatuta egongo dela eta ezin dugula baztertu gu ere hartuta egotea, segurtasun ibilbi-deetan ez baitugu deus ikusi.

Berandu arte egon gara biharamunean lekuak berriro ere nola hustu antolatzen.

Lozakuan kideen zurrungak entzunez besoak buru atzean tolestuta sabaira begira, artean idazle banintz gertakizun horietan oinarrituz kontakizun bat idazten saia nintekeela pentsatu dut lokartu aurretik.

Ebatondoak

EZ dago betirako galtzeko zorian duguna bezainbeste estimatzen den ezer.

Dena galtzeko ikararik gabe bizi behar da ordea.

Galtzeko beldurra izanez gero, zeken, uzkur eta beldurti bihurtzen gara. Zuhurtasunaren mozorropean ezkututzen dugu gure jokabide doilorra. Behar denerako aitzakia ekoizten du beldur-olak.

Xuhur bihurtzen gara bizitzarekin. Bizitza xuhur bihurtzen gurekin. Gure hitzek eta ekintzek ordura arteko arintasun eztabaidaezina galduz mikatz eta erratu begitanduko zaizkigu.

Deabru zaharrak baino zimur gehiago ditu Demonio koldarrak.

Eskuzabaltasunak edertzen du egintza oro. Baita huts egindakoak ere.

Eta mina?

Sorgortuta. Zilegituta. Soraio. Zigilatuta.

Ezkutuko borrokan sartzen dena ez dago hazitarako. Ez dago lore-jokotarako. Ez dago barne-azterketa askotarako. Aurretiko hausnarketez betetako gordagia baino ez du gibelean. Zurrundutako konbikzioz

gainezka. Ez dago aurrera egiteko beste modurik. Irragan ziren zalantzak kaiertxoan kontsignatzen zituzten iraultzaileen garaiak. Mundua aldatu da, ez iraultzaileak. Ez egiak. Egiak esateko tenoreak baizik.

Nola hitz egin minez akatsez errakuntzez, pozez garaipenez lorpenez aritzea zigortzen denean?

Hurrengo hitzordu klandestinora doanak badaki azkena izan daitekeela.

Eta badaki, ohikeriaren garroek itoko ez badute, goizero gosariarekin aurkikuntza hori egin behar duela, bere buruari oroitarazi gabe, berez ohartu behar duela aukera hipotesi horretaz: gaurkoa izango diagu dinagu azken hitzordua, agian. Dramatismorik gabe ordea. Oreka hauskor ezin berdinduzko hori. Maiterik badu ondoan, agurreko musuak zapore bakana izango du, lehen musua azken agurra ez hadi joan ederra izan da orain artekoa nola maite haudan jo ta ke-a ordezkutzen duen De Villeren *Stand by me*-ren doinuan.

Ohartzerako, motxilakoliburutegia oraindik existitzen ez den herrialdea aurkitzen laguntzeko errepide-mapa eta txostenez ordezkaturia, folio zuriaren aurrean errepide nazionalak herrialdekoak eskualdekoak herrikoak auzokoak lokalak asmatzen, lur bat haratago galduta, irakurritako azken eleberriaren oroitzapena bezala.

Penelope ezindu muga ezabatze-lanetako bide-zidorretan goizaldera arte. Ezabatzekoarekin papera urratzeraino etsi gabe, biharamunean berriro ere mapari erreparatzean marrak aduanak ezinikusiak apenas margulduta hor egongo direla jakin arren. Zuazoren liburuak irakurritz banderizoon maldizioa euskalkien sorreran ote dagoen asmatu nahian.

Iraganean gelditutako etorkizuneko aberri ezinezkoaren ordezkotaria asmatzen. Ez dagoen herri horrek bere lekua mapan aurkitzen ez duen bitartean ezin itzuliko dela dakienaren grinaz. Sepia koloreko argazkia margotzen, etxe zaharren ordeztu orube hutsak aurrena eta eraikin modernoak ondoren diseinatzen, errealitatekoekin ahalik eta antz gehien izango duten esperantzaz, oinarri horretatik dagoena hobetzeko asmo eraldatzailez.

Lehen urteetako isilune literarioa oharkabeen pasatuko zen.

Ariko da zerbaitetan. Ez da urte luzetan deus argitaratzen ez duen lehen idazlea, pentsatuko zuten, hitz eta esaldi jorien oihanak utzi eta metaforarik gabeko txosten idorren basamortuan atzeraezinki tinta-gordagirik gabe barneratzen ari zen bitartean.

Hitzordu klandestinoko atsedendian:

- Eta? Idazten al duk zerbait? -ezagutu du honek; oraindik ez dute ahazteko nonbait.

- Idatzi? Bai, noski! -mikaztasun apenas disimulatuz.

Harrapatu du.

- Bai, baina esan nahi diat, literatura -zalantzarik gabe, horrela izan behar duen doinuz.

Garratzu egingo zaio eztarria, «Literatura?, zer da hori?» erantzuten badio.

Keinu ezaxolati bat egin eta gaiz aldatzen saiatu da, ez dio oraindik eskuena egingo, oraindik galderak berpiztu minak ezinak inarrosiegia dago eta, aurrera-

go aurkituko du egokiera hobea, berak dakien dramatismoz, edonor hunkitzeko antzerkitxoak egiteko.

Keinu ezaxolatiari jaramonik egin gabe tematzen zaio burkidea ordea:

- Ongi idazten huen ba!

Hara! Azkenean, gaztetan Mexikon meniskoa apurtu behar zuenaren elastiko higatua darama ohar-tu gabe soinean.

Aspaldian edan gabe egongo zelakoan mugapasan ekarri dion sagardo botila buruan apurtzeko gogoa jarri zaio.

Ados, eskuena egiteko tenorea iritsi da.

Sagardo botila hartu eta edontziak neurrian bete ditu idazle ohiak.

Patxadaz hartu du berea.

Topa egitea proposatu dio militante literaturzaleari; ehizakia ezustean harrapatu behar da efektua erabatekoa izan dadin.

- Literaturagatik!

- Literaturagatik!

Klik!, klik!

- Gozoa zagok!

- Bai, e?

Koitadua. Hortxe dago Mikel Antzuren ezpainetarik irtingo diren hitzen azalpenen amutik eskegita.

Aurrena, bere eskuei, biei, luze begiratuko die idazle ohiak.

Isiluneak luzea izan behar du, ez luzeegia ordea. Besteak hitz egin dezan ekidin behar du, zer gertatzen zaion bere buruari galdetzeko adina luze, baina ez kezkatu eta deseroso senti dadin bezainbeste.

Badago.

Altxatu burua, begietara begira, irribarre patetiko hori, gupida senti dezan burkideak, engaiamenduaren prezioaren zenbatekoaz ongi ohar dadin, azken hurru-patxoa sagardo kondarrari, sagardorik ezean berdindio, efektu berdina lortzen da kafearekin edo garagardoarekin, horrek ez du inporta, Coca-Colarik ez, boikotatuta egiten baitio Indian ezarritako lantegi horrek eragindako hondamen ekologikoaz ari zen erreportajea ikusiz geroztik nazioarte-sailaren bidez jasotako txosten batean Kolonbiako sindikalistak akabatzeke sika-rioak ordaintzen zituztela irakurri zuenetik.

Poliki-poliki ezkerreko eskua hatzak bata besteari aiztoa irudikatuz itsatsita edontzia mahaian utzi berri duen eskuineko eskumuturrera hurbildu eta ras! ebaki.

Segidan, burkideari deus esateko aukera eman gabe, azkar, eskuin esku aitzotua ezkerreko eskumuturrera eta ras! bigarren ebakia.

Lepantoko maingua ber bi!

Ederki lortzen du efektua, trebea da dagoeneko.

Begira zer aurpegi jarri duen honek ere. Elbarri, esku gabe irudikatzen du. Irudimen pixka bat baldin badu, eta literatura maite duenez ziur baduela, odola darien ebatondo bana ikusiko ditu idazle ohiaren esku belaxken orde.

Zer esan jakin gabe gelditu da burkidea.

Tertulia literarioaren arriskua urrunduta, arazorik gabe aurkituko dute beste mintzagai egokiago interesgarriago bat.

Eramanezina litzaioke tarteka poemak idazten dituela konfesatu eta iritzia eskatuko balio. Dagoeneko hau ere ez zaio ausartuko.

Gezurretan ari da ordea.

Esku osasuntsuak ditu. Ez zaizkio igeltsero lanean zartatu fundizioan kiskali, ez du iltzerik egin pilotan ez dira Orlac-en eskuak, ez du ezta ere burdinazko gakorik hatzen orde ez artrosirik ez aitzakiarik, ez ditu Mexikoko aire argitsuak zurrundu ez Europako egurats ilunak herdoildu.

Ez ditu ezagutzen, hori egia da. Bereak ez balira bezalakoxea da.

Ez baitira, Brodskyk Parisko XVI. arrondizamenduko Felix Potin saltegi haren aurrean eta ondoko aste-ko osteguneko hitzorduan zalantzarik gabe baiezkoa eman zuen une berean Herriari eskaini zizkionetik.

Esamolde prosaikoegiak kirrinka egiten badio ere, auzia ez da eskuak Herriari eskaini izana, baizik eta bere buruari agindutakoaren kontra ez zituela umilki zehazki zintzoki mintzatuz ahanzturaren uholdetik sentimenduak erreskatatu sasien arteko isiltasuna hautsiz bolbora usainik gabeko batailen malkorik gabeko negarren ezinegonaren aztarna uzteko bederen ere erabili.

Isildu egin zen Mikel Antza.

OSO aldian behin zigilurik gabeko gutun bat aurkitu-ko du aitak amak arrebak arrebak anaiak postontzian. Bizi den seinale.

Behin senideei, kalean ostiraleroko elkarretara-tzean iganderoko mendi txangoan halabeharrez topo

eginda, Alde Zaharreko taberna jendetsuan bi gorri bi beltz zurito bat moskatel bat, norbaitek egiten dien begi-kliska: «Ondo dago». Bizi den seinale.

Bat-batean izena entzungo dute hedabideetan. Bilatuenen artean. Beste norbaitez ari balira bezala. Izenez tronpatuko ziren, esperantza irrazionala. Omen agian borrokan ari den seinale.

Ezagunen auzokoen hurbilekoen begi-bekainekin osatutako galde-ikur elkartasun-jakinguratsuak seni-deei, zer? Ez dugu bere berri.

Sinesten ez badute ere, okerrena, egia dela.

Sinetsi edo ez, ezinbestean, denentzat egia izango da hedabideek diotena, bestela zertarako hainbeste misterio?

Lantzean behin ilargi eta izarrik gabeko gau ilunetan arrantzaleek zelatatzen duten ur-azaleko ardora salataria. Bere arrastoa.

Sarri, eztanda tiroketa polizia-operazioa atxiloketak izenak tortura hildako eta zaurituak.

Gatazkaren sufrimenduaren inbentarioan bere ize-nik ager ez dadila erreguz.

Azkenean, eskusibaren jabe bakarrenetakoa izan arren ezin entzungo duen azken-orduko berria irratian.

Uste nuen ez zituztela inoiz harrapatuko, etsipenez bezala bozkarioz ahoska daitezkeen iruzkinak.

Azkenean, horra bizirik zegoen seinale ez ezik borrokan ari zeneko froga ez-idatzia.

5

Zenbat denbora eman dut gogoetan?

Gorriz nabarmendutako aipuak zabaldutako denbora sakailan galduta nire iturri literarioaren idazteko grinaren tantaz tantako agortzeaz jabetzen: joan den urte luzeetan, zertaz eta zertaz ez eta zein ikuspuntutik idazle kazetari lekuko eragile egilearenetik, ez dut ezer idatzi.

Zerk bultzatzen ninduen sorkuntzara? Istorioak asmatzera poemak taxutzera errealitatea hitzez atzematen saiatzera? Ez al nuen aski bizi nuenarekin?

Ez al du aski gizakiak irudimenak entelegatu ez dezakeen bezain luze den giza kate baten segidako begi izate hutsarekin?

Ez ote da idaztea iragandakoa etorkizunean behin eta berriz biziartzeko gizakiaren asmo hutsal eta jainkotiarra?

Edo gure baitakoa besteei erakusteko tema lotsa-
gabea besterik ez da? Kanpotik ez ezik barrutik ere bi-
luzteko joera exhibizionista?

Ez bada kontrakoa, gure barnekoa hobeto mozo-
rrotzeko biluzten garela.

Eta gertatuak hurkoari jakinarazteko tresna beste-
rik ez bada idazketa? Haizeak eraman eta oroimenak
itxuragabetzen zituen hitzak fosiltzeko aurkikuntza?
Margolaritzaren mugak hausteko argazki film bideo
kamera digitalik ez zegoeneko denboran irauten duen
asmakizuna?

Nondik dute hitz idatziek gure baitan margo hots
sentimenduak sortzeko gaitasuna? Gure bizitza alda-
tzeko botere ahalguztiduna?

Azken funtsean, ez ote idazkera oro ariketa aizu-
na? Gertatuak ederresteko, borobiltzeko, bizitza geza-
ri zaporea emateko asmatzen duguna?

Ez al gara orrialde zuria zikintzean teklatura zanpa-
tzean galdu denboraren aurrean axolagabe benetako
bizitza eteten, egiazki gertatutakoaren matxurak eta
herrenak ezkutatu osatu ostentzeko?

Ez al dugu aski bizi dugunarekin? Ez al dut aski bi-
zitze hutsarekin?

Zulo honetan ez bederen.

Ezin dut artikuluko esaldia gogotik kendu.

Buruz dakit niri dagokidan zatia: *Zenbateraino izango litzateke ezberdina gaur egungo euskal letren mundua Mikel Antzak klandestinitatera pasatzeko beharrik izan ez balu?*

Otutzen zaizkidan esaldiaren aldaerak baztertzen tematzen naiz.

Ez da erraza bakardade isiltasun hustasun barne azterketara bultzatzen duen ermitau egoera honetan.

Zenbateraino izango litzateke ezberdina gaur egungo euskal mundua Mikel Antzak klandestinitatera pasatzeko beharrik izan ez balu? irakurtzen dut baztuetan.

Zenbateraino izango litzateke ezberdina bere bizitza Mikel Antzak klandestinitatera pasatzeko beharrik izan ez balu? bestetan.

Nire burua amildegi eta erpin arriskutsuegien erzetan ariketa ezdeusetan alferrik galzorian dakusat.

Gorritz nabarmendutako aipudun artikulua dakarren orria erauzi egin dut egunkaritik.

Pilota eginda bazkako erretilu hustuarekin batera hesiaren ondoan uztekotan egon naizen arren, azkenean, tolestu eta mahaitxoaren izkinan, hortzetako eskuila babesteko erabiltzen dudan plastikozko kati-luaren azpian ezkutatu dut, ez ote duen egunkariko orriak aurkitu ez dudan mezuren bat gordetzen bere baitan.

Gero eta sinetsiago nago ez duela halabeharrak ekarri niganaino. Askatasunean ez bezala kartzelan gertatzen den orok bere arrazoia du eta.

Mont-Blanc asana

5, OSTIRALA

Liburu asko dudala nire gauzen artean esanez etorri zait irakurtzekoa eskatu nion alfer-zaina. Irakurtzen ari naizenaren izenburua, Urainen *Ez dago etxean*, papertxo batean idatzita eman nion arren ez duela aurkitu eta Toti Martinez de Lezearen *Otalorea*, azkenean irakurri beharko dut, Bulgakoven *Endiablade*, aproposa République-aren ganbara honetarako eta yoga egiteko liburua ekarri dizkit, denbora duenean egingo duela beste miaketa-saio bat nire «liburutegian».

Urainen liburuaren izenburua berriro eman aurretik egin du alde.

Ziega honetako hormak harrigarriki zuri daude, ez laguntza-eske etsitu ez irain ez marrazki gordin ez arabierazko errezo idazkun bakar bat ere gabe.

Besaburuetako beltzuneak duela hiru egun baino beldurgarriago daude. Mengeleak aztertu ninduen ez geroztik beste batzuk agertu zaizkit beso-zangoetan.

Arratsetan yoga egiten hastea erabaki dugu.

Eztabaidan egon gara afalaurrean edo ostean egin, liburuak dio yoga jarrerak egiteko hobe dela urdaila hutsik edukitzea: aurretik, hiruretatik lauretara

ordu ona izan zitekeen, arratsaldeko bostetan ekar-
tzen digute afaria; baina baita ondoren ere, jaki epe-
lak irentsi osteko irakur denbora astuna arintzeko.

Temperaturak ebatzi du auzia: bero handiegia egi-
ten du arratsalde hasieran, zazpietan egitea erabaki
dugu.

Asana o postura de la pinza. Lurrean eseri, hankak
elkartu eta luzatu. Nola esan euskaraz? Asana, postu-
ra edo jarrera. Pintzaren jarrera? Ez dut uste. Pintza;
ez. Pinza: hagin, karramarroarena. Karramarro-hagi-
naren jarrera; ez. Pinza: gantxo, kisket, arropa eskegi-
tzekoa. Gantxoaren postura, edo Kisketaren postura
edo jarrera; agian. Kisket gustatzen zait. Kisketaren
asana edo jarrera edo postura. Egongo da inon itzul-
pena eginda. Nori eskatu euskarazko yoga libururik ba
ote dagoen. Jarrera poliki-poliki egin eta desegin
behar da, mugimendu bortxatu, azkar edota zakarrik
gabe. Ahal dela, yogan aritzeko lekuak lasaia eta isila
behar du; alde horretatik gainalde hau baino apro-
sagorik ez dugu erraz aurkituko. Arropa arin eta ero-
soak jantzi behar dira; galtzontzilotan hoberena. Zo-
ruak ez gogorregia eta ez bigunegia, esterilla bat, to-
lestutako tapaki bat, hori erabiliko dut, moketa, alfon-
bra edo antzekoa erabili; tapaki hauek auskalo zenba-

tek erabiliak, zenbat tu eta malko hobe ez pentsatu, zorua zikina dago, ez pentsatu hormako orban hori zerk egindakoa ote den. Gutxi gorabeherako denbora mugatua dauka asana bakoitzak, baina ezin bada lortu mantentzea, jarrera edo postura desegin eta erlaxatu, orain arte ikusi gabeko zigarrokin bat izkina hartan, kontu egin tapakia biltzean, barrualdera tolestu zoruarekin kontaktuan egon den alde bihar ere alde hori bera jartzeko zoru gainean, beste egun bat ziega garbitu gabe, garbitzekoak beranduago ekarri behar omen zizkidan zaindaria, bihar berriro eskatu, Sarako erretorearen koadrilakoak dira hemengo denak. Jarrera honekin gorputzaren atzealdeko gihar guztien luzatze bizkor eta bizia lortzen da, giharrek bizkortuz, malgutuz eta biziberrituz. Jarrera edo postura hau minutu batez mantendu. Nola zenbatu denbora?, bat bi hiru, azkarregi?, eta lau bizpahirutan bost errepikatu, mantsoegi? Trebatu ahala iraupena hiruzpalau minutura luza daiteke hamasei ez utzi gogoia erromesaldian hogeita hiru luzatzea orpoetatik lepalderainokoa da berrogeita zortzi giharrei tonu bikaina ematen die berrogeita hamaika giharrek askatuz eta berorien odol garaztatze edo irrigatzearen bidez berrogeita hemeretzi.

6, LARUNBATA

Goseak gaude.

Gaurko ikustaldietan senideek arropen artean sartutako jakiekin berdinduko dugu pixka bat sabeleko zuloa.

Beste zigortu isolatuengana bezala ikustaldien ondoren senideak agertuko zaizkigu kartzela aurrera, gure irrintziei adore oihuz erantzutera etorriko direla autobusak irabaziko dugula ez etsitzeko.

Ez da makala izango, jakinaren gainean egon arren, betoi eta burdinazko kutxa honetatik irtendakotan hartuko dudan ustekabeko atsekabea; beti gertatzen zait. Hona sartu aurretik gure burua azken aldiz ikusi genueneko oroitzapena gorde dugu; dutxan ere ez dago ispilurik. Nire bizarraren zuriarekin harrituko naiz, barrearen oroimena ahaztutako hazpegiak go-tortuta, betzulo sakonen gainean distira galdutako begirada, argal maskal zimel, egunean hogeita hiru orduz porlana haragiz bazkatzen eman ostean zaharrago.

Zaindaria! Urainen liburua ekarri dit!

Azalean aulki hautsi bat agertzen zela esan niola oroitu du. «Euskaltzain» goitizena jarri diot. Itoleku hauetan ditugun marrazoak ikusita guardako aingerua dugu zaindari hau. Tamalez guretzat bakantzetara doala esan dit, ezagutzen dituela ordezeko ekipoko *collègueak*, azkar konpontzen ez badugu hemengo auzia ez dela gozoa izango egonaldia, ez duela uste haiekin beste libururik lortuko dudarik eta atea ixtean «Courage!» esanez zur eta lur utzi nau.

Poliki-poliki bat enborra aurrerantz makurtu hantetara ahalik eta gehien hurbilduz bost eskuak oinetaraino eramatearekin batera hamaika. Ahal deneraino burutu jarrera norberaren gorpuzkera eta sasoiaren arabera hogeita hamahiru. Moduluan denok hurrenez hurren jarriko gaituztela hitzeman arte ez gara aterako hemen ere ez da hain gaizki egoten, musikarik ez dagoela, bestela nik Baleen kantua edo La Mejor Música de Relajación del Mundo edo Anari hogeita hamazazpi Beñatupanquik Laboa hangoak meditazio CDa hogeita hemezortzi bertsoan doi-doi entzuten dugu elkar gainera etorri txikia ekarri dugu zigortutako txirritok berrogei apustua eginda dago, ez zela altzatarra, Bodegon Alejandron afaria kalera igo beharko digute propio prozesu dramatikoak daraman abiatan ez

badugu lehenago hegan egiten txoriak bezala berrogeita sei kantari ibili naiz ziega barruko txangoan ia ordu erdiz leihotik karrajura sei urrats hamabi joan-ettorrian hamar segundotan jarri dut marka berrogeita hamahiru. Kontzentratu hadi egiten ari haizen horretan ez utzi pentsamenduak pinpilinpauxekin. Kisketa-
ren jarrera edo asana ziatika, lumbagoa, idorreria, odol-uzkiak, lordosia zer ote da hau, eskoliosia, jando gaiztoa, dispepsia, arraioa!, aerofagia, hau puzker kontua izango da ziur, gastritisa, gibel eta barearen dilatazioari aurre egiteko onuragarria da eta baita diabetearentzat ere, demontre! Kaiolan ordubeteko promenadan geldi egoten gara, elkar ongi samar entzuteko aukera bakarra da sarek eta txarrantzez goibeldutako zerura begira hitzak burbuila argudioak estrategiak pertikaz katapultaz norbera bere teman kuxan berrogeita hamabost gainerakoan hormak bezain mutu ematen dugu eguna berrogeita hamazazpi hitz egiten dute hormek kartzelan. Nerbio sistema autonomoa orekatu eta arteria tentsioa doitzen du, hau guztia Elhuyarreko norbaitek zuzendu behar luke urdaila gibela ez duk lehia ezta hire buruarekikoa ere patioan korrika egiten duanean bezala ez bortxatu ez duk presarik nora joan nahi duk. Bizkar-muineko odol-zirkula-

zioa laguntzen du jarrera honek, eta gorputz osoaren iraupen, ekite eta eraginkortasun gaitasuna handitzen du hirurogei.

7, IGANDEA

Leihotik leihora aritzeko xake-joko bana egitea adostu dugu Beñatvinykek eta biok.

Bazkan emandako mertxika hezurra higatzen hasi naiz promenadako zementuzko hormaren kontra igurtziz «E» hizkia irarri dut errege edo erregina beltza zizelkatzeko higatze-lanetan.

Ea hezurdun fruitu gehiago ematen diguten. Bitaminak ere ez zaizkigu gaizki etorriko.

Ezkutuko borroka garaietako zerbait kontatzeko eskatu dit Beñardok.

Aipatzeak ondoriorik ekartzen ez duten protagonisten izengoiti eta izenik gabeko gertaerez aritu naitzaio.

Hainbeste isiltasun orduren ostean eta elkar apenaz entzuten dugulako oso nekeza den arren on egiten digu hizketaldiak.

Gustura entzun ditu. Egia ere bada errepikatzearen errepikatzeaz gero eta trebezia handiagoa dudala pasadizo horiek kontatzeko orduan.

- Zergatik ez duk horrelako kontuei buruz idazten -proposatu dit.

Ez da eskaera egiten didan lehena.

Gaur umore onez nago; goxoan erantzun diot:

- Ezin delako, Mosen Bernard.

- Pena duk bada, jendeak ezagutu behar litzizke. Borrokaz dagoen irudipena zinez okerra duk. Jendeak ez dik ezagutzen zer bizi duen militanteak sasian, borrokan.

Arrazoia eman diot konbikzio handirik gabe, nekatuta nagoela gaizki entzuten diodala aitzakia eten dut elkarrizketa, agur esan diot.

Gozakaiztu nau ez da bere kulpa honek zer nahi du orain Euskal Nazio Askapenerako Errealismo Sozialista Iraultzailea idazten has nadin? Zola? Gorki? Ez nion utzi behar Grossmanen liburua. Galdetuko nioke gustura ea non ikusten duen berak gure Stalingrad.

Aurpegia, bularra eta urdaila ahalik eta gehien hurbildu hanketara bederatzi. Nola poztu zen aita kartzelan ikasi zuen berak ere yoga egin nahi nuela esan nionean hamasei hurrengo ikustaldirako ekarri zizki-

gun liburuak hogeita lau ahal den punturaino iristera-koan mantendu jarrera hogeita zortzi ahal delarik go-goaren erromesaldiak ekidin, txikitan aitak kartzelan larruz babestu hari zuri gorri berdez jositako yogiaren irudiz apaindutako yoga-liburua etxeko apalategitik hartzen nuen miresmenez azal goxoa ferekatzeko inoiz ireki ez hogeita hamaika nolako egonarria, zenbat ordutako lana, astia sobera izango zuten, ez irrati, ez *Gara* eta *Berriarik*, ez telebista, ez ordenagailu, zigor-ziegan bezala, burkidearen iradokizunak nigan ustez betirako itzalita zegoen sugarra berpiztu du, eskuz ere idatz nezake, hamasei urte nituenean beza-la berrogeita zazpi nola utzi nion literatura idazteari ihes egin al nion oraindik ere ihes egiten al diot zergatik ezin dut bukatu Pellot piratari buruzko eleberria duela hogeita bost urte sortu zitzaidan lehen aldiz berari buruzko nobela idazteko asmoa eta orain ilobak piratei buruzko ipuin bat idazteko eskatu zidalako idazten hasi eta ipuina izan behar zuena aurrena luzatu eta gero hondartu egin zait karenatzen daukadala esaten diot nire buruari itsas hiztegia alkaternatzen nabilela aitzakia nekaldi kronikoa, estresa eta antsietatea eta bizi larriminari aurre egiten laguntzen du Mexikora alde egin izan banu idazten jarraituko hu-

keen, Miguel Parecido? jarri gogoaz jarreraren nola duan ez konkortu bizkarrezurra oinaz lurrarekin perpendikular eskuak oinazpiak helduz. Jarrera edo postura honek gorputza desblokeatu eta erlaxazio sakonagoa errazten du burkide bat atzerriko hiri handi batean bakarrik, Polizia atzetik duela ohartuta ihesean. Ez dakigu zertan ari den, zer egin duen. Nolakoa den konturatu gara bere ekiteko moduagatik. Burkidearen barne-hausnarketak txertatu edo hoztasun horretan uztea hobe? Hausnarketarik gabe militante zorrotzaren irudiak hobeto ematen du, zehatza, zalantzarako tarterik ez duena, irakurlearentzat bihozgabea-edo, bakartia, sendirik ez duena, amarik ez duena, neskalaguna bertan behera utzi duena bere bidea urra dezan aske berak herriaren alde bizi eman behar duelako, sinesgarritasuna izango du. Nola azaldu Daviden barne-bizitza, kontraesanak, gatazka, kontzientzia txarraren harrak jandako arima oinazetuaren irudikeria faltsu batean erori gabe berrogeita hemezortzi baldintza hau zorrotz bete behar dute aski trebatuta ez dauden pertsonak, hobe da aurpegiarekin hankak ez ukitzea, gehiago jaitsi nahian jarrera oker egin eta enborra makotzea baino, horrela ez baita kisketarena egitea lortzen arnasa nabari dut belaunetan yoga saio

batek hamabost minutu eta ordu eta erdiren artean iraun dezake. Bizkarrezurra malgutzen laguntzen du asana edo jarrera honek, gaztetasuna eta harmonia ematearekin batera berrogeita hemeretzi hemendik irten beharko nuke idazteko hirurogei.

8, ASTELEHENA

Kartzela osoko ikusmirarik onena dugu hemen: egunsentia, arratsean han urrunean mendiak eta batez ere hormaz bestalde kalea bertatik bertara ihesaldi antsia apalduen ardagai nola, proiektu zaharrei hautsa kenduz nortzuk, amets ihartuak ureztatuz noiz.

Beñatek gaiari heltzen dion bakoitzean uzteko utopiak ihardesten diot. Errealitateari aurre egin behar diogula. Gaztea dela oraindik, ikasiko duela esaten harrapatzen dut neure burua, zenbat zahartu naizen!

Besoak gorputzaren alboetan kokatu, hanken alde banatara, ukondoak zorutik ahalik eta gehien hurbilduz zazpi trebatu ahala iraupena hiruzpalau minututara luza daiteke. Betokerra pasatu dela iruditu zait. Zenbat denboraz eduki ote dut behatxulotik ezkelka

zelatan. Nahi dutenean badakite bai katamotzaren sei hanketan etorri eta azeriaren egonarriz ehizakiok barrandutzen. Aldiz, goizaldean kasinoko erruletari bezala eragingo dio sasikumeak behatxuloaren estalkiari. Gogoia atezuan izan behar da. Gorputzaren atal zehatz batean jar daiteke arreta, jarrerak gehien eragiten dion horrexetan, adibidez, edo baita jarreran edo posturan bertan, edo sortzen diren sentrazioetan; baina ahal delarik gogoaren erromesaldiak ekidin behar dira hemeretzi zaintza-txanda amaitzean zaintza-kaierean zer idatziko ote du nitaz? Jakingo ote du yoga egiten ari naizela edo il fait des exercices physiques arreta galtzen den bakoitzean berriro ere burutzen ari garen jarrerara edo posturara erakarri behar da gogoia edo musulmanen errezoan harrapatu nauela jarriko du garun-huts horrek deskuidatuz gero eta hortik aurrera Al-Qaedaekin harremanen bat ote dugun ikertzen hasiko dira talde berezietakoak, gure gutunen itzulpenetan gorde uste diren mezu ezkutuen bila denbora alferrik galtzen baina horretarako ordaintzen diete hogei ta sei atergabe erne egon jarrerak irauten duen bitartean. Denon kaierean gauza bera jarri beharko du, ils font des exercices physiques, tous au même temps, hori da kideenganako uste osoa izatea, ziega barruan

norberak nahi duena egin baitezake, leihotik esan dezake baietz, hogeita hamahiru yoga egingo duela, eta gero potrojorran egon. Zaindariak, etsaiak, soilik jakin dezake benetan gertatzen dena, ils font tous des exercices physiques sauf... Ez da horrelakorik pentsatu behar, taldean denok bat garela irmoki sinetsi behar da, aurrez adostutako hitzordu batera joaterakoan bezala, aurreiritzirik gabe joan behar da, errealitatea eta gure ametsak bat diren ziurtasunak ematen duen indarrez, David Marc-engana joango denean bezala; beraz, ez al da bere bizitzako bi unetan guda-izena aldatutako pertsona bera?, bi militante al dira izaeraz eta borrokarekiko jarreraz guztiz desberdin?, horrek ez al du militante eredugarria eta ganorabakoaren arteko epaiketa baten antza hartuko? hogeita hamalau hogeita hamabost hogeita hamasei David ez da inoiz, badaezpada ere hartuta dagoen bermatzera, hitzordua baino bost minutu lehenago enkontruaren lekura azaltzen zeren bestek, Marcek oraingoan, gauza bera egingo balu, biek egingo lukete topo bost minutu lehenago, eta Davidek eta Marcek elkar ezagutzen ez dutenez bata bestea poliziatzat har lezake eta hitzordua txakurtuta hogeita hamazazpi hogeita hemezortzi hogeita hemeretzi dagoela ondorioztatuz gero

dena pikutara joango litzateke. Sabel barrunbeko organo eta erraien (gibel, bare, pankrea, urdail, eta heste luze eta lodi) hertsatze onuragarria eragiten du. Beraz, David eta Marc ez dira pertsona bera hori argi berrogeita zazpi berdin du, izanda ere idazteari ekin dionetik hainbeste aldatu da Marcen jarrera David zen horren antzik txikiena ere desagertu dela eta baita giltzurrunen eta giltzurrun guruinen goititze ezin hobea berrogeita zortzi idazten duena sinatzerakoan bukatuko da itxuraldaketa berriro ere noizbait izan zen hura izango da berriro jaioko da eta akabo hobe izango da borroka garaiei buruzko ezer ez idaztea emakumeen umetokian eta obulutegietan masaje ongarria ematen du. Gogoaren erromesaldiak ekiditeko zenbat denbora daramak jarrera honetan luze doa minutua hartu arnasa lasai jarri gogo bizkarrezurraren forman ez bortxatu ez da lehia hire buruari ematen dioan masaje bat bezalakoa duk goza ezak plazera izan behar dik idaztea bezala ez betebeharra, irakurtzea bezala egu-nero ordu-laurden egitea oso onuragarria da berrogeita hamabost berrogeita hamasei berrogeita hamazazpi mugimendu peristaltikoentzat ona da, eta baita epigastrioko hodientzat, maskuri eta gerrialdeko nerbioentzat bezala. Urdaileko urinak estimulatzen ditu. Ja-

rrera desegitean berrogei segundo inguruz erlaxatu giharrak, ondoren berriro ere osatu jarrera eta ikusiko duk nola lehen baino malguago egiten duan berrogeita hamazortzi berrogeita hemeretzi bigarren saioan hobeto erreusituko duk jarrera literatura hirurogei.

Yoga-saioa bukatuta, irakurtzeko asmoz Urainen liburua hartu dudanean, zigarretak egiteko paper fin bat hegaldatu da orrien artetik.

Hasieran, harrigarria iruditu zaidan arren, ez diot garrantzirik eman, «Geroago bilduko dut» pentsatuz.

Orrialdea markatzeko izkina tolesteko ohitura dudanez eta jasoz geroztik liburua inori utzi ez diodanez, harridura berdintzeko jakinguraz betaurrekoak jantzi ditudanean zoruan zetzan tximeleta ustez zurbilak hegalean apaingarri boligrafo gorriz idazkera sarriz osatutako zerrendekin mezu bat zekarrela ohartu naiz senez ate aldera ikaraz begiratzearekin batera, Beto-kerra zelatan ote nuen.

Estalkia jarrita zegoela baietsi arren, ez dut berehalakoan saretu mezularia.

Ohean etzan naiz, ohi ez bezala ateari begira. Irakurtzen ari denarena egin dut, ezarian besoa lurre-rantz luzatuz. Zoruko hautsean haztamuka ibili naiz nire hatz mamiek Urrobiko harri azpian gordetako

amarraina ukitu duten arte. Zakatzetarako hatzekin bildu dut leunki.

Liburuaren atzean kukututa arnasa etenda hasi naiz irakurtzen dardarka sinesgogor mezua.

Sinadura begiratu beharrik gabe, lehen hitzetik jakin dut nork idatzia den.

Zer sentitu dut?

Sakon-sakon egin dut hasperen, Beñati deitzeko asmoa irentsiz. Hobe behar baino lehen inor jakinaren gainean ez jartzea. Zer esango lidake orain? Adarra jotzen ari natzaiola usteko luke. Hobe esperantza falsuak ez haizatzea. Hobe gure arteko liskarra sor dezakeen deus ez jakinaraztea inori. Hobe halaber zaindariak ez daitezen ohartu gure umore aldaketa txikienez, denak berdin jarraitzen duela pentsatu behar dute, susmo txikienez gabe, ganoragabeko miaketa eta zaintze-txanden ohikerian lokartuta. Brechten urruntasunaren antzerkian trebea naiz. Ni izango naiz remake honetako antzezle bakarra. Deus gertatu behar ez balitz bezala. Arrakasta izan edo porrot egin nire bizkar hartuko dut. Berrito.

Ez dut jakin nahi nola egin duten ohartxoak niganaino helarazteko. Bost axola. Haienganako erabateko ustea dut.

Galtzetako azpilduran gorde dut.

Eskerrak ez nuen *Berriako* artikuludun orrialdea bota.

Artikulua gabe ezingo nituzke ulertu ohartzoko mezu kodetuak.

Hori ere hobeto gorde beharko dut, badaezpada ere.

Ezkutaleku hoberenean: Poek gutuna ezkutatu zuen leku berdinean.

Ahantzia nuen zirrara sabelean. Inor ez ohartzeko ahalegin erraldoia. Berriro ere!

9, ASTEARTEA

Zigor-ziegen azpiko estaian isolamendu modulua dago.

Nire azpikoari deitu diot. Luze aritu naiz berarekin hizketan. Harrituko zitzaidan Beñat, ez da ergela eskuarki ez bainaiz oso hizlaria, ez dit ezer esan ez da mentsa.

Sei hilabete daramatza putzuan eta ondo ezagutzen dituen barruko zein kanpoko ohituren berri xehea eman dit nik eskatu ahala.

Tarteka gotorlekua inguratuz poliki-poliki pasatzen diren Jendarmeriaren patruilak orain arte baino arreta handiagoz zelatatzen hasi naiz.

Beti dago preso talaiari bat erne izkinatik agertzen diren bezain pronto fils de pute ozen batekin laido-al-darrikapen kontzertu franko-arabiar euskaldunari hasiera emateko: la chatte de ta mère non à la dispersion on va vous faire la peau les prisonniers basques au Pays Basque!

Ez diet bestetan bezain gogotsu oihu egin; erretzeko papereko ohartxoak tolesturetan dudanez gero amorrua botatzeko behar gutxiago dut.

Eskuak oinazpian kokatu, edo ezin baduzu, orkatilak edo berna-hezurak heldu hiru oinazpian iristen naiz baina erosoago nago berna-hezurra helduz. Nahi eta ahal duenak oinetako behatz lodia hel dezake edo bi eskuekin oinazpiak oratu. Hau ez dut ondo ulertu: oinazpian kokatu edo oinazpiak oratu. Michellek ez du hamaika Davidekin hitz egin nahi hamabi maitaleak izan zirelako agian eta gaizki bukatu zutelako edo ekintza-talde batean elkarrekin ibilitakoak direlako eta ez zirelako ongi moldatzen. Jarrera edo postura egiterakoan, hoberena sudurretik arnasa egitea da, hartu eta bota. Orduan David militante matxista-

ren prototipora hurbiltzen zait eta Marc eta bera pertsona bera direnik sinestea zailagoa da, alda ote daiteke norbait hainbestearino borrokaren eraginez? Orno lunbarren atzealdearen irekidura laguntzen du jarrera edo postura honek eta ornoen atzealdeko lotailua luzatzen du. Edonola ere, argi egon behar du beraien artean ezinikusia dagoela, Michelle eta Daviden artean, hogeitaz David eta Marcen artean, horrek ere sinesgarritasuna emango dio dena ez dela arrosa kolorekoa kide izateak ez duela esan nahi lagun-min izatea pertsona normalak direla militante iraultzaileak baina zertan dira iraultzaile militanteak beren bizitza pertsonalean zertan datza beren engaiamendua ez utzi gogoia alderrai horixe! zenbatean nindoan berrogeita lau berrogeita lau sudurra belaunetik urrun samar dut berrogeita bost berdin dio ez da lehia arnasa berrogeita sei hartu berrogeita zazpi bota, sudurretik ezin, itoko ez banaiz ahotik beharko presarik gabe uxatu tximeleta hegal zuri zerrenda gorridunak gogotik bota lasai bizkarra okertu gabe makotu gabe! gontz bat aldaketan hurbildu enborra hanketara sudurra belaunetara eroso giharrak tenk min goxoa behar du kontuz berrogeita... mantendu jarrera edo postura minutu batez, beti ere arnasa lasai hartuz. Gero, dese-

gin jarrera eta erlaxatu giharrak ez pentsatu ezertan hustu burua kontzentratu egiten ari haizen horretan ez utzi gogoia noragabe berrogeita... bederatzi bizkarrezurra irudikatzen saiatu hankak zuzen al dituk non nabari duk tenkadura zortzietan jarri dugu amaitu osteko hitzordua ez dugu hitz egiterik izango leihotik leihora neketsua da zarata handiegia dago berrogeita hamahiru maskuriari hertsatze mesedegarria eragiten dio eta gizonengan prostatarentzat berrogeita heme-retzi mesedegarria da ere.

Arratsaldeko zaintze-txanda igaro eta ordu laurden bat pasatzen utzi dut.

Nirea da azken ziega eta zaindariak alde egin eta korridorea erabat isilik dagoela ziurtatu dudanean berreskuratu ditut egunkari orrialdea eta ohartxo.

Laster jakin beharreko guztiak buruz ikastean degegin ahal izango ditut biak.

Inorengan susmorik sortu gabe kideei egitasmoaren berri nola eman asmatu beharko dut. Eta nortzuk hartuko dugun parte nola erabaki ere bai.

Gauerdi inguruan iratzarri egin naute oihuek.

Jendarmeak igarotzean baino zalaparta handiagoa egiten ari zirela ohartuta egunen kalkulua egitean tronpatu ote naizen izu-laborriak hartu nau.

Jaiki eta leihora hurbildu naiz arrapaladan.

Kartzela aurreko errepide erdian, kale-argiaren azpi-azpian, auto bat motorra martxan argiak piztuta geldi.

Burdin barrei inoiz ez bezalako indarrez heldu diet.

Bi neska atera dira barrutik.

Konplimenduzko oihuak eta loreak bota dizkiete presoek, zein baino zein gordinagoak.

Bakoitzak alde banatik inguratu dute autoa aurrealdeko argien parean elkartuz.

Zigor-ziegetako batek bularrak erakusteko eskatu die.

Elastikoa altxatu du nesketariko batek.

Nolako lasaitua.

Ez darama bularretakorik. Giza piztia zalaparta garraisi eromena zigor-zooko kaiioletan.

Mugikorra ezkutuan sartzea lortu duen isolamenduko batek telefono zenbakia emateko, deituko diela.

Zigor-modulutik gonak altxatzeko eskaera.

Lotsatiarena egiten ari dira beren artean mintzo ikusleak kolokan mantentzeko, argi dago ordea eskaera beteko dutela. Azkenean, barretxo artean, «Minutu-txo bat soilik e?», gogo-kontra ari bailiran, bat, bi eta hiru, altxatu dituzte gonak eta elastikoak.

Ez dute kulerorik, bularrak dilindan.

Dantza pauso batzuk egin dituzte atzealdea erakutsiz zigor-ziegetakooi isolamendukoei kartzelako horma tzarrari kartzelako isolamendu eta zigor moduluak kalera begira diseinatu zituzten arkitektoei kartzela hau industria-eremuan eraikitzeko baimena eman zuten alkate eta kontseilariari Jendarmeriari moral puritanoari botereari.

Denak popatik hartzera!

Abere irenduen basetxean matxinada.

Amaitu da ikuskizuna, elastikoa eta gona txukunduz presaka sartu dira autora, bozina joz badoaz, txalo eta eskerroneko oihuen atzetik jendarmeak berandu iritsiko dira.

Leihoz leiho dabil ikuskizunaren iruzkina. Ziegapare seko harritura dago, ikusi duena ez sinestekoa dela dio.

Isolamendukoak nesken edertasunari buruz eztabaidan ari dira. Batek dio berdin zaiola neskaren edertasuna, zaindari eme batekin ere joko lukeela.

Beste batek ikusitakoarekin gaueko bakar saiorako irudi-bazka baduela.

Izan dugun elkarrizketa laburrean haserrea nabaritu dit Beñatek. Ez dakit sinetsi didan nekearena ai-

patu diodanean, iratzarri nautela eta lo-haserrea nuela. Moral estukoa naizela pentsatuko du segur aski.

Kezkaz oheratu naiz. Eguna gaur izan balitz horrelako ustekabeko txoro batek dena pikutara bidalia zukeen.

Eta gutxi falta da.

10, ASTEAZKENA

Jarraitzen dut ziega garbitzekoak eskatzen, kexu, normaltasun itxura emateko.

Beñatzweig ere kexu da, xakean egin nahi du, berak aspaldi bukatu zuen bere jokoa, orrialde zuri bateko zatitxoetan marraztu ditu berak piezak, ea noizko lehen partida.

- Bidaiak dik garrantzia, Beñat, ez Itakara iristek!
-jo diot adarra.

Ni geroko gerotan artelan bat egiten ari naiz: kafe zorrotxo zatiekin pioi beltzak, esne-hauts zorrotxo zatiekin zuriak, datil-hezurrekin alfilak. Camel paketeko dromedarioekin zaldi zuriak. Dorreak zerekin egin asmatu beharko dut, baita zaldi beltzak ere.

Edo ez dut asmatu beharrik izango, dena ondo badoa.

Eta dena okertuz gero ere ez: sakabanatuko gaituzte Luxenburgoko mugaraino eta bakartuko naute berriro ere.

Utz dezadan. Ongi aterako da!

Bart gauekoaz aipamenik ez dit egin Beñatek. Aldiz, ihesaldi ospetsuaren kontua ekarri dit berriro mintzagai, nola izan zen kontatzeko eskatu dit hamaikagarrenez. Besteetan baino zakarrago, duela ia hiru hamarkadako kontu horretaz aritze hutsak kartzelaren sentsoz eta alarmak aktibatuko dituen beldur baintz bezala alboratu dut gaia, hamaikatxotan esana diodala horri buruz ez diodala inoiz inori hitz bakar bat ere esango.

Elkarrizketa elikatu gabe, hiltzera utzi dut, laster yoga egiteko ordua dela-eta prestaketa lanak hasi behar ditudan aitzakian.

Ondo ezagutzen dut, muturra okertuko zuen, zapuztuko zitzaidan.

Berandu gabe ulertuko du nire zabarkeria.

Kisketaren jarrera edo postura edo asana guztiz burutzea lortzen da, aurpegia, bularraldea eta urdaila hanken gainean hamaika bermatzerakoan. Tokitan

gaude! Davidek hitzordua Michellerekin izatea nahi luke, sinesteko moduko istorioa izan behar da benetan gertatzen direnak kontatuz gero ordea asmatutako ipuina dela esango lukete sinesgarritasuna egia moxorrotuz lortzen al da?, gainera politikoki zuzena izan behar da hamazazpi hamazortzi morboari erantzun behar dio baita ere baina era berean burkideak gutxietsi gabe. Jarrera burutzerakoan eta berau mantentzerakoan gehiegizko ahalegina egitea kontraindikaturik dago. Kontraindikaturik! Hori hitz itsusia. Jarraera edo postura burutzerakoan eta berau mantentzerakoan ez da gehiegizko ahaleginik egin behar. Hobe, tximeletak literaturaren zeregina errealitatea huts-hutsuan islatzea baino norberaren usteak inarrosi, pinpilinpaxak irakurleagan zalantza sortu, galdea, ez soilik plazerezko une bat pasarazi baina hori ere bainoski oinarrian irakurtzearen plazera hizkuntza idaztiaren bidez begietatik gorputzera sartzen zaigun zorion dosirik gabe, pinpirin txikiena bada ere ez dago literaturarik idazleak irakurleari ere plazera eman behar dio idazten duenarekin ez du berak soilik plazera sentitu behar beste kontu bat da zein irakurleri zer plazer eta abar hogeita hemeretzi irakurleak plazera-aren ertz batetik bada ere bere buruari galde diezaiola

nik zer egingo nukeen halako egoera baten aurrean huts-hutsean pertsonaiaren jokabidea epaitu ordez berrogei nola lortu irakurlearen betaurreko zorrotzak bere baitarako ispilu bihurtzea berrogeita bat nor gara David militante pertsona zorrotza kontraesanen esangabekoen eta gezurren, txikiak izanik ere, mozorropean eta gainean aurrera egiten duena berrogeita bi, edota ganoragabea dirudien bestea, Marc, bere buruaren gainetik inor ez duelako zereginak albo batera utzi eta literaturaren sirena-kantuei oharkabean bezala erantzunez burkideak eta borroka-asmoak arriskuan jarriz maitasunaren altzoan berrogeita hiru berrogeita lau lokartu eta Poliziarenean esnatzen dena berrogeita bost kontua ez da militanteen moralala edo etika. Mitxirriken gogoia bizkarrezurrean jarri. Pertsona guztiek dute bizitzan antzeko hautuei erantzun beharra, berdin du irakaslea edo etxeakoandrea, langilea edo enpresaburua, denek dute bizitzan jokabide bat, eta jokabide hori zertan oinarritu, ispiluan beren burua begiratzen dutenean, ikusten dutena, munstroa bada ere, onartu edo arbuiatzera eramaten dituen. Arrazoizko ahalegina, zer ote arrazoizkoa?, egin behar da beti, mailakatua eta ongi neurtua. Bederatzi egun jada. Polizia-etxeetako torturetan flexioak egitera be-

hartzan dituztela esaten dutenean beti ote dira flexio mota berak? Juanmigelek jasandako torturak deskribatu? Zenbat denbora iraun daiteke jarrera deseroso batean giharrak tenk ikertua ote dute nolako kaltea egiten duen sabel barrunbeetako organo eta erraie-tan? Nahasmen organikorik dutenek, yoga egiten hasi aurretik espezialistari galdetu behar diote, erantzuna jasotzerako herdoildu zaizkigu giltzadurak, eta berreziketa-ariketa soil gisa egin jarrera honek gihar bikiak, ipurmasailekoak eta bizkarrekoak indartzen ditu berrogeita hamazazpi. Juanmigelen galerak berrogeita hemezortzi besteei eragiten dien samina erakutsi? berrogeita hemeretzi. Bi egun besterik ez hirurogei.

11, OSTEGUNA

Egoera konpontzen ez bada gose greba egiteko proposamena egin du Beñatek. Isildu egin naiz, eztabaida gero eta sutsuagoan parte hartu gabe. Bozketa egitea proposatu dutenean hitz egin dut, horrelako ekimen bat bozketaz ezin dela erabaki nabarmenduz eta nola hala auzia berriro bihar edo etzi eztabaidatzeko konbentzitu ditut, agintariak biharko barne-epaie-

taren ostean proposamenen batekin etorriko zaizkigulakoan.

Etzi. Badakit etzi ez dugula halako eztabaidarik egingo. Etzi beste aldi bat hasiko baita gure bizitzan. Lortu edo ez.

Saiatze hutsa garaipena izango da.

Barru-barruan sentitzen dut lortuko dugula; duela ia hiru hamarkadako zainetako zirrara berdina nabari dut.

Batzuetan, ezinezkoen diruditen gauzak modurik sinesgaitz eta errazenean lortzen dira.

Eta oraingoan ere berdin izango da. Nori bururatu behar zitzaion zulo honetatik irteteko modu hain erraz eta garbia nahiz eta ez arrisku gabea zegoenik?

Kisketaren jarrera edo postura hau egiterakoan, okertu gabe jaitsi behar da bizkarra, zuzen, bularraldea eta aurpegia hanken gainean bermatzeko, enborra okertu, ez, okertu ez, zortzi enborra konkortu edo makotu, hobe, gabe buruarekin soin-adarrak ukitzeraino literaturarekiko berraurkitzea nola bizi duen era aski indartsuan erakutsi, literatura askatasunaren arintasunaren sinonimo, hamalau loturak korapiloak kezkek aienatzen betebeharra bazter uzten ezarian baina ez al da konturatzen benetan? bere barne haus-

marketen bidez erakutsi ez dela axolagabea pertsonaia zuritu bere hauturik gabeko hautuak sortzen digun erakarmena justifikatuz eta une berean egin beharra albo batera uzteak sortzen digun deserosotasuna harekiko urruntasuna desagerrarazi betebeharra eta plazera hogeita sei Euskal Herriak behar hau, literaturak behar al hau?; gainera idaztekotan zerbait ona egin behar duk hire herriarekiko konpromisoa bertan behera uztekotan hobe duk Nobel saria ez baina bederen barregarri ez geratzeko moduko zerbait izatea esango dio bere buruari baina droga bat bezalakoa da maitasun istorio bat sexua tarteko balego errazago ulertuko lukete idazlearen jarrera txarresteko joera luketenek barkaberago ulerkorrago lamia baten besoetan erortzeagatik huts egin duela iradokiz gero eta ez lau poema kaxkar edo eleberri zamatsu bat idazten saiatzeagatik gizakia haragizkoa da ez paperezkoa jan larrutan egin lo zer behar du besterik gizonak barkatu gizakiak pertsonak idatzi idatzi idatzi hogeita hamalau hogeita hamabost hogeita hamasei nola lortu irakurleak horrelako egoera baten aurrean berak zer egingo lukeen hausnar dezan, zalantza egin dezan, jadanik bere bizitzan izan dituen bidegurutzeetan hartu dituen erabaki erdiragarrien oihartzuna piztu amodioa lana

dirua laguntasuna traizioa gezurra kontzientea arduragabea oharkabea berrogeita bederatzi uxatu pentsamenduak bi pinpilinpauza hegan, ez makotu bizkarrrezurra, ahalegin zakarrik ez, bihotzarentzat ona da eta zirkulazio-sistema hobetu eta pelbis-aldea susperitzen du. Libratze-lanak errazten ditu eta hesteetako alferkeriari aurre egiten dio, hori besterik ez nuen behar! hirurogei.

12, OSTIRALA

Azken eguna. Gutako birentzat.

Gaur ez dugu yogarik egingo.

Lortu dut Beñati leihotik leihora haizea lagun hari bati lotutako kometa mezutxo bat helaraztea.

Horretan eman dugu eguna mezua beste muturrean daukaten azken kideaganaino iritsi arte.

Orduan hasi da txalaparta.

Ohartxoan proposatu diedan kode konplexuaren arabera horma-kolpez eman ditugu iritziak jaso erantzunak.

Ukabilek irribarre oihu algara egin dezaketela ikasi dugu gaur.

Ukabilak borrokarako ez ezik samurtasunerako ere eginda daudela.

Pozez negar egiten dutela, besarkatzen, adore ematen.

Hunkitzen direla azken agurrean.

Ez zaie erraza izan denok ezingo dugula ihes egin barneratzea, birentzako txartela besterik ez dagoela bidaia honetan, baina bozketa eztabaida gabe hartu dugu erabakia: Beñatek eta biok egingo dugu saioa.

Parlamentuko adin-mahaia, pentsatu dut, nire buruarekin txantxetan.

Erabakiaren berri izatean ez dut jakin zer esan nola eskertu.

Beñat ere isilik egon da.

Alea jacta est. Gure Rubicon ibaia burdina eta zementuzko magma zurrundua da ordea. Askatasuna gure Erroma.

Orduaren zain etzan naiz.

Denok egongo gara etzanda.

Atezuan.

Arnasa sudurretik hartzen dut ondo aterako da barneko ekaitza baretu nahian ondo aterako da. Gogoia erromesaldian burdin barretatik at igorri dut aitzindari bidea garbitzeko libre.

Betiko orduan entzun dugu jendarmeen patruilari eskainitako irain abesbatza, oraingoan euskaldunon ekarpenik gabe. Denok gaude aiduru, operazioaren hasiera noiz iritsiko.

Prestatu naiz. Horman jo dut.

Erantzuna; prest dago Beñat ere.

Prest gaude denok.

Kanpoan ere hala egongo ahal dira!

Ordularia begiratu dut leihora hurbildu aurretik.

Hor daude. Esandako lekuan dago autoa. Argiak piztu itzali piztu ditu.

Beñatek eta biok alderantziz egin dugu ziegako argiarekin: itzali piztu itzali.

Ilunpean nago. Baina ez da ilunpe aizarotsua, bizitza berri baten iragarpen babesgarria baizik. Tunelaren amaiera egunsentia guretzat ere iritsiko dela dioskun gau beltza.

Operazioa hasteko seinalea ahul baino argi entzun da.

Sakon hartu dut giltzapean azken aldiz dena behar bezala badoa arnasa.

Ez dut zalantzarik hala izango dela. Oraingoan ni aterako naute kanpora.

Bagoaz!

Céline Durruti-baithan

Alde egin berri du Michellek.

Isilik gelditu da etxaldea.

Bakar-bakarrik nago.

Hamabost egun barru arduraduna edo bere ordezkoa etorri bitartean ez dut inor ikusiko ez dut inorekin hitz egingo.

Esku-argia piztu dut joan bezain pronto ilunpean gelditzearen beldur segituan itzali dut ilunpean gelditzearen plazeraren xerka nire burua besarkatu dut besarkatu nahi nituzkeen guztiak besarkatuz negar egin dut tentsioagatik esan diot nire buruari.

Etxandi zaharraren zuraren karrankei ongi lotuta ez dauden leiho saretak dantzarazten dituen haizearen enbatei adi eman dut denbora luzea.

Ganbarako hiru txapituletako erdiko leihoa irekitzeko gauetz argia kanpora iragaz ez dadin ipinitako egunez kenduko dudan plastiko beltza askatu dut.

Izarrak.

Ilargia.

Haize hegoa.

Gau epela.

Kantari hasi naiz.

Espetxean egon denak soilik jakin dezake zer den askatasuna.

Ez da berdina norbait kartzelatik ateratzea eta norbera ateratzea.

Ez dute berdin arnasten itotzen ari zena olatueta-tik erreskatatu eta hondartzara ekartzen duenak eta itolarrian zegoenak.

la mozkortu nau gaugiro epelak.

Noiztik ez naiz horrelako egoera batean egon zain-tzarik gabe zelataririk gabe ordutegirik gabe zereginik gabe.

Zenbat jendek ote dakien non nagoen hasi naiz kontuak egiten oharkabean egin zaidan ezinegona be-zatzen saiatzeko: honaino ekarri gaituen furgonetako gidariak, Michellek, Michellek bere ordeztor daite-keela aipatu duen horrek edo horiek. Gutxienez.

Beñatek ez. Nik ere ez. Furgoneta atzealdean ku-kututa hasieran arreta jarri badugu ere, biok lokartu gara. Tentsioagatik. Ibilgailuan hain denbora luzean ibiltzeko ohitura faltagatik. Hizketarako gogoari eutsi diogu. Poliziak errepidean ezar litzaken elkarrizketa-detekttagailuak ernarazteko beldur bagina bezala.

Errepidearen egoerak bihurtu gaituzte salatuta hiritik irtetea, etorbide zuzenak iratzarri gaitu hirian berriro ere atezuan alferrik lehengo bera ote galde-tzea.

Non ote nagoen zenbat jende jakin nahiko duen da beste kontua. Polizia ahalegin hutsalean honezke-ro zigor-ziegetako zoko guztiak miatzen, gure puska guzti-guztiak xehe-xehe aztertzen, urte guztian igorri eta jasotako gutunen fotokopiei hautsa kentzen, telefono-deien grabaketak hitz susmagarriak atzemateko programekin arakutzen. Ikustera etorri zaizkigunak ere galdekatuko lituzkete hain barregarri geratu ez balira. Aldiz, poza ospintzeko krudelkeriaz prestatuko zituzten dagoeneko espetxean gelditu behar izan duten kideen mendekuzko zigor lekualdatzeak.

Eta maitasunez non nagoen gauden irudikatzen ere ausartzen ez direnak. Ongi nagoela gaudela besterik ez, itzalpea ez den gerizpean babestuta. Ez nazatela ez gaitzatela, ez, ez, ez ditzatela harrapa behin-goagatik gauzak berriro ondo atera daitezela erregu apustu errezo eginez. Ospatuz.

Ospatu behar nuke nik ere bakarrik gozakaitz bada ere. Ez zuten esperoko ongi aterako zenik, bestela ospakizunen bat ongietorriren bat zerbait aurrei-

kusiko zuten ni hain azkar hain bakar hain zabar hain zargal Beñat beste gordeleku batera eraman behar zuten aitzakian jauzkor utzi beharrean.

Zer espero huen, domina bat? Ez al da aski asko askatasuna berreskuratzea? Ongi egin ditek ospakizunik ez antolatzearekin. Ongi egin ditek Beñat eta biok banantzearekin. Izango diagu ospatzeko tenorea oraindik, ez dituk zakarrak izan ihardetsi diot urteotan garraztutakoari. Kartzelako urteek pilatu mikatza dena kritikatu guztiari bere ifrentzua, denari bere koska eragozpena aurkitu behar hori gozatu behar duk. Baikortasuna ironia samina eta sinesgogorkeriarren zigor-ziegatik libratu.

Egin ezak kontu, ongi atera duk. Zer duk gaitzes-teko, bertan behera utzitako zurezko urrezko kaiola zaharkitu honetan konpainia gabe abandonatu haute-la? Zer esan nahi duk jakin izan bahu ez huela ospa egingo? Ez ezak txorakeriarik pentsatu. Badakik ez duala horretarako eskubiderik. Badakik egoera ez da-goela lore-jokotarako.

Eta ez bahekien baduk jakiteko adina, izango duk barneratzeko adina denbora: abuztuaren hamabiko ihes-ondoa hamabost egun Bakar-gainen, Michelle edo «Michelleren laguna naiz» edo «Je suis l'ami l'a-

mie de Michelle», «Soy el amigo la amiga de Michelle» ez dut uste, agertu arte.

Hiriguneak ez du oso urrun behar, jairen baten zarata iristen da honaino.

Noiztik ez naizen axolagabe festa batean jendearen oihu izerdi alkohol zipriztinei soraio oihuka kantari algaran izan?, gogoratu dut Aurizberriko jaietan arrotz taberna lepo garagardo bat, tonika bat, xanpain kopa bi eskatzeko izerdi patsetan barrarako bidean giza hesi jostari eta ezin trabeskatuzkoarekin borrokan alboko mutil ezezagunak lepotik helduz garagardo botila eskuratuta bozgorailuetako musika ozenaren doinura herritarrekin saltoka jarri ninduenetik.

Lastaira puzteko indarrrik gabe lo-zaku gainean etzan naiz, jantzita. Ordularia eta betaurrekoak kendu ditut, kartzelan bezala gau-mahaitzakoa egiteko alboan jarri dudan aulkian utzita esku-argia itzaltzeko unean ohartu naiz gozamenez ganbarako hondoko horma osoa liburuz mukuru dagoen apalategi batek betetzen duela.

Askatasunaren loak bere besoetan kulunka hartzen ninduela kartzelatik honainokoak gogoan Michellei datorren hurrengo aldian ordenagailu eramangarri bat ekarri behar didatela esatea ahaztu zaidanez

bitartean zigor-ziegan bezala oraindik boligrafoz idatzi beharko dudala zer nori ordea bihar ez zait inor etorriko goizeko zazpitan atea irekitzera, etortzekotan ordubete lehenago berriro ere fusilaren argitxo gorriarekin kopetaren erdian destatuz amatatu zait garuna.

2

Nolako zalaparta egin duten beste presoek kalera iritsi garenean.

Talaiakoa konturatzerako eta alarma sirena entzun denerako espetxetik urrunduta geunden.

Aurreikusi bezala atera da dena, segundoko zehaztasunez, maite dudan bezala, ia zaratarik gabe.

Ia emoziorik gabe esatekotan egon naiz. Batere emoziorik gabe. Hotz. Behar den bezala, gauzak ondo aterako badira. Baina hori beste kontu bat da.

Kalea zapaltzean korrika egin dut autoraino, instrukzioak ahaztuta, kopilotuaren lekurantz.

Atzealdera zakar bidali nau gidariak urduri.

Klak! klak! ia ez ginen kabitzen pozaren pozez puztuta bi iheslariok eta gidaria.

- Lortu dugu! Lortu dugu! -oihukatu du une batez bere onetik aterata bero-bero burkide gidariak, begirada errepidean, bere kautarako; burua estaltzen zion txanopean ez dut ezagutu.

Gu mutu.

- Makurtu, makurtu! -agindu digu eserita geundela ohartu denean.

Hori ere ohartxoko jarraibideak argi zekarren ba!: «Autoaren atzealdean sartu eta makurtu».

Etzan gara arrapaladan kizkurtuta aulkien arteko zoruan ni eta eserlekuan kidea.

Operaziorako kide bakarra igortzeak harritu nau arrazoi gabe. Inguruetan babes taldea ibiliko ote zen alferrik pentsatu dut nire burua lasaitzeko.

Kartzela inguruko biribilguneak gaindituta errepide nagusian ziztu bizian jarri du autoa. Ezagun du gidari aparta dela, horregatik hautatuko zuten, eta hala ere jarreragatik tentsioagatik zorabioa egin zait. Botagurari eusteko leihoa irekitzeko eskatu diot.

Edozein unetan Poliziaren sirena entzun eta argi urdinak autoaren sabaian islatzen ikusiko nituen bel-durrez egin ditut lehen kilometroak.

Zaintze-kameren eremutik at egin dugu auto aldaketa. Burkideek atzeko leihoak segurtasun bikoitzaga-

tik, ez gintzaten ikus ez genezan nora ginderamatza-
ten ikus, itsututako furgoneta arrunt batera aldarazi
gaituzte Beñat eta biok.

Atzealdeko eserlekuen ordeaz apar-gomazko lastai-
ra batek erosoago egin digu hortik aurrerakoa. Gidari
berria ez dugu ikusi, ez digu hitzik egin; fitxatu gabea
eta frantsesa pentsatu dut.

Mendikristoko Beñat eta biok ere isil. Zer esaten
da bada horrelakoetan jokaldiaren iruzkinetarako ez
geunden oraindik baloiak langan jotzen bazuen gu-
reak egin zuen tarteka elkarri estu eman diogu eskua
hura azken agurra izango zela jakin gabe.

Hirigunetik kanpoko landen usain ahantzia sudur-
zulo ezinduetan «Hau da askatasuna» pentsatu dut
eguzkitan biluzik etzanda banengokeen berotasuna
sentituz.

Hirian berriro, bidegurutzeetan geldialdi laburrak
segur aski semaforoak geldialdi bakoitzean «Control,
Police! Papiers! Ouvrez derrière!» entzungo genuen
beldur.

Furgoneta balazta zaratarik gabe gelditu du. Hotel
Terminus. Garaje-ate kirrinka. Atzeraka. Ez du moto-
rra itzali. Hotel Terminus?

Ibilgailuko atea ireki da.

- Zorionak!

- Zorionak, zuei! -esan diot, ordura arte ezagutzen ez nuen burkide gazteari lehen uneko ezustea gaindituta.

Ihesaldi-planaren xehetasunak igorri zizkidan burkidea izango genuela zain uste espero desio nuen.

Iribarre zabal-zabala ezpainetan loratuta nire atzetik irtetera zihoan Beñati ez jaisteko agindu dio.

- Segituan eramango haugu beste gordeleku batera.

Eta asmorik ote zuen ez dakidan Beñati protesta hitzik egiteko aukera eman baino lehen doinu epelez gehitu dio:

- Elkarrekin egingo diagu bidea, lasai. Izango diagu hitz egiteko astia.

Lasai eta lastairan goxo besarkatuta, pentsatu dut.

Nirekikoak egin eta hamar minuturen buruan itzuliko zela esanda itxi du furgonetako atea oharkabean Beñati eta bioi elkar agurtzeko aukera eman gabe.

Furgonetaren txapan kolpe pare bat eman ditueanean itzali du «frantses mutuak» motorra. Aurrez adostutako kodea asmatu dut, oraindik erreflexu guztiak ez zaizkit alfertu harroxko; motorra itzali aurretik

arduradunak gurekiko nirekiko elkarrizketan zerbait baietsi beharko zuela, nire irismenetik at dagoen segurtasun konturen bat.

Beñatek eta Michellek elkarren berri bazutela iruditut zait elkarri egin dizkioten keinu diskretu eta begirada itzurtiengatik. Oso litekeena dena, kanpoan eta barruan nik baino denbora gutxiago eman baitu gazteak.

Zenbat zorrotzu diren segurtasun neurriak pentsatut dut Michelleren atzetik garajetik irtetean, elkar eza gutzen dutela ezkutatu nahi izanak eragin didan irribarre maltzur bat ekidin ezinez.

Etxarte bat igarota bi solairutako jauretxe zahar baten aurrealdean agertu gara.

Lehen solairuko bost leihoetako saretak itxita, bigarren solairuko hiru txapitulak argi gabe, galtzadarraren artean belarrak jori, bertan inor bizi ez den susmoa Michellek giltza zahar batekin ate astun bat ireki eta esku-argiaren laguntzaz bertan beheara utzitako etxeen lizun eta zoko usaindun zurezko mailadian gora jauretxearen ganbararaino zuzenean eramanean nauenean baietsi dut.

Michellek aipatu ez didanez irentsi egin dut ihesaldia antolatu duen burkideaz galdetzeko gogoia.

- Etxe ziurra -esan dit nire pentsamenduen nondik norakoak asmatu eta uxatu nahi balitu bezala-. Egon daitekeen ziurrena. Hemen ez hau inork aurkituko. Egon hadi lasai.

«Lasai nago» eta «Aurkituko edo bilatuko?» pe-tralduak ito ditut eztarrian, horrelakoetarako unea ez zelakoan.

Bai, lasai eta sinesgogor nago. Sinesgaitz egiten zait bi orduro atean zelatan nire loa galaraziko didan zaindaririk ez dudala izango haboro, bederen gau batez, gau bateko askatasuna irabazi dugula ziurtzat jo daitekeelakoan.

Zapuztuta ere, bakarrik utziko nautelako, ihesaldiaren antolatzailearekin sikiera trago bat edateko aukera eman gabe.

Ihesaldiak sortutako aztoramendua baretu bitartean, bizpahiru hilabete bertan bizi beharko dudala jakinarazi dit harrera egin digun burkideak. Bakarrik. Gero antolatuko dutela nire «estrazioa».

Nola aldatu den Erakundeko barne-hiztegia urteotan, pentsatu dut gaizto.

- Beraz -esan diot espetxean mingostutako txan-txa doinuz-, kartzela batetik irten beste batean sar-tzeko.

Ez dit zuzen erantzun, onean behintzat hartu ez duen seinale, itxialdi berria ahalik eta ongien igarotzeko beharrezkoak non dauden erakusten hasi zait.

Mahaitxo bat, elikagaiz betetako arasa, sukaldea egiteko txokoa, harraska, baxerak, lapiko eta zartaginak, gas-bonbonak, kanpin-argia, hozkailu txiki bat, argindarra dagoen arren argirik ez pizteko gaztigatu dit, entzungailuekiko piladun irrati txikia, ohantzerako lastaira puzgarri bat, lozakua, bainu-gela, garbitzeko produktuak, dutxa ez dabil, komuna bai ez tira kateari zaratagatik badakik, bai, moldatuko naun ez kezkatu horregatik.

Ganbara estudio txiki bat bezala antolatu dute, didate, herri-kartzela eroso bat bezala, isildu egin naiz berriro badaezpada ere oraingoan ziur gaizki hartu eta gainera esker txarrekoa naizela pentsa ez dezan.

Azalpen guztiak eman ostean, soilik arazo larri-larriren bat izatekotan erabili beharreko telefono mugikor bat eta telefono zenbaki bat ere utzi dizkit. Zenbakia buruz ikasarazi dit bere aurrean, papertxoa esku-tatik kendu eta irentsi baino lehen.

Gainerakoa, eskaileren aldera keinu egin du lehen eta behe-solairuez ari zela uler nezan, neronek deskubritzeko denbora izango dudala gauzak ez nahasteko

jende jatorra dela etxaldea utzi diguna, hartzen ditudanak zeuden bezala uzten saiatzeko ezer ez puskatzen, horrela jarraitzen badu gaitzituko natzaio pentsatu dut hainbeste urtez kartzelan haurtzat hartu izanak arrastoa uzten du, berak ere ez dakiela ondo zer dagoen bertan esan eta ordulariari begiratu dio.

Nik ere begiratu diot nireari. Berrogeita bost segundo doi-doi Beñati agindutako hamar minutuak bete aitzin. Ohitura on batzuk ez ditugu inoiz galduko, pentsatu dut pozarren.

- Hamabostean behin pasatuko nauk jaki freskoak eta bestelakoak ekartzera, beti gauez, nahiko berandu. Ni ez banator, nire ordeztortzen denak Michelle-ren laguna dela esango dik. Ez harritu frantsesa besterik ez badaki.

- Beraz, hi haiz Michelle? -galdetu diot ahalik eta xaloen, izendegirako orijinaltasun gabeziak bere horretan jarraitzen duela nire kolporako gordez.

Esku-argiak zeharka argitzen ez bagintuen ere ikusi dut gorritu dela.

Barkamenak eskatu dizkit bere burua lehenago ez aurkeztu izanagatik.

- Ez din axola -lasaitu dut-. Gainera, guda-izen bat besterik ez dun, agian nirekiko harremanetarako soilik erabiliko dunana.

Irribarre egin dit lehen aldiz.

Segundo gutxi batzuk baino ez ditugu elkar agurtzeko, ertzak leuntzeko.

- Hi izango haiz orduan nire arduraduna aurrerantzean? -galdetu diot ganbarako aterantz lagunduz.

- Bai.

- Orduan, Michelle baino, ez bazain axola, Arduraduna deituko haut.

Sorbaldak altxatuz erakutsi dit zenbateko garrantzia ematen dion nola izendatuko dudan nire bakartasun orduetan.

Hamabost egunetan izango dudan azken elkarrizketaren azken ahapaldiak dira.

- Eta niri jarri al didazue goitizenik?

- Ez... -kosk egin dio mihiari, akats larri batean harrapatu izan banu bezala.

- Ihesaldia ondo aterako zenik jakin gabe, normala dun horrelakorik ez aurreikus izana. Hurrei ere ez omen zaie izenik eman behar jaio ez diren artean.

- ...

- Eta nola deituko nauzue?

Hamar segundo. Berandu iritsiko da furgonetara.

- Ez zakiat. Hik esan.

- Tira... -irribarre egin diot-, l'Écrivain gustuko niken, baina nabarmenegia luken, akats bat segurtasun aldetik, ezta?

- Bai -erantzun dit, azkenean nire umoreak azaleratzea lortu duen irribarre zabalak hazpegiak edertuta.

- Orduan, deitu egidan Marc -irribarreari irribarrez-. Izena libre badago...

- Bai, ez zagok beste Marcik... Beraz, hamabost egun barrura arte, Marc -irribarrearen erakarmenetik erreskatatzeko ordularia begiratzeko keinua eginez azalpenak ematera behartuta balego bezala-, gordelekura eraman behar diat David -gehituz.

- A! David deitzen diozue Beñati?

- Bai... -zalantzati, iheskidearen guda-izena esan izana zenbaterainoko hanka-sartzea izan den neurtuz bezala.

- Emaion besarkada estu-estu bat nire partez ere. Harrapatu badu ez du adierazi.

Joan egin behar du. Berandutu dut. Ez dut bakar-dade aurrea gehiago luzatzeko modurik.

Bostekoa luzatu dit.

Halako ekintza erdietsita gure jarrera zurruna zein groteskoa izaten ari zen ohartuta nonbait, eskuak askatu gabe Beñati eman ez diodan Davidi emango dion besarkada estua eman diogu elkarri Michellek eta biok.

Azken kontaktu fisikoa, datozen hamabost egunetako bakardadearen atezain, urte luzeetan zaintzapeko besarkadak ematera ohitutakoarentzako ukendu.

- Agur, Arduradun!

- Agur, Idazle! -azkenerako harrapatu du, bai, nire umorea.

Azken hitzak aienatu aurretik mailadian behera desagertu da esku-argiarekin bidea urratuz.

Gutziz ilunpean gelditu aurretik ikusi dut mahaitxoaren gainean esku-argia.

Nire bizileku berriaren zokoak argitzen hasi orduko entzun dut, garajeko atearen negarra motor-hotsa garajeko atearen negarra isiltasuna.

Alde egin du Michellek. Isilik gelditu da etxaldea.

Espainiako gerratik ihesean etorritako errefuxiatuen bizileku izandakoa da etxalde hau. Errefuxiatu anarkistak zirela erakusten dute etxe osoa betetzen duten afixek eta han-hemenka aurkitu ditudan aldizkari eta bestelako propaganda euskarriek.

Kontu handiz ibili naiz gelaz gela arasak tiraderak armairuak irekitzen.

Hauts geruza lodi baten azpian izoztuta gelditu dira haien bizitza hornitzen zuten osagai materialak.

Haien gauza guztiak argazki gutun dokumentu arropa bertan daude, alde egiterakoan aldean ezer eramateko aukera izan ez balute bezala.

Lehen egunetan kuxkuxean aritzeagatik errieta egiten nion nire buruari. Bakardade egunak igaro ahala ordea garrantzia kendu diet nire ikerketa baimendu gabeko baina ez haatik debekatuek Arduradunarekin sor diezazkidaketen kalapitei.

- Argirik ez pizteko esan zidan, ez ordea etxekoen gauzak ez miatzeko -esaten diot ispilu zahar bateko nire isla itxuragabetuari lainerak hartuta egunkari ebakinezbetetako karpeta berri bat sits-bolen usaina

hedatzen duen beste armairu bat pipiak desegindako tiradera hondo gabe bat ireki bitartean.

- Gainera, hautsa ez beste guztia ia zegoen bezala uzten dut -erantzuten diot militante arduratsu mutuari.

Logeletako arpilatzetik sitsak jandako balek zulatutako jaka militarra, FAI hitzak brodatuak dituen txapela, guda eta banketxe planoz betetako larruzko zorroa, bizarra egiteko labana zaharra, erabili gabeko denborak horaildu orri mordoa eta harrigarriki oraindik tinta idortua ez duten boligrafo zahar batzuk berreskuratu ditut.

Ganbarako liburutegian antolatu dut kanpaleku nagusia. Orduak eman ditut itxialdia ahanzteko ihesbide bakartzat dudan hitz esaldi paragrafo hormatuen aurrean hasieran zutik oin-puntetan gero makurtuta kokoriko hankak antxumatuta liburuen, gehienak literatura frantsesez gutxi batzuk politika gaztelaniaz, bizkarrak besterik ez hatzekin lagunduz burua okertuta irakurriz.

Apaletan utzi hutsunea zegokionaren koordena-tuak orri batean zerrendatu ostean, ez dut asmatu-eta zein irizpide duen etxe honetako ez-jabe anarkisten

unibertso inprimatuak, irakurgarriekin laurogeita zazpi zentimetroko Babelelebi dorrea eraikia dut.

Denborak sarraskitutako agure-aho, begi itsudun murru, puzzle zentzu bako, elbarri utzi dut Bakuninen jarraitzaileen jakintza horma.

Liburu bat gustukoa ez badut irakurraldian tematu gabe segituan abandonatzen dut jatorrizko gutxitua-
ren ondoan altxatzen hasitako eraikin bikian.

Kartzelako egunerokotasunera ohituta, berehala jabetu nintzen Durruti-baithako egonaldia antolatzen ez banuen Michellek jarritako hamabost egunetako epea bete baino lehen literatur mendekotasun larriak joko ninduela, eta gaindosi batek beste mundura eramaten baninduen alferrik eskatuko zidatela ihesaldia-
ri kartzelako egoerari urrats estrategikoei zernahiri buruzko txostenik egin nezan borroka ez da bukatu oraino beste zereginik ez dudan aitzakian.

Jaiki eta lehen gauza soinketa.

Katuarenak harraskan.

Gosaldu ostean lehen egunetako bizilekuen nolanahiko esplorazio anarkikoa, barka nazatela etxaldeko behialako biztanle abegi onekoek, utzi eta behetik gora eta ezkerretik eskuinera gelaz gelako miaketa sistematikoa bazkalordura arte.

Bazkaldu irrati frantsesa entzunez, euskalduna gauzez baino ez da harrapatzen eskuarekin txapitulako leihoaren gainaldeko txoko batean mantenduz besoa txindurritu egiten zait asmatu beharko dut zerbait.

Kartzelan mantendutako bazkalosteko ohiturazko lo-kuluxka ezinbestekoa.

Jaiki, aurpegia hortzak garbitu eta promenada gelaz gela atzera eta aurrera eskaileretan gora eta behera txistuka kantari gogoetan murgilduta mailak zenbatuz ohitura batzuk betirako dira.

Arratsaldea azkar doa irakurketak betetzen du yoga saioak soilik eteten duen ilundu aurretiko leihoak itsutu arteko denbora.

Iluntzean aldizkari zahar baten aurrean afaldu, ganbarako txoko batean antolatu dudan egongelan afalostea sotoan ebatsitako Armagnac kopa bat edanez berriro irakurri.

Oheratu aitzin leiho bat irekitzen dut eta izarrei begira ikusten direnean eguneko zigarreta bakarra erretzen dut.

Irratia belarri zuloan lokartzen jarraitzen badut laster ahituko zaizkit pilak.

Iratzargailua ere eskatu behar diot eskumuturreko ordularikoak ez nau esnatzen.

Eta beste egun bat. Jada ez ditut zenbatzen. Askatasuneko egunak ez dira zenbatu behar.

4

Atzera eta aurrera nabil zorabioa norekin hitz egin behar dut nori esan behar diot Beñat Beñat hormetan jotzen dut ez dit inork erantzuten. Ferdinand Bardamuk Place Clichyn bahitu eta Lehen Mundu Gerrako lubakietako eldarniozko gauean zamariaren gainean azaldu naiz. Zainetan gora hitzak esaldiak ahapaldiak etenik gabeko zamalkatzean beste modu batez arnasa egiten hasi naiz ezin diot ihes egin.

Duela ia hogeita hamar urte Xabierrek gomendatuta gaztelaniaz irakurria nuenez eta Tardi komikigilearen marrazkiekin osatutako edizio ederra euskarri egokia zelako kokatu nuen Literatur Dorrearen oinarrian irakurgarrietan azken Célinereren *Voyage au bout de la nuit*.

Tardirenak ikusteko guraz I-11 literarioa ez eragitekoko kontu eginez hartu eta «*hola hasi zen nik ordura arte ez nuen ezer esan ezer ez Arthur Ganatek hitz eginarazi zidan Arthur estudiantea mediku-nahia bera*

*ere laguna juntatu ginen Place Clichyn bazkalondo-
hitz egin nahi dit entzuten diot ez ahal gaituk kanpo-
an egongo esan dit goazemak barrenera sartu naiz
harekin bai terraza hori hasi zen astakiloentzat duk
hator hona orduan gainera konturatu ginen ez zebile-
la kalean inor beroagatik ez autorik ez ezer hotz han-
dia egiten duenean ere ez da inor ibiltzen kalean
berak esan zidan gogoan daukat horri buruz Parisko
jendea itxuraz beti okupatuta zagok baina ongi begi-
ratuta paseatzen zabilzak goizetik gauera» irakurri
nuenetik aztiaren emariak ez nau zamaritik botatzen
jaitsi nahi dut bazkaltzeko ordua lo egiteko ordua
atala bukatzen dudanean etenaldi bat ezin, itsatsita
hemen ez dut jatekoa prestatzeko, babarrun pota bat
ireki berotu gabe, baizik irensteko astirik datozela
zaindaria bazkarekin!*

Voyage, karrajuko hesirantz nindoake, au bout de
la nuit, liburuari itsatsita.

- Gabelle!

- Oui, oui... -irentsiko nuke... Céline!

Afalordua? Zenbat denbora pasatu da baina! Ez
dut ezer prestatu.

Datozela zaindaria afariarekin.

Liburua ezin askatu nindoakieke ateraino.

- Gamelle!

- Oui, oui... -irentsiko nuke... Céline!

Beñatek leihotik deituko lidake.

- Ez, ez, nik gaur ez diat yoga egingo.

- ...

- Zertan? Bidaiatzen!

- ...

- Célinerekin!

Esango lieke beste burkideei. Ez lukete deus uler-tuko. Kezkatzen hasiko lirateke.

Bakarrik nago hemen ordea. Célinegandik, ez da inor kezkatzen ez dut jaten ez dut lorik egiten, Céline-ganaino.

Goizaldeko zaintza-txandak karrajuaren ondoan betileak erretzen harrapatuko ninduke gauaren azken muturreraino bidaiatzen Louis-Ferdinandekin.

Goiza, ur beroa plastikozko katiluan, kafe eta esne-hautsa, azukrea gauerako gurin ogitartekoa go-zatzeko.

Hemen ez dut denborarik.

Jan egin behar duk ordea, Marc!

- Promenade!

Jadanik?

Liburuarekin nindoake. Ez lidakete utziko. Ia uko egingo nioke ateratzeari.

Mugitu behar duk, l'Écrivain!

Promenadan, kide kezkatuak:

- Zer egin huen atzo?

Nola azaldu Célinereren aztikeria?

Bakarrik nago hemen ordea, nori azaldu behar diot zer eragiten didan kontinentetik kontinentera naraman tintazko sukarrak?

- Céline irakurtzeagatik soilik merezi zuen frantse-sa ikasi izanak -oihukatu diot Saint-Sulpiceko Egona-
rriari.

Gorrarena dagi asteazkeneroko seietako eta zaz-
pietako kafea hartzen Kadareren *Le général de l'ar-
mée morte* irakurtzen, nire ahotsa entzuteko urrutiegi
dagoela diost keinuka.

- Zertan ibili haiz orain arte, Marc!

Hara! Brodskyk entzun nau. Barre dagit, bera as-
paldi jakinaren gainean balego bezala.

- Edo nahiago al duk l'Écrivain deitzea?

Ez jan, ez lo, ganbara-zulotik irten gabe.

Jaka militar zulatua soinean Federazioaren boneta
ilez urritutako kaskoan alferrik dut anarkistaren laba-

na ez naiz bizarra luzatzen ikusteko ere hurbiltzen is-piluetara.

Tarteka kiratsa nabari dut, garbitu beharko nintzateke, hazka nabil gorputzean, harraska baxera zikinez mukuru dago ordea.

- Surveillant! La douche! -kexatuko nintzaieke.

- Tu vas aller aussi à la douche avec? -egingo lidakete barre zaindarien liburua eskutik kenduz.

Marka hautsi dut: urruntzen hasi denerako bukatu dut jantzita nago lehortu gabe blai ate-joka matoiari deika azkar azkar!

- J'ai fini! J'ai fini!

Danba danba danba.

- Vite, Louis-Ferdinand! -ireki didan urdinezkoari.

- Je ne m'appelle pas Louis-Ferdinand -gaitzitu zait.

- Pardon, Céline, je suis en train de lire, vous savez, le Céline au bout du voyage.

Apuntatuko luke kaierean, gazta pitzatzen ari zaidala.

Esango dio zaintza-txanda kideari:

- Le Basque de la 34 est en train de perdre la boule, il m'a appelé Louis-Ferdinand Céline.

- Fais gaffe, ça pourrait être une insulte, tu sais il était facho -krisiak bultzatuta zituzkeen eskrupuluak jantzi urdinaren azpian itota eta etorkizun zurrak erakarrita ikasketa unibertsitariodun zaindaria.

- Ah, bon? Un facho, qui le Basque? -apenas idazten eta irakurtzen baina borra ondo erabiltzen dakien matoiak.

- Non! Pas le Basque, Louis-Ferdinand Céline!

- Un facho de quel genre?

- Comme Laval et compagnie, il a même accompagné Pétain et sa clique en Allemagne, au Château de Sigmaringen.

- Où ça?! -Pétain ulertu du, doi-doi-, oh, laisse! Peu importe. Et puis, tu sais, les fachos ne me déplaisent autant que ça, il faudrait plus de main dure avec toute cette racaille.

Segitu zuen kontuekin, utz nazazue bakean irakurtzen irakurtzen irakurtzen.

Aspaldi airea galdu duen lastairan etzan naiz, ahuspez, burua eskuetan bermatuta, hankak tolestuta oinak gora txikitan bezala orduak eta orduak amonarenean zernahi komiki aldizkari prospektu irakurtzen banengo bezala.

Célinerren liburuko orrietatik hatz-mamietara, hartzetako lotailuetan gora, zainetan barrena harra azkura kutsadura izurria? Afrikako oihaneko malaria kutsatu dit Bardamuk? Céline da idaztearen harra berpiztu didana. Bardamuk eskerrak medikua den ukondotik zentimetro batzuetara odol azterketarako xiringa bidezko drogarako garrotea lotzen lagundu dit.

Hamabost egun! Nolatan utzi naute hemen bakkarririk medikurik gabe botikarik gabe? Okerrago! Céline-ekin! Sukarra. Puzten ari zait eskua, besaburua zornatuko gangrenatuko zait eztanda egingo dit askatzen ez badut.

- Ez askatu, Bardamu! -agintzen dio Célinek-. Oso arriskutsua izan daiteke, askatu eta ez badu eskura zerekin idatzi, edo baita zerekin idatzi eskura izanda ere ez badaki zertaz idatzi. Konortea gal lezake, koma literarioan sartu.

- Eman, emadazue idaztekoa! -erregutzen diet medikuari idazleari-. Azkar! Fite! Orri zuriak eta boligrafo beltza besterik ez bada ere!

- Zertan ari haiz, sukar-ametsetan hago.

- Brodsky! Hator! Lagundu egidak!

- Orain idatzi nahi al duk? Céline irakurri eta idazle sentitu al haiz bat-batean?

- Hik ulertu behar didak, Brodsky! Hik badakik!

- Zertarako nahi duk idatzi? Entzun egidak, entzun arrazoia ren aholkua: hire idazlearenak aspaldi egin zian -diost iraganetik Saint-Sulpiceko Egonarriak bere idulkian fosilduta.

- Berdin zait, ez zait axola, igual zait, je m'en fous! Jan, lo, edan, larrua jo eta idatzi, idatzi, idatzi... Ez dago idatzi gabe bizitzerik.

Askatu dut garrotea, boligrafoa eta orri zuriak, irakurri ahala esaldiak euskaratzen ditut gauza jakina da jendeak ez duela hurkoari esateko ezer, norberak bere tristurez baino ez du hitz egiten, hitzez hitz, ba-koitzak berea, lurra denontzat, nireak bailiran, saiatzen dira, maitasunaren unean, beren tristura hurkoaren-rena isurtzen, ez dute lortzen ordea, eta beren baitan gorde behar izaten dute, oso-osorik, beren tristura, eta saiatuko dira berriro ere, eta tematuko dira beste behin ere beren tristura besterenganatzen, alfer-alferrik gizajoak, esaldien urlasterrean istorioak bururatzen zaizkit, alfer-alferrik gizajoa.

Nire iraganean aztarrika nabil.

Begiekin orde z hatzekin ikusten nuen garaiak berpiztu zaizkit.

Hatz minberak herdoilduak begiratzean nire bihotza ikusten dut.

Urrutitik, atoiontziak ziztu egin zuen, haren deiak zubia pasatu zuen, beste arku bat, beste bat, eskusa, beste zubi bat, urruti, urrutiago... Beregana deitzen ziztuen ibaiko gabarra guziak, denak, eta hiri osoa, eta zerua eta soroak eta gu, denok, eramaten gintuen eta Sena ere bai, dena, akabo berriketa bukatu da bukatu dut hustuta nago.

Azken orrialdean liburuaren jabeak «Un salaud, mais quel écrivain!» idatzi du biribil baten bildutako «A» baten ondoan.

Liburua harrika bota dut bi dorreen aurka.

Oihu egin dut.

Lastairan etzan naiz ahoz gora.

Begiak itxi ditut.

Kaxk! kaxk! jo dute ganbarako ate irekian.

- Ongi al hago?

Izututa jaiki naiz. Ez dut inor etxaldera sartzen entzun. Ez dakit zenbat denbora eman dudan begiak itxita.

Ganbarako atalasean emakume bat dago, erosketan poltsa bi mukuru beteta, irribarre kezkatiz kopetila.

Begira-begira gelditu natzaio. Duen itxurak, ile motxa udako galtza zuri nasaiak gerezidun mahuka gabeko zilborrerainoko atorra arina, miazkatzeko enbeia pizten duen azal beltzaran gesaldua, lasaitu sorgindu nau, ikusten dudan lehen aldia izanik betidanik ezagutuko banu bezala.

- Bai, bai, ondo nago. Aurrera, aurrera -gonbidatu dut lastairatik jaikitzearekin batera.

Poltsak hozkailuaren ondoan utzi eta txapituletako leihoak plastikoekin itsutzera joan da, deus esan gabe ere errieta egiten ari zait, konturatu naiz akats larri bidegin ditudala: ilundu du argia piztuta dut.

- Oihuak entzun ditiat -esan dit mahai gainekoak bilduz harraskara eramateko.

Beraz, ez dut denbora luzea eman koma literarioan.

Muturra okertu du baxera zikina pilatuta ikusi duenean.

- Ez dun ezer, Célineren liburu bat bukatu dudala,
Voyage au bout de la nuit.

Ez du ezer esan baxerengatik. Une batez harrikoa egiten hasiko zen beldur izan naiz.

Ez du ezer esan anabasagatik, ganbaran barreiatuta dauden liburuengatik.

- Hi Michelleren laguna izango haiz, noski -galdetu diot barregarri gelditzeko batere beldurrik gabe.

Nor izango da ba! Anbotoko Mari?

- Bai.

Muturra okertu du nire albotik igaro denean ere. Kiratsagatik zalantzarik gabe. Izerdi patsetan oharkabean ia garbitu gabe pasatu zaizkit uda mineko bi asteak.

Nola hala nire burua txukuntzen saiatu naiz, bi asteotako erasoaldi literarioak utzitako aztarnak mozerrotzen, militante baten jokabidea berreskuratzen, hutsalki.

Bere arreta desbideratzeko saioan, berari zuzenean nola deitzen den galdetu beharrean nire azkartasunaren erakustaldi piroteknikoarekin jarraitu dut:

- Ni Marc naun.

Eta nor izatea espero zezakeen bada?

Ez nuen uste hain bigunduta nuenik garuna. Eske-
rrak ez diodan eskua luzatu. Edo bi muxu ematera
hurbildu.

Nire burua l'Écrivain bezala aurkeztea besterik ez
nuen behar.

Errukiorra izan da jainkosa burkidea, iruzkin min-
garririk ez, egia ere da horrenbesterako konfiantzarik
ez dugula.

- Eta, gustuko duk?

Aurkezpenen tenorea bukatu da esanez bezala li-
teratur eremura desbideratu du hizketaldia. Ez dit
bere izenik esango, «Michelleren laguna» dela jakitea-
rekin aski banu bezala. Furgonetako «frantses mutua»
bezala bera ere legala izango ote da? Ez ote bera fur-
goneta-gidaria!

- Gustuko?...

Ez dakit nola azaldu azken egunotan Célinek bizia-
razi didana. Ezagunekin ere ez nintzateke ausartuko,
erotzat hartuko ninduketen beldur.

Ez naiz tematuko izenaren kontuarekin, baina be-
girunez bada ere asma zezakeen guda-izen bat nire-
tzat beren-beregi besterik ez bazen.

- Hik irakurri al dun?

- Ez.

Ez dio elkarrizketari erregairik eman.

Isildu egingo naiz ni ere.

- Dena ondo hemen? -galdetu dit poltsak husten hasita.

Uzteko esan diot, denbora sobera izango dudala gero ere erosketak txukuntzeko.

Ganbara dagoen egoeragatik gaitzespen begiradak ihes egin dio.

Preso ohi kartzelatik kanpoko pertsona ezindutzat hartuko ninduen. Edo okerrago, iraultzaile inkoherente ar ganorabakotzat.

- Bai, dena ondo. Ez dinat inolako arazorik izan, ez ezer arrarorik ikusi. Egunak azkar, azkarregi pasatu zaizkidan, oharkabean, Michelleri gutuntxo bat idatzi nahi nionan. Ez dinat bukatu...

Hobe nahaspilagatik aitzakiarik ez asmatzea, Luix Pernandoren bizkar ez botatzea ganbarako paisaia desolatuaren erantzukizuna.

- Hamabost egun barru arte orduan -bota dit alai. Ai, badoa! Hain azkar?

-Hurrengoan Michelle bera etorriko da beharbada -gehitu du.

Presatua da badaezpada ere nirekin ez luzatzeko aginduko zioten ez da kalaka literariora etorri.

- Bai... -irribarre tristeak ihes egin dit.

Ez joan ez joan gelditu pixka batean hemen nirekin hamabost egun inorekin hitz egin gabe asko dun.

Azken unean zalantza egin itzulia hartu eta galde-tu dit:

- Hi ez al hintzen idazlea?

Ez hakio meniskoaren esku ebatondoan konpromisoaren luma eta ezpataren erretolikarekin has, gero!

- Bai. Nintzen.

Kito. Ondo!

- Eta zergatik ez duk baliatzen hemengo egonaldia zerbait idazteko? -esan dit eskuarekin ganbarako anabasa erakustearekin batera.

Izoztuta utzi nau. Zer esan nahi izan dit? Ez zait iradokizun bat iruditu, agindu bat baizik. Ganbara txukuntzeko eta idazteko. Zerbait probetxuzkoa egiteko. Ez uzteko nire bizia jitoan. Diziplina pixka bat.

- Izango duk zertaz idatzi, ezta? Eta orain astia ere sobera duk.

Hori da, nire bizitza txukundu antolatu eta idatzi.

- Bai -esan diot eta ez dut jarraitu hitz-totelka has-teko beldurrez.

- Aio, Idazle! Ea natorren hurrengo aldirako ipuin politen bat idatzi didaan!

Lauhazka jaitsi ditu eskaillerak.

Lauhazka utzi dit bihotza.

- Aio, Michelleren laguna!

Ez dut uste entzun didanik.

Joan da.

Garajeko atearen negarrik ez dut entzun. Bizikletaz oinez etorriko zen autoa badaezpada ere urrun samar utzita beste burkide baten zaintzapean Durruti-baitha zelatatzen ote duten zuhurtziaz.

Erosketak hozkailuan eta apaletan ipintzean ohar-tu naiz ez diodala esan ordenagailua ekartzeko. Harrikoa egiten oroitu dut iratzargailua. Neure burua garbitzean bizarra egitean ez diodala ezer eskatu. Arropak beratzen jartzean dena eskatuko niokeela. Dena eskatuko diodala.

Izengoiti bat asmatu behar diot Durruti-baithan agertu zaidan Mariri. Kontu handiago egin behar dut txapitulako plastikoeekin. Niri buruzko txostena egingo du agian. Oso gaiztoa izan gabe ere ez da nire oso aldekoa izango. Ez nagoela nire onenean esango die bakardadeak Célinek ez didatela onik egin zerbait egin behar dela arriskutsua izan naitekeela ere bai behar-bada.

Baietz hurrengoan Michelle bera etorri.

Ganbara txukuntzen eman nituen hurrengo bi egunak. Berriro ere eguneroko azturak eta jarduerak berreskuratzeraz deliberratu nengo. Hamabost egunetako egutegitxo bat egin eta plangintza zehatz bati jarraituz antolatu hurrengo hitzordura arteko tartea.

Michellerentzako gutun-txostena azken ordurako utzi gabe segituan idazten hastea hobe. Bera edo Isabelle, horrela izendatu nuen jainkosa, etortzen zirenerako prest egongo nintzen, egunez eguneko gertaeren kronika, behar nituen zerrenda, egoera politikoari buruzko hausnarketatxoak kartzela fronteari buruz ez ezik arlo politiko hertsuari zegozkionak ere bai agian.

Amaitu dituk oporrak.

Eta nire buruari ezarritako zereginak bukatuta, ordu libreetan Céline ukenduz lotailuetan herdoila kendutako hatzekin ipuin bat ez bazen poema bat idazten saiatuko nintzen.

Ganbarako zorua errazten ari nintzela aurkitu nuen liburutegiaren behe-apalean entziklopedia eta li-

buru ilustratu handi batzuen artean ordura arte nolatan ez nuen ikusi sinesgaitz egin zitzaidan idazmakina.

Txapitulako leihoaren azpi-azpian kokatu nuen mahaia.

Material irazgaitzeko zorro gris kremailera apurtu hausduna kontu handiz heldulekutik hartuta hautsiko zen beldur eraman nuen bertaraino. Mustuka batekin emeki-emeki bildu nuen urtetan pilatutako hauts-geruza harraskara joan-etorriak eginez.

Ez ahal da matxuratua egongo.

Atera dut zorrotik.

Olivetti bat!

Idortuta du zinta gorri-beltza. Zorionez erabili gabeko tinta-bobina gorri-beltz bat dago plastikozko zorroan ondo bilduta.

Aldatu diot.

Orri zuriz elikatu dut arrabola.

Nola hala zanpatu ditut teklak.

Klak klak klak klak klak klak.

Arrabola birarazteko palankari eragin lerro berria hasteko.

Klak klak klak klak klak klak.

Zikinduta atera da orria. Biziberrituta.

Behiala idatzi nituen poema artikulu ipuin antzerki minez ditudan hatz-mamiekin teklatur ferekatu dut atsegalez, zakatzekin arnasa egiten ikasi nuenez gerroztiko antzutasunari amaiera emanaz:

«Autotik jaistera zihoala gertatu zen errepide nagusitik ezkerretara artasoroen artean barneratzen zen bidexkaren zabalgunean batean aparkatua zuten ibilgai-lua nabarmentzen ez den horietakoa eranskailurik gabe Juanmiguelentzat garraio-zereginetan hasi zene-tik hark agindu bezala kendu baitzizkion Goldorakek presoan herriratzearen aldekoa Baigorriko Nafarroa-ren Egunekoa eta AEKrena».

Txapitulako leihotik sartu zen eguneko lehen argitasunak idazten harrapatu ninduen. Nire aspaldiko aberri txiki ahantzian, nire atzerri dultze berraurkituan.

Bihar betetzen dira hamabost egunak.

Bihar gauean berandu etorriko da Michelle edo Isabelle.

Biharko eguna ganbaraeta nire burua txukuntzen pasatu beharko dut.

Hiru txapituletako leihoak plastiko beltzarekin itsutu.

Ez dut irratia entzun aspaldi. Guztiz ahantzi dut egunotan gure bila ibiliko zirela. Garunaren eta hatzen erritmo koordinatura sortu istorio sentimenduen zora-bioan inoiz baino babestuago ziurrago sentitu naiz.

Arduradunarentzako txostenean gehitu beharko dut bart garajeko atearen negarra entzun nuela, eguna aurreratuta, ni ezustean harrapatzeko hau ez dut jarriko, agian beraiek izango zirela pentsatu nuela aurrena. Baina jauretxeko atetzarra giltzaz ireki eta barrura sartu ordez ate-joka aritu zirenez, helbidez okertutako norbait izango zela ondorioztatu nuela. Leiho-saretetako zirrikituetatik denbora luzez zelatan egon arren ez nuela inor ikusi.

Ea zer dioten.

Idazmakinan dago azken orria, azken paragrafoekin, eta gaurko amaiera-datarekin.

Olivettiaren eta sotoan aurkitutako Armagnac botila hustuaren ondoan, haurgintza-minetan egunotan sortutako orri mordoa txukun pilatuta, lehen orrian hitz larriekin izenburua: «ATZERRI».

Eskuetan hartu orriak hatzekin laztantzean zorio-
nezko irribarrea loratu zait.

Hau zen idatzi behar nuena.

Berpiztu naiz.

Atzerri

GOLDORAK

1

Autotik jaistera zihoala gertatu zen.

Errepide nagusitik ezkerretara artasoroen artean barneratzen zen bidexkaren zabalgunee batean apar-katua zuten ibilgailua, nabarmentzen ez den horieta-koa, eranskailurik gabe, Juanmigelen zat garraio-zere-ginetan hasi zenetik hark agindu bezala kendu baitziz-kion Goldorakek, presoek herriratzearen aldekoa, Bai-gorriko Nafarroaren Egunkoa eta AEKrena.

Ibaiari bizkar emanda zeuden, tenorea iristean abiatu eta heldu bidexkatik errepide nagusira aterat-zeko prest.

Ezkerretara begiratu gero, zuhaitzen masa iluna-ren artean, Ahurtiko zubia ikus zezaketen.

«Horra berezko muga, eta ez Santiago zubikoa», zioen bere kantuan Juanmigelek, eserlekuan bere hanka luzeentzat jarrera erosoaren bila. «Bazakitek, bai, hedexuriek non ezarri bide-kontrola. Davidek dioen bezala: bertan paratuko diagu ikurrina indepen-

dentziaren egunean! Mugazainik ez, gero! Ez diagu hainbeste urtean borroka egin muga berriak ezartzeko».

Daviden zain anarkoa, haren matxista-lehenista plantak baino gehiago maite duena Juanmigelek.

Ilbete gau garbia, margulduta bada ere egun argitan bezala nabarmentzen dira ingurukoak. Zubiaren mutur bietako biribilguneetan ez da Jendarmeriaren ibilgailu zelataririk ageri.

«Kaleko jantzita egon daitezke, hala ere, igarotzen diren autoen matrikulak hartzen. Kamera bat ere ba omen dago, ez du inork ikusi ordea. Asmakeria izango da. Izango ahal da!».

- Itzali motorra?

- Bai, pixka batean itxaron beharko dugu hemen.

Goizegi ez iristeko.

- Zenbat denbora?

- Esango dizut.

Gidariak motorra eten eta leihatila ireki duenean Aturriren freskura hezea sartu da auto barrura. Txanbergoa lotu du. Lo asko egin gabe darama aste osoa. Kilometro batzuk metatu ditu ipurmasailetan oraingotan ere. Ondoren, beti bezala, oinen artean daraman motxila ukitu du, senez, ohituraz, hor dagoela ziurta-

tzeko. Bai, hor dago. Ordenagailu eramangarria eta inprimagailu txikia, uhin-detektigailua, irratitxoa, lozakuak, aldatzeko muda bat, irakurtzeko astirik hartzen ez duen Pérez Busteroren *Vascones*, bizarra egitekoak, hortzak garbitzeko eskuila. Txanbergoaren barruko poltsikoan eskanerra darama entzungailu bakarrarekin eskuineko belarrira konektatua.

Nora nahi duk joatea? egingo ziokeen errieta goxoa Kattalinek. Gustura ibiltzen zen harekin; eta ez neska zelako, Davidek adarra jotzen bilera guztietan esaten zion bezala. Hura ere erre zen arte. Edo erreta zegoen susmoa izan zuten arte. Ez gara inoiz aski zuhurrak. Horra, Juanmigelen leloa.

Lasaitua hartu zuen gidari lanetarako Kattalin ordezkaturako zuen norbait prest zegoela esan ziotenean. Gainera, garbi zegoela: Goldorak.

Egoeraren azterketa lasaia egiteko astia hartuko balu, baina astirik ez du hartzen ia lo egiteko ere, hautemango luke ezinegona sortzen dioten aieru ilun guztien jatorria bertsua dela.

Gidariarekiko hitzordurako babes-etxetik irteten denean, zergatik botatzen du bada «Banoa nire txakurrarengana!» txantxa-doinu mikatzez?

Ekik errieta egiten dio beti:

- Ostia!, ez jolastu kontu horrekin. Txakurra dela uste baduk ez joan, utzi, bilatuko diagu beste garraio-modu bat.

- Noski, txakurra dela ziur banengo ez ninduken joango. Ez zakinat ordea. Diodana dun, inoiz txakur bat infiltratu nahi balute horrelaxe egingo luketela. Berandu noan. Ez dinat nahi zein norabidetatik agertzen naizen susma dezan. Badaezpada ere.

Goldorakek ez dio Kattalinekek egiten zizkion txantxa edo iruzkinen antzekorik egiten. Ez dio Lapurdiko rock musika-taldeen maketarik ekartzen, ez datorkio hura bezala feministen ikurraren biribilean lehergailua irudikatzen duen elastiko engaiatuaren tankerakoe-kin. Arretatsua bezain isila eta esanekoa da. Txukun jantzita etortzeko esan zion lehen egunean, berak atorra zuria eta ttattarra janzten baitu TGVz bidaiatu behar duenean, eta soil baina arreta deitzen ez duten arrokekin etortzen zaio beti. Itxuraz, kolore marroi eta berde ilunekoak dira Goldorakek gehien preziatzen dituenak. Hitz gutxi eta galdera gutxiagoko mutila. Aspergarri samarra ere bai, aukeran. Izengoitia aldatzeko esan behar dio halako batean, zinez itsusia eta infantila baiteritzo.

Juanmigelek ere ez du berarekin kalakan aritzeko gogorik izaten autoan. Nahiago du gogoeta egin.

Kide guztiak dabilta kezkatuta Goldorakekin; «zure txakurrarekin», esaten diote. Errotarrira lotutako astoak geldituko dituenik ez dago ordea. Beti aitzina. Atzerako urratsik ez, ezta indar hartzeko ere.

«Hormaren kontra jotzen dugunean ohartzen gara. Eta orduan ere ez dugu altxatzen hanka azelera-gailutik. Horrela egin dugu honainoko bidea. Kenduko da halako batean paretik pareta», egiten du gogoeta Juanmigelek, oraindik gizon gaztea den arren, bizitakoak eman dion esperientziaren talaia mingotsetik polizia-operazioen gudaldi osteko paisaia desolatuari begiratzen dionetan. Zaurituez arduratzeko meniarik ere ez du ematen etsaiak. Aurrera egin behar, beraz. Irabazi arte.

Berez, gauza gutxi esaten dio gidariari. Elkartzen direnean zein norabidetan abiatu behar duten soilik: «L. hirirantz». Edo «P.rantz». «B.rantz». Hitzorduaren ordu eta lekurik ez dio ematen. Bidegurutzetara iritsi baino lehentxeago jakinarazten dio «ezker», «eskuin» edo «zuzen» joan behar duen. Hitzordura berandu iritsiko direla kalkulatzeko badu, sakatzeko azeleragai-

luari. Noizean behin, «Ondo zoaz horrela, garaiz iritsiko gara», esaten dio lasaigarri.

Lehen hitzorduan jakinarazi zizkion baldintzen artean esan zion politikaz ez zutela hitz egingo, eta ekintzei buruz ere ez, berak nahi bazuen bere iritzia emateko, hori bai. Beren bizitza pertsonala ere ez zutela hizketa-gai hartuko. Horiek izan ziren Goldoraki jarri zizkion «hitzarmenaren» baldintzak. Kattalinekekoen guztiz desberdinak. Harekin politikaz, ekintzez, presoen egoeraz eta baita ere tarteka bihotz kontuez ere hitz egingo zuen. «Neska zelako!», esango ziokeen Davidek gaizto. Ez zuen uste, nahiz eta bere barnean «agian» zalantzati bat ñirñirka sentitu.

Gainontzean, begirunezko harremana dute Goldorakek eta biek. Begirunea eta eraginkortasuna dira funtsezkoenak. Eta horretan mutilak ez zion hutsik egin ordura artean: hitzordu guztietara ordu-orduan agertu zitzaion, autoa beti prest, ezantza tankea goraino, olioia, ura eta gurpilen presioa begiratuta. Kanpotik zein barrutik garbi, hautsontziak hustuta.

Bere isiltasuna arrazoitzeko, zerbitzu sekretukoek, pikoloek, RGkoek, CIAkoek, Mossadekoek, autoari karramarroa itsats diezaioketela eta ez dela komeni gehiegi hitz egitea esan zion.

«Hasi al gara berriro ere espioi-liburuak idazten?», esango lioke trufaz Davidek.

David ondo ibiltzea espero du. Bere izaera zakar eta andrezalea gorabehera, bera baino militante zorrotzagorik ez du-eta ezagutzen. Sekula aitortu ez badio ere -eta hobe ez aitortzea ez badu haren purrustada ezagun horietako bat jasan nahi-, haren ikasletzat du bere burura.

«Ez dago ordezkatu ezin den inor, baina batzuk besteak baino ordezkaezinagoak dira», esaten dio begi bat kliskatuz, beraz ari dela zalantzarik ez dezan izan.

Horrelako txantxa bat aski da Daviden aldartea garrazteko; segur aski, horrelako aipu txatxuek bizkarran daraman zama oroitarazten diotelako.

Ez da arinagoa Juanmigelek daramana, eta bera aldiz beti dabil umore onez. Zoriontsua naizelako, pentsatu du bere baitarako irribarre eginez.

Goldorakek ez dio sekula deus galdetzen, horregatik harritu da bertan zenbat denboraz egon behar duten itaundu dionean. Juanmigelek ez ditu galderak maite, baina gidari lanetan dabilenaren hori bereziki lekuz kanpokotzat jo du. «Zer ardura zaio berari zen-

bat denboraz egon behar dugun zain? Nik esaten dudanean abiatuko gara, eta kito!».

la galdera egin izana txarretsi dio, baina ez du mutila umiltzerik nahi. Hobe da orain arteko harremanean orbanik ez sortzea. Oro har ondo ari da-eta lanean.

Edonola ere, Goldoraken ezohiko jokabide horrek ordura arte izandako aurrentimendu gaiztoek ernatu duten kimu pozoitsuari bazka eman dio.

Ordua begiratu du, oharkabean, gero bere kaier txoko «Aieru» ataleko zerrendan gehitu beharko duela pentsatuz. «Gldk-ek zenbat denboraz zain galdetu» idatziko du dataren ondoan. Burkideekin elkartutakotan kontseilua eskatuko die, berriro.

Oraindik hamar minutu abiatu aurretik, hitzordu lekuraino beste hogei minutuko ibilbidea, bederatziak eta hamarretan ttanko iritsi herriko plazara, gelditu, doi-doi jaisteko, eta ordu laurdenez bidean aurrera egiteko aginduko dio Goldoraki. Autoa desagertu bezain pronto hilerri ingurura hurbilduko da, kez gainezka argiak itzalita gidaria eta beste bi burkide dauden autoan presaka sartzeko: aupa aupa dena ontsa? Goazen. Goldorakekin kristoren moskeoa diat, esango die autoa abiatu ahala. Oraindik horrekin al habil Juan-

migel, ostia!, uzteko esan genian, egingo diote errieta. Ba al duzue garraio-zereginetarako norbait soberra?, ihardetsiko die gozakaitz.

Goldoraki dena behar bezala joan den ikusteko atzera plazatik igaro behar duela oroitaraziko dio autotik atera aurretik, eta ez badu bertan ikusten, dena behar bezala joan den seinale, alde egiteko lasai, hurrengo hitzordua paper zati batean idatzita emanaz, «Buruz ikasi eta desegin papera, e?» esango dio behin autoko eskularruen kutxan hitzorduaren papera aurkitu eta errieta egin zion aldi hura oroitarazi nahi dion doinuz. «Ez berriro gertatuko», desenkusatu zitzaion orduan, urduritasunagatik aditz laguntzailea ahantzita, maiz egiten zuen bezala. Maizegi Juanmigelen gusturako. Nahiz eta mutilak euskara ikasteko egiten zuen ahalegina benetan preziatzen zuen, gramatikari ematen zizkion ostikadek ilea lazten zioten.

Ez du uste inor segika ekarri dutenik ibai bazter horretaraino, baina bizpahiru auto susmagarri erreparatu ditu ibilbidean zehar, bidegurutzeetan estrategikoki kokatuta, beraien autoa noiz pasatu zain bezala, atzetik kilometro gutxi batzuez izan dituztenak.

Euskal Herrira hurbildu baino lehen Landetako basoan sartzeko agindu dio. Autoa gelditutakoan, moto-

rra eten eta beti bezala begiak itxita egoteko eskatu dio, autotik atera gabe. Susmatzen du uhin-detektagailuarekin autoari itzulia mantso-mantso ematen dion bitartean, begiak itxi arren, betileen artetik zeltan edukitzen duela, jakin-minak leialtasunik ustez eta sendoenak nola birrintzen dituen ongi ikasia baitu dagoeneko. Ez zaio asko axola, eta alde batera nahiago, zertan ari den ikusten badu ere begiluzearen galderak ekiditen baititu horrela.

Ez da argi gorri salataririk piztu. Nolanahi dela, adituek diote hori ez dela deusen bermea, karramarroa ondo ezkutatuta egon liteke eta seinalea hamar minutuan behin igorri.

Oraingoan ez dio bidegurutzeetako autoek eragin dioten susmoen berri eman Goldoraki.

Susmo txarra areagotu dion beste zerbait gertatu baita gaurko bidaian. Une batean, bera erdi lo zihoa-la, autoa bide bazterrean gelditu du Goldorakek. Bidean zegoen adar batek autoaren azpia jo ote duen irudipena izan duela eta dena ondo dagoen ikusi behar duela aitzakia.

Autotik atera eta aurrealdera joan da. Ez du ezer egin ordea, ez du autoaren azpialdea begiratu ezta kapota ireki ere. Begira-begira gelditu zaio une batez.

Orduan konturatu da Juanmiguel, Goldorak ez dela autoan gidari doanean ematen duen bezain txikia. Gihartsua eta bizkar zabalekoa begitandu zaio bat-batean. Deus esan ez dion arren, burukomina eragin dion perfume merke bat ere bota duela konturatu da autoan sartu ahala. Lehen aldiz bibote fin bat utzi du hazten, gainera. Aldatuta dago.

Pistola balu, pentsatu du Juanmigelek, nahi erara hementxe bertan tiroz jos nintzakeen.

Bidean lokartu den bitartean Goldorakek ohitura duena baino gehiago sakatu bide dio azeleragailuari. Hitzordurako goizegi zebiltzala konturatu da esnatutakoan eta horregatik, bidean atzera eta aurrera kontrolen batekin topo egiteko zoriarekin jolasean ibili ordez, denbora egiteko txoko lasai bat aurkitzea hobetsi du; aproposa iruditu zaio ibai bazterreko artasoro hau.

Ilbete ederrak, leihotik sartzen den haizekirriak, artasoroaren dantzak, kilkerren kantuak, zigarreta bat erretzeko gogoia piztu diote. Zigarreta bat erretzeko lain denbora badute. Buruz kalkulatu du zenbat ordu daramatzen erre gabe. Eguneko bosgarrena baino ez da izango. Badaki, ordea, goizaldea iritsi orduko ketuko duela paketea. Birikak, mihia eta garuna bezain unatuta hasiko du datorren astea. Aipatu izan du bile-

retan, ea kaptatze-aparatukoek ez erretzaileei Era-kundeko sarrera galarazten ote dieten; ez bada mili-tante bihurtuz gero denak erretzen hasten direla. «Etsaiak ez, Tabacalerak garaituko gaitu». Alferrik da bileretan aldiro zigarro bakarra piztuz txandaka erre-tzeko erabakia betearazten saiatzea.

- Zigarreta bat erretzera irtengo naiz.

- ...

- Zuk nahi al duzu.

- Ez -erantzun dio, burua astinduz, hortz-artean, lehor, Goldorakek.

«Honek badik zer bait, gaur, bai», pentsatu du Juanmigelek.

Zurrun dago Goldorak, bi eskuez bolanteari heldu-ta oraindik, atezuan. Azken bi hitzorduetan erakutsita-ko jarrera aldaketak zer pentsatua eman dio Juanmi-geli. Hortzak estututa, matrailezurra tentsioan gida-tzen du orain. Ez da hasieran ezagutu zuen gidari ziur, alai eta lasaia. Bazerabilen harren bat. Aurreko asteko ekintzagaririk izango zen?

Elkar ezagutu zuteneko hitzorduan baldintzak aur-kezten ari zitzaizkiola, borroka armatuaren aldeko de-fentsa suharra egin zion mutilak, Juanmigelek horretar-ako bide eman gabe. Suharregia Juanmigelen gustu-

rako. «Putasemeak akabatu!» pare bat bota zituen bere hitzek espero zuen erreakziorik ez zutela sortzen oharu aitzin.

- Borroka armatua tresna bat da, ez helburu bat. Gure herrian egoera demokratikoa lortzea da gure helburua, bizi dugun zanaketa politiko, ekonomiko eta militarra gainditze-bidean jartzea -esan zion hezkuntza politikorako liburukiko esaldia buruz errepikatuz.

Goldoraken grina erakustaldi hori hezkuntza-politiko eskasari egotzi zion orduan Juanmigelek, txosten batzuk eman beharko zizkion irakurtzera. Haren kartsutasuna aizuna eta hanpatua ere iruditu zitzaion, lehen hitzorduko urduritasunari egotzi zion haren jarrera. Orain zalantza gehiago du Goldoraken benetako pentsaeraren inguruan, Erakundearen borrokari buruz duen zinezko iritziaz.

Goldorakek egun osoan erabili duen jarrera mutu eta itxiak itolarria eragin dio Juanmigeli. Zeharka begiratu dionean konturatu da matrailezurak estututa zituela.

«Neguan eltxoak uxatzen habil, motel», esan dio bere buruari, «ez duk deus izango».

Bidaian sentitzen hasi den deserosotasunari eta aspaldi garbitu ez denaren kiratsarekin nahastuta iristen zaion perfume sarkorrak sortzen dion itolarriari ihes egiteko ere irten nahi du autotik Juanmigelek.

Oraingoan Goldorak noren bidez eta nola ezagutu zuten aztertzeke astia hartu behar du burkideekin: harekiko hitzorduetan susmagarri iruditu zaizkion une eta egoerak zerrendatu, harekin egindako joan-etorri guztien ondorioz arriskuan daudekeen azpiegitura eta laguntzaileen izenak zerrendatu. Badaezpada ere.

Izango du astia Juanmigelek, bai. Uste baino guxtiago, ordea, eta ez dio askorako balioko.

Autoko atea irekitzeko imintzioa egin duen unean Goldorakek mugimendu azkar eta zehatzez ezkerreko eskuaz Juanmigelen ezkerreko besoa irmo oratu eta eskuinekoarekin ordura arte izterren artean ezkutatu-ta izan duen injekzioa hartu eta lepoaldean sartu dio.

Ziztadak burua itzularazi dio Juanmigeli, bere besoa indarrez heltzen duen Goldoraken eskuari begiratu dio aurrena, eskuin eskuarekin gerrialdean bala gelan sartuta tiro egiteko prest daraman Browninga hartzen saiatu den bitartean.

Goldoraken agindua, entzun du, lehen aldiz gaztelania garbian:

- ¡No te muevas ni un pelo si no quieres que te mate aquí mismo!

7,65 munizioa jaurtitzen duen pistola txiki bat dauka Goldorakek eskuan, bere lokiaren kontra min egiteraino estutuz, kanoiaren ahoarekin larruazala urratuz.

Beranduago, gertatutakoaz hausnartzen, konturatu da gizakiaren biziraupen senak bultzatu zuela agindu horri obeditzera. Hobe arrazoiak agindu izan balio eta hortxe bertan akabatu izan balu.

Ez zuen gertatzen ari zena barneratzeko astirik izan. Leotzeko ilunean behin eta berriro ikusiko du gertaeren segida, kamera geldiarekin filmatuta bezala. Saiatuko da oroitzen pentsatu zituenak, saiatuko da asmatzen beste aukerarik izan ote zuen. Inori iritsiko ez zaion autokritikaren atalak antolatuko ditu buruan, inoiz aukera izanez gero idazketa errazteko asmoz, pentsatu du, ikaraz jabeturik esperantza dela galtzen den azkena. Besterik gabe izu-laborriari adimen-barrikadak ezartzeko aztertuko ditu gertatutakoren xehetasun guztiak, ahalik eta gehien atzeratzeko gorputzaren oinazeak gogoaren agintea hartuko duen unea.

Aukerarik utziko ez diotela dakien arren, ezin itzuri dio dena xehe-xehe aztertzeke ohiturari: egoeraren azterketa –«abagune azterketa» garai batean–, arrazoiak, ondorioak, egoera, helburuak, aurrera begirako ekimenak.

Metodoa, Juanmiguel, urratsez urrats. Hik irudikatzen duana azaltzeko ahalegina egin behar duk. Hitzeekin, esaldiekin, irudiekin, metaforekin. Politika ere artea duk. Aurrera begirako ekimenak.

Aurrera begirakoa da huts egiteko arriskurik gabe iragarri ahal izango duen bakarra, aurrera begirako ekimenetarako aukera oso epe laburrean bukatuko zaiola; betirako.

Hori da bederen bihotzez esperoko duena, sufrikarioa ahalik eta laburrena izatea.

Ez da bere esku egongo ordea. Eta hasieratik berarekin erabiliko duten tratu aratzak zaildu gabeko bati beste zerbait iradoki liezaiokeen arren, berak aski ondo jakingo du, poltsa elektrodoak kolpeak ez du pentsatu nahi filmetan begiak itxi aurretik ikusitako beste metodo basagoekin, beste ezer ez dakiela erabateko ziurtasuna izan arte, hil-hurren utziko duten arte, ez diotela arnasarik emango.

Goldorakek zemai egin eta ia segituan nabaritu zitu-
tuen giharrak laxatzen, logura ekidinezin bat, kaske-
zurra berunezkoa kristalaren kontra kolpez erori zi-
tzaion 7,65etik aldenduz.

2

Denbora igaroko duk hire desagerpena ziurtatu
baino lehen, harrituko dituk ez haizelako hitzordura
agertu, segurtasunekora joango dituk, eta kito; gero
astebete luzea pasatuko duk bazterrak mugitzen has-
ten direnerako, hurrengorako larrialdiko prozedura
hobea finkatu beharko diagu, pentsatu du Juanmigele-
lek, hurrengoko horretan bera ez dela izango bere bu-
ruari aitortu gabe.

Ahalik eta gehien eutsi behar diok erorketa larri-
ren bat ekar dezakeen informaziorik eman baino
lehen. Garrantzi gabeko informazioa ematea izango
duk hoberena. Edo, bururatzen zaio, ez ote da hobe
izango hasieratik garrantzi handiko informazio bat
ematea torturatzaleei, informazio hori segituan era-
biltzeko tentaldiari ezingo diotelako eutsi, eta kideak
ohartuko direlako berak baino ezin izan diela eman in-

formazio hori, horrela konturatuko dira bahituta dagoela, etsaiaren eskuetan dagoela eta gainontzekoa salbatzeko neurriak hartuko dituzte. Badaki berak ez duela salbaziorik. Segituan alboratu du ideia hori, Erakundearen gune nagusira bere bidez iritsi dela etsaia ohartzen direnean kideak, informazio hori eman aurretik torturapean beste informazio asko eta asko emango zuela ondorioztatuko baitute, eta dena erretzat emango, ezer libratzeko ahalegin txikiena egin gabe.

Modu batera edo bestera, handitik txikira edo txikitik handira etsaiak informazio guztia aterako dio, beraz. Irtenbide bakarra ahoa ez irekitzea da. Kolpe basei eusteko prest sentitzen du bere burua, basakeria fisikoak bere barruko amorrua elikatuko duela pentsatzen du. Metodo modernoan aurrean ordea babesgabe sentitzen da. Poltsari dio beldurrik handiena. Baina ez du baztertzen drogaren bat ere erabiltzea bere aurka, ez baitute lauzpabost egunen buruan epailearen aurrean aurkeztu behar.

Ez eta geroago ere.

Agertuko ahal da inoiz nire gorpua.

Bere azkenak hilarririk izango ez duen ziurtasuna egin zaio.

Horretarako utzi dute bakarrik ilunpean gela txiki horretan.

Kare bizitan desegin.

Zatikatu eta itsasoari eman.

Erraustu.

Non.

Inon.

Beste desagertu bat gehiago.

Nire txoko kutunetara joango dira negar egitera maite nautenak.

Gure lurrean nahi nuke atsedeen.

Bere saldan egos dadin, beratu, otzan eta belaxka aurki dezaten lehen itauna dinos todo lo que sepas, lehen kolpea matrailezurra xehatu eta hortzak apurtuko dizkion ostikada iritsi aurretik. Irudimen handikoa haiz, ezta? Bada, horra zer izango den aurrerantzean hire menua.

Kendu burutik maite dituanak, ezabatu, ez dituk inoiz izan, ez hago maiteminduta. Erakundea, Erakundea, Erakundea, burkideak, burkideak, burkideak, Euskal Herria, Euskal Herria, Euskal Herria. Ez pentsatu beste ezertan; bestela hire borondatea apurtzeko urrezko maisu-giltza emango diek esku-eskura.

Eskuburdinek min egiten diote. Con dolor o sin dolor proposatuko dio onarena egiten duenak. Gaiztoak zakar baztertuko du déjate de chorradas a este hijoputa le toca sufrir cante o no cante. Zalantza eragin nahi izango diote, azken finean ez dela berak jakin dezakeena interesatzen zaiena, baizik eta mendeku hutsa, haien arma-kide hilengatik, erotuta daudelako, psikopata hutsak direlako, bortxatuko dute, umiliatuko, zertarako balioko die horrek ordea gero inor ez bada horren jakitun. Aski ote zaie beste desagertuen inguruan norberak dituen susmo okerrenekin osatuen irudikeria kolektiboa elikatzeko beste martiri bat sortzearekin. Badaki ezetz. Laranja zukugailuan: bere garunean ondo kodeturik dituen urte luzetako mota guztietako informazioak nahi dituzte. Denak.

Hasiera-hasieratik dena filmatzen ari diren ideia sortu zaio bat-batean. Hori da, dena filmatuko dute, eta bere jokabidearen arabera, komeni zaizkien zatiak ezagutaraziko, beharra izanez gero. Etsaiari informazio osoa lasai ederrean ematen dion traidorea. Lehen mehatxuaren aurrean oilaloka batek baino kakara gehiago egiten duen kakatia. Ahoa ez irekitzeagatik senperrenak sufrituta azkenean esatekoak eta ez esa-

tekoak kantatu zituen heroia. Porrota, edonola ere. Ez du ahoa ireki behar.

Nola egin buruaz beste hanka eta eskuak lotuta. Hori baita argi duen irtenbide bakarra. Tamil Eelam-eko tigreak gogoratu ditu. Zianuro flaskotxoak hagine-tan. Klask. Gurean ez dago ekintzaile suizidarik, ez dago gudari baten suizidioaz babesten den ezer. Eta zergatik ez? Hurrengo batzarrerako eztabaidagai amaiezin berri bat. Berarekin ez dira deskuidatuko ordea.

Egin dezakeena baino gehiago ezin duela egin esaten dio bere buruari. Ahal duena egingo duela. Ez die gehiago hitz egingo, ez pixagurak nago eskatzeko, egarri naiz, ez nortzuk zarete galdetzeko zer nahi duzue. Konturatu da alferrik dela, bere galderen bidez ez duela informaziorik lortuko, kontrako efektua du gainera, hitz egitera bezatzen dutena bera da.

Jadanik ez zaio arrotz egiten bere ahotsa mozorro-ei hizketan. Zer ikasi du ordea? Frantsesez badakite-la? Ez du dudarik egiten guardia zibilak direla, halako-rik ziurtatzeko inolako frogarik ez duen arren. Usaina, esateko zorian egon da. Kaserna usaina, esango luke kideek egingo lioketen galdeketan. Nola dakik pikole-toak zirela? Uniformearen usain berezi hori, txikitan

aita kartzelara ikustera joaten zenean usaindu zuenetik gogotik kendu ezin duena. Usaina eta ateko zaintzan zegoenaren esku lakarra qué niño más guapo bere masailean ¿vienes a ver a papá?

Entzun dituen ahotsak zenbatzen hasi da, arreta aldentzeko gertatu behar den izugarrikeriatik. Hasieran harritu egin da emakumezkoarena entzun duenean. Segituan egin dio errieta bere buruari erreakzio matxista horregatik. Zergatik ezin dira bada emakumeak egon etsaien talde operatibo batean? Torturaztaileen artean. Davidekin izan zuen eztabaida batekin gogoratu da, emakumeek torturatzen krudelagoak izan behar dutela zioen hark, Abu Ghraibeko argazkietan oinarrituz. Krudelkeriak ez duela sexuarekin zerikusirik, berak.

Ezein ondoriotara iritsi ezin den beste eztabaida zentzugabe horietako bat. Xake-jokoan aritzea bezalako da Davidekin eztabaidatzea. Ez du galtzea maite ezta beltzekin jokatuta ere, abiapuntu gisa argudio kaskarrena hautatuta ere, beti bilatzen du gutxienean partida berdintzeko modua. Deformazio profesionala, dio, ulertu behar didak, hirekin eztabaida bat galtzen badut, beste eztabaida garrantzitsuagoak ere gal zi-

tzakeat, eta horrek ondorio larriak litizkek gure borrokaren sinesgarritasunarentzat.

Alferrik da borrokaren etorkizuna ez dagoela pertsona baten une bateko azkartasunaren mende David konbentzitzen saiatzea.

Michellerekin hautsi zuenetik gozakaitz dabil David.

Argia egin zaio. David litzateke zerbait okertu dela konturatzen aurrena. Burkidea, laguna saldu behar al du? Ez da saltzea, mezua izango da, ulertu ahalko du! Lortuko du segadari ihes egitea. Azkar batean hura ere harrapatzera jotzen ez badute.

Dirua non dagoen ez didate aterako. Eta erreserbako armategia ere ez.

Burkideak, armak eta dirua. Zer gehiago behar da? botako du Atharratzek txantxa doinuz.

Ildo politikoa! Haserretuko litzaioke David. Ildo politikorik gabe ez dago ezer! Dirua lortzen da, armak erosten dira. Ildo politikoiari atxikitzen zaio herria. Ez gara lapur-talde bat, ostia!

Beti erortzen da segada berean. Petzero!

Gauza batzuekin ezin da txantxarik egin, joder.

Denok egingo dugu barre.

Denek egingo dute barre.

Ildo politikoa. Azken koiuntura azterketan idatzi genuen, bai, etsaiaren egoera oso desesperatua zela eta berriro ere zernahi egiteko gai izan zitezkeela atakatik irteteko.

Igarleari ehizakia nor izango zen asmatzea baino ez zitzaion falta izan. Eta ehiztaria ehizakiaren gidarilanak egiten zituena zela igartzea. Nolatan ez naiz ohartu. Ez da egia, ohartua nintzen, banekien zerbait ez zebilela behar bezala. Begiak itxi ditut. Berriro ere paranoiko dei ez nintzaten.

Ez naiz fio, ez naiz fio, ez naiz fio.

Hi nortaz fio haiz, Juanmiguel?

Eta isildu egin behar. Egiaz nire buruaz doi-doi fio naiz, baina kiderik fidagarriena ere infiltratu bat dela esango balidate ez nintzateke asko harrituko. Aukera hori beti hor dagoela ez dut ahanzten. Begira Mossadekoak, palestinar emakumeekin ezkondu eta haurrak izatera iritsi izan dira! Eta gero, agintzen dietenean, alde! Nola osa daiteke familia bat maitasunik gabe? Hori ezinezkoa da, maitasuna sentitu behar dute, emazteaganako ez bada beren haurrenganako.

Zazpi ahots denera. Hiru mozorrodun ikusi ditut begietakoa kendu didatenean. Ez dut Goldoraken ahotza entzun, ez zen bera mozorrodunetakoa. Bete du

bere misioa, emango diote domina eta erretreta eder
bat. Bejondeiola. Infernuan.

Infernuan ni nago.

Badatoz.

ALLÔ?

- Allô?

- Oui, c'est moi.

- C'est pour vous.

- Hik hartuko dun?

- Nik?

- Bai, hobeto emango din elkarrizketak.

- Baina bera bada, ez duk agian ideia ona izango nirekin hitz egitea.

- Kontu pertsonalak ahaztu, ados?

- Frantsesez egingo dut edo euskaraz?

- Egin euskaraz, ez dinat uste arazorik egongo denik, segurua izango da telefonoa.

- Kaixo.

- Iepa.

- Nor haiz? Michelle?

- Bai.

- Ostia, aspaldiko! David naun!

- Ezagutu haut.

- Zer moduz?

- Ondo.

- Dantza bat zor didan, maitea, edozein herriko jaixetan.

- Bai, noski. Eta gaurkoan zer izango da?

- Bi ebaki eta zurito bat.

- Eta beste ezer?

- Neska! Zer dun, hilekoa? Ezin al da txantxarik egin?

- Nahi duk Bernardekin hitz egin?

- Hor al dago?

- Hik zer duk, gorreria edo beste arazo larriagoren bat?

- Esan Bernardi autoari motorra izorratu zaiola eta autobusez egin behar izan dudala bidaia.

- Itxaron.

- Bai, David duk. Esaten dik autoa izorratu zaiola eta autobusez dabilela.

- Ekarri telefonoa! David?

- Aupa, Bernard!

- Ziur al hago?

- Hiri zer iruditzen zaik?

- Seguruan hago?

- Ez nitek deituko bestela. Eta zuek?

- Baietz espero diat, bestela... Zer gertatu da?

- Ez zakiat. Gainean nitian.

- Ziur?
- Zalantzarik ez.
- Nola da posible?
- Ez zakiat. Jean-Michelen berri ba al duzue?
- Ez. Zer ba?
- Begiratu ezak ea dena ondo dagoen bere atalean.

- Ados, baina datorren astera arte ezinezkoa izango duk.

- Bernard, arazo larriak ditugula uste diat.

- Ados; argi ibiliko gaituk.

- Ba al duk estutasunetik ateratzeko zerbait niretzat?

- Une honetan ezin diat ziurtatu ehuneko ehunean, baina normalean balekoa behar likek. Kodeak hirekin al dituk?

- Bai.

- Gure mapa ere bai?

- Bai.

- Entzun, lotura-hitzordu bat duk, lehen hitzordua, beste norbaitek joan behar dik baina lortuko diat gelditzea. Ager hadi hi eta azaldu egiok gertatu dena. Honezkero azpiegitura lortua behar likek. Hoa hara eta ondoren moldatuko gaituk.

- Leku segurua al duk?

- David, niputaidea.

- Bale, bota.

- Aguraingo kaian, gauerdian, 2015eko uztailaren 7an. Txano berdea eramango dik. Hik bokatarako behar dena duen galdetu. Cervantinoz.

- ...

- Hartu al duk?

- Bai. Aguraingo kaian, gauerdian, 2015eko uztailaren 7an. Txanoa eta bokatarakoa. Lehenean huts eginez gero, ohiko segurtasun hitzorduak, ezta?

- Bai, beti bezala. David, zaindu.

- Zuek ere bai, Bernard. Eta emaiok muxu bat kikiñoari arantzak gordeak dituen batean.

- Nahi al diok zerbait esan.

- Uztak, aski xaxatu diat gaurkoz. Hik goxatu beharko duk. Adio, datorren astean deituko dizuet, dena ondo badoa.

- Bale, eutsi, ados?

- Jotake!

DAVID

Berriro ihesi. Oraingoan gutxi behar izan du dagoe-neko ia bi hamarkada irauten duen bidaiaren terminu-sera iristeko. Oraingoan ere -noiz arte horrela?- lagunartean harro goraipatzen duen bere seigarren zentzumenak larrialdi-deia garaiz helarazi dio. Ez zegoen oker, ez. Bere zoritxarrerako ordea. Gero eta tresneria sofistikatuagoa ari dira erabiltzen bera ehizatzeke, eta luza gabe sarean harrapatuko dutela gaztigatu dio seigarren zentzumen horrek berak.

Ez du dudarik egiten, zerbitzu sekretuetako morroiak ziren oraingoan. Atxilotuta zegokeen bestela. Eta ez zuten bera hiltzeko agindurik. Ez diote tiro egin; ez dute kamioi baten bidera edo metroaren errailetara bultzatu; edo pozoitu, xiringa batekin, teari gehituko edaberen batekin, errusiarrek beren espia ohi bat kalitzeko Londonen egin berri duten bezala.

Hori du ihesaldi berri honetako lasaigarri bakarra. Oraindik ez dute bere aurkako atzeraezinezko erabakirik hartu estatuko estolderia kudeatzen duten mandatariek.

Izaera baikorrekoa izan da betidanik David. Ezau-garri horregatik gaitzitzen zaizkio kide batzuk, bere baikortasunari gehiegizko iritzita. Davidentzat ordea, bizirauteko ura eta airea bezain beharrezkoa da etorkizuna ikuspegi alaiez ikusteko aitzakia emango dion argudioren bat aurkitzea eta epelean gordetzea.

Horrek ez du baina bere burua engainatzera eramaten. Bere gorputzak aurrera egiteko behar duen ezantza da ataka bakoitzaren aurrean bere gertaerak bere alde izango dituela sinestea.

Orain ordea, apartamentua azken aldiz ikuskatzen ari denean, bere hustasunean nahi baino arrasto gehiago utziko dizkiola etsaiari jakinaren gainean, badaki ozeano gaizto baten ur azalean mantentzen den naufrago-baltsa hondoratzen hasia dela honezkero: bizirik dago bizirik nahi dutelako.

Zergatik eta zertarako ordea?

Atzerriko herrialde batean «Polizia espainiarrak emandako informazioari esker» atxilotuz gero, ez dute bera torturatzeko aukerarik izango. Ehizaki gisa erakutsi nahi al dute? Estatuaren botere ahalguztidunaren erakusgarri, propaganda merkearen bidez bere bizitzari buruzko gezurrak haizatuz indar iraultzaileen borroka-grina inarrosteko?

Ez ote ditu ehiztari barrandariak harrapatu bera bahitzeko argi berdea jaso aurretik?

Ez du hipotesi horri eta ondoren letorkiokeenari buruz hausnarrean segundo bakar bat ere eman nahi. Ez dio utziko izu-laborriari bere gogoan arrakala txikiena ere egiten. Zentzumen guztiak erne behar ditu, eman behar dituen urratsetan kontzentratu behar du. Giharrak tenk eta inguruan gertatzen denaren gaineko arreta oso-osea beretu. Borrokan engaiatu zenetik beti atezuan bizi izan bada, bere bizitzaren mugarri izan daitezkeen une larriotan are gardenago behar du burua.

Berrogeietan aurrera doa David, gizon zaildua da, nahiz eta gazteago ematen duen. Gazte zenean maite ez bazuen ere, urteak aurrera, atseginez hartzen ditu bere benetako adina jakiten dutenen harridurazko iruzkinak, berak laudoriozkotzat hartzen dituenak. Orain gainera, urdintzen hasiak zaizkion ileak tindatuta, bospasei urte gazteago ematen du, paper faltsu berrietako gizonaren adinarekin bat eginez bidenabar. Banku bateko enplegatuen janzki dotoreak jantzita dabil, zapata beltz distiratsuekin, hiriko masan ohar-kabeen ibiltzeko mozorro aproposena delakoan. Graduaziorik gabeko betaurrekoak ere badarabiltza, bere

eitea gehiago aldatzearren. Arratseko orduotan, bulegoan berandutu den enplegatu presatua dela pentsa lezake berarekin topo egingo lukeen oinezkoak, edo *garçonnierean* maitalearekin larrua jo ostean etxera bidean emazteari esango dion gezurra asmatzen doan bulegari kezkatua. Kalearen itzalez itzal dabil, azken euri jakak utzitako putzuei jaramon egin gabe, bere mozorroak ezinbesteko duen larru imitaziozko maleta-txo merkea besterik ez darama aldean.

Beragana nola iritsi diren argitu beharreko kontua du. Poliziak argazkiak atera ahal izan zizkion azken alditik denbora asko pasatu dela esaten dio bere buruari. Ezinezkotzat dauka inork bera halabeharrez kalean identifikatu izana. Orduan gazte argal zena orain gizon sendo bihurtu da, sabelaldea pixka bat hanpatua du eta masailak beteak. Hobe du beste nonbait bilatu zakurrak beraganaino ekarri dituen isurbidearen iturria. Juanmiguel mesfidati horrek baietz aurkitu haria!, bururatu zaio.

Aurrerago izango dute dena aztertzeke parada, baldin eta segadari ihes egiten badio. Hori da orain garrantzia duen bakarra. «Metodikoa izan hadi, David» aholkatzen zion behin eta berriro Juanmigelek, «unea iristen denean ez duk hausnarketa askotarako

beta izango, aurrez ikasi eta erabakitakoak egin beharko dituk. Ondo aurreikusi baduk guztia, onik aterako haiz; aurre-hausnarketan alferra edo utzia izan ba haiz, lau hormaren artean egingo duk autokritika».

Erretako babeslekutik kale-kantoiari aparkatutako autoko zaindariaren oharkabea irteera lortu du. Gauza gehien-gehienak apartamentuan uztearen ordainetan.

Hutsetik berregin beharko du bere bizitza. Ezinbestekoak baizik ez daramatza alboan, 32 gigako USB giltza ahoan, hortzekin txikitu eta irensteko prest, garai bateko iraultzaileek eta Sri Lankako tigreek zeramaten zianuro flaskotxoak bailitza. Paper faltsu jokoak, dirua eta pistola, 9 mm-tako Browning bat.

Ordularia begiratu du. Kanean aurrera doa, inguruan litekeen bigarren zirkuluko zelatatze-talderen baten zantzuei adi.

Ordu pare baten buruan azidoak erabat janda egongo dira eramaterik izan ez dituen gauza konprometituak. Hatz-markarik ere ez dute aurkituko. DNARI dagokionez ordea zalantza gehiago du. Izara eta arropetan berea baino aurkituko ez dutela ziurta badezake ere, buruz ari da kalkulatuena duela zenbat denbora izan zen azken kidea berean ostatu hartuta. Urduritasuna uxatzeko, hark alde egin eta gero apartamentua

nola garbitu zuen berrikusten hasi da, uki zezakeen al-tzari edo zokoren bat ahantzi ote zuen buruz ikuska-tzen.

Ordurako kokatuta izango ote zuten? Hala bada, kide horren argazkiak ere izango dituzte eta ustezko organigraman hutsune bat gutxiago.

Hiritik irteteko planari jarraituko zaio, inprobisatu gabe. Autobus geltokia ez da oraino zainduta egongo, baina alde egin duela ohartu bezain pronto xehe-xehe aztertuko dituzte hiritik irteteko modu guztiak.

Ez du zalantzarik zaintze-kamerei esker kokatuko dutela eta horrela jakingo dutela zein hiritarako auto-busa hartu duen. Zelatariek alarma eman aitzin jaitsi beharko du autobusetik. Erosiko duen txartela amarrua besterik ez da izango. Bere arrastoari jarraitzeko modurik izango ez duten geltokian jaitsiko da larrialdi planean aurreikusi bezala. Atzean dabilzkion bizka-rroiek hori eta hainbeste badakite. Gain-gainean di-tuen zakur errabiatuak berriro ere kale-zulo batera eramango dituela ziurtatu behar du, zalantza txikienik gabe «garbi» atera behar du.

Hala esango dio segurtasun hitzorduko kideari, «Nik behintzat ez ditinat atzetik ekarri». Emakumez-koa izango dela pentsatzeko ohitura ekidin ezin hori,

Juanmigelek txarretsiko liokeena, ez du ulertzen zergatik. Berak bederen ez du ezkututzen neskak maite dituela. Eta Michellerekin hautsi zuenetik nabari duen gabezia ez da txantxetako.

Autobus gidariak, bidaiariak eta jaisten ikus lezaketan balizko begiluze eta *collaboen* argibide guztiak alferrikakoak izango zaizkiela espero du. Zalantza-elementu bakarra du, ihes plana prestatu zuenetik igarotzen denbora: ez ahal zituzten aldatuko autobus ordu-tegiak eta ibilbideak!

Lakioa ixten ari da bere inguruan. Badaki.

Bere jatorria salatzen ez duen frantses dotorean A.rako txartela eskatu dionean leihatilako enplegatuari, ezin izan du baztertu irudipen goibela, ez ote den hau segada ekiditea lortu duen azken aldia.

Segurtasun deia gelditzen zaio aurrera ateratzeko. Gainean inor ez duela ziurtatu bezain pronto telefono kabina bat aurkitu behar du Bernardekin kontaktua hartzeko. Beraganaino iristeko haria non harrapatu duten hausnartu behar du. Juanmigelen metodoa erabiliko du, aukera guztiak xehe-xehe egonarri handiz aztertuz, etsi gabe, temati.

KYOTO

Gauza jakina da jendeak ez duela hurkoari esateko ezer, norberak bere tristurez baino ez du hitz egiten. Bakoitzak berea, lurra denontzat. Saiatzen dira, maitasunaren unean, beren tristura hurkoarengana isurtzen, baina ez dute lortzen, eta tristura beren baitan gorde behar izaten dute oso-osorik, eta saiatuko dira berriro ere, eta tematuko dira beste behin ere beren tristura besterenganatzen.

LOUIS-FERDINAND CÉLINE

Gauaren muturrerainoko bidaia

1

Parisen ezagutu nuen Kyoto. Orain esan dezaket, nirekin harremana izan zuen garai hartako arau eta lege haustekak preskribituta daudelakoan.

Ezin dut esan zergatik jarri genion Kyoto goitizena. Haren itxurak japoniar geixa batena ekartzen zigun arren gogora, ez zen hori izan arrazoia. Agian alderantziz izan zen, Kyoto goitizena jarri geniolako ekartzen zigun gogora geixa baten irudi hautsezatua.

Ezpain fin-finak zituen eta haren azal zuriak ez zuen arroz-hautsen beharrik. Begi estonatuak, bekainetan txori-luma galdu bi. Sudur ttipiaren bi mazelatan behera barreiatzen zitzaizkion oreztak. Ez zuen ordea japoniar emakume esaneko horien orrazkera harrotua. Ilea motx-motx zeukan Kyotok, nik baino are motxago. *Garçon* itxura ematen zion: alkandora zabalaren azpian mozorrotzen zituen bere bular ederrak eta atzetik begiratuta mutiltzat hartzen zuten kolean. Baita nik ere, ezagutu nuen lehen egunean.

Gertatu behar ez zena nola gertatu zen gogoan dut. Beraganako erakarmena ondo bridatuta eramaten nuen bere etxera joaten ginenean. Lana eta maitasuna nahasteak korapiloak sortzen baditu, borroka eta maitasuna nahasteak sortzen dituenak katramila askaezinak direla jakinaren gainean bainengoan ordurako. Ez esperientzia propioz, entzundakoengatik eta inguruan ikusi eta asmatzen nituenengatik baizik.

Zeregin zehatz eta bakar bategatik joaten ginen Kyotora -neskaren izenak eta etxearenak bat egiten zuten gure kaiertxoetako hitzordu kodetuetan- astean behin, astelehenez. Gordeleku ustez segurutik atera eta nahiko zuzen egiten genuen harako bidea. Itzulerakoan ordea, segurtasun neurri zorrotzenak hartzen

genituen, bai baikenekien handik etor zitekeela azken urtean egonarri handiz eraikia genuen erreinutxoak porroka zezakeen arrakala.

Bi kidek betetzen genuen hango zeregina, eta horrek ekidin zuen seguruenera lehen egunaz geroztik Kyotok niganako zuen jarrera abegikorrek bestelako ondorio edo segidarik izatea hasiera-hasieratik.

Bikotea zuen arren, gu bertaratzen ginenean ez zen hura inoiz etxean egoten. Nahiz eta bertan burutzen genuena itxura batean bederen zinez zeregin xumea izan, mutila oso ados ere ez zegoen beraien etxea gure borroka ekimenetarako oinarri gisa erabiltzearekin. Apartamentua Kyotoren izenean zegoen alokatuta ordea, eta mutilak ezer gutxi egin zezakeen, guk agertu behar genuen egunean beste betekizun batzuk zituela argudiatuta zinemara edo kafetegi batera liburu bat irakurriz denbora egitera joatea ez bazen. Bertaratzen ginenerako, bere beldur eta jelsiak itoko zituen filma *Le Petit Parisiensean* hautatu eta liburua besapean hartuta desagertua zen. Berandutu eta ezkaratzean gurutzatzen bagenuen *politessearen* arauak finki betetzen genituen, deserosotasuna ezkutatzeke ahalegin handirik egiten ez bazuen ere berak. Kanean gurutzatuz gero ordea ez ikusiarena egiten ge-

nuen, bai berak zein guk. Hala egiteko gaztigatu bai-
kenien biei elkar ezagutu eta guri laguntza ematea
onartu zutenean jakinarazi genizkien oinarrizko segur-
tasun neurriak eman genizkienean.

Astegun eta ordu berean agertzeak mutil belaxka
haren ihes koldarra errazten bazuen, ez zuen Polizia-
ren lana ere zailduko, inoiz Kyotorako bidea ikasten
bazuten.

Horretan ere perfekziotik urrunxko genbiltzan
garai hartan; ikastaldiko arduradunak emandako zent-
zuzko aholkuak agintzen zuenaren aurka ari baiki-
nen: «Erosotasuna da militantearen etsairik behinena,
ohikeria; ondo gogoratu, gerra hau eroso iruditzen
zaizuen egunean ziur egon zaitezke luza gabe egon-
go zaretela ziega ilun batean egindako akatsez haus-
nartzeko denbora sobera duzuela».

Ez zen ordea gure borondatezko ohikeria. Artean
ez nekien transmisio-saileko gune garrantzitsueneta-
koa zela Kyoto, arazoak zituzketen kideen berri izan
eta haiek atakatik atera ahal izateko irtenbideak ema-
tea zela gure zeregina.

Guztiarekin, Kyotoko azpiegitura lantzen aritu
ginen denbora tartean hirukotea osatu genuen bi bur-
kideok eta berak. Egongelan jartzen ginen tea edo

kafea edatera eta, hark unibertsitateko kontuei buruz egiten genizkion galderei herabeki erantzun ondoren, gure herriaren borrokaren zioak, ondorioak eta esperantzak azaltzen genizkion, xehe, ulergaitz eta are aspergarri tarteka segur aski, berak halakorik aditzera ematen ez bazigun ere. Beti eramaten genion frantsez idatzitako Euskal Herriko argitalpenen bat, badaezpada ohartaraziz gure iritzia ez zetorrela nahitaez bat eta bere osotasunean agerkariko idazki guztiekin, adibiderako *Enbatako* editorialekin. Gure borrokaren alde soziala azpimarratzeko kontu egiten genuen, ez-kertiarrak, emakumearen zapalkuntzaren eta indar nuklearraren aurkakoak ginela, gure herria askatu eta pertsona eta klaseen berdintasunean oinarritutako jendarte bat lortzeko egiten genuela borroka. Auzoaren begian bihia errazago ikusten baita norberarenean habea baino, Frantziar nazionalismoak beti izan duen ospe txarra uxatzeko, nazien aurka borrokatu ziren erresistenteen pareko *patriote* gisa aurkezten genuen geure burua.

Behin Kyotoren engaiamendua lotuta, bertako gure egonaldiak asko laburtu ziren: kontaktu-hitzordua baino hamar bat minutu lehenago iristeko ohitura genuen; eta kontaktua egin eta mezu-trukea egin os-

tean ez genuen bost minutu baino gehiago luzatzen hango egonaldia. Egonaldi motz horiek, beraz, ez ziguten elkar ezagutzan sakontzeko aukera handirik ematen.

Eta hala ere, iristerakoan eta alde egiterakoan frantses ohiturei jarraiki masailean elkarri bi musu ematen genionean haren ezpainen ferekek durduzatu egiten ninduten. Heltzen ginenean, agur-musuen ondoren minutu batzuk behar izaten nituen nire burua gobernatzeko, ordura arte bezatuta nekarrena ez zekidan jaregin. Berdin gertatzen zitzaidan alde egiterakoan. Kontua korapilatzeke, gainera, hitzorduak igaro ahala, ezpain meheen arrasto hezea nireengandik gero eta hurbilago uzten zidan irudipena nuen.

Alde egiteko orduan nabarmenagoa zen ohiturazkoa behar zuen musu horretan Kyotok jartzen zuen goxotasuna, apartamentuaren atalasean, kideari bi musuak eman ostean, hura abiatuta, nirekikoa segundo batzuez luzatzen zuenean, bi eskuak nire gerrialdean bermatuz eta burua nigana altxatuz ni pixkatxo bat makurtzen nintzaion bitartean eskuineko esku he-rabea bere ezkerreko besoan jarrita.

Eskaileretan behera gindoazela (ez genuen sekula igogailua erabiltzen, azaldu beharra ez duten segurta-

sun arrazoiengatik) aztoramendua ezkututzen saiatzen nintzen. Bai bainekien behera iritsita kideak adarra joko zidala, eta nik ez bainuen inondik inora nahi bere ziriek ituan jotzen zutenik pentsa zezan, bestela, taldeko gainerakoekin elkartzean gaia aterako zukeen, eta orduan bai nireak egina zukeela: txantxa guztien paga-burua izango nintzen, eta txantxak bide klandestino luzea egingo zuen, «Kide bati gertatzen zaiona kontatuko dizut» eran, hobena bai baina hobenduna ez aipatzeko gure izaera judeo-kristauaren arrastoan.

Garai hartan nik ere bikotea bainuen. Bizi genuena ez ohikoa eta zaila izan arren, zoriontsutzat nuen harremana. Ez nuen nire baitan bestelako maitasun-abentura edo maitaleren beharrik sentitzen. Betebeharreko zereginetarako lagungarri zitzaidan egoera orekatua bizi nuen. Burua argi behar nuen. Eta halaxe nituen kontuak aste osoan, argi, astelehenera arte, Kyotora abiatu aurretik, Kyoto ikusiko nuela pentsatzen hasten nintzen arte.

Hartara, Kyoto arrisku gisa ikusten hasi nintzen, arrisku urrun baina arrisku hala ere. Ez ordea gure egunerokoa zalantzan jartzen zuen borroka arloko arrisku gisa; pertsona ausarta ez naizen arren arrisku

horretara ohituta bainengoen eta ikasia bainuen, arrazoimenak garaituko badu, beldurrak ito, aurrentimendu ilunak irendu eta eginkizunen plangintzak aurreikuspen eta hoztasunez burutu behar direla. Borroka zereginetarako ezinbesteko eta funtsezko zitzaidan barne egonkortasuna kordoka zezakeen arriskua zen Kyotoren atearen bestaldean zelatan zain nuena.

Hitzorduaren egunean, arratsaldeko zazpiak inguratu ahala, harekiko erakarmen gero eta nabarmenagoa mota guztietako arrazoiekin bridatzen hasten nintzen.

Alferrik eskatzen nion arduradunari zeregin horretarako beste kide bat jar zezan. Argudiatzen nion hasiberri batek nik bezain ondo egingo zuela harekikoa, ez zela beste munduko ekintza astean behin Kyotora joan eta kontaktuekin trukatu beharrekoak trukatzeari. Entzungor egiten zidan arduradunak. Nik uste baino zeregin garrantzitsuagoa eta labainkorragoa zela zios-tan. Kontu handia egin behar genuela. Arretaz bete behar genuela misioa. Gure borrokaren etorkizuna jokoan bailegoen.

Kontaktuen bidez jasotzen genituen mezuen zentzu ezkutua ulertzeko gakoak berak bakarrik zeuzkanez, esaten zuena egia osoa ote zen jakiterik ez nuen

lako, kontua puzten ari zela ihardesten nion -arduradun banuen ere horretarako bezainbesteko laguntasuna bai baikeneukan-, hitzordutxo ziztrin bat baino ez zela, ordezkaten baninduen ez zela Bizkaiko Frontea ereriko.

Ez zegoen hura bigunduko zuenik: zuzendaritzakoek biok hautatu gintuzten zeregin horretarako. Aldaketaren bat egitekotan ez genuen guk inoren baimenik gabe burutuko, goitik etorriko zen agindua. Eta inori burukominik emateko aski arrazoi pisutsua nuela uste izatekotan, idazteko oharra, bideratuko zuela berak hurrengo bilkuran gaia eztabaida zezaten. Kito.

Kito, bai. Banekien nik gaiak ez zuela horrelako garrantzirik, noski. Ezin nezakeela ohar batean asmatu Kyotoko frontetik salbuets nintzaten eskatzeko moduko ipuinik. Nola azaldu behar nion inori Kyotok sortzen zidan apeta eta beldurren nahasketa zela nire koldarkeriaren arrazoia?

Nire arduradunak eragozpen bat izan eta Kyotora bakarrik joan behar izan nuen egunean gertatu zen lehen egunetatik gertatuko zen beldur izan nintzen horixe. Burkideak uko egin zion zuzendaritzaren agindua propio jaso gabe beste inori erakuts niezaion kontaktu-lekua. Nik egingo nuen aste horretakoa eta, au-

rrerantzean horrelako egoera errepika zitekeela aurreikusirik, ordezko bat izendatu beharraz ohartaraziko genuen saileko arduraduna. Itzulerakoan, zer gerta ere, besteetan baino segurtasun zorrotzagoa egingo zidaten. Kito.

Harako bide osoa nire burua konbentzitu nahian egin nuen. Kyotoko ordura arteko beste hitzorduen antzekoa izango zela argudiatuz. Ez zuela zertan desberdina izan. Arraroa egingo zitzaigula biok bakarrik egotea, lehen aldiz, hori bai. Agian horixe izan zitekeela hizketa-gaietako bat, lotsak eragindako isiltasuna estaltzeko, ordu laurdeneko kontua izango zela, ordu laurdenak ez zuela askorako ematen eta, zerbaiten ernamuina haziko balitz ere, ez nintzela gehiago berarekin bakarrik suertatuko eta bere horretan ihartuko zela dena delako hori.

Beheko txirrinan gure dei-kodea egitean ba ote nekien ondoren gertatuko zena? Eskaileretan gora nindoala, modu lauso batean nire barruko giltzarrapo eta hesiak desegiten ikusi nituen. Ez nuen deus egingo ekiditeko. Labarrean behera bere burua botatzen duenaren bertigoarekin igo nituen mailak.

Atea zabaldu zidan. Udako alkandora arina eta ordura arte inoiz ikusi ez nion minigona beltza zerama-

tzan soinean. Dutzatik atera berria behar zuen, ileak oraindik bustita baitzituen.

- Tu viens seule? -galdegin zidan, nire bakardade nabarmena alferrikako hitzez eta barne pozez apainduz.

Beti bezala, oraindik atearen atalasean, elkarri masailean musu emateko aurreratu genituen gure buruak, biok eskuin aurrea ezker masailean muin emateko, eta ezkerretara mugitzerakoan gure ezpainen topo egin zuten. Erraz nuke bera izan zela esatea, bera izan zela batetik besterako igarobidean geldialdia egin zuena, zentimetro batzuk aurreratuz musua. Egia izanda ere, asmatzen nenbilke. Ondoren bizitakoaren zorabioak nire hautemate gaitasuna indargabetu eta une erabakigarri haren xehetasun huraxe zurrunbiloan eraman balu bezalakoia izan baitzen.

Bera, ni edo biok izan, gertatu behar ez zena gertatu zen.

Kateme mihi fresko bat sumatu nuen nire ezpainen artean bide egiten, hortzak igurtzi zizkidan, bere ezpain mehe horiek suzko bihurtu ziren atsegalez ahoa jaten hasi zitzaizkidanean, nire ipurmasailetan pausatu zituen esku biak, besoen artean estutu nuen,

ia min egiteraino. Atea zabalik zegoen oraindik. Hanka kolpe batez itxi nuen.

Musu horren ondoren, bat-batean nigandik urrundu zen, irribarrez begiratu zidan eta eskutik helduta egongelara eraman ninduen. Beti bezala, kafea edo tea nahi nuen galdegin zidan sukaldera abiatzean.

- La même chose que toi -esan nion, hitzak ongi azpimarratuz, ordura arte konturatu ez bazen, ohar zedin beti berak edaten zuen berdina hautatzea ez zela izan halabeharra.

Beti prest izaten zuen erretiluarekin etorri zenean, nigana makurtu eta musu goxo bat eman zidan berriro ere ezpainenetan.

Burkidearen kikara hutsari begira gelditu nintzen. Keinu bat egingo nuen, oharkabean, beragana.

- Pas ici -esan baitzidan.

Eta nik ez nion esan, ez bertan ez inon, ez nuela berarekin amodioa egin nahi.

- J'ai une amie qui peut nous laisser son appart -esan zidan.

Eta nik ez nion esan ezingo nukeela bere lagun horren apartamentura joan kideei deus esan gabe.

- Samedi -proposatu zidan, papertxo batean helbidea eta ordua idaztearekin batera.

Ez nion esan joango nintzela, txintik atera gabe helbidea eta hitzordua agendan kodifikatu eta paper-txoa irentsi nuen, mihia tinta urdinez orbanduz.

Hitzordua burutu eta Kyototik irtendakoan segurtasun ibilbide konplexuko atalak bata bestearen atzetik egiten nituen bitartean, banekien larunbatera arteko denbora ez zela samurra izango eta ordurako ki-deei esateko aitzakia sendo bat, gezur arin bat aukeratu, asmatu beharko nuela. Eta bikotekideari ez niola ezer esango erabaki nuen. Ezingo niola ezer esan. Ez egia eta ez gezur. Ez nuela jakingo zer esan.

2

- Tu ne comprends pas ma douleur -esan zidan, negar zotinari eutsi ezinik.

- Tu ne comprends pas ma douleur? -galdetu zidan, harriduraz, bere mina begi-bistakoa bailitzan. Hari begiratu besterik ez bailegoen bat-batean barru-barrutik zartatu zuen minaren arrazoia ulertzeko.

Uda betea zen, logelako leihoa zabalik genuen. Kanpoko zaratek bizidunen munduan geundela oroitarazten ziguten; oheratu aurretik ordea sareta itxi genituen, bion artean, irriz, musu eta musu artean, elkarri arropak erazten hasita.

Bere minaz hitz egin zidan arte hiriko burrundarak besterik ez zuen betetzen nire gogo. Amodioa egin osteko ezaxola hustuan, aratinik geunden, gorputza laxo, izerdia lehortzen. Euli tematien hegaldi baldarretan kiribilka zebilkidan begirada. Uneak perfektua izateko logelan ez zegoen sabai-haizegailu baten besan- gen biratze monotonoa besterik ez zuen behar. Arratseko haizekirriak erridauak dantzazten zituen biluzik geuntzan oheraino, izerdi tantak miazkatu nahi balizkigute lez.

Euli batek lur harrarazi zidan. Agondu egin nintzen. Airean emandako esku-kolpe arin batez eragotzi nion Kyotoren ezkerreko bularrean pausa zedin. Begiratu nion. Irribarrea loratu zitzaidan. Begiak itxita zituen. Ezpainak ere indarrez itxita zituen, dardara ia sumaezin batekin borrokan. Ez nion garrantzirik eman, orduan. Bere alboan hasperen asebetez etzan nintzen oster. Begiak itxi nituen nik ere. Nire bularraldea arnasaldi sakon eta zoriontsuz hanpatu nuen.

Bezperan irratian entzundako gertaera mingarriei nire gogoaz jabetzea eragotzi nahi nien. Biharamunean ki-deekin nuen segurtasun hitzorduak sortzen zidan izua uxatu nahi nuen. Eskua luzatu nuen beragana, ferekatzeko.

Orduantxe esan zidan.

Eskua bere azaletik zentimetro eskasetara izoztu zitzaidan. Begiak zabalik zituen, niri tinko begira.

- Tu ne comprends pas ma douleur -berretsi zuen.

- Tu ne comprends pas ma douleur? -tematu zen.

- Tu ne peux pas comprendre ma douleur? -harritu zen.

Ez nuen ulertzen, ez, bere mina. Nola ulertu bere mina? Zer min baina? Zerk eragindako mina? Nork egindako mina? Min egin al nion? Noiz? Mindu zuen ezer esan al nuen oharkabeaz?

Hiruzpalau hilabete igaroak ziren bere adiskidearen apartamentuan elkartu ginen lehen larunbat harezkerok. Zain izaten nuen. Etorbidea gurutzatzen nuenean, gora begira eta erridauen atzean sumatzen nuen bere itzala, zelatan. Banekien ia ezdeusa zela segurtasun neurri gisa, baina deus baino hobe izango zela iritzita eman nizkion oinarrizko instrukzioak: ni ezkaratzean sartzean, inguruan norbait telefonoz hiz-

ketan hasten ote zen, edo bere kolkorako bakarrizketan ikusten zuen, ordulariari hitz egiten bestela. Edo nola ere, adi egoteko, jende arraroa ohiko zereginetan edo jende arrunta zeregin ezohikotan, beste inoiz, beste inon ikusitako jendea, bikoteak, agureak, beltzak, txinatarrak, ez beharrik polizia itxura zuen edo nor ere izan zitekeela susmagarri gaztigatu nion, ezin niola azaldu zergatik nekien, intuizio femeninoa esan zidan eta barre egin genuen biok elkar musukatuz, egin ziezadala konfiantza segurtasun kontuei zegokienean esan nion beragandik urrunduz gaiaren garrantziaz jabe zedin.

Lagunaren apartamentu bizilagunez hustuan, bere konplizeak izara garbi, usain gozoko eta ondo lisatuak uzten zizkigun beti ohe zabalaren gainean. Lehen egun hartan ordea, ondoren egin genuen ohea.

Gure harremana sutsua bezain lasaia izan zen hasieratik. Ez genuen eztabaidarik edo desadostasunik. Lehen egun hartakoa ohitura bihurtuz, ohea egiteko unea atzeratu egiten genuen. Logelara aurretik sukaldera joan eta te bat hartzen genuen. Edo pizza bat labean sartzen, zenbaitetan ohetik altxatzean berriro ere berotu behar izaten genuena. Berak bakarrik erretzen zuen belarra. Hori zen larunbatetako babesleku

horretan nire buruari jarritako muga bakarra: ez alkoholik eta ez *erretzekorik*. Handik irtetean argi izan behar bainuen burua, zer gerta ere.

Adostasun erabatekoz elkartzen ginen. Hitzorduren bategatik ezin banuen larunbatetako elkartzera joan, ez zuen atsekaberik azaltzen. Era berean, hark larunbata bere ikaskideekin igarotzeko asmoa bazuen, onean onartzen nuen nik ere. Askatasunaren is-pilutzat nuen harreman hori. Isilpekoa eta gezur txiki-tan oinarritutakoa izan arren.

Inoiz, harremanaren arriskuaz eta ezegokitasunaz ohartuta zalantzak jotzen baninduen, Kyoto bertan behera uzteko aukera bururatzen bazitzaidan, ez zuen luzaro irauten zalantzak. Jatorrizko bekatua izatekotan, bekatu arina eta barkagarria zela nioen nire kautan. Inori minik ez egiteko ezkututzen nuela gezurren atzean bion artean eraikitako zorion oasi hura. Inori ez ziola zertan minik egin, geure artekoaren berri ez zeukan artean. Plazerak garunaren alde batzuk ezgaituta nengoen, agidanez. Astelehenetako borroka-hitzordua zela-eta bere apartamentura iristen ginenean, artean ez zitzaidan aurreko asteburuko plazer-hitzorduko sukarra desagertu, eta hurrengo larunbata noiz iritsiko irrikan egoten nintzen.

Burkideari egia aitortzearen aldeko bazen ere Kyoto, sekretua gordetzea erabaki genuen. Hura jakinaren gainean jartzeak ez zigula onik ekarriko konbentzitu nuen. Beldur nintzen arduradunak gure harremana gaitzetsi eta, ekar zitzakeen arriskuak aitzakia, azpiegitura bertan behera utzi eta galeraren erruduntzat jaso nezakeen errietaz gain ez ote zidaten harerikiko harremana behin betirako uztera behartuko. Eta hori gutxi balitz, kontua bikotekidearen belarrietara iritsiko zatekeen. Maitemina itsutasunak ez zidan beste aukera hau ikusten utzi orduan: Kyoto eta bion artekoa txarrean amaituz gero borrokarako oso garrantzitsua ei zen azpiegitura gal genezakeela, horrek ekarriko lukeen soka luzearekin.

Hartara, gu biotariko batek larunbateko hitzordura joateko eragozpenik izatekotan besteari jakinarazteko gure arteko klabea adostu behar izan genuen: ezinean zegoenak tea (edo kafea) azukrerik gabe hartuko zuen. Bertan behera utzitako hitzorduak sortu mikaztasuna edaten genuen horrela. Alderantziz, beste batzuetan, biok teari azukre koskor bana gehitu ostean, elkarren irrikaren berri emateko, irribarre eta txantxa artean beste bat, bi, hiru! botatzen genizkion; astebu-

ru eztiaren iragarpenak edabea edangaitz bihurtzeraino.

Halabeharrak aginduta biok azukre ontzia baztertzen genuenetan, kointzidentziak eragiten zigun irribarrearekin estaltzen genuen hurrengo larunbateko gabeziaren albistea.

- Qu'est-ce que vous avez vous deux? -euskal kutsuko frantses dotorean mintzatuz eta txantxa doinuz gaitzitzen zitzaigun burkidea horrelakoetan, gure irri eta irribarre konplizeen zentzua asmatzeko ahaleginean, beti bi azukre koskorrez gozatzen zuen te beroari putz egin eta hurrupatxoak kentzearekin batera.

Hitzordua amaituta, eskaileteran behera eta baita Parisen barrena antolatuta genuen segurtasun ibilbide labirintikoan, eta ibilbide amaierako kafetegian berdin, zelatan izan genituen burkideengandik arazorik ez zegoela adierazten zuen keinua jaso bitartean zain geundela, hamaika galdera egingo zizkidan burkideak Kyotoren inguruan. Denei gezurrarekin erantzun nien. Bere irudimen sukartsua izango zela niotsan. Eta berak ezetz, nirekin maiteminduta zegoela Kyoto, eta niri ere nabaritzen zidala harekiko joera. Ez nezala pentsa zirudien bezain estua zenik amodio kontuetan, esan niezaiokeela konfiantza erabatekoz. Bazekiela

sekretuak gordetzen. Eta nik uko. Ea burutik eginda zegoen. Nondik atera ote zuen halako burutapena. Finan egia baitzen. Ni ez bainengoen Kyotorekin maiteminduta. Eta ez zitzaidan bururatu ere egin nahi hura nirekin maiteminduta egon zitekeenik. Bederen ordura artean ez nion behin ere entzun je t'aime esaten. Ezta entzun nahi ere. Ez nion nik ere halakorik esan, ez esango.

Maiteminduta nengoen, bai, ez Kyotorekin ordea. Orduan, zer zen gure arteko harreman hura? Zer bilatzen nuen nik hor? Zer jasotzen nuen Kyotogandik? Zer ematen nion?

Gudariaren atsedena, entzuten nuen galdera horiei erantzuten burkidearen ahotsa, baldin eta Kyoto eta bion artekoaren jakinaren gainean egon izan baltz, nire kezken eta irritsen berri eman izan banio.

Badakit ez zela hori, ordea.

Baretasun axolagabea. Arintasun arduragabea. Erantzukizunik gabeko atsedenleku aseptikoa. Hori al da le repos du guerrier?

Eta literatura. Berak eman zidan ezagutzera Paul Austerren New Yorkeko trilogia. Eta nik Carver eta haren maitasunaren bitaminak erakutsi nizkion.

Behin hitz egin zidan bere aitaz. Eta baita bere anaiaz ere luze. Bere amaz guti.

Bere mutil-lagunarekin nolako harremana zuen ez nion galdetzen. Lehen larunbat hartan amodioa egin aurretik jakinarazi nion nik ere banuela bikotekidea. Berak ere ez zidan sekula galderarik ere egin hari buruz.

Azken batean, ez al zen hori Kyotogan bilatzen nuena?, itxuraz bazen ere, Kyoton, tximistorratz batek erakarrita bezala elkartzen ziren arrisku guztietatik urruntzea?

Gure arteko harreman ia inexistentea. Iraganik gabea eta etorkizun asmorik gabea. Gureak ez zuelako etorkizunik. Ezin zezakeelako izan etorkizunik. Lubaki bateko enkontru halabeharrezkoa, fortunazkoa, zorionekoa. Bere gainean istapeka, gure sexuen kontaktu gozoa, nire esku ahurrekin bere bularrak oratuz, harenak nireetan ezin, hasperenka, besoak buru gainean luzatuta, eskuak lotuta balitu bezala, betazalen zirrikituetatik niri begira.

Nola bazter nezakeen halako aukera bat? Zeren izenean? Zer dela-eta egin behar nion gogor desioari? Tarteka horrelako galderak egiten nizkion nire buruari.

Osterantzean, bikotekideak betetzen zuen nire gogoan, salbu astelehen arratsetako te orduan eta larunbatetako amodiozko arratsaldean.

Bitan baino ez nintzen ausartu Parisko kaleetan harekin ibiltzera. Inork ikusiko gintuen beldur bainintzen. Behin, Le Zénitheatan Pixiesek eskaini zuen kontzertura gonbidatu ninduen. Beste behin, Paris aldirietako mugan, garai bateko murruean lekuan han-hemenka sortutako parke horietako baten belardian egon ginen etzanda, elkar musukatuz eskaintzen genuen ikuskizuna inguratzen gintuzten haurrentzat ez zela egokia udaltzain batek errieta egin -un peu de tenue, s'il vous plait!- eta lekutu gintuen arte.

- Tu ne comprends rien! -negar-zotinari doi-doi eutsiz malko lodi bana begi ertzetatik behera zeriola.

Ez nuen deus konprenitzen, ez.

Bat-batean, Kyotoren azal leunaren azpian sumendi bat. Azala ferekatu eta gozatu baino ez nuen nahi nik. Barrunbe sakonenetatik zetorren labak kiskali behar ninduen ordea. Eta ni erretzearekin batera, desolazioa utzi behar zuen inguruan.

Astelehen arratsetan arriskuaren erdigunean hartzen genuen teak errauts zaporea izango zuen aurretantzean; larunbat bazkalosteetako maitasunezko

gordelekua betirako galduko nuen. Dena itsustuko zuen suak. Eta okerrago ere izan zitekeen, suak gezurren sustrai kiskaliak utz zitzakeen agerian. Eta gezurrek minak eragin, mesfidantzak egiaztatu eta konfiantza betirako galaraziko.

Ez, ez nuen deus konprenitzen.

Agondu nintzen, sorbaldetatik heldu nuen. Begiratu nion. Zein da zure mina? Zer gertatu zaizu? Zer gertatu da? Zer gertatzen ari da? Esadazu!

Eginahalak eta bi egin behar nituen suzko ibaiak dena aurretik eraman baino lehen. Ulertu behar nuen. Argitu behar nuen. Esnatu behar nintzen. Iratzarrita amesteari utzi behar nion.

- C'est trop tard! Tu n'as rien pigé!

Berandu ei zen. Berandu deus ulertzeko. Alferrik zen berandu noiztik ote zen asmatzen saiatzea. Zorionaren izkinatxo batean lokartu nintzen eta zorigaitzaren erdian zabalarazi zizkidaten begiak.

Arrapaladan nindoan sumendian gora. Nora ezean. Noraezean. Zer nahi nuen? Handik ihes egin, guztiz erre baino lehen? Salba zitekeena salbatu? Ez! Pikutara dena, arriskuak eta ondorioak. Une horretan nahi nuen bakarra gertatzen ari zitzaiguna ulertzea zen, hori ere bai baitzen bizitza. Eta nik bizitza ulertu

nahi nuen, ez ihes egin. Behin egin nuen ihes, geroztik itzultzeko borrokan ari nintzen, sekula gehiago ihes egingo ez nuela promes eginda nire buruari.

Lehen aldiz ikusiko banu bezala begiratu nion Kyotori. Izandako elkarrizketetan bere sendiari buruz esandako zerbaitetan ote zegoen bere mina ulertzeko gakoa? Gurasoen banatzeaz ari ote zen? Aitarekin izan zuen harremanari buruz? Arretaz entzun izan banio.

Bere mina ulertzen ez ote nuen galdetu zidanerako, min hori ulertzeko gako asko emana izango zidan. Ziur. Ni ohartu ez, ordea. Nire moztasuna frantsesa ongi ez menperatzeari egotziko banio gezurretan nentzake.

Gor eta itsu izan nintzen. Ez nuen Kyotoren mina ikusi. Nire burua desenkusutzen nuen, neurekoi, nire minak gobernatzen aski lan banuela, besteren minak kudeatzen hasteko.

Galdera baldarrak, lekuz kanpokoak egiten hasi ordez -Zure gurasoez ari zara? Zure aitaz? Desgraziaren bat gertatu al da zuenean?-, hobe nuen mutu. Eta, hala ere, ezin isildu. Hitzekin sua itzali nahi banu bezala; malkoak xukatu; zauriak orbaindu.

Besarkatu nuen estu-estu, bere gorputz biluzia, izerditua, nirearen kontra, zotinka.

- Laisse-moi! -baztertu ninduen.

- Laisse-moi! -arbuiatu ninduen.

- Laisse-moi! Espèce de conne! -iraindu ninduen.

Zezeleduta utzi ninduen, ohean etzanda, berak negar malkotan kulotak eta blue-jean galtzak jantzi eta alkandorako botoiak dardarka lotzen zituen bitartean, erabat biluzik, babesgabe, lehen aldiz oso aspal-diko partez.

Poltsa hartu eta aterantz zihoala ere ez nintzen mugitu.

- Ferme la porte en partant! -agindu zidan, atea danbatekoz itxi aurretik.

Presaka jantzi eta bost minuturen buruan atera nintzen haren atzetik. Atea gakotu eta beti bezala postontzian sartu nituen giltzak. Azken aldiz. Ondoko metro geltokian barneratu nintzen presaka, arrastorik ez. Etorbidean gora eta behera ibili nintzen haren bila, itzalik ez.

Oso berandu itzuli nintzen etxera, nire barneko ekaitza baretu nuela iritzi nionean.

Hurrengo astelehenean ez zion azukrerik bota teari. Ezta hurrengoan ere. Hirugarren astean terik ez

zuen hartu gurekin. Elkarri masailean musu ematera-koan bere gorputz zurrundua nabaritzen nuen nire be-soen artean, bularraldea nigandik urruntzeko bera-riazko keinua egiten zuen bitartean.

Eta burkideak, hitzordutik irten eta Parisen antola-tuak genituen zakur-labirintoetan gindoazela, ez nin-duen xaxatzen, arduratuta galdegiten baizik, ea zer-bait gertatzen zitzaidan Kyotorekin.

Eta asteak aurrera haserretu ere egin zitzaidan:

- Ez dezadala jakin Kyotori zerbait egin dionanik.

3

Kyototik irtetean mugimendu arraroa nabaritu dugu.

Hori besterik ez genuen behar. Daviden deiak ur-duritu gozagaiztu nau. Beti bezain nazkagarri aritu zait. Bernard ere ez zegoen gustura. David dantzan ibiltzea seinale txarra da, eta segurtasun hitzordu hori ematerakoan zalantza nabaritu dut bere ahotsean.

Aurreneko segurtasun ibilbidearen amaieran kide batek, aurrez erabakitako kale-kantoian azalduz, za-

lantza-keinua helarazi digu: ez dago ziur garbi zatoz-tenik.

Bigarren segurtasun ibilbidean gu ere atezuan goaz, zurrunago. Azkar egin beharreko tarteak ia korrika egin ditugu, ondoren bat-batean mantsotu ibile-
ra, bizkarroiak azaleratu asmoz, burkideek baietsi edo ezetsi ahal izan dezaten jadanik susmoa baino gehia-
go dena.

Kyoton arazoak badaude, nondik etorri ote diren, gogoeta egiten goaz burkidea eta biok. Gu izan ote gara haria? Gaur ohartu bagara ere noiztik ditugu ze-
latan? Eta zergatik ez gaituzte atxilo hartu? Zer helbu-
ru dute? Noraino sartu ote digute eztena? Ez ote daude segurtasun zaintza egiten ari zaizkigun kideak ere amaraunaren barruan?

Eta nik, nire kautan badut beste galdera bat: Kyoto eta bion artekoa lekukorik gabeko amodio isto-
ria izan ote da? Ez ote zuten haria larunbat bazkalos-
teetako apartamentuan hartuko? Edo hain aspalditik helduta ote gaituzte haraino ere iritsi izateko?

Dena dela, lekuak hustu beharko ditugu. Denak. Ezin zalantza txikiena ere utzi. Egun latzak datozkigu, edonola ere.

Bigarren ibilbidearen bukaeran, hozten utzitako paristar kafe beltz txar banaren aurrean gaudela, bistrot aurretik igaro den autobusean zihoan burkidearen seinaleak, *Le Figaroren* ale bat itsatsi du kristalaren kontra, ez du zalantzarako tarterik uzten. Gainean ditugu. Txandaka goaz komunera, gainean ditugunak berrikustera, agendak desegitera, txartelak, jaka eta galtzetako poltsikoak ondo miatzera, oharkabean paperen bat ahantzi ote dugun.

Alferrik eragiten diogu koilarari.

Bukatu da. Bernard triste dago. Triste eta kezkatu, Davidengatik, astelehenetan Kyotora deitu diguten ki-deengatik. Segurtasun hitzorduak oroitarazi dizkiogu elkarri. Dugun dirua banatu. Onik ateratzea lortzen badugu, edo lortzen duenak, arduradunei lotura-kidearen bidez albait lehen helarazi beharreko mezua eman dit: *Il neige à Tokyo*.

Kyoto erre da. Orduantxe jabetu naiz ez dudala Kyoto gehiago ikusiko.

Eta badut oraindik berari hainbat gauza esateko. Erantzun zaileko hainbat galdera dut nire baitan bereztat. Masailean musu goxo bat eman nahi nioke, elkar ezagutu genuenean bezain herabe. Eta dena ulertzen

ez dudan arren, ulertu nahi dudala bere mina, eman diezadala aukera hori, bederen.

Aurrerantzean gertatuko dena ez dago ordea ez bere ez nire esku. Etorkizunaren lemak eskuetatik ihes egin digu guri dagokionean. Zorte pixka batekin segadari itzuri egingo diogu. Baina Kyoto ez dugu berriz ikusiko, berriro ere Kyotora itzuliko garen esperantzaz, Poliziak zorrotz zelatatuko baitu haren etxea amu, bera atxilo hartu gabe, beita.

Biharamunean, hirugarren segurtasun zirkuitua-ren amaieran ebakuazio taldea zain genuen.

Onik atera ginen denok, gutariko inor ez zuten atxilo hartu eta ez zen gertakizunen inguruko inolako berririk azaldu hedabideetan, azpiegitura osoa bertan behera utzi genuen... Beste bataila isil bat irabazita, borroka lekuak bertan behera utzi eta atzera egin behar izan bagenuen ere.

Irabazita? Juanmigelen desagerpena salatu arren estatuek uko egiten dute gertaerarekiko zerikusi oro.

Erretirako zereginak bukatuta, berriro ere azpiegitura antolatzen hasi aurretik babes-etxean giltzapetuta eman nituen egunetan, luze idazteko aukera izan nuen. Baita Kyotori ere. Eskola-kaier bateko orriak belztuz, ordura artean inori ez bezala eman nion nire

minen berri. Barrua husten nuen, burua haren magalean bermatuta, haren eskuak nire ileak ferekatzen, haren ezpainen, tarteka nire belarrian kontsolamenduzko hitz goxoak esaten, larunbat arratsalde lasai horietako batean bageunde bezala.

Bakarrik nengoen ordea. Bikotekidearen berririk gabe ere bai.

Juanmigeli egin zioketena burutik kendu ezinik.

Irteteko egunaren bezperan, Kyotori egindako airtormena beste idazkietatik bereizi eta orriak banan-banan erre nituen komun-zuloan.

Askoz geroago, Kyotok nirekin harremanetan jartzeko zehar-bidea aurkitu zuen. Marrazki bat igorri zidan soilik: te kikara bat, esku bat azukre koskorra gehitzen ari zitzaiola. Ez nion erantzunik igorri.

Mezuaren berri izan zuten kideek zergatik ez nion erantzuten galdetu zidaten, azpiegitura ondo errea egon arren beti ere atera genezakeela probetxuzko zerbait iritziz.

Gozakaiztuta erantzuten nien, ea ez genuen ezer ikasi gertatutako guztitik, ea zenbat aldiz jo behar genuen buruarekin horma, ea zenbateko ziurtasunez berma zezaketen mezu hori ez zenik Poliziaren amarru berri bat.

Azkenean bakea eman zidaten, konbentzitu nituen bide horretan berriro muturra sartzeak ekar diezagukeen arriskuaz.

Eta nik tea azukrerik gabe hartzen jarraitu nuen.

MARC

Leku berri bakoitzean ezezagun garen epe labur hori da atseginena. (...)

Gainera, ohitura aldaketez gain, berriro ikasi behar nuen aurpegi berriak ingurune berri batean ezagutzen, baita hitz egiteko eta gezurrak esateko era berriak ikasi ere. Nagikeria bizitza bezain indartsua da ia. Azken batean, jokatu beharko dugun antzezpen berriaren arrun-keriaren zamak azpiratuta gaudela, ausardia baino koldarkeria gehiago behar baita bizitzari aurre egiteko orduan. Horixe da erbestea, atzerria, giza denboraren korapiloan buruargitasuna gordetzen den ordu luze eta salbuespenezko horien bitartean bizitza den bezalakoa gupidagabeki behatzea, arestian utzi den herrialdearen ohiturek alde egin eta besteek, berriek, aski sorgortzen ez gaituzten bitarte horretan.

LOUIS-FERDINAND CÉLINE

Gauaren muturrerainoko bidaia

Hotelean oraindik astebetea egin ez zuenerako aurkitu zuen Marcek gordeleku berria izango zuen etxetxo. Erretreta hartu berri zuen irakasle bikotea

zen etxeko jabea. Semearentzat zeukaten gordeta ezkondu berritan beren etxe izandako hori, baina tamalez semea gazterik galdu zuten, droga gaindosi baten ondorioz. Etxea azkar alokatu nahi zutelako eta, ziur aski, bere burua urtebete sabatikoa hartutako irakasle frantses gisa aurkeztu zuen Marcek semea gogorazten zielako, ez zioten eragozpen handirik jarri alokatzeko orduan. Ezta dirutan ordaintzeko nahia azaldu zienean ere. Txekerik edo kreditu txartelik ez izatearren zergatia azaldu zien herdoildutako ingeles baldarrean, baina Marci ez zitzaion iruditu eman zien aitzakiari garrantzi txikiena ere eman ziotenik.

Auzo lasaian dago azpiegitura berria. Estai bakarrekoak edo bikoak dira inguruko etxe gehienak, eta mailadi bana dute sarrerako atera heltzeko. Ate eta leihoak kolore bizi eta anitzez margotuta dituzte. Leihoek ez daukate eguzkitik babesteko hegoaldeko herrialdeetako antzeko leiho-taparik, bai ordea erridau edo sareta modernoak, arratsetan argia piztean kalekoengandik edo auzotar begiluzeengandik babestu nahi izatekotan zabaltzeko. Atzealdean belarditxo bana dute, auzokoagandik bereizteko hesi edota landaresi zainduak bereizita. Batzuek baratze txikia ere badute bertan, baina gehienek plastikozko mahai-aul-

kiak dituzte aro ederra denean lagunekin bertan bazkaldu edo mahai-ostea egiteko; eta haurrak dituztenek, igerileku biribil puzgarriak.

Auzotarrek adeitsu agurtzen dute jadanik, dagoeneko gonbidapen batzuei uko egin behar izan die. Ezin izan die uko egin ordea auzo-lagun duen amonak egin dizkion madalenei. Eta ez zaio damutu, zinez goxoak egiten baititu.

Hirian auto gutxi badabil, auzoan ia batere ez. Hiritar gehienek bizikletaz egiten dituzte joan-etorri premiazkoenak. Marci ondo datorkio, autoa eskuratuz gero garajea alokatu beharko luke-eta, eraikitzen ari den gotorlekuaren murruetan zaindu beharreko zirrikitu berri bat izango litzatekeena. Nahiz eta ez den sekula zalea izan, bigarren eskuko bat erosi du, eta hiri honetan bizikleta gainean txangoak egiteari gustua hartzen ari zaio.

Udazkena hasi berri da. Hosto horailez beteta daude espaloiak dagoeneko. Maite du hostoak ostikoz ibiltzea, txikitan eskolarako zumardian egiten zuen bezala.

Hotz lehorra egiten du goizeko zazpitan etxetik irteten denean. Bufanda sudurreraino igo du, segituan, betaurrekoak lurruntzen hasterakoan ahoa libre

utzi beharko badu ere. Artilezko eskularruak jantzi eta bizikleta airean duela jaitsi ditu ataritik kalera dauden bost mailak.

Marinel jertse urdina, galtza argi batzuk, larruzko berokia, artilezko txano gorria. Goiz den arren badabil jendea batera eta bestera, hodei zuriak ezpainetan, tenperaturak hortz artean izoztutako irribarrez elkar agurtuz.

Astelehenero legez, hiriko bazter-auzune batean aurkitu duen gustuko kafetegiraino joango da gaur ere. Zerbitzariak eta ohiko bezeroek izenez agurtzen dute jadanik.

Erakusleihoaren ondoko mahaietako batera jesar-tzen da hiriko biztanleen harat-honatei beha, kafesne katilu eder bat aurrean eta izkinako okindegian erosi-tako opilak zerbitzariak propio atera dion platertxoan eskura. Berokiaren poltsiko zabaletik bi liburu, hiztegi-txo bat, kaier bat eta tinta beltzeko idazluma atera eta ondoko aulkian utzi ditu. Oraindik apenas ulertzen duen arren egunkaria aztertzen hasi da, kafesnari lehen hurrupa ematearekin batera.

Tabernakoei idazle frantsesa dela esan die, hu-rrengo eleberrirako ikerketa bat egitera iritsia dela hi-

rira. Hala ere, ingelesez gero eta bizkorrago dabil eta bertako hizkuntza ere hasi da ulertzen.

Hasieran, ordura arteko leku guztietan bezala dendaz etengabe aldatzen bazuen ere etxerako eguneko erosketak egiteko, gutxika etxetik ez oso urrun dagoen saltegi batera joateko ohitura hartu du.

Batzuetan, eguneroko txangoa egitera abiatzen denean uzten die erosketa-zerrenda eta itzulerakoan prest izaten du poltsa. Diru pixka baten truke etxera eramatea ere proposatu dio dendarien semeak. Segurtasun arauen mugen ertz-ertzean dabilela badaki Marcek eta, azken horri gehiegizko iritziz, ez du orain artean onartu mutiko ilegorriaren eskaintza.

Pistolarik gabe dabil, arduradunak herrialde horretan ez duela premiarik esan baitzion. Eta horrek beratu izan balu bezala, gertatu zaio noiz edo noiz nortasun agiririk gabe ere irtetea. Eta lehengoan etxeko atea itxi gabe utzi zuen. Azken astean ez ditu diru kontuak egin. Badu denbora hurrengo hilabete amaiera arte ordea, lotura-kidearekin duen lehen hitzordura arte, kontuak ez ezik txosten xehe-xehea ere egiteko.

Bigarren eskukoen denda batean erosi du ordenagailua. Igande batez antzinakoen merkatu batean asper ibilian zebilela idazmakina bat ere erosi zuen,

merke-merke, erabiltzeko moduan dagoen Olivetti bat. Oso aspaldikoa irizten dion beste bizitza batean zeukanaren oso antzekoa. Bere mozorrorako egokia izango dela iritzita baleko gastutzat eman du. Materialaren gastuen atalean apuntatuko du kontuak egiterakoan.

Bizarra luzatzen uzteaz gainera, zigarretak bertan behera utzi eta pipa bat erosi du. Atsegin zaio pipa-tabakoaren usaina. Haurtzaroa ekartzen dio gogora, osaba Xabier, besaulkian eserita, patxadan, whisky kopa bat eskura, ahots lodiz hizketan, ulertzen ez zituena kontuez ari.

Tarteka lotura-hitzordurako data hurbiltzen ari dela ahanzten ez badu ere, Marcek ez du oraindik babilzko iheserako ibilbiderik prestatu. Ezta eskatutako informazio bakar bat ere aurkitu, lehengoan telefonogidan tartetxo batez begira jardun zuen arren.

Gauero, oheratzen denean, esaten dio bere buruari biharamunean hasiko dela serio lanean, ez dagoela bertan bakantzetan. Eta goizero, etxetik irtetean oraindik baduela denbora erantzuten dio bere beste buruak.

Astelehen goiz batez idatzi zuen lehen poema, bere tabernan, hizkuntza berriko hitz beharrezkoenak

eta txostenerako behar zituen informazio eta helbi-deak biltzeko erositako kaiertxoan, oinezkoei begira, lehen elur malutek sorrarazitako hunkidurak bultzatu-ta. Aspaldiko partez aurrenekoa, garai batean, gazte-tan, erruz idazten baitzituen, eta ez poemak bakarrik.

Horregatik, etxera iritsi eta Olivettian garbian idatzi duenean, hitzekin ezerezetik mundu bat eraikitzean sentitzen zuen zirrara ahaztua nabaritu du bere barnean.

Harrezkero gau-beilak idazten ematen ditu, takatka-taka Olivetti zaharrean, tarteka pipatik xurgatzen, tarteka berriro ere erretzen hasi den Camel zigarrretaren bat hautsontzian ahantzita, ke zirimolek gauargiaren inguruan dantza kitzikagarriak egiten dituzten bitartean. Izotzak urtu zaizkion whiskiari hurrupaka.

Sukaldeko egutegi handiari zeharka begiratzen dio noizean behin. Azkenean gorritz markatu du hitzorduaren eguna bertan. Badaki ez lukeela horrelakorik egin behar, baina kezka egin zaio azken aldian darman bizimoduarekin ez ote duen ahantziko.

Handik gutxira ordua idatzi zuen. Eta zalantza egin ondoren, hitzordu lekuaren lehen hizkiak gehitu zituen. Txorakeria handi bat egin ezean hiri horretan

polizien atzaparretan erortzeko arriskurik ez zeukala erabaki ondoren, «txano gorria, nik» eta «ogirik bai? hark gaztelaniaz» ere idatzi zuen egunaren laukitxoaren barnean inurri idazkeraz.

Aurreko aste batean, hiriko alde zaharrean zebilela, erretzekoa eskaini zioten. Hilabete lehenago ez zitzaiokeen burutik pasatu ere egingo legez kanpoko droga erostea, baina ordukoan, aditzen duenaren buru-keiniz baietz esan zion Marcek gazte zarpailari, oso aspalditik zetorkion bulkada bati erantzungo bailion. Bere buruari zertan ari zen galdetzeko beta hartu gabe, belar-poltsatxoa gorde eta biltzeko papera eta tabakoa erostera sartu zen tabako-denda batera.

Geroztik, idazketa-lana amaitzen duenean, lokartu aurretik txirritxo bat egiten du, «lasaitzeko», esaten dio bere buruari. Eta laino goxoen artean lokartzear dagoela, arestian idatzi dituenak aienatzen ari zaizkio- la, promes egiten du biharamunean goiz jaiki eta egin- beharretan serio hasiko dela, iheserako bidea aurre- na, helbideak gero eta informazioak...

Negu giroz esnatu zen goiz hartan hiritik kilometro gutxitara zegoen hondartzara joan zen.

Bizikletaz joateko urrutiegi ez zegoen arren, garrario publikoa baliatuz bertaratzea hobetsi zuen, aroaren beldur.

Hondartza ia hutsik zegoen, zakurra paseatzera bertaratutako batzuk, *footingean* zebiltzan kirolzale ausart batzuk, besterik ez.

Azkenik ari zen, arazoren bat izatekotan, hiritik alde egiteko segurtasun ibilbidea antolatzen. Eta ondoren, eskatu zizkieten informazioak ere biltzen hasiko zen ganoraz. Bere idazketa lanean aurreratu izanak emandako pozaren uberan ekin zion zereginari, erruaren zama arintze aldera. Ezingo zion inork egotzi bere zeregina bazter utzi izana. Denbora librean idazteak nori egiten dio kalte?, esaten zion bere buruari.

Kaiertxoan apuntatu zuen hiritik zenbat denbora behar zen hondartzaraino. Tranbiaren ordutegien esku-orria ere hartu zuen, etxean lasaiago aztertzeko.

Hondartza luzearen beste muturretik ibilbide zirauntsua egiten zuen autobus bat abiatzen zela jakin-

da joan zen haraino. Geltoki batetik besterako denbora neurtu behar zuen.

Oinetakoak kendu, galtza-tolesak bildu eta ibilaldiari ekin zionean jarri zuen martxan kronometroa.

Gutxi gorabehera ibilaldiaren erdian ikusi zuen Elizabeth. Oraindik ez zekien horrela deitzen zenik, noski.

Erauntsi batek txanoa kendu zionean, neguko haize hotzak bilo horiak dantzarazi zizkion. Marinel jertse marra urdin-zuriduna zeraman euritako horiaren azpian, galtza zuriak, artile kolore anitzeko poltsa sorbaldatik bularraldearen trabesean zintzilik. Oinutsik zegoen emakumea, larru argizko bota laburrak hondarrean utziak zituen, bere alboan.

Itsasoari begira zegoen, hasi berri zen euriaren tantei arduragabe, begiak itxita, aho irekiarekin kresala arnastuz, bi besoak zabaldua, esku ahurrak olatuena aldera.

Marc bere ondora iristear zela hasi zen emakumea biluzten. Euritakoa kendu zuen aurrena eta oinetakoen gainean paratu zuen, iruntzietara; ondoren, artilezko poltsa kendu eta euritakoaren gainean utzi zuen. Galtzak kentzean, emakumearen hanka luze zuriak eta kulero beltzak gelditu ziren agerian. Galtzak txu-

kun tolestu eta arropekin osatutako muinoa handitu zuen.

Pausoa laburtu zuen Marcek. Ezinezkoa zitzaion ezikusiarena egitea.

Artilezko jertsearen azpian kuleroen osagai ziren bularretakoak zeramatzan Elizabethhek. Jertsea tolestu eta arropa pilora gehitu ostean, belarritako eta eraztunak kendu zituen ezkerreko oinetakoaren sakonean gordetzeko, artilezko poltsaren antzeko kolore aniztun galtzerdi baten babesean. Bularretakoa eta kuleroak kenduta, biluzik, jantzi guztiak euritakoaren barruan babestu zituen.

Bere parean zutik zegoen Marc ordurako.

Emakumearen bular ederrak eta hankarteko bilo horiari baino jaramonik egiten ez zionaren begietan kateatuta zuen begirada. Zer gertatzen ari zen pentsatzeko ahaleginak eta bi egiten ari zen arren, ez zen gai erabakirik hartzeko. Aurrera jarraitu behar al zuen emakumeak egin zezakeenari jaramonik egin gabe edo buru-hiltze saio baten antza hartzen ari zitzaion hori ekiditen saiatu behar zuen? Bere baldintzetan horrelako egoera batean korapilatzea ez litzateke bate-re egokia, ezin zuen ez lekuko ez salbatzaile izan,

baina are gutxiago, pentsatu zuen, arriskuan dagoe-nari laguntza ukatu izanaren errudun.

Ezker-eskuin begiratu zuen. Ezin jakin laguntza bila, gerta zitekeenaren aurrean izango zuen jokabi-dearen lekukorik ote zegoen ikusteko edo emakumea-ren biluztasuna bera bezalako beste voyeurren baten bazka ote zen jakiteko.

Bitartean, inguruan zuenari soraio, itsasbazterre-rantz abiatu zen emakumea. Ez zirudien hotzik zuenik, haizeak euri oso freskoa zerabilen arren.

Itsaso zakarrak olatu gaiztoak bazter-bazterrean jaio eta ber-bertan brastako gogor batez hiltzen zituen, hondar zurrumbilo artean.

Bat-batean gelditu egin zen emakumea, Marcen presentziarekin orduantxe ohartuta-edo.

Irribarre goxoa egin zion gizonari eta, eskuarekin keinu eginez, bertakoen hizkuntzan, «Hator!», gonbi-datu zuen.

Hor zeuden biak, ortzi berunezkoaren pean itsaso ilun farfaildunaren aurrean, bolizko emakume biluzia bilo horiak haizearen jostailu, harea arrea, portutik ontzi erraldoi bat irteten eta urrunean petrolio-ontzi nanoa, eta bera, gizon arrotza.

Emakumearen ondoan egin zuen Marcek bere arrokekin muinoa, erabaki irmoa hartzeak ematen duen patxadaz eta etorkizun ezezagunari aurre egiten dionaren artegatasunez, bere kautan pistola gabe ibiltzeko aholkuari jarraitzea eskertuz. Hondartza hartaraino eraman zuen zeregina erabat ahantzirik.

Eskutik helduta, korrika txikian abiatu ziren biak bazterreraino, olatu bortitzen artean egin zuten must.

Itsasoaren zafraldiek eskuak askatzera behartu zituen behin eta berriro, eta aldi bakoitzean irri eta oihu artean temati bilatu eta lotu zituzten.

Noiztik ez zuen Marcek halako askatasunez barre eta garrasi egin!

Gorputza hondarrez zikinduta atera ziren uretatik.

Arropak utzi lekuraino iritsi zirenerako gorputzak lehortu zizkien haizeak. Bere zakil-koskabiloen tamainaz lotsatuta erantzi zituen baino azkarrago jantzi zituen galtzontziloak Marcek, emakumearen irribarreari erreparatu gabe.

- Elizabeth naiz.
- Marc.
- Nongoa zara, Marc?
- Euskalduna naiz.

Marcen ohe aurrean erantztean astindu zituzten gorputzera itsatsitako hondar-ale lehortuak. Elkarren larruazalaren gatza miazkatu zuten eta betidanik elkar ezagutu izan balute bezala egin zuten larrutan. Marcen zakila Elizabethen aluan desegin zen une hartatik aurrera jakin zuten ezinezkoa egingo zitzaiela elkarrengandik bereiz bititzea.

3

Lotura-hitzorduaren eguna iritsi bezperan Marcek ez zuen agindutako zeregin bakar bat ere burutua.

Elizabeth eta biak elkarrekin bizi ziren. «Irakasle frantsesaren neska-laguna» zen batzuentzat, «Idazle frantsesaren neska-laguna» beste batzuentzat.

Itsaskiak, ostrak eta izkirak, eta ardo zuri gozo bat edan zuten sarrera gisa. Arkumea erre zuten labean, saltegi handi batean aurkitutako Errioxako ardo batez lagunduta jan zutena. Txokolatezko pastela. Kafea. Xanpaina ere bai, topa egiteko.

Dantza egin zuten Tom Waitsekin eta Wim Mertensekin.

Txirria erre eta larrutan egin ostean, biharamu-
nean lotura-kideari zer arraio esan behar zion pentsa-
tzen egon zen Marc. Arau guztiak popatik hartzera bi-
daltzeaz gain -Elizabethi bere benetako izena eta zer-
tara joana zen hiri hartara ere esana zizkion ordura-
ko-, ez zuen agindutakoa bete.

Bere kontzientzia garun-lainoetan desagertu au-
rretik, egia osoa aitortuko ziela deliberatu zuen. Baita
ere Elizabeth eta biek erabakita zutela haurdun gera-
tuz gero, eta gerta ez zedin inolako neurririk hartzen
ez zutenez gertatzeko aukera bazegoen, haurra gor-
deko zutela. Ez zien esango, Elizabethi ere ez zion
esan, jadanik zer izen jarriko zion hausnartzen hasia
zela.

Kopetan eta betazaletan musu eman zion bere al-
boan lo sakonean zegoen emakume maiteari, berak
ere begiak itxi aurretik.

Marcek gelako txoko batean zuen antolatua idaz-
teko txokoa.

Olivettian orri bat. Ondoan, whiskiz hustutako eda-
lontzia, hautsontzia zigarrokinez gainezka eta orri
mordo bat, txukun-txukun.

Goizaldeko lehen orduetan danbateko batez ireki
zen apartamentuko atea. Burua higitzerako mozorro-

dun baten arma luzeak destatzen zion kopeta. Ahuspez, sudurra zurezko zoruaren kontra buruan jarri zioten botatzarraz zanpatuta, eskuburdinak jartzen zizkioten bitartean, Elizabethen amorru oihuak entzun zituen. Zeharka begiratzeko indar eginda, poliziaburua bere idazmahaira hurbiltzen ikusi zuen.

Kalekoz jantzita besoko laranja argi bat zeraman berrogeitaka urteko gizon segailak eskulategiak jantzi eta idazmakinan sartuta zegoen orria atera zuen. Paragrafo gutxi batzuek baino ez zuten betetzen orriaren goialdea eta ondoren letra larriz «AMAIERA» eta data: «A.n 1991ko urtarrilaren 20an». «315» zenbakia zuen orriak behe eta erdialdean kokatuta.

Artean, Polizia zientifikokoak hasiak ziren hautson-tzia eta bere edukia poltsatxo berezietan bildu eta etiketatu, poltsa etiketadun berezietan sartutako apartamentuko beste hainbat arropa, aldizkari, liburu eta musika-kaseterekin batera ikertzeko.

Polizia bat sukaldeko egutegi handira hurbildu zen eta egun horri zegokion laukitxoan idazkunak zeudela ikusita, oraindik idazmakinarean alboan zegoen poliziaburuari deitu zion, urduritasun eta garaipen nahasketa ahotsean.

Kideak erakutsi nahi ziona ikustera abiatu aurretik eskuetan hartu zuen orri-mordoa operatiboko buruak. Muturra okertuz eta mihia hortzen kontra igurtziz zailtasunez irakurri zuen hizki larriz idatzita zegoen izenburua: «ATZERRI».

Atzerrian, 2012ko abuztuaren 3an

Eskerrak liburu honen osaketan aldez edo moldez lagundu
didatenei, bereziki:

Josebari,
Josuri, Enekorri, Iñakiri, Xabierri, Joxemiri
Ruperri, Imanoli,
Faustini, Joxe Ramoni,
Rafa eta Maite gurasoei,
Juanrari, Bixeni, Gemari, Iñakiri, Josuri, Imanoli, Josuri, Gemari,
Imanoli, Juankarri,
Anari, Elenari,
Piarresi,
Pablori,
Iñakiri, Inmari, Nikori, Joni, Luis Armandori, Maiteri, Jokini, Maitaneri,
errefuxiatuen batzordekoei,
Joxeri, Txabiri, Tenteri, Mariani, Hintxori, Aitorri,
errefuxiatuen laguntza batzordekoei,
Mireillari, Odileri, Brunori,
Joanari,
Xanpierri, Karmelori,

Ane, Leire eta Haritz anai-arrebei,

Sylvieri,

Fermini,

Heleni, Rose-Marieri,

Saint-Sulpiceko Tabac-eko zerbitzariari,

Marie-Luceri,

Surcouf eta Kortatu katuen jabeei

Sylvieri,

Iñakixori, Joxemariri, Virginiari, Bixenteri, Ramontxori, Lourdesi

Peterri, Ismaili, Pauli, Raymondi, Ibani, Jeani, Jokini, Louis-Ferdinandi,

Koldori,

Kortaturi, Berurier Noiri, Ludwig von 88ri, Bobi, Leonardi, Willieri,

Pixiesi, Igorri, Anariri, Obrint Pasi

Lyon-Corbaceko euskal preso politikoei,

Jean-Marci eta Thyderi

Urkori,

Josebari,

Cleori, Ambreri,

Micheli

atzoko eta gaurko euskal gudariei,

izenez gogoratu ez arren bihotzean ditudanei,

izenez gogoratu arren ezin aipa ditzakedan bihotzean ditudanei,

berrito Josuri eta Xabierri,

Iratiri, Mikeli, Iñigori, Gorkari,

Maixoli, Peruri

eta

isiltasunari.